

Euskal Curriculumuma Herritarren Ekarpena

Aurkibidea

1. HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN	2
1.1 Hezkuntzaren instituzionalizazioa	2, 3, 4, 5, 6
1.2 Hezkuntza sistema arrotzen inposaketa	7, 8, 9, 10, 11
1.3 Euskal Herriko hezkuntza eskubideak	12, 13, 14, 15, 16
1.4 Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzen	17, 18, 19, 20
2. EUSKAL CURRICULUMA	21
2.1 Curriculumuma	21, 22, 23, 24
2.2 Curriculumumak Euskal Herrian	25, 26, 27
2.3 Euskal Curriculumuma sortzeko prozesua	28, 29, 30, 31, 32
2.4 Euskal Curriculumumaren aplikazioari begira	33, 34, 35
3. HERRITARREN EKARPENEA EUSKAL CURRICULUMARI	36
3.1 Herritarrak, Herri eragileak eta Hezkuntza	36
3.2 Herritarren Ekarpena. Helburuak eta Metodologia.	37, 38
3.3 Herri eragileak eta hezkuntza. Diagnostikoa.	39, 40, 41, 42
3.4 Herritarren ekarpenak Euskal Curriculumari	43, 44, 45, 46

Gehigarriak

- 1. Gurutze Ezkurdia**
- 2. Abel Ariznabarreta**
- 3. Joxe Mari Auzmendi**
- 4. Idoia Fernandez**
- 5. Ikaileen Ekarpena**
- 6. HUHEZI**
- 7. Euskal dimentsioaren azterketa, Eusko Jaurlaritza**



1. HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN

1.1 Hezkuntzaren instituzionalizazioa

Hezkuntza, normalean, eskolarekin loturik irudikatzen dugun kontzeptua da, baina berez hori baino askoz esanahi zabalagoa dauka. Izan ere, “Eskola”, “Unibertsitatea” edota “Hezkuntza-sistema” asmakuntza nahiko berriak dira gure espeziearen historian. Euskal Herrian, esaterako, lehenengo unibertsitatea 1540an sortu zen eta derrigorrezko eskolaldia XVIII. mendearen amaieran ezarri zen lehenengo aldiz euskal lurralde batean. Hortaz, kontutan hartu behar dugu duela oso denbora gutxi arte euskal haur eta gazte gehienak ez direla eskolaren bidez hezitu, bestela baizik. Alta, eskola eta unibertsitatea hedatuz eta beren eragin-maila areagotuz joan da denborarekin, egun ezagutzen dugun egoerara iritsi arte, non funtsezko instituzio sozialetan bilakatu diren. Gehiegi ez luzatzearen, prozesu historiko horren lau une aipatuko dugu.

1- “Berezko” hezkuntza

Estatu-egiturak sortu aurreko jendarteetan, hezkuntza prozesua *berez* garatzen zen, sendian eta komunitatean. Honek ez du esan nahi hezkuntza prozesua araututa ez zegoenik, aitzitik, kode sozial jakin batzuen bidez ematen zen. Esan nahi duguna da ez zegoela hezkuntza funtzioa garatzeko asmoz antolatutako egituraketa berezirik. Nagusiek egunez egun eskainitako ereduetatik ikasten zuten neska-mutikoei ikasi beharreko guztia: arau sozialak, etxeko lanak, lana, ohiturak, adierazpen kulturalak e.a. Hori bai, neska edo mutikoa izan, “ikasi beharrekoa” aldatu egiten zen.

Euskal Herriaren kasuan, aurrehistoriatik Erdi Aroa bitartean doan epealdi luzeaz ari gara hitz egiten (milaka urte, beraz). Garai hartako euskaldun ia guztiak euskaraz bizi ziren eta ondorioz euskaraz hazi eta hezi egiten ziren. Modu horretan, euskara belaunaldiz belaunaldi igorri zen, berezko hezkuntza mekanismoen bidez.



2- Lehenengo eskolak eta unibertsitateak

Estatu-egituren sorrerarekin, Elizaren garapenarekin eta mailaketa sozialarekin, hezkuntza prozesua ere arautzen hasi zen Europan. Eskola instituzioa ezaguna zen Europan greziarren eta erromatarren garaietatik, baina Erdi Aroan eta bereziki Aro Berrian (XV. eta XVIII. mendeen artean) kontinente osoan hasi zen zabaltzen. “Eskolak” eta “Unibertsitateak” agertu ziren, baina nagusiki goi eta erdi mailako klaseen semeak (gizonezkoak baitziren normalean) prestatzeari begira: nobleak, elizgizonak, merkatariak, nekazari aberatsak, administrazioan lan egingo zutenak. Herritar gehienek “helduak” izaten eguneroko bizitzan ikasten jarraitu zuten, familian, lanean eta herrian.

Euskal Herriaren kasuan, Erdi Aroko lehenengo eskolak Elizaren eskutik sortu ziren. Aro Berrian euskal siderurgia eta merkataritza hazi ziren heinean, idatzizko dokumentazioa ere hazi egin zen. Era berean, alfabetatua izatea ezinbestekoa zen Ameriketako edo penintsulako burokrazioaren nahiz Elizaren hainbat kargutan sarbidea izateko. Arrazoi hauek direla medio, euskal administrazioek (udaletxe nahiz aldundiek) oinarritzko irakaskuntza bultzatzen hasi ziren. Nola negozioen hala burokraziaren hizkuntza gaztelera eta

frantsesa zenez¹, bi hizkuntza horietan ematen ziren eskolak eta ondorioz alfabetatu ziren euskaldunak gaztelera edo frantsesaz egin zuten. Bestalde, eskola-mailan ez bezala, unibertsitateari dagokionez Euskal Herria atzean geratu zen Europako beste herrialde batzuekin alderatuta. Ondorioz, euskal eliteek Gaztela edo Frantziako unibertsitateetara jotzen zuten.

3- Hezkuntza-sistema zentralen sorrera

Estatu-nazio modernoaren sorrera eta ezarpenarekin batera, XVIII. eta batez ere XIX. mendean, hezkuntza sistemak eratu eta derrigorrezko eskolaldia ezarri zen, hasieran adin tarte murrizt bateko haurrentzat, baina gerora adin tarte gero eta zabalagoentzat. Jakina denez, eskola herritar guztiei zabaltzea herri sektoreen aldarrikapen historikoa izan da, goi-klaseek ezagutzaren gainean zuten monopolioa hautsi asmoz. Alabaina, estatu-nazio sortu berrien kudeatzaileak hezkuntza sistema modernoak egituratu eta orokortzen hasi zirenean, bestelako xede batzuk zituzten buruan: batetik, herritar guztiengan estatuaren hizkuntza, kultura eta ideologia errotzea; bestetik, estatu liberalaren eta administrazio modernoaren garapenak eskatzen zuen herritar minimoki alfabetatua hezitzea; eta azkenik, industrializazio prozesuak behar zuen lan eskua sortzea, makina eta teknika berriak ikasteko gaitasuna izango zuena. Alta, oinarritzko irakaskuntza herritar guztiei zabaldu bazitzaie ere, ez zen berdina gertatu erdi eta goi mailako irakaskuntzarekin. Unibertsitateera joateak dirudunen eta gizonezkoen pribilegioa izaten jarraitu zuen.

Euskal Herrian, 1780an Nafarroako Gortek 5 eta 12 urte bitarteko neska-mutilen derrigorrezko eskolaldia ezarri zuten (neskei ere ireki zitzaie alfabetatzeko aukera, baina hori bai, “emakumezkoen berezko egitekoetan” hezitzeko asmoz). Espainiako Estatuak 1857an ezarri zuen derrigorrezko eskolaldia lehen aldiz, 6 eta 9 urte bitartean, kasu honetan ere emakumezkoak “berezko trebetasun” horiek ikastera kondenatuz².

¹ Esate baterako, 1571. urtean Gipuzkoako Batzar Orokorrek alkateak gaztelera alfabetatuak izan behar dutela arautu zuten.

3.1- Erdi eta goi-irakaskuntzaren orokortzea

XX. mendean aurrera egin ahala, langileen seme-alabetako batzuk batxilergoan eta unibertsitate publikoetan sartzen hasi ziren. Langileriaren borrokak eta bere bizibaldintzen hobekuntzak nahiz II. Mundu gerraren ostean Europan ezarri zen “Ongizatearen Estatuak” sarrera hori ahalbidetu zuten aldagaiak izan ziren. Hala ere, langileak nekez hel zitezkeen unibertsitate pribatuetara, karrera jakin batzuetara eta hirugarren graduiko ikasketetara (masterrak, graduondokoak). Bestalde, nabarmendu beharra dago emakumezkoak hezkuntza maila guztietan parte hartzen hasi zirela, gizonezkoen eskolatzetara mailara arte iritsi eta gainditu arte. Ikastetxe gehienak, garai batean neskenak edo mutilenak zirenak, mistoak bilakatu ziren. Hori bai, ikasketa jakin batzuk “gizonenak” izaten jarraitu zuten (ingenieritzak, arkitektura, lanbide heziketan mekanika e.a.), eta beste batzuk emakumeenak (erizaintza, lanbide heziketan administrazioa). Halere, langileek eta emakumeek goi mailako hezkuntza jasotzeko aukera izatea lortu bada ere, hainbat autoreren iritziz egungo hezkuntza antolaketak klase eta genero bereizketa elikatzen jarraitzen du.

Euskal Herriari dagokionez, eskolatzetara tasa asko handitu da azken hamarkadetan. Horren erakusgarri, honako datu hau: herritarrek, zenbat eta helduago, orduan eta ikasketa maila txikiagoa dute. Esaterako, Gipuzkoan, inolako titulaziorik ez dutenek talde garrantzitsua osatzen dute 75 urtetik gorako herritarren artean (%26,1 gizonezkoen artean eta %32,1 emakumezkoen artean); beste muturrera joz, 25-34 urte bitarteko gipuzkoarren artean %1,0 besterik ez dira titulaziorik gabekoak.

Bestalde, unibertsitateari dagokionez, azken hamarkadetan arindu egin da Euskal Herrian historikoki egondako arazoa, alegia, eskaintza unibertsitarioaren azpigarapena. 1969 bezalako data berantiarrean ere mantendu egiten zen egoera hori, izan ere, bi unibertsitate pribatu-erlijiosoz aparte (Jesuitek lehenengo eta Opus Dei elkarte ultrakontserbadoreak geroago sortutakoak), ez baitzegoen Euskal Herrian lekututako unibertsitaterik, Euskal Herriaz kanpoko barrutien baitan kokatutako fakultate bakan batzuk baizik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, Logroño eta Burgosekin batera, Valladolideko barrutiaren barruan zeuden (1969an Bizkaiko barrutia sortu zen); Nafarroak, aldiz, Zaragozako barrutia osatzen zuen Aragoirekin batera. Ondorioz, euskal gazte gehienek kanpora jo behar zuten unibertsitate karrera bat egin ahal izateko. Era honetan, unibertsitate egitura propioa izatea eragotziz, intelektualitate nazionala eta pentsamendu autonomoa sortzea eragotzi nahi zuen erregimen frankistak. Azken hamarkadetan Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoan hiru unibertsitate berri sortu (UPNA/NUP, UPV/EHU eta Mondragon Unibertsitatea) eta fakultate ugari zabaldu badira ere, ez da berdina gertatu gainontzeko hiru herrialdeei dagokionean. Bertako egoera 1969koaren antzekoa da: Pabeko Unibertsitatearen menpe dauden fakultate bakan batzuk daude Baionan.



4- Egungo egoera

Prozesu historiko honen ondorioz, hezkuntza prozesua instituzionalizatu egin da, estatuak finkatutako arauen arabera egin ere. Hau da, aintzina nagusiki “berezko” prozesu bat zena, nagusiki estatuak araututako prozesuan bilakatu da; herritar guztiek behintzat 10 urtez igaro beharreko prozesua, gainera. Era honetan, Euskal Herriaren kasuan eskola derrigorrezkoa da 6 eta 15 urte bitarteko (Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan) edo 16 urte bitarteko (gainontzeko lau herrialdeetan) haur guzti-guztientzat. Baina gainera, gehienek beren ikasketak derrigorrezko epealdi horretatik aurrera luzatu egiten dituzte: 15 eta 24 urte bitarteko euskal gazteen %59,1 ikasten dihardu. Euskal Herriak duen gazteen eskolatzeko tasa, Europako Batasuneko batez bestekoa baino handiagoa ez ezik, munduko handienetakoa ere bada.

Hala ere, hezkuntza-sistemaren eragina handia bada ere, eskolaz kanpoko hezkuntza jardueraren pisua mantendu egin da. Ikasgelan ikasten denaren bezainbesteko garrantzia dauka eskolako patioan, auzoko kaleetan, etxean edota komunikabideen bidez ikasten dena. Nola ulertu, bestela, geure hezkuntza sistema propioa antolatzeak aukera ukatu arren, Euskal Herria bere buruaren kontzientzia duen eta burujabetza aldarrikatzen duen nazio bezala XXI. mendera arte heldu izana? Nola ulertu eskola frankistan hezitutako belaunaldiaren gehiengo soziologikoa abertzale atera izana?

Etorkizunean ere bi eremu horiek hartu behar ditugu aintzat: batetik, eskolaren baitan ematen den hezkuntza eta bestetik eskolatik kanpo jasotzen dena. Kontutan hartu behar dugu, egun, Euskal Herriko haur batek ordu kopuru antzekoa ematen duela telebistaren aurrean eta ikasgelan, eta beste horrenbeste familian edota lagunartean. Eta kontutan hartu behar dugu, halaber, hezkuntza prozesua ez dela amaitzen eskola-garaiarekin batera; aitzitik, bizitzan etengabe ari gara gauza berriak aurkitzen eta gauza berriak ikasten.



Ikasleak Euskal Herrian (2004/2005 ikasturtea)

Epealdia	Adin tartea	Ikasle kopurua
Lehen Mailako Hezkuntza	11 edo 12 urte bitartean	249.015
Bigarren Mailako Hezkuntza I	11-15 edo 12-16 adin tartearak	104.334
Bigarren Mailako Hezkuntza II	15-18 edo 16-18 adin tartearak	84.353
Hirugarren Mailako Hezkuntza	18 urtetik aurrera	82.282
OSOTARA		

Oinarritzko datu batzuk:

- Ikasle gehien, gazteen artean daude: 15-19 urte bitarteko hamar lagunetik ia bederatzia (%85,4) ikasten ari dira, 20-24 bitartekoen %39,5 eta 25-29 bitartekoen %8,3.
- 15-24 urteko gazteen artean gehiago dira ikasleak Lapurdin (%66,5), Zuberoan (%62,1) eta Bizkaian (%61,2). Gutxien, berriz, Araban (%56,6) eta Nafarroa Garaian (%53,6).
- Datuak Hegoaldeko lau euskal herrialdeetakoekin zuzenean alderagarriak ez diren arren, badirudi Lapurdiko herritarrak direla Euskal Herri osoan ikasketa mailarik handiena dutenak.
- Duela urte batzuk arte, emakumezkoak sarbide gutxiago izan dute irakaskuntzan gizonezkoak baino. Gaur egun, ordea, titulazio maila altuagoak izan ohi dituzte, belaunaldi gazteen artean batik bat.
- Euskal Herrian gizonezkoak baino emakumezko gehiago ari dira ikasten: 116.114 gizonezko eta 135.878 emakumezko. Adin tarte guztietan euskal ikasleen gehiengoa emakumeak dira.

AZTIKER eta UDALBILTZA (2006): Euskal Herria datuen talaiatik. Txalaparta.



1.2 Hezkuntza sistema arrotzen inposaketa

Aipatu bezala, hezkuntza prozesua instituzionalizatuz joan da Estatuaren aldetik, bereziki XIX. eta XX. mendeetan zehar, gaur egun ezagutzen ditugun hezkuntza sistemak egituratu arte. Euskal Herriari estatu egitura propioa izatea ukatu eta Espainia nahiz Frantziakoa inposatu zaiolarik, instituzionalizazio prozesu hori bi estatu horien eskutik etorri da. Frantziak 1806. urtean hasi zen finkatzen, Napoleonen gidaritzapean, hezkuntza-sistema estatal zentralizatua. Herritar guztientzako oinarrizko irakaskuntza arautu zuen Iraultzaren osteko frantses Estatuak, funtzeko hiru irizpidetan oinarriturik: elebakartasun nazionala (frantsesa, noski); irakasleriaren kontrola estatuaren aldetik; eta curriculum bateratua, zeinean konstituzioaren eta herritarren betebeharren irakaskuntza ezartzen zen. Espainiako Estatuak, aldiz, 1857. urtean egin zuen ariketa bera, Moyano legearen bidez. Lege horren arabera, ordura arte udalek eta foru aldundiek eskola publikoak arautzeko zuten eskumenak gobernu espainiarraren eskutara igaro behar zuen eta irakasleak izendatzeko ardura ere gobernu hari zegokion. Hegoaldeko foru aldundiak tira-biran aritu ziren Madrilekin, aipatutako neurriek foruak urratzen zituztelako, baina Madrilen borondatea inposatu zen.

Oinarrizko irakaskuntza arrotzaren inposaketa

Aurretik ere Euskal Herriko udalerriek nahiz Elizak kudeatzen zituzten eskolek izaera desnazionalizatzailea izan bazuten (gogora dezagun, ildo honetan, XVII. mendeko maisuen kontratuetan euskaraz mintzatzen ziren ikasleentzako zigorrak aurreikusten zituztela udalek), bi hezkuntza-sistema zentralizatuen sorrerak desnazionalizazio prozesu hori orokortu eta areagotu egin zuen. Handik aurrera, euskal ikasle guztiek eskolara joan behar izan zuten derrigorrez, beraiena ez zen hizkuntza batean alfabetatu eta beraiena ez zen kultur ikuspegi batean heitzeko asmoz.

Hezkuntza sistemak estatuaren hizkuntza eta kultura azken herrixkaraino eramateko tresna ziren. Beren helburua Frantzia eta Espainiaren mugen barruan geratutako biztanleak, askotariko hizkuntza eta kulturadunak berauek, frantses eta espainiar herritar bilakatzea zen. “*Gure eskolek Euskal Herrian duten helburu nagusia euskararen ordeztasuna ezartzea da*”. Halaxe onartu zen 1846ko frantses agiri batean². Estatu bakar bat, merkatu bakar bat, kultura bakar bat, hizkuntza bakar bat. Horra hor estatu-nazio modernoaren planifikatzaileen formula. Eta formula horretan ez zegoen lekurik Estatuarena ez zen beste hizkuntza eta kulturentzat, ezta hizkuntza eta kultura horietan oinarritu zitekeen bestelako herri egitasmoentzat ere, noski.

Inposaketa hau zibilizazioaren eta aurrerakuntzaren diskurtsoaz mozorratu zuten. Zientzia eta kultura modernoa bi hezkuntza-sistema eta oro har bi estatu horien eskutik zetorrenez, gaztelera eta frantsesa eskola, kultura eta zientzia hizkuntzatzat aldarrikatu zituzten; eta euskara, hizkuntza atzeratu, inkulto, ezgaitzat. Frantses iraultzaileek argi eta garbi adierazi zuten ideia hau *Barrère* txostenean (1794): “*Fanatismoak euskaraz hitz egiten du*”.

² Aip. J.M. Torrealdei (1998): *El libro negro del euskera*, Donostia: Ttartalo.



Inposaketa prozesu honen kontrako kritikak egon ziren. Adibide bat jartzearren, Arturo Campion nafarrak “*gaztelerazko irakaskuntzak herriaren euskara gabetzea*” zekarrela baieztatu eta irakaskuntza euskararen bizi iraupenaren etsairik handiena zela salatu zuen. Era berean, badirudi hainbat eta hainbat irakaslek erdaraz irakasteko aginduari muzin egiten jarraitu ziotela. Izan ere, hezkuntza-sistema zentralizatua ezarri eta hamarkada batzuetara, XIX. mendearen erdialdean, frantses ikuskatzaileek Euskal Herriko hainbat herrietako gazteek frantsesa ez zekitela salatzen zuten. Era berean, Espainiako Moyano legea onartu eta 50 urtetara, 1902an, gaztelera ez zen beste hizkuntza batean eskolak ematen zituzten maisuen kontrako zigorrak arautzen zituen erret dekretua atera zen; 1924ko beste agindu batek maisuei gazteleraz erakusteko eta ikuskatzaileei araua betearazteko obligazioa gogoratzen zien eta 1926ko dekretuak zigorrak arautzen zituen: kargutik kentzea, lekualdaketak e.a. Behin eta berriz hezkuntza eredu arrotza praktikan jartzen zela bermatzeko arauak eta aginduak eman behar izateak argi erakusten du eredu horrekiko erresistentzia egon bazegoela. Areago eta gehiago, eskola eredu propioa sortzeko saiakerak ere egon ziren: Bizkaiko auzo eskolak mende hasieran, Euzko Ikastola Batza 30. hamarkadan...

Frankismoak (1939-1975) eskola eredu arrotzaren inposaketa muturrera eraman zuen. Espainiaren asmo kolonizatzailea esplizituki xedatu zen hezkuntza programetan, inongo apaingarririk gabe. Euskara eta euskal kulturaren adierazpideak debekatuak izan ziren. Erdal eskola erregimenaren ikuspegi kulturala, soziala eta politikoa zabaltzeko tresna zen. Eta hala ere, egoera latz hartan ere, erresistentzia egon zen, 40. hamarkadan euskaraz irakasten zuten etxe-eskola apur horiek horren erakusgarri. Eta 60. hamarkadan hezkuntza komunitatea eta oro har euskal jendartea erresistentziaz erasoaldira igaro zen, eskualdez eskualde ikastolak sortuz.



Espainiako estatuak Francoren heriotzaren ostean diseinatutako esparru politiko berrian neurtutako deszentralizazio bat planteatu zen, baina hezkuntza sistemaren batasuna bermatuz. Era honetan, “Euskal Autonomia Erkidegoa” eta “Nafarroako Foru Erkidegoa” egitura autonomiko jaio berriek ustez hezkuntza eskumen osoak eskuratu bazituzten ere, hezkuntzaren ildo estrategikoak Espainiako Hezkuntza Ministerioak finkatzen jarraitu zituen lege organikoen bidez.

Ikastolen garapen ikusgarriak (64-65 ikasturtean, 596 ikasle ari ziren ikastoletan; 81-82 ikasturtean, berriz, 69.935) zirrikituak sortu zituen ordura arte Frantziako eta Espainiako estatuen hezkuntza politika historikoa. Era honetan, Espainiakoak euskarazko

irakaskuntza onartzea eta arautzea beste erremediorik ez zuen izan (Frantziakoak, aldiz, ez ditu ikastolak ofizialki aitortu, 1994. urtera arte, sortu eta 25 urtetara, eta sare publikoan euskarazko ikastetxeak sortzeko aukera ukatzen jarraitzen du). Bestalde, ikastetxe publikoen titularitatea EAEko eta Nafarroako gobernuen eskuetara igaro zen eta ikastetxe horietan ere euskarazko irakaskuntza sartzeko eta garatzeko eskaria hedatu zen. Udalerri batzuetan, Iruñekoan kasu, herritarrek udal ikastolak irekitzea eskatu eta lortu zuten. Herri mugimenduaren garaiko aspirazioak, bai ikastolekin engaiaturik zeuden herritarrentzat, baita eskola publikoan aurreko ereduarekiko apurketa bilatzen zuten sektoreentzat, Euskal Eskola Publikoa aldarrian laburbiltzen ziren, alegia, Euskal Herriko eskola propioa aldarrikatzen zen.

Administrazio autonomiko jaio berriek euskararen sarbidea arautzeko lege eta dekretuak burutu zituzten³. Baina, ikasle guztiei euskararen ezagutza bermatu ordez, ikasleria hizkuntza ereduen arabera bereiztu zuten: G eredia (gaztelera, euskara irakasgairik gabe; eredu hau Nafarroan besterik ez dago); X eredia (frantses edo ingeles eskolak baimentzeko erabilia EAEn, G ereduak bezalaxe euskarazko irakasgairik ez duena); A eredia (gaztelera, euskara irakasgaiarekin); B eredia (irakasgai batzuk gaztelera eta beste batzuk euskaraz) eta D eredia (euskaraz, gaztelera irakasgaiarekin). Orduz geroztik indarrean dagoen hizkuntza ereduen politika hori euskararen aurkako diskriminazioan oinarritzen da. Izan ere, aipatu ereduetan ikasten duten ikasleak, ikasketak amaitzerakoan, gaztelera menperatzera ailegatzen dira arazorik gabe; euskararen ezagutza egokia, aldiz, D eredukoek baino ez dute lortzen, eta hori, kasurik onenean⁴. Eredu hau zen, hain zuzen ere, guztietan ahulena: 82-83 ikasturtean lehen hezkuntzako ikasleen %12,8k baino ez zuen ikasten bertan⁵. Ez Nafarroako hezkuntza administrazioak, ezta EAEkoak ere, ez zituzten beharrezko baliabideak jarri hezkuntza esparruaren euskalduntze eraginkorra bermatzeko. Okerragoa dena, lehenengoak oztopo berria jarri zion euskarazko irakaskuntzaren garapenari 1986an, Euskararen edo Vasconce-ren Legea, zeina Nafarroako Erriberan eta Erdialdean D eredia debekatzeko tresnatzat erabili baitzuen. Hala ere, urteroko matrikulazio kanpainetan gurasoen gehiengoak eginiko hautuari esker, D eredia etengabe gora joan da azken bi hamarkadetan eta dozenaka ikastetxe euskaldun sortu dira.

Honenbestez, arrakalak eragin badira ere (euskarazko irakaskuntzaren garapena eta normalizazioa), Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemen inposaketa mantendu egiten da gaur egun. Euskal Herriari bere hezkuntza sistema izateko eskubidea ukatzen zaio.

³ Euskal Autonomi Erkidegoan, Euskararen Legea (1982) eta Elebitasun Dekretua (1983). Nafarroako Foru Erkidegoan, Vasconce-ren Legea (1986) eta irakaskuntza arautzen duen Foru Dekretua (1988).

⁴ Ikus FELIX ETXEBARRIA: Elebitasuna eta hezkuntza euskararen herrian, 2001, Ibaeta Pedagogia. Bertan azken hogeita bost urteotan egindako 40 ikerketen berri ematen da.

⁵ AZTIKER: Hizkuntza ereduak Euskal Herrian, 2004. Hizkuntza ereduen inguruan azaltzen diren datuak azterketa horretatik hartu dira eta Euskal Herri osoari dagozkio.



Unibertsitate arrotzen inposaketa

Oinarrizko hezkuntzaren gainean bi estatuek ezarritako kontrola zorrotza izan bada, areago eta zorrotzagoa izan da unibertsitatearen kasuan. Ikasketa planen diseinua, irakasleriaren izendapena eta unibertsitate zentroyen irekiera nahiz itxiera historikoki Estatuaren eskuetan dauden eskumenak dira. Neurri hauekin nahikoa izan ez, eta Euskal Herrian lekututako unibertsitateak sortzea eragotzi izan dute Frantziako eta Espainiako estatuek betidanik, Oñatiko unibertsitatea lekuko. 1869. urtean berrezarri zen unibertsitate libre gisa eta azken karlistadan zehar euskal unibertsitate barrutiko zentro gisa eratu zen, Hegoaldeko lau lurraldeak hartuz. Gerraren irabazleek itxi zuten, ordea, 1876. urtean. Hogei urte beranduago irekitzeko baimena lortu zuen berriro baina, hori bai, Zaragozako unibertsitateari atxikirik. Espainiako Hezkuntza Ministeritzak ateratako beste dekretu batek itxiarazi zuen behin betiko, 1901ean.

Madriren itxikeriarekin topo egin zuten, halaber, 1866an Nafarroako Foru Aldundiak Euskal-nafar Unibertsitatea eratzeko abian jarritako ekimenak nahiz 1919an lau euskal Foru Aldundiek euskal unibertsitatea sortzeko abian jarritakoak. Espainiako estatuak bere kontrolpetik ihes egingo ez zuten fakultate zentro txikiak eta unibertsitate pribatuak (Jesuitek Bilbon eta Opus Deik Iruñean sortutakoak) baimendu zituen soilik. Egoera zegoeneko eutsi ezina zen 70. hamarkadan eta azkenean Euskal Herrian kokatutako unibertsitate publikoak baimentzea erabaki zuen Espainiako Gobernuak baina, hori bai, berak ezarritako baldintzen arabera:

1. 70. hamarkadan euskal eragile unibertsitario, sozial eta politiko gehienek aldarrikatzen zutenaren kontra, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako barruti bat sortzea agindu zuen, 1977ko irailaren 23an, lege dekretu bidez. Barruti horretan egituratu zen UPV-EHU delakoa. Nafarroako fakultate publiko bakanek Zaragozako barrutian jarraitu zuen beste hamarkada batez, harik eta UPNA-NUP sortu zen arte, beti ere Opus Deiren unibertsitatearen itzalean.
2. Estatu mailako lege organikoen bidez, dela LAU (1980), dela LRU (1983), dela LOU (2002), bi unibertsitate publiko horiei funtsezkoak ziren mugak jarri ziren, ñabardurak ñabardura:
 - Ikasketa plangintzaren definizioa estatuaren eskutik.
 - Estatu mailako irakasle gorputz bakarra.
 - Irakasle doktore eta katedradunen nagusigo erabatekoa erabaki-guneetan.
 - Ikasleen selekzio akademiko (selektibitatearen bidez) nahiz ekonomikoa (tasen bidez).
3. Bi unibertsitate publiko horien praktika erdararen erabateko nagusigoan oinarritu da hasiera-hasieratik. Hainbat unibertsitarik klaseak eta eskola-liburuak euskalduntzeko egindako ahaleginak ur tantak izan dira erdal itsaso batean.

Era honetan, Euskal Herrian unibertsitateak sortu ziren, baina ez zen sortu Euskal Herriko unibertsitaterik ezta, gutxiago oraindik, Euskal Unibertsitaterik.



ESKOLA ETA HIZKUNTZA-ERREPRESIOA



1730

ANILLO Y CASTIGO

Y que no les permita hablar en vascuence sino en castellano, poniendo anillo y castigándoles como merecen.

Cláusula estipulada entre el pueblo y el maestro de Beasain, el día 9 de enero de 1730

1784

EN LA ESCUELA, “NUNCA HABLEN ENTRE SÍ EL VASCUENCE”

Dará orden estrecha de que nunca hablen entre sí el vascuence, sino el castellano. Y para puntual observancia de esta orden se valdrá del medio común o sortija, tomando cada sábado razón de su paradero y

reprendiendo, apercibiendo y castigando directamente al que se hallare con él.

Escritura de Aia (Gipuzkoa) del 27 de noviembre de 1784

1787

ANILLO, AZOTES

Que no permita a los niños hablen dentro ni fuera de la escuela otro idioma que el castellano; y entreguen el anillo para que vaya circulando entre ellos en las faltas en que incurrieren; y al último que llevare el tal anillo a la escuela se le aplique pena de azotes o palmada con suavidad...

Cláusula 2 del contrato del pueblo de Elgoibar con el maestro Gregorio de Landibar, el día 18 de marzo de 1787

Aip. J.M. Torrealdai (1998): *El libro negro del euskera*, Donostia: Ttartalo.

1.3 Euskal Herriko hezkuntza eskubideak

Lehenengo atalean azaldutako instituzionalizazio prozesuaren ondorioz, estatuaren boterean oinarritutako hezkuntza-sistemaren ideia nagusitu egin da, oro har, Europan eta Europak kolonizatutako herrialdeetan. Hezkuntza sistema legitimoa da estatuak arautu egiten duelako. Estatuak finkatzen du zer eta nola irakatsi beharra dagoen, nola antolatu behar diren ikastetxeak, zein da irakasleriaren estatusa eta beste hamaika auzi. Eta euskaldunoi estatu bat izateko aukera ukatu digutenez, hezkuntza jarduera geure nahi eta beharren arabera arautzeko aukera ere ukatu egin digute, bigarren atalean ikusi dugun legez.

Alabaina, estatuaren gailentasunean oinarritutako ikuspegi honen parez pare, eskubideetan oinarritutako hezkuntza-ikusmoldea ere garatu izan da. Honen arabera, hezkuntza herritar ororen eta herrien eskubidea da, hau da, eskubide indibidual eta kolektibo urratuezina. Eta hezkuntza sistemak eskubide horien bermerako egitura izan beharko luke. Hezkuntza sistema legitimoa litzateke, kasu honetan, hezkuntza eskubideak aitortu eta horiek bermatzeko gai den neurrian.

2001. urtean Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideak zehazteko prozesua antolatu zuen Udalbiltzak. Hainbat lagun eta eragileren ekarpenak bildu ostean, Batzar Nagusiak Euskal Herriko Eskubideen Karta onartu zuen Tolosan, 2002ko azaroaren 23an. Lau urte beranduago, 2.006ko urrian hain zuzen ere, Nazio Eztatanda Guneak Eskubideen Karta bere egin zuen. Eskubideen Kartaren atal batek Hezkuntza Eskubideak jorratzen ditu. Hona hemen zehazten direnak:

1. Ikasteko eskubidea

Euskal Herrian bizi den herritar orok, hots, euskal herritar guztiek, nazioarteko oinarritzko eskubideen hitzarmenetan jasotako eskubideetan oinarrituta, Euskal Herrian bertan edozein ikasmaitan edota ikasartotan ikasteko eskubidea du, eta ez da inor baztertuko arrazoi politikoak, ekonomikoak, sozialak, jatorriarekin edo sexuarekin lotutakoak, ideologikoak edo akademikoak oinarri hartuta edo urritasun fisiko edo psikikoren bat izateagatik.

2. Euskalduntzeko eta euskaraz bizitzeko eskubidea

Euskal herritar orok eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea du. Euskal Herri osoan, edozein hezkuntza eskaintzatan euskaraz ikasteko eskubidea du. Eta hezkuntza prozesu osoan, ikasgune guztietan, euskaraz bizitzeko eskubidea du.



3. Curriculum propioan hezteko eskubidea

Euskal herritar orok Euskal Herriko curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea du, eta bertako nahiz munduko jendarte zein kultur adierazpideak kontutan hartuko dira.

4. Hezkidetzarako eskubidea

Euskal herritar orok hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du; hots, parekidetasuna lortzeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea.

5. Antolatzeko eta parte hartzeko eskubidea

Euskal herritar orok hezkuntza oinarri demokratikoen arabera antolatzeko eta kudeatzeko eskubidea du: eskubide demokratiko guztiak (adieraztekoa, biltzekoa...) bermatuz, eskola komunitatearen pluraltasuna kontutan hartuz, antolaketa zein kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea gauzatuz, eta eskola komunitatea osatzen duten pertsonen eta herritarren hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea bermatuz.

6. Euskal Unibertsitate sistema izateko eskubidea

Euskal herritar orok eskubidea du euskara eta jakintza ardatz izango dituen Euskal Unibertsitate Sistema izateko, Euskal Herriaren beharrak aseko eta bideratuko dituen.

7. Norberaren ahalmen guztiak garatzeko eskubidea

Euskal herritar orok eskubidea du hezkuntzaren bidez bere ahalmen guztiak garatzeko, pertsona kritiko eta aske izateko bidean.

8. Etorkinen ama hizkuntza eta kulturaren errespetua, eskubidea

Euskal Herriko ikasguneetan sartzen diren etorkin berriei eskubide osoz euren ama hizkuntza eta kultura errespetatuko zaizkie.

9. Hezkuntza Proiektua izateko eskubidea

Hezigune bakoitzeko hezkuntza komunitateak bere Hezkuntza Proiektua izateko eta kalitatez garatzeko eskubidea du.

10. Hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea

Hau guztia posible izan dadin, euskal herritarrek hezkuntzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea dute. Hau da, Europako hezkuntza esparruan, Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea du.



Nabaria da hezkuntza eskubide hauek urratzen direla egunez egun.

ESKUBIDEAK	URRAKETAK
1. Ikasteko eskubidea	Irizpide politikoengatik (Hendaiako batek ezin du baldintza berdinetan Donostiako campusean ikasi), ekonomikoengatik (tasak unibertsitatean, 0 eta 3 urte bitarteko zikloaren kostu ekonomiko handia) nahiz akademikoengatik (selektibitatea eta baxoa, noten arabera selekzioa) urratu egiten da.
2. Euskalduntzeko eta euskaraz bizitzeko eskubidea	0 eta 18 urte bitarteko ikasleen %68 ez da euskaldunduko eta ezinezkoa da euskaraz ikastea hainbat eskualdeetan nahiz titulazioetan (lanbide heziketa, unibertsitatea).
3. Curriculum propioan hezteko eskubidea	Frantziako eta Espainiako Gobernuek ezartzen dute curriculuma. Espainiako Estatuaren kasuan, beste hizkuntza ofizial bat duten komunitateek %45 zehaztu dezakete.
4. Hezkidetzarako eskubidea	Teorian haur guztiei, izan neska edo izan mutil, hezkuntza bera bermatu behar baldin bazaie ere, praktikan rolen banaketa eta emakumearen zanaketa birsortzen du hezkuntza sistemak.
5. Antolatzeko eta parte hartzeko eskubidea	Ikasle askori ez zaie antolatzeko eskubidea errespetatzen, bereziki 14 eta 16 urte bitartean. Ikasleek, gurasoek eta irakasleek hezkuntza erabakietan parte hartzeko duten aukera nahiko txikia da.
6. Euskal Unibertsitate sistema izateko eskubidea	Bi unibertsitate barruti daude Euskal Herrian, Espainiako eta Frantziako. Ikasketa planak, unibertsitatean oinarritako baldintzak, tituluen balioestea, irakasleria eta beste hainbat gai Estatuaren esku daude.
7. Norberaren ahalmen guztiak garatzeko eskubidea	Gai honen inguruko datu zehatzak izatea zaila bada ere, kontutan hartu beharra dago Euskal Herrian ikasleen ebaluazioa nagusiki idatzizko azterketetan oinarritzen dela, non ikasleak buruz ikasi duena erakutsi behar duen.
8. Etorkinen ama hizkuntza eta kulturaren errespetua, eskubidea	Euskal Herriak ez dauka migrazio politika bideratzeko baliabiderik. Ondorioz, bi estatuek finkatutako irizpideen arabera burutzen da politika hori, baita hezkuntzari dagokionean ere. Era honetan, etorkinei ez zaie bermatzen euskara eta euskal kultura ezagutu eta jatorrizko hizkuntza eta kulturarekin uztartzeko aukera.
9. Hezkuntza Proiektua izateko eskubidea	Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemetan administrazioak hezkuntza jarduera kontrolatzen du goitik behera eta aukera gutxi uzten du tokian tokiko errealitateari eta borondateari erantzungo dioten hezkuntza proiektuak garatzeko.
10. Hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea	Bi hezkuntza sistema daude Euskal Herrian, Frantziako eta Espainiako. Azken honek, hainbat eskumen kudeatzeko aukera ematen die komunitate autonomoei, baina hezkuntzaren ardatz nagusienak Madrilan finkatzen dira, lege organikoen bidez finkatu ere.



Hezkuntza eskubideak Nazioartean

Nazioarteko zenbait adierazpen eta hitzarmenetan hezkuntza eskubideen inguruko zuzeneko nahiz zeharkako aipamenak azaltzen dira.

1948.go Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala:

2.1 artikuluan garbiki azaltzen da pertsona orok Aitorpen honetan jasotzen diren eskubide guztiak dituela, arraza, kolorea, sexoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edota beste ezaugarriengatik berezitasunik gabe.

26.1 artikuluan esaten da pertsona guztiek hezkuntzarako eskubidea dutela. Hezkuntza doakoa izan behar duela, oinarriko hezkuntzan gutxienez.

26.2 artikuluan gurasoek euren seme-alabei emango zaien hezkuntza eredua aukeratzeko eskubidea jasotzen da.

1960ko Irakaskuntza Mailako Gutxiespenen Aurkako Hitzarmena:

Hitzarmen hau UNESCOren babespean burutu zen 1960.eko abenduaren 14an. Hitzarmen honen edukien aldetik aipagarriena 5.1 artikulua da, zeinek, gutxiengoei ikastetxe propioak sortzeko eskubidea ez ezik, bertan irakaskuntza beraien hizkuntzan jasotzeko eskubidea ere aitortzen deien.

Hitzarmen honek hizkuntza gutxiengoei hezkuntza arloan eskaintzen dien babes juridikoa nahikoa eskasa da. Babesa irakaskuntza pribatura mugatzen da, irakaskuntza publiko osoa bere esparrutik kanpo utzirik.

1966ko Nazioarteko Paktuak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua eta Ekonomia-Gizarte eta Kultur-Eskubideen Nazioarteko Paktua.

27. artikuluan gutxiengoaren kideei norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie. Aurrerapausoa izanik ere, artikulua oraindik orokorregia da: batetik, ez du gutxiengoaren “bizitza kulturalaz” zer ulertu behar den zehazten, eta bestetik, hizkuntzarako eskubidearen hedadura airean uzten du.

1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena

UNESCO-ren babesean sortu zen 1989.ko azaroaren 20an.

30. artikuluan gutxiengoaren haurren hizkuntza eskubideak jasotzen ditu, baina ez du gauza berririk ekartzen. Gutxiengo etniko, erlijioso edota linguistikoa dauden Estatuetan ez zaiola ukatuko gutxiengo horien haur bati bere bizitza kulturala izateko, bere erlijioa praktikatzeko edota bere hizkuntzaz komunikatzeko duen eskubidea, dio.



29.1 artikuluan hauren hezkuntza bideratzeko orduan estatuek aintzat hartu beharko dituzten faktoreak jasotzen ditu. Horien artean garbiki azaltzen da haurrei irakatsi behar zaiela bere hizkuntzarekiko eta bere kulturarekiko errespetua.

1950eko Giza eskubideen eta Funtsezko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena.

Europako Kontseiluaren babespean onartu zen 1950.eko azaroaren 4an.

Hizkuntza arloa oso gaineratik ukitzen du, hitzarmen honetan zerrendatzen diren eskubide eta askatasunen artean hizkuntza eskubiderik ez da zuzenean agertzen. Besterik ezean, 14. artikulua hizkuntza eskubideei zeharkako babesa eskaintzen die, hizkuntzagatiko gutxiespena galaraziz.

1961.ean Europako Kontseiluko Gutxiengoan Azpibatzaordeak Europako Kontseiluaren Asanbladaren aurrean gutxiengo gaia jorratzen zuen testu bat aurkeztu zuen, baina zehaztasun handirik gabekoa eta orokorregia. Hor aipatzen dena da ezin zaiola gutxiengo nazional bati ezin zaiola ukatu dagokion eskubidea, bere taldeko gainerako kideekin batera, bere berezko bizitza kulturala izateko, bere hizkuntza erabiltzeko, euren eskolak izateko eta hezkuntza hautatutako hizkuntza erabiltzeko.

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen

2 000. urtean onartu zen Nizan. Artikulu bakar batean egiten da honen inguruko aipamena. 21.enean hain zuzen ere, non Europar Batasunak konpromisoa hartzen du aniztasun kultural, erlijiosoa edota linguistikoak errespetatzeko.

Herrien Eskubideen Aitorpen Unibertsala

Aljerren onartu zen 1976. urtean. 2. artikuluan herri orok euren nortasun nazionala izateko duen eskubidea jasotzen da. 13. enean euren hizkuntzaz hitz egiteko eta euren kulturak garatzeko eskubideak jasotzen dira. 14. enean herri orok bere ondasun artistikoa, historikoa eta kulturala errespetatua izateko duten eskubidea agertzen da. Bukatzeko, 15. enean atzerriko kultura ez inposatzeko herri orok duen eskubidea aipatzen da.



1.4 Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzen

Euskal Herrian hezkuntza gatazka bat ematen da. Izan ere, Euskal Herriari Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemak inposatzen zaizkio eta bere hezkuntza sistema propioa egituratzeko aukera ukatzen zaio. Baina gainera, oinarrizko inposaketa honek euskal herritarren hezkuntza eskubideen urraketa sistematikoa eta orokorra eragiten du, aurreko atalean ikusi bezala. Horregatik, geure hezkuntza sistema antolatzea eskubidea eta beharra da aldi berean. Eskubidea da, munduko gainontzeko nazioei bezalaxe, Euskal Herriak ere bere buruaren jabe izateko eskubidea duelako, baita hezkuntzaren alorrean ere; bere behar ekonomiko, sozial eta kulturaleri erantzungo dion hezkuntza sistema antolatzeko eskubidea du. Eta beharra da, herritarren hezkuntza eskubideak bermatzeko, geure hezkuntza diseinu propioa egitea beharrezkoa delako.

Izan ere, guk ez dugu Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemen erreproduzio hutsa egin nahi. Guk hezkuntza sistema bat antolatu nahi dugu, baina hezkuntza eskubideetan oinarrituta, eta ez estatuaren botere soilean oinarrituta. Hau da, guk hezkuntza arautzeko aukera nahi dugu, hezkuntza beste modu batean arautu nahi dugulako. Hezkuntza euskalduna nahi dugu, frantsesek hezkuntza frantsesa eta espainiarrek hezkuntza espainiarra duten bezala. Baina gainera, hezkuntza euskalduna beste modu batean antolatu nahi dugu. Oinarrizko ideia honen argitan ulertu beharra dago historian zehar sortu diren hezkuntza egitasmo euskaldunek bultzatutako berrikuntza pedagogikoa (ikusi Idoia Fernandezen artikulua, liburuxka honetan bertan).

Euskal eskola eredu garatzeko saiakera ugari egon dira historian zehar eta, bereziki, azken 50 urteetan.

- Ikastolak. Orduko eskola frankista espainiarrarekin eta eskola frantses jakobinoarekin hautsiz, 60. hamarkadan sortutako hezkuntza-sarea: izaera nazionalakoa, euskarazkoa, pedagogia aurrerakoian oinarritutakoa, gurasoen parte hartzearen bidez eraikitakoa.
- Euskalduntze eta alfabetatze mugimendua. Garai berean, euskararen berreskurapena helburu, herri ekimenez sortutako euskaltegien sarea.



- Euskal eskola publikoaren aldeko mugimendua. Ordura arteko eskola estalarekin hautsi eta Euskal Herriak behar duen eskola publiko eredia jorratu zuen mugimendua, 70. eta 80. hamarkadetan. Eskola irekia, askotarikoa, parte hartzailea eta hezkidetzaila aldarrikatzen zen.
- Udako euskal unibertsitatea. Euskal unibertsitatearen bidean 70. hamarkadan sorturiko egitasmo herritar eta euskaltzalea. Udako ikastaroak antolatzeaz gain, liburuak argitaratu, graduondokoak kudeatu, arlokako topaketak antolatu eta bestelako jarduerak burutzen ditu.
- Ikasle mugimenduaren ekarpena. 80. hamarkadan indarrez sorturiko euskal ikasle mugimenduak ekarpen garrantzitsuak burutu ditu hizkuntza, demokrazia edota curriculumari dagokionean. Bereziki aipagarriak dira azken hamarkadan garatutako Herri Eskolak, hau da, eskolak normalean jorratzen ez dituen gaiak lantzeko ikasleek berauek antolatutako eskolak.
- Hezkuntza bitarteko ez-formalak. Gaztetxeetan burututako tailerrak, aisialdiaren eremuan dabilen Urtxintxa edota herri hezkuntzaz arduratzen den Ipes elkarte, besteak beste, aipa genitzake ere. Esperientzia horiek ere hezkuntza propio baten bidean kokatzen dira.

Esperientzia hauek oztopo eta zailtasun ugarietara aurre egin behar izan diete. Azken batean, korrontearen aurkako saiakerak izan dira. Baina edozein kasutan ere, aipatutako eta aipatu gabe geratu diren ekarpenen bidez, geure hezkuntza eredia (edukia) eta hezkuntza sistema (egituraketa) propioa garatzeko urrats garrantzitsuak eman ditugu.

Aurrerantzean ere bide horretan sakondu egin nahi du Udalbiltzak. Geure kultur ondarea belaunaldi berriei igorri eta eraberritzeko guztiz beharrezkoa zaigun tresna eraikitzen jarraitu behar dugu, hezkuntza sistema propioa eraikitzen. Udalbiltzarentzat, lan horretarako ipar-orratza urtero Nazio Garapenerako Biltzarrak antolatzen duen Nazio Eztatik diseinatu eta onartzen den Nazio Plana da. Nazio Plana “*Euskal Herria aintzat hartzen dugun pertsonen eta eragileen artean gure nazioak bizi duen egoera aztertze eta premia nagusiei erantzun kolektiboa eta positiboa emateko ahalegina da (...) Nazio Eraikuntzarako gida bat da*”.

2005. urteko udazkenean onartutako Nazio Planean, hezkuntza eremuari loturiko honako lau erronka hauek finkatzen dira lehentasunen artean:

Euskal hezkuntza-sistema nazionala osatzeko eztabaida

Euskal Herriak gaur egun ez du hezkuntza sistema nazional propioa, gure herrian dauden ikastetxeak frantziar zein espainiar legediek ezarritako hezkuntza sistemaren parte baitira.

Hezkuntzak herri baten eraikuntzan garrantzi estrategikoa daukala jakinik, hainbat eragilez osatutako lan-talde bat lanean ari da Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalaren oinarri izan daitezkeen bi ardatz aztertzen: euskal herritar guztion hezkuntza eskubideak, batetik, eta eskubide horiek bermatzearren, Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalak izan beharreko izaera publikoa definitzea, bestetik.

Eztabaida nazional baten bidez bi ardatz horien artean gutxienezko akordio nazionala lortzea da egitasmo horren helburua.



Euskal Unibertsitatearen sorrera

Gaur egun Euskal Herrian dauden unibertsitateek gabezia larriak dituzte; izan ere, Euskal Herriaren beharrak asetzeko eginak egon beharrean, espainiar zein frantziar interesei begira eginak daude. Esan daiteke ez direla euskaldunak, ez izenez ezta izatez ere. Alde batetik, ez dagoelako Euskal Herrian oraindik erabat euskalduna den fakultaterik, eta, bestetik, egungo unibertsitateetan irakasten diren edukietako asko euskaldunentzako arrotzak direlako.

Gabezia horietaz oharturik, eta unibertsitate propio bat herri baten garapenerako estrategikoa dela ikusita, Nazio Garapenerako Biltzarrak unibertsitate berri baten aldeko apustu garbia egiten du. Gure herriaren garapenerako egina, eta erabat euskalduna izango dena bere funtzionamenduan eta jarduera guztietan (alor akademikoa, administratiboa, ikerketa...).

Euskal Curriculumuma osatzea eta aplikatzea

Euskal Curriculumuma Euskal Herriko ikastetxe batean ikasten ari den 16 urteko gazte batek gutxienez ezagutu beharko dituen kontzeptuak, bereganatu beharko dituen trebetasunak, eta bereganatu beharko dituen baloreak bilduko dituen txostena izango da. Euskal Herri osorako baliagarria izango den erreferentzia pedagogikoa, hain zuzen.

Gaur egun ez dago osatua, eta, ondorioz, euskal ikasleek frantziar eta espainiar curriculumek finkatutako edukiak bereganatzen dituzte neurri handi batean (historia, kultura...). Gabezia horri aurre egiteko duela hiru urte Udalbiltzak, Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen Ikasbatuazek curriculum propioa sortzeko prozesua abian jarri zuten.

Eskolak euskaldundu behar du ildo antolatzea

Milaka dira gaur egun ikasketak euskaldundu gabe bukatzen duten ikasleak. Euskal Herria hiru administrazio-eremutan zatiturik dago, eta euskararen estatus juridikoa tokian toki ezberdina da, baina hala ere euskal lurralde guztietatik ateratzen dira euskaldundu gabeko ikasleak. Esan daiteke, beraz, duela 25 urte inguru abian jarritako hizkuntza ereduen politika ez dela nahikoa izan.

Euskaldunduko duen eskola behar-beharrezkoa da herri bezala bizirauteko, horixe baita belaunaldi berriak euskalduntzeko biderik aproposena. Eta horrexegatik Nazio Garapenerako Biltzarrak Euskal Herri osorako eredu berri bat aldarrikatzen du, ikasle guztiek euskalduntzeko duten eskubidea eta betebeharra bermatuko dituen.

Bestelako mundu baten alde, bestelako hezkuntza baten alde

Hezkuntza aldaketa bizian dago mundu mailan. Estatu eta lurralde ezberdinetan, hezkuntza erreformak bideratzen ari dira agintariak. Europako Batasunaren kasuan, goi-irakaskuntzaren erreforma dugu aipagarriena, *Bologna Prozesua* bezala ezagutzen dena. Hamaika elkartek eta adituk erreforma hauen guztien oinarrian hezkuntzaren merkantilizazioa dagoela salatu dute. Bestalde, “bestelako mundu baten alde” antolatzen den eremu soziopolitiko heterogeneoa ere bere agenda eratzen ari da. Mundu osoko hezkuntza beharrak identifikatzea eta mundu osorako programa bat proposatzeak dituen zailtasunak kontutan hartuta ere, interesgarria da Munduko Hezkuntza Foroetan lantzen ari diren kontzeptuei begirada bat botatzea. Munduko Hezkuntza Foroa, Porto Alegren abiatutako Munduko Gizarte Foroari loturiko hausnarketa gunea da. Orain arte lau edizio burutu dira, Porto Alegren bertan, 2001, 2003 eta 2004. urteetan; eta Buenos Airesen 2006. urtean. Hona hemen 2004ko foroak aldarrikatu zuen ekintza-programa:



1. Eremu guztietan hezkuntza publikoa eta berau bermatzeko estatuak duen erantzunkizuna defendatzea.
2. Maila eta eredu guztiak besarkatuko duen hezkuntza publikoa eta doakoaren aldeko mundu mailako mugimendua egituratzea.
3. Hezkuntzaren, ezagutzaren, zientziaren eta teknologiaren merkantilizazioa bultzatzen duen edozein itun (nazio mailakoa nahiz nazioartekoa) errefusatzeko, bereziki MMEren merkataritzari eta zerbitzuei dagokionean.
4. Gobernuak zerbitzu publikoak eraisteko dauden presioak errefusatzeko.
5. Nazio mailako nahiz nazioarteko enpresek hezkuntza sistema publikoan esku sartzea gaitzestea.
6. Subjektuen eta komunitateen singularitatea aitortuko duten eta genero, etnia eta kultur dibertsitatea aintzat hartuta hezkuntza jasotzeko berdintasuna bermatuko duten ekintzak sustatzea, eskolaz kanpoko eremuen potentzialitate hezitzailea kontutan hartuz.
7. Hezkuntza jasotzeko eta politika publikoen erabaki eremuetan parte hartzeko genero arteko berdintasuna exigitzea.
8. Arrazakeriaren eta klase ezberdintasunen aurkako ekintzak bultzatzea.
9. Gobernu nazionaleri, analfabetismoaren desagerpenaren aldeko, baztertuak dagoen populazioaren hezkuntza inklusioaren aldeko eta haurren lanaren ustiapenaren kontrako programei lehentasuna emango dien agenda aurkeztea.
10. Munduko Gizarte Foroaren eta bestelako borroka foroaren egituraketa, langileen esperientzia, kualifikazio eta jakintzak aintzat hartuak izango direla bermatzeko.
11. Gobernuari hezkuntzako langileen balorizazioa exijitzea, baita beren lan eskubideen errespetua eta lan baldintza duinen bermea ere.
12. Enpleabilitatearen logika arbuizatzen duen eta dimentsio etiko, estetiko eta politikoa aintzat hartzen dituen lanbide heziketa ereduak defendatzea.
13. Institutuzio publikoen eta politika sozialen kudeaketaren eta bereziki hezkuntzari dagozkion demokratizazioa exigitzea, osagarriak diren politika intersektorialekin lotuz eta hezkuntza komunitateak indartuz.
14. Hezkuntzaren finantziazioaren gaineko kontrol soziala sustatzea.
15. Mundu mailako mobilizazioak indartzea; justizian eta bakean, elkartasunean eta iraunkortasunean oinarritutako kulturaren aldeko hezkuntza indartzea.
16. Haurren, nerabeen eta gazteen protagonismoa bultzatzea, jakintzaren eraikuntzaren parte hartzaile gisa, beren nortasun sozialak aitortuz.

Munduko III. Hezkuntza Foroaren Gutuna (Porto Alegre, 2004ko uztaialak 31)

2. EUSKAL CURRICULUMA

2.1 Curriculumuma

Curriculumaren inguruan asko dago idatzita eta asko dira aurki daitezkeen definizio eta teoriak. Alabaina, liburuxka honen asmoetatik kanpo dauden eztabaida akademikoak gora-behera, esan dezakegu curriculumuma emaitza jakin batzuk lortu nahi dituen planteamendu pedagogiko antolatua dela. Curriculumak ikasle jakin batzuei *zer* eta *nola* irakatsi behar zaien zehazten du.

Curriculum ofizialak

Hezkuntza sistema zentralizatuak egituratzen hasi zirenean, XIX. mendean, estatu bakoitzak zer eta nola irakatsi behar zen ezarri zuen, hots, bere curriculumuma ezarri zuen, hitz hori erabili edo ez. Frantziak bere curriculumuma finkatu zuen, Espainiak berea. Eta halaxe egin zuten Mendebaldeko gainontzeko estatuek ere.

Ikasleei zer eta nola irakatsi behar zaien erabakitzeko orduan, argi dago helburu jakin batzuk zituztela gogoan estatuko agintariak. Funtsean, herritar frantsesak eta espainiarrak “fabrikatu” nahi ziren, beren eskubide eta batez ere betebeharren jabe izango diren herritar leialak. Ildo honetan, Frantziak XIX. mendearen hasieran finkatu ziren lehenengo curriculumetan konstituzioaren eta herritarren betebeharren irakaskuntza finkatu zen hezkuntzaren edukitzat. Era berean, Estatu legitimatzeke orduan funtsezkoa zen historia komun bat eratu eta belaunaldi berriei igortzea. Geografiak ere bazuen bere egitekoa: herritarrek sinbolikoki beren estatutzat eta ondorioz aberritzat jo behar zuten lurraldea irudikatzea.

Gauzak ez dira orduz geroztik gehiegi aldatu, mamiari dagokionez behintzat. Izan ere, curriculumetan eta hezkuntza legeetan aitortzen diren helburuen gainera, Frantziako eta Espainiako curriculumen oinarrian funtsezko bi helburuek jarraitzen dute. Lehenik eta behin, indarrean dagoen esparru ekonomiko, sozial eta politikoa legitimatzeke helburua daukate, alegia, egoera auzitan jarriko ez duten herritarrek hezitzea. Bigarrenik, egungo bizimodurako oro har eta zehazkiago ekonomi ekoizpenerako beharrezkoak diren gaitasun kognitiboak eta ohiturak garatzea.

Helburu politiko horiek hezkuntza eremura eramateko tresna pedagogikoa da curriculumuma. Curriculumuma ez da zerbait neutroa, beraz. Esan dezakegu gutxienez badirela elkarlotutako hiru filtro ideologiko egun ezagutzen ditugun curriculum ofizialen oinarrian. Lehenengoa zer irakatsi behar den eta zer ez den irakatsi behar zehaztean jartzen da. Hona hemen Appleren hitzetan:

“Curriculumuma ez da nazioaren testu eta ikasgeletan nolabait azaltzen den ezagutzen batuketa neutro hutsa. Tradizio selektibo baten parte da beti, norbaiten hautaketaren parte, legitimitzat jotzen den ezagutzarekiko talde ikuspegi jakin baten parte. Herri bat egituratu eta desegituratzen duten gatazka, tentsio eta konpromiso kultural, politiko eta ekonomikoetatik abiatuz sortzen da.



(...) Zenbait talderen ezagutza justifikatuagotzat, ezagutza ofizialtzat, hartzeko erabakia, beste talde batzuen argitara ateratzea oztopatzen den bitartean, gizartean boterea nork duen adierazteko garrantzia handikoa da”⁶.

Era honetan, hainbat eta hainbat ezagutza belaunaldi berriei transmititu beharreko edukien multzoaren kanpoan geratzen dira. Jar gaitezen pentsatzera, esaterako, emakumeen aurkako bazterketan. Emakumeek historian zehar egindako ekarpenak sistematikoki ezkutatu egiten dituzte curriculum ofizialek, kolektibo horren eskubideen zampaketa etengabea eta egiturazkoa ezkututzen den bezalaxe.

Bigarren filtro ideologikoa irakasteko eta ebaluatzeko moldeari dagokio. Ikasleak kontzeptu, abilezi eta balore jakin batzuk bereganatu behar dituela ezartzen du curriculumak, zer jakin behar duen ezezik, nolako pertsona izan beharko lukeen finkatzen du. Era honetan, irakaskuntza eta geroko ebaluazioa irizpide jakin batzuen arabera burutzen da, gauza batzuk baloratzea eta beste batzuk ez baloratzea erabakitzen da, beti ere curriculumak finkatzen duenaren arabera. Esaterako, egungo curriculumetan ez zaio garrantziarik ematen norberak bere eskubideen kontzientzia izateari, autoantolatze gaitasuna garatzeari edota parte hartzeko beharrezko abileziak eskuratzeari. Badira hainbat eta hainbat ikasle beraiengandik espero zitekeenera heldu ez direnak, curriculumean finkatutako helburuak lortu ez dutenak, egindako ebaluazioetan “emaitza txarrak” atera dituztenak. Eskola porrotaren kontzeptua ikuspegi honetatik jaiotzen da.

Hirugarrenik, eta aurreko ideiarekin estuki loturik, ezkutuko curriculumak hartu behar da kontutan. Torresek dioen bezala:

“Programen edukiak garrantzitsuak dira, baina askoz handiagoa da haurrak ezarritako lekuetan eser daitezten, bere tokian jarrai dezaten, itxaroten jakin dezaten, eskua altxatu dezaten lortzeko kezka. Eguneroko monotoniaren bidez (...), ikasleriak ordena mantentzen ikasten du: zigorrak onartu, erlojuaren eskakizunen araberrako ekintzen programazioari men egin, etengabe ebaluatua izan, agintea daukatenekiko menpeko jarri, pazientea izan, frustrazioak onartu”⁷.

Adibide bat jartzearen: curriculum gehienetan elkartasunaz hitz egiten da, landu beharreko balore teoriko bat bezala. Alabaina, azterketa-sistemak berak elkartasunaren kontzeptuaren aurka doazen praktikak sortzen ditu: norbera da azterketa egin behar duena, norbera da gainditu behar duena, norberak besteak baino nota hobea atera behar du...

Curriculum ofiziala eta curriculum erreala

Halere, curriculum ofiziala ez da inoiz bere horretan aplikatu ez aplikatuko. Hasteko, curriculumak pertsonak aplikatzen dutelako eta pertsona bakoitza ezberdina delako. Baliteke curriculum ofiziala praktikan behar bezala ez garatzea, esaterako, irakaslearen

⁶ Apple, M.: *Política cultural y educación*, Morata, Madrid, 1996, 47 or.

⁷ Torres, J.: *El Currículum oculto*, Morata, Madrid, 1991, 62 or.



kualifikazio maila baxuagatik, nahikoa baliabide didaktiko ez izateagatik, planifikazio arazoengatik edo ikasleek dauzkaten behar eta arazoengatik. Zenbat hezkuntza agintari eta planifikatzaile atsekabetu diren mahai baten inguruan egindako diseinuek praktikan porrot egin edo ezerezean geratzen zirela ikusterakoan!

Era berean, baliteke curriculum ofiziala praktikan aplikatzeko arazoak izatea, curriculum ofizial hori aitortu ez eta bestelako hezkuntza planteamendu batzuen alde egiten duten kolektiboak daudelako. Kolektibo hauek curriculum ofizialak jasotzen ez ditzuzten hezkuntza-irizpideak aldarrikatzen dituzte eta hezkuntza praktika berri nahi dute. Berrikuntza pedagogikoa bilatzen duten mugimenduak daude herrialde guztietan. Gure kasuan, berrikuntza pedagogikoak konotazio politiko jakin batzuk hartu izan ditu.

Curriculum motak

Curriculum guztiak ez dira berdinak. Ez da berdina XIX. mendean indarrean zeuden curriculumak edo gaur egun indarrean daudenak. Eta gaur egun ere, herrialdearen arabera curriculum mota ezberdinak egon daitezke. Izan ere, curriculum jakin bat ikuspegi pedagogiko ezberdinetatik egin daiteke. Nagusiki lau ataletan bildu ditzakegu ikuspegi horiek:



I. Taula:
Curriculumaren eta hezkuntzaren gaineko ikuspegiak.

	AKADEMIZISTA	TEKNOLOGIKOA	PRAKTIKOA	KRITIKOA
ESKOLA	Haurrak edukitzeko lekua da. Autoritatea eta diziplinari garrantzia ematen zaio.	Lantegi bat da. Haurrak sartu eta helduak atera egiten dira. Teorikoki neutroa da, baina ezkutuko curriculumaren bidez indarrean dagoen ordena berproduzitzen du.	Bizitzako aferak irudikatzen espazioa da. Familien parte hartzea bilatzen du eta desberdintasun sozialak gainditzen saiatzen da, baina indarrean dagoen ordena auzitan jarri gabe.	Bizitza bera da, bere konplexutasun eta arazo errealek guztiak. Eskolaren barnean komunitate kritikoak sortzeko beharra dago, indarrean dagoen ordena eraldatzeko.
IRAKASLEA	“JAKITUNA” -Klaseak ematen ditu. -Ezagutzak dira inportanteena, ez ikasleria. -Ahalik eta ezagutza gehien transmititzeko eginkizuna du. -Ez dago gaitua hezkuntza politika eta praktikaren inguruko erabakiak hartzeko -Teoria eta praktikaren arteko banaketa. -Profesionaltasuna: ahalik eta datu gehien transmititzeko gaitasuna. -Gehien dakienak hobeto irakatsiko du.	“TEKNIKOA” -Ikasleriaren kanpo adierazpenak kontutan hartzen ditu. -Adituek prestatutako diseinuak ezagutu, aintzat hartu eta praktikan jartzen ditu. -Ez dago gaitua hezkuntza politika eta praktikaren inguruko erabakiak hartzeko. -Teoria eta praktikaren arteko banaketa. “Teorikoak” diseinatutakoa gauzatzen du “praktikoak”. -Ez du ikertzen. -Teknika gehien ezagutzen dituenak hobeto irakatsiko du.	“ANIMATZAILEA” -Ikaslearen garapena kontutan hartzen du. -Emitzak baino, ikaskuntza prozesua da garrantzitsua. -Praktikaren gaineko hausnarketan etengabe oinarritzen da. -Bere praktikaren gaineko erabakiak hartzeko gaitua dago. -Teorikoaren eta praktikaren arteko elkarlana. -Ikerkuntzetan laguntzen du. -Prozesu eta egoera bakoitza modu egokian aztertzen duenak hobeto irakatsiko du.	“KOORDINADOREA” -Ikaslearen testuinguru soziala kontutan hartzen du. -Ikaslearen inplikazio indibiduala eta kolektiboa da garrantzitsua. -Hausnarketa kritiko kolektibotik sortzen da ekintza. -Hezkuntza politika eta praktika eraldatze bidean, erabakiak hartzeko gaitua dago. -Teoria eta praktikaren arteko uztarketa. -Ikerkuntzan parte hartzen du, ekintzarekin uztarturik. -Kritiko eta konprometituenak hobeto irakatsiko du.
IKASLEA	Edukien hartzaile hutsa. Ezagutzez bete beharreko edukiontzia. Gero eta gehiago jakin, gero eta txintxoagoa izan, hobeto.	Kanpoko estimuluen aurrean erreazionatzen du. Gero eta aurreikusitako ekintza gehiago burutu, hobeto.	Aktiboa da, aukerez bete. Gero eta gehiago pentsatu, hobeto. Araoak bere kabuz konpontzen jakin behar du.	Erantzulea da, bere buruarekiko eta besteekin. Gero eta kritikoago, askeago eta ekintzan konprometituago, hobeto.
IKASKUNTZA	Edukiak buruz ikasi eta errepikatu.	Ezagutzak bereganatu eta jokaera jakin batzuk adierazi.	Ekintza sortzailea.	Prozesu sozial eta dialektikoa. Etengabeko interpretazioa.
IRAKASKUNTZA	Kontzeptuen aurkezpena. Klase “magistrala”	Programatutako ekintzen ezarpena.	Garapen pertsonala bideratzeko simulazio eta ariketen proposamena, zentzu sortzaile batekin.	Nagusi den pentsamendua agerian utziko duten eta errealitatea eraldatzeko konpromisoa sustatuko duten ariketen proposamena.
EBALUAZIOA	Buruz ikasitako datuen erreproduzizioa. “Kultura orokorraren” azterketa. Saillapen sozial eta kulturala bilatzen du.	Ikaslearen errendimendu akademikoa aztertzen da, test eta frogak objektiboen bidez. Saillapena bilatzen da.	Ez da soilik ikaslearen ikaskuntza ebaluatzen, baita curriculum, irakaslea, antolakuntza eta bestelako alderdiak ere. Norberaren garapena bilatzen da.	Kritikoa: ekintza eraldatzaileari begirako azterketa. Hezkuntza prozesu guztiak aztertzen dira. Ekintzarako ikerkuntzari ematen zaio garrantzia.
ARAUTUTAKO CURRICULUMA	Ezagutzen zerrendaketa, programak, ikasketa planak... Jakintza arloen arabera.	Itxia eta derrigorrezkoa: guztiok lortu beharreko helburuak zehazten ditu. Jakintza arloen arabera.	Irekia eta malgua: eskolako egoera ezberdinetara egokitu daitezkeen curriculum proposamenak. Jakintza arloak ezezik, zehar leerroak eta orokortasuna ere kontutan hartzen ditu.	Irekia eta malgua: testuinguru sozial ezberdinetara egoitu daitezkeen curriculum proposamenak. Orokortasun eta interdiziplinaritateari ematen zaio lehentasuna.
AURKEZTUTAKO CURRICULUMA	Testuliburuak, entziklopediak, apunteak.	Testuliburuak. Material osagarria: bideoak eta programa informatiko itxiak.	Askotariko materiala, ikasgelaren konplexutasunari egokitutakoa. Unitate didaktikoak, egitasmoak. Material osagarria: jokuak, ikus-entzutezkoak...	Testuinguru sozialaren arabeko materialaren sorkuntza edota berrikuntza. Oinarri teorikoa argi eta garbi adierazten da. Edukiak aurkezteko modu parte hartzailea, kritikoa eta sozialki konprometitua.


2.2 Curriculumak Euskal Herrian

Curriculum ofizialak

Euskaldunoi Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemak inposatu dizkigute eta baita, hezkuntza sistema horien eskutik, Espainiako eta Frantziako Curriculumak ere, hurrenez hurren. Bi Gobernuak zehazten dute, nor bere lurraldean, zer eta nola irakatsi behar den eta ikastetxeak irizpide horiek betetzera derrigorturik daude. Frantziako Gobernuak ezarritakoa zuzenean aplikatu behar dute Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako ikastetxeek. Espainiako Gobernuak ezarritakoa aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuetara igarotzen da. Gobernu hauek biak dira ikastetxeek bete beharko duten curriculum-dekretua ezartzeko eskumena daukatena, baina Espainiako Gobernuak finkatutako oinarriko ezagutzek curriculum autonomiko horien %55 bete behar dute gutxienez. Era honetan, lau euskal herrialde horietan landuko diren edukien gehiengoa Estatuak finkatzen ditu zuzenean. Horixe da egiturazko arazoa: ez dugu geure curriculum propioa definitu eta ezartzeko aukerarik.

Honekin batera, bigarren arazo bat aipatu beharra dago: azken bi hamarkadetan ez da praktikan %45 hori garatu. Jaume Bofill fundazioak estatu mailako nahiz tokiko argitaletxeen historiako testuliburuak aztertu zituen, testuliburu horietan komunitate autonomoei zehaztea dagokien portzentaia zein neurrian jasotzen zen ikusteko. Emaitza 2001eko apirilean agertu zen eta nahiko argigarria izan zen: %10 eta %20 bitarteko proportzioan soilik betetzen dute legerian ezarritakoa. Katalunia eta EAE dira emaitzarik hoberenak dituztenak, baina beti ere %45 horretatik urrun.

II. Taula: Curriculum-egitura Euskal Herrian



Aurretik aurkeztutako hezkuntza ikuspegiak kontutan hartuz, zein da Euskal Herrian inposatu zaizkigun curriculum horien oinarrian dagoena? XIX. mendean sortutako lehenengo hezkuntza-lege orokorretan, nola Espainiak hala Frantziak egindakoetan, ikuspegi entziklopedikoa da nagusi. Denborarekin, ikuspegi teknologikoa garatzen joan da eta ikuspegi praktikoaren elementu batzuk ere jaso izan dira Espainiako nahiz Frantziako curriculum dekretuetan.

Espainiako estatuaren kasuan, 1970ko Ley General de Educación delakoak ikuspegi teknologikoa ezarri zuen. Ikuspegi praktikoak bere isla izan zuen, behintzat paperaren gainean, 1991an onartutako LOGSE legean, baina aurreko epealdiko inertziekin indar handia izaten jarraitu zuten. PPK 2002an onartutako LOCE legeak ikuspegi teknologikora bueltatu zuen.

Curriculum ofizialak eta curriculum erreala



Esan bezala, ikastetxeek derrigorrez bete behar dute curriculum ofiziala. Eta hau horrela izan dadin bermatzeko baliabideak ditu administrazioak. Lehenik eta behin, hor dugu ikuskaritza lan etengabea, Hego Euskal Herriari dagokionez administrazio autonomikoei dagokiena. Ikuskariek arau legalak betetzen diren aztertzen dute, eta zuzendariak legea betetzera beharturik daude. Administrazioak baditu bitartekoak bere kontrola zorrozteko edo biguntzeko, azken urteetan Nafarroaren kasuan ikusten ari den bezala, non edukien gaineko kontrola areagotu egin den. Baina ez da soilik Nafarroan ematen den egoera; esaterako, abenduaren 6a (Espainiako Konstituzioaren eguna) eskola egun ofizialtzat jotzeko erabakia hartu duten ikastetxeak ohartarazi dituzte EAEko ikuskariek, esanez egutegi ofiziala betetzera derrigorturik daudela. Hala ere, gaur egun tarte egon badago curriculum alternatiboak lantzeko, administrazioak ezin baitu guztia kontrolatu.

Bigarrenik, ikasleek curriculum ofizialetan ageri diren edukiak bereganatu dituztela bermatzeko funtzioa duten estatu mailako frogak ditugu: Espainiako estatuaren kasuan, unibertsitatera joateko derrigorrez gainditu beharreko *selektibitatea*; Frantziako estatuaren kasuan, bigarren hezkuntzako titulua eskuratzeko derrigorrez gainditu beharreko *baxoa*. Froga hauek gainditzeko (eta gero eta gehiago, nota ona ateratzeko) prestatu behar dira euskal ikasleak, bereziki bigarren hezkuntzan.

Hirugarrenik, testuliburuaren eragina aipatu beharra dago. Izan ere, testuliburuak dira curriculum igoerri eta zabaltzeko tresna eraginkorrenak, hezkuntza jardueran testuliburuaren oinarritzen ari delako gero eta gehiago, eta testuliburuak administrazioen baimena behar dutelako argitaratuak izateko.

Lehen esan bezala, halere, curriculum ofizialarekiko erresistentzia-joerak eta alternatibak izan dira historikoki euskal ikastetxeetan eta egun ere badira. Esaterako, hor ditugu frankismo garaian sortutako ikastolak, zeintzuk bi programazio baitzuten, bata ikuskariari

erakusten ziotena eta bestea praktikan garatzen zutena (ikus, liburuxka honetan bertan, “Berrikuntza Pedagogikoa Euskal Herrian” testua). Gaur egun ematen den bigarren adibide bat, honako hau: legearen arabera *Gaztelera* irakasgaia 6 urterekin ematen hasi behar baldin bada ere, Euskal Herriko 200 ikastetxe euskaldun baino gehiagok (ikastolak nahiz publikoak) urte betez edo bi urtez atzeratzen dute hori, lehenago ikasleengan euskararen ezagutza ongi errotzeko asmoz.

Bestelako curriculum baten bila

Curriculum ofizialak auzitan jarri dira historikoki Euskal Herrian, batez ere, Espainiako eta Frantziako kultur ikusmoldea islatzen dutelako. Eta curriculum ofizial horiekiko alternatibak garatu dira ikastetxez ikastetxe. Era berean, Euskal Herriko beharrei eta interesei erantzungo dion curriculum berri baten aldeko aldarrikapena gero eta indar handiagoa hartzen ari da. Horren erakusgarri dugu, esaterako, Ikasle Mugimendutik euskalduntzearen alde (hizkuntzaz nahiz edukiz) eta kultur eskubideen alde burutu diren ekimenak edota Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenetik antolatutakoak.

Alabaina, arazoa da ez dugula curriculum berri hori arautu eta ezarri lezakeen Hezkuntza Ministerio nazionalik. Guk ezin dugu beste herri batzuk egin dutena egin, hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea ukatu egiten digutelako Espainiako eta Frantziako estatuek. Horrek esan nahi al du curriculum ofizialekiko erresistentzia egitera mugatu behar garenik, orain arte bezala? Udalbiltzak uste du beharrezkoa dela gaurdanik Euskal Curriculumuma sortu eta aplikatzen hastea, jakinik, Euskal Curriculumuma osoki aplikatu ahal izango dela Hezkuntza Ministerio nazionala izatea lortzen dugunean.

Ildo honetan, 2.001. urtean eraikitzen hasi garen Euskal Curriculumumaren esanahia ongi ulertu beharra dago. Gure helburua Euskal Herri osoan aplikatuko den Euskal Curriculum ofiziala eskuratzea da, baina, esan bezala, horretarako beharrezkoa izango da hezkuntza sistema propioa eskuratzea. Orain diseinatzen eta garatzen ari den Euskal Curriculumuma, aldiz, estaturik gabeko herri batek egingo du, hezkuntza ministeriorik gabeko herri batek. Horregatik, berau diseinatzeko metodologia berezia izan da eta berau aplikatzeko metodologia ere berezia izan beharko da.

2.3 Euskal Curriculumuma sortzeko prozesua

Ibilbidea

Puzzle bat bailitzan, piezaz pieza eraikitzen ari da Euskal Curriculumuma.

2.001. urtean, Udalbiltzak, Euskal Herriko Curriculumuma eraikitzeko aukera aztertzeko erabakia hartu zuen, eta, horretarako, proiektua parti zezaketen hainbat hezkuntza eragilerekin jarri zen harremanetan. Egindako hausnarketa sinplea zen. Espainolek badute beren curriculumuma, esaten genuen, baita frantsesek ere. Biek hala biek zehaztu dute zer den espainiar eta frantziar gazte batek jakin behar duena. Bada, euskaldunok, munduko beste edozein herrik bezala geurea zehaztu behar dugu ere.

Hezkuntza eragileekin egindako harremanon testuinguruan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak “Ikastolen Curriculumaren Euskal Dimentsioa” izeneko egitasmoa aurkeztu zion Udalbiltzari. Egitasmo honen jatorria 1.996. urtean burututako Ikastolen III. Batzarra zen, non ikastola kontzertatuak nahiz EAEn publikatutakoak (Ikasbatuaz taldean bildutakoak) parte hartu baitzuten. Batzarrak Pedagogia Plan Nazionala onartu zuen eta, besteak beste, ikastolen “euskal curriculum propioa” aurkezteko konpromisoa hartu. 1.998. urtetik aurrera, Ikastolen Konfederazioak egoeraren diagnostia egin, eta proiektuaren marko teorikoa eta plangintza estrategikoa prestatzeari ekin zion. Egoeraren diagnostia egiteko, Espainiako, EAeko, Nafarroako eta Frantziako curriculum ofizialen eta Elkar-GIE argitaletxearen ikasmaterialetako edukien azterketa egin zen, “Hezkuntza sistemak: oinarriko curriculum diseinuak” ikerketa burutuz. Ikerketa horren ildotik, “Ikastolen curriculumaren euskal dimentsioa: marko teorikoa” izenburuko txostena osatu zuen.



Era honetan, hala Udalbiltzak nola Ikastolen Konfederazioak, curriculumaren euskal dimentsioaz haratago, Euskal Curriculumaren beharra partitzen zutela ikusita, egitasmo horren inguruko elkarlana bideratzeko aukera sortu eta gauzatu zen. Euskal Curriculumuma Proiektuaren diseinu komuna egiteko helburuz, bi aldeek arteko harreman dinamika abian jarri zen.

Harreman horietan, Udalbiltzak honako irizpide nagusi hauek mahai gainean jarri zituen:



- Curriculumaren euskal dimentsioaz gaindi, Euskal Herriko Curriculum proposamena eraikitzearen beharra; hots, Euskal Herritik sortu eta Euskal Herri osorako baliagarria izango den curriculum proposamena, horrela eskatzen duen edozein ikastetxeren esku jarriko dena.
- Euskal Herriko Curriculumuma osatzeko, prozesu parte hartzailearen beharra.

- Prozesu horren gidaritza lanetan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin batera, eremu publikoan Euskal Curriculumaren proiektuarekin bat egiten duen eskola-elkartearen beharra, Sortzen-Ikasbatuaz Elkartearena⁸, alegia.
- Euskal Curriculumaren definizioa eta aplikazioa bereiztea.
- Euskal Curriculumaren definizioari dagokionez, estatuen derrigorrezko curriculumak alde batera uztea, eztabaida hori aplikazio uneari dagokion heinean.

Hainbat bileraren ostean, Ikastolen Konfederazioak aipatu irizpideak aintzat hartu zituen. Era berean, Udalbiltzak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak alde aurretik landuak zituen irizpide kultural eta pedagogikoak proiektuaren oinarritzko abiapuntu gisa aintzat hartu zituen. Egoera horretan, eta finkatutako irizpideei jarraiki, Udalbiltzak, Ikastolen Konfederazioaren adostasunez, Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteari Euskal Curriculumaren Proiektuan parte hartzeko gonbitea luzatu zion. Planteatutako proiektu eta irizpideak Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteak ontzat hartu zituen, hiru aldeen arteko bilkura dinamika berriari hasiera emanez. Dinamika horren bidez, Euskal Curriculumuma eraikitzeko egitasmoa adostu zuten hiru eragileek, 2.003.ko urtarrilean. Akordio horren arabera, Euskal Curriculumuma bost urratsetan gauzatuko da, gauzatzen ari da.

⁸ 2.000. urtean Ikasbatuaz-ek eta Sortzen-ek elkarte berria osatu zuten, Sortzen-Ikasbatuaz, euskal eskola publiko berriaren alde lan egiteko.



urrats	data	helburua	garapena
1	2.003ko urtarrila	Egitasmoaren oinarri filosofiko eta pedagogikoak adostu.	Aipatu oinarriak “Euskal Curriculumuma: marko teorikoa eta plangintza estrategikoa” txostenean jaso ziren.
2	2004ko ekaina	Adituaren ekarpena bildu	Lan horren ardura Ikastolen Konfederazioak hartu zuen, EAEko Hezkuntza Sailarekin hitzartutako diru-laguntza lortu zuela haren finantzaketari aurre egiteko. Zientziaren eta kulturaren arloan adituak diren 50 laguni bakoitzaren jakintza eremuan eduki garrantzitsuenak zeintzuk diren proposatzea eskatu zitzairen. 2.004ko ekainean lanaren emaitza aipatu bi eragileok aurkeztu zuten, Donostian: “Euskal Curriculumuma: kultur ibilbidea. Adituaren ekarpena” izeneko liburua. 
3	2005ko martxoa	Proposamen pedagogikoa egin.	Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuaz-ek lan hori gauzatzearen ardura hartu zuten, eta berau osatzeak beharrezkoa duen aniztasun eta adostasunari erantzuteko asmoz, zenbait hezkuntza eragilerek (Eskola Kristauak, EIB, Euskal Haziak...) eta EAEko Hezkuntza Sailarekin bi elkarteok akordioa lortu zuten. Lanaren emaitza Bilboko Euskalduna Jauregian aurkeztu zen, “Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumuma” izenburupean. Maiatzean, EAEko eremu publikoko hainbat eragilek (EHIGE guraso elkarteak eta BIHE eta Sarean zuzendari elkarteak) prozesua nola garatzen ari zen kritikatu eta EAEko Hezkuntza Sailaren lidergoa eskatu zuten, baina Euskal Curriculumuma egiteko baino, EAEko curriculum ofiziala egiteari begira. 
4	2006. urtean zehar	Hezkuntza erkidegoaren zein oro har herritargoaren ekarpena bildu.	<u>Hezkuntza erkidegoaren ekarpena</u> Ikastolen Konfederazioak, Sortzen-Ikasbatuazek, Eskola Kristauak eta bestelako eragileek “Derrigorezko eskolaldirako euskal curriculumuma” proposamena eztabaidagai jarri dute eskolaz eskola, nor bere sarean. Horretarako, inkesta batzuk prestatu dira eta irakasle, guraso nahiz ikasleek inkesta horiek bete dituzte. Era berean, EHIGE, Sarean eta BIHEk akordioa lortu dute EAEko Hezkuntza Sailarekin “Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumuma” proposamena aditu talde batzuen bidez aztertu eta beren ekarpena egiteko. Eskola publikoetako irakasle, guraso eta ikasle talde batek akordio hau kritikatu zuen publikoki, ikastetxez ikastetxe eztabaida emateari muzin egiten diola eta EAEko curriculum autonomikoari begira egiten dela argudiatuta.
			<u>Herritarren ekarpena</u> Udalbiltzak herri eragileen ekarpena biltzeko ardura hartu zuen. Horretarako, Udalbiltzak 10 lan-eremu zehaztu eta dinamizatzailerik bat osatu zuen duela urte bete. Lanaren emaitza 2.006ko urtarrilaren 28an aurkeztu zen, Donostiako Kursaal aretoan burututako jardunaldi arrakastatsuetan (300 lagun inguru).
5	?	Jasotako ekarpenekin aberastutako txostena onetsi	Hala eskoletan nola jendartean jasotako ekarpenekin, azkeneko txostena osatu eta onartuko da, alegia, Euskal Curriculumuma onartuko da. Liburuxka hau argitaratzeko unean ez da zehaztu hau nola egingo den.

Aukerak eta indarguneak

Euskal Curriculumumaren eraikuntza prozesuak azpimarratu beharreko hainbat balore ditu bere baitan:

- a) Ariketa demokratikoa da. Geure buruaren jabe izateko dugun eskubidea praktikara eramateko filosofian oinarritzen da Euskal Curriculumuma. Euskaldunok badugu geure belaunaldi berriek jasoko duten hezkuntza definitzeko eskubidea eta egungo hezkuntza legediak hori ukatzen badigu ere, ez gaude geldi egoteko prest. Euskal Curriculumuma estaturik gabeko herri baten curriculumuma da, bere legitimitatea hezkuntza eskubideetan datza eta beraz berau garatzea hezkuntza eskubideetan aurrera egitea da. Euskal Curriculumuma sortu eta aplikatzea, beraz, ariketa demokratikoa da.
- b) Modu parte hartzailean egiten ari da. Euskal Curriculumuma, inguruko gainontzeko curriculumak ez bezala, metodologia parte hartzaile baten bidez egiten ari da, hezkuntza eragileen arteko adostasunetik abiatuta. Egia esan, ez genuen beste erremediorik, ez baitago Euskal Curriculumuma diseinatu eta aplikatu lezakeen instituzio nazional subiranorik. Baina parte hartzearen aldeko apustua ez da egin eraginkorra zelako soilik; demokratikoki eta pedagogikoki hobeagoa delako baizik. Hobe da hezkuntza eragileek proposatutako eta hezkuntza erkidegoak eztabaidatutako curriculum bat, estatu batek edo bestelako egitura politikoki batek ezarritakoa baino.
- c) Herri eragileen ekarpena biltzen ari da. Euskal Curriculumari begira herri eragileen ekarpena biltzen ari da, eta horrek izugarriko balorea dauka. Herri eragileek zer esan handia dute curriculumaren eztabaidan. Izan ere, herri eragileak dira, nor bere eremutik, herri proiektua definitzen eta lantzen ari direnak. Herri eragileak dira, etengabeko aldaketan dagoen mundu eta jendarte honetan, aldaketa horien aurrean erreakzionatzeko gaitasuna daukatenak. Eta herri eragileek izan behar dute, hortaz, hezkuntzak bermatu beharreko jakintza, abilezi eta batez ere baloreetan ekarpen handia egin behar dutenak. Gainera, kontutan hartu behar dugu eskola biharko jendarte sortzeko elementu bat besterik ez dela. Elementu garrantzitsua, baina ez bakarra. Ez dezagun ahaztu: egungo gazteek denbora bera igarotzen dute urtean telebistaren aurrean eta ikasgelan. Horregatik, ezin diogu eskolari eskatu egun ditugun arazo guztiak konpon ditzan. Guztiok inplikatu behar gara jendarte berri baten sorreran, justizian eta askatasunean oinarritutako jendarte: eskola, familiak, herri eragileak, komunikabideak... Guztiok inplikatu behar gara Euskal Curriculumumaren garapenean.
- d) Pertsonaren gaitasunak garatzeko helburua dauka. Euskal Curriculumuma hezkuntzaren gaineko ikuspegi akademizista eta teknologikoa gainditu, eta ikuspegi praktikoa garatzen saiatzen da. Euskal Curriculumumaren helburua, pertsonak gizabanako bezala, gizartekide bezala eta izadikide bezala ahalik eta gaitasun gehien garatzea da.



Arriskuak eta ahulguneak

- a) Tentaldi posibilistak. Esan bezala, Euskal Curriculumuma ez da ofiziala izango. Berau aplikatzeko nazio estrategia ausarta eraiki beharko da, curriculum errealean urratsak eman ahal izateko. Alabaina, sektore batzuetan planteamendu posibilistak egiteko tentaldiak somatzen dira, hau da, egungo legediaren arabera egin litekeen curriculumarekin konformatzeko tentaldia. Eta hori ez litzateke Euskal Curriculumuma, egungo curriculum ofizialen baitako egokitzapen bat baizik.
- b) Ekarpenak baino, onespena bilatzen da. Hezkuntza erkidegoaren parte hartzea bilatzen ari da, baina batzuetan badirudi ez dela uste hezkuntza erkidegoak funtsezko ekarpenak egin dezakeenik. Batzuetan ematen du gehiago bilatzen dela hezkuntza erkidegoaren babesa, baina ez horrenbeste bere ekarpena. Orain arte hezkuntza erkidegoari ez zaizkio behar bezalako baliabideak eman gaiaren gaineko iritzi sendo bat formatu ahal izateko, eta bere iritzia biltzeko hautatu den metodologia (inkestak betetzea) nahiko pobrea da.
- c) Curriculumarekin batera, mugimendu pedagogikoa behar da. Garai batean Euskal Herrian pedagogi berrikuntza mugimendu sendoa zegoen bitartean, gaur egun irakasleriaren berrikuntza nahia apalagoa da. Horretan badu zerikusirik jendartean oro har somatzen diren tendentziak (desmobilizazioa, desideologizazioa), baina baita behin-behinekotasunean dagoen irakasleriaren sektore zabalaren egoera, urtero ikastetxez aldatu behar baita. Euskal Curriculumuma garatu ahal izateko beharrezkoa da pedagogi mugimendu sendo bat eta uneotan horixe da puntu ahul nagusia.
- d) Gainditu beharreko oztopoen tamaina. Kontutan hartu behar dugu uraren korrontearen aurkako saiakera dela Euskal Curriculumarena. Europa osoan dauden tendentziak kontutan hartuz (hezkuntzaren merkantilizazioa, kalitate eredu jakin baten inposaketa), bi estatuek beren hezkuntza eredu eta curriculum inposatzeko baliabide guztiak dituztela kontutan hartuz, Euskal Curriculumarena David eta Goliathen arteko borroka dirudi.


2.4 Euskal Curriculumaren aplikazioari begira

Euskal Curriculumuma sortzearekin batera, Euskal Curriculumuma aplikatzeko estrategia finkatu beharra dago. Liburuxka honetan argi geratu den bezala, gaur egun ez da posible Euskal Curriculumuma legez aplikatzea Euskal Herri osoan, ez daukagulako horretarako eskumena izango lukeen hezkuntza ministerio nazionalik. Baina errealitate objektibo horrek ez dio Euskal Curriculumaren aldeko estrategiari bidea ixten.

Nola aplikatu dezakegu Euskal Curriculumuma? Lehenik eta behin, hor ditugu gure lurraldean dauden bi hezkuntza administrazioek dituzten eskumenak, EAEkoa eta NFEkoa. Teorian hezkuntza eskumen osoak dituzte bi administrazio horiek eta horietan oinarrituta Euskal Curriculumuma %100ean aplikatzeko erabakia hartu lezakete. Alabaina, hor dago aipatu dugun egiturazko arazoa, alegia, Madrilek edukien %55a betetzera derrigortzen dituela. Bestalde, kontutan hartu beharra dago legediak baimentzen duen %45a ere ez dela orain arte garatu. Portzentai hori garatzea eta Euskal Curriculumaren arabera egitea aurrerapausu bat litzateke egungo egoerarekin alderatuta. Alabaina, aplikazio partzial hori egiteko ere borondate politikoa egon behar da bai EAEn baita NFEen. Eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoaren kasuan ez dago horretarako aukerarik ere. Beraz, egungo legediaren baitan Euskal Curriculumuma ezin daiteke osoki eta lurralde osoan aplikatu. Horrek ez du esan nahi bide hori guztiz antzua denik; hortik egungo egoera hobetzeko urratsak ematen badira, ongi etorriak izango dira. Alabaina, Udalbiltzaren lehentasuna Euskal Curriculumuma aplikatzeko nazio estrategia antolatzean datza.

Nazio estrategia horren helburua honako hau da: Euskal Curriculumuma praktikan (hau da, egunez egun ikastetxean eta klase barruan ematen den curriculumean) aplikatzeko adostasunak lortu eta baliabideak sortzea, Euskal Herri osoan.

III. Taula: Euskal Curriculumaren aplikaziorako bi bide



Euskal Curriculumerako aplikaziorako nazio estrategia

Curriculum erreala ikastetxe bakoitzean eta klase bakoitzean garatzen den hezkuntza jarduera da. Aurretik ikusi dugun bezala, ikastetxe bakoitzak eta irakasle bakoitzak curriculum ofiziala aplikatu behar du eta hori horrela dela ziurtatzeko eragileak daude: ikuskariak, selektibitatea, testuliburuak. Alabaina, ikastetxe eta irakasle bakoitzak hezkuntza planteamendu propioak garatzeko apustua egin dezake, baldin eta horretarako borondatea baldin badu. Udalbiltzak egiten duen proposamena horixe da, hain zuzen ere: ikastetxe bakoitzak Euskal Curriculumuma aplikatzeko apustua egin dezan, bere errealitatetik abiatuta eta beraz curriculum nazionala bere errealitatera egokituz. Planteamendu hau Euskal Herri osoan garatu daiteke, berdin Leitzan, Senperen edo Irunen, nahiz eta tokian toki zailtasun gehiago ala gutxiago egongo den. Ikastetxeko hezkuntza proiektua eta curriculum proiektua dira horretarako tresna egokienak, horiek direlako ikastetxearen hezkuntza jardueraren erreferentzia. Hortaz, bertan gauzatu behar da Euskal Curriculumuma, ikastetxeko errealitatera egokituta.


Hala ere, borondatearekin ez da nahikoa. Horrekin batera, Euskal Curriculumuma aplikatzeko bitartekoak sortu behar dira. Curriculumuma aldizka ebaluatu eta berritu, Curriculumean sakondu, irakasleen formakuntza bideratu, baliabide pedagogikoak sortu... Dimentsio handiko lana da hau eta arlo horretan dabilzan eragileen elkarlana eskatzen du.

Euskal Curriculumuma aplikatzeko, beraz, bi ildo proposatzen dugu: batetik, ikastetxeko hezkuntza eta curriculum proiektuan txertatzea; bestetik, bitartekoak sortu eta garatzea. Bi hauen bidez, curriculum errealean eragin nahi dugu.

Alabaina, ildo horiek ez dira norabide bakarrekoak. Hau da, kontua ez da Curriculumuma hitzez hitz aplikatu eta sortutako baliabide pedagogikoak automatikoki eguneroko hezkuntza jardueran aplikatzea. Eguneroko hezkuntza jardueratik ere Euskal Curriculumuma aberastu eta Euskal Curriculumeraren aplikaziorako bitartekoak sortu behar dira. Hau da, teoriak eta praktikak uztartuta egon behar dute, elkarrengan eragin eta aberastu behar dute. Edo beste era batera esanda: Euskal Curriculumerekin batera, euskal jarduera edo mugimendu pedagogikoa beharrezkoa da. Hona hemen ideia hau grafikoki adierazita:



IV. Taula: Euskal Curriculumaren aplikaziorako nazio estrategia



3. HERRITARREN EKARPENA EUSKAL CURRICULUMARI

3.1 Herritarrak, Herri eragileak eta Hezkuntza

Euskal Curriculumaren oinarrian honako galdera hauek daude: *Zer nolako pertsonak hezi nahi ditugu Euskal Herrian? Zer nolako jendartea sortu nahi dugu etorkizunera begira?* Galdera horiei erantzuna ematea ez dagokie soilik aditu, pedagogo eta irakasleei; herritarrei ere badagokie.

Egia esateko, ideia hau ez da zerbait berria. Euskal Herrian, herritargoak kezka handia erakutsi du hezkuntza aferen inguruan eta hezkuntza egitasmo euskaldunak aktiboki sustatu ditu. Ikastola bakoitzaren inguruan herritarren aldetik egin den lan izugarria edota eskola publikoan euskarazko lerroak irekitzeko auzoz auzo egindakoa horren erakusgarri dugu, baita hezkuntza eremuko jaialdietan biltzen den jendetza ere. Herriaren eta hezkuntzaren arteko lotura horrek balore handia dauka eta etengabe elikatu beharrekoa da.

Herritar asko izaera eta lan-eremu ezberdinetako herri eragiletan biltzen dira, dela ekologia, dela feminismoa, dela euskalgintza. Herritarren ekarpena biltzeko orduan, Udalbiltzak herri eragileengana eta herri eragiletan dabiltzan herritarrengana jo du. Izan ere, herri eragileak dira, nor bere eremutik, herri proiektua definitzen eta lantzen ari direnak. Herri eragileak dira, etengabeko aldaketan dagoen mundu eta jendarte honetan, aldaketa horien aurrean erreakzionatzeko gaitasuna daukatenak. Eta herri eragileek izan behar dute, hortaz, hezkuntzak bermatu beharreko jakintza, abilezi eta batez ere baloreetan ekarpen handia egin behar dutenak.

Baina herri eragileen papera ez da hor amaitzen. Izan ere, kontutan hartu behar dugu eskola biharko Euskal Herria hori sortzeko elementu bat besterik ez dela. Elementu garrantzitsua, baina ez bakarra. Ez dezagun ahaztu: egungo gazteek denbora bera igarotzen dute urtean telebistaren aurrean eta ikasgelan. Horregatik, ezin diogu eskolari eskatu egun ditugun arazo guztiak konpon ditzan. Guztiok inplikatu behar gara jendarte berri baten sorreran, justizian eta askatasunean oinarritutako jendartea: eskola, familiak, herri eragileak, komunikabideak... Guztiok inplikatu behar gara Euskal Curriculumaren garapenean.

Herriaren eta eskolaren arteko lotura hori, beraz, guztiz beharrezkoa da, aipatutako bi maila horietan: Euskal Curriculumaren definizioan, batetik; eta Euskal Curriculumaren garapenean, bestetik. Zorionez, herri eragile gehienak ildo horretan ari dira lanean. Herri eragileak beren funtzio hezitzaileaz jakitun dira eta horietako askok hezkuntza egitasmoak sustatzen ari dira, bai eskoletako programetan zuzenean parte hartuz, bai eskolaz kanpoko ekintzen bidez, baita hezkuntza ez-formalaren alorrean ere.



3.2 Herritarren Ekarpena. Helburuak eta Metodologia.

Herritarren ekarpena biltzeko orduan, esan bezala, herri eragileengana nahiz eremuz eremu interesgarritzat jotzen zen pertsonengana jo zuten Udalbiltzak. Horretarako, hamar arlo berezi ziren eta arlo bakoitzeko eragile garrantzitsuenak identifikatu ziren:

1. Norberaren garapena (aisialdia, sexualitatea, drogak, osasuna...)
2. Ekologia mugimendua
3. Emakume mugimendua
4. Etorkinak
5. Euskalgintza
6. Historiagintza
7. Eskubide sozialak
8. Parte hartzea
9. Komunikabideak
10. Internazionalismoa eta Garapena.

Arlo bakoitzeko dinamizatzaile bana finkatu zen. Hamar lagun horiek, prozesuaren koordinatzailearekin batera, Herritarren Ekarpena biltzeko Talde Dinamizatzailea osatu zuten. Taldeak hamar hilabetetan zehar eginiko lana honako hau izan da:

- a) Prozesuaren gaineko informazioa 200 eragile eta pertsona baino gehiagori postaz bidali zitzairen. Udalbiltzako lehendakariaren aurkezpen gutunarekin batera, Euskal Curriculumuma sortzeko Udalbiltzak, Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuazek sinatutako hitzarmena eta Galdetegi bat bidali zitzairen.
- b) 50 bat eragileri zuzeneko auzuekua egin zitzairen, prozesuaren berri zehatzagoa eman, herri eragile bakoitzaren ekarpenaren garrantzia azpimarratu eta elkarlana eskaintzeko asmoz.
- c) Eragileek bidalitako Galdetegia bete eta helarazi ziguten. Era berean, eragile bakoitzak hezkuntzari buruz sortutako hausnarketak eta material didaktikoa bildu genuen.
- d) Eragile bakoitzari honako galdera hau planteatu genion: *zure arloaren ikuspegitik, zeintzuk dira 16 urteko gazteak bereganatu beharko lituzkeen kontzeptuak, abileziak eta baloreak?* Eragileetako batzuk horren inguruko hausnarketa helarazi ziguten.
- e) Galdetegietatik abiatuta, herri eragileen eta hezkuntzaren arteko harremanaren inguruko Diagnostikoa osatu zuten Talde Dinamizatzaileak. Bestalde, jasotako hausnarketetatik nahiz materialetik abiatuta, dinamizatzaile bakoitzak bere eremuari begirako txostena osatu zuten (ikus CDa). Txosten horretan, eremu bakoitzari dagokionez Euskal Curriculumumak landu beharko lituzkeen kontzeptu, abilezia eta baloreak biltzen dira, baita bestelako hausnarketak ere.
- f) Lan honen guztiaren emaitza Donostiako Kursaal aretoan eginiko jardunaldi irekietan aurkeztu zen, 2006ko urtarrilaren 28an.



GALDETEGIA

herritik eskolara

Badira gure herrian eremu laneari ari den herritar eta herri eragile ugari, eta bakoitzak, bere esperientziatik abiatuta, eskolan landu beharreko curriculumaren gaineko ekarpenak egin ditzake. Esaterako, ekologiaren arloan dabilzanek ekarpena egin dezakete ingurugiroarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntzaz. Eta berdin euskalgintzan, emakume mugimenduan, komunikabideetan, kulturgintzan eta beste hainbat eremutan lanean dabilzanek ere.

Zentzu honetan, jakin nahiko genuke...

1. **Zure edo zuen eremutik abiatuta, eskolari begira hausnarketa, proposamen edo ekarpenik egin al duzue inoiz?**
2. **Euskal Curriculumuma osatzeko prozesua abian delarik, zure edo zuen eremutik abiatuta, ekarpenen bat egiteko interesik izango al zenukete?**
3. **Zure edo zuen eremuan ekarpenik egin dezakeen pertsona edo eragilerik ezagutzen al duzue?**

eskolatik herrira

Belaunaldi berrien heziketa, alabaina, ez da eskolan hasi eta amaitzen; familiar, lagunartean eta kalean ere gauzatzen da. Horregatik, eskolak, berak bakarrik, ezin bidera lezake euskal haur eta gazteen heziketa. Gizartearen beste eremuek ere heziketa prozesu horretan lagundu eta parte hartu behar dute.

Ildo honetan, jakin nahiko genuke...

4. **Haur, gazte edo helduen heziketara bideratutako iharduerarik burutzen al duzue?**
5. **Zein izan daiteke herri eragile eta instituzioen papera herri honen belaunaldi berrien heziketari dagokionean?**



3.3 Herri eragileak eta hezkuntza. Diagnostikoa.

“Euskal Curriculuma. Herritarren Ekarpena” prozesuaren bidez osatutako Diagnostikoa, diagnostiko osatuago baterako lehenengo hurbilpena baino ez da. Izan ere, diagnostiko hori egiteko baliabide gutxi izan du Talde Dinamizatzaileak eta bildutako Galdetegi kopurua mugatua izan da. Beraz, osatu gabeko diagnostiko hau, ahalegin berriekin borobildu beharko da. Lehenik eta behin, diagnostikotik ateratako hiru ideia orokor aipatuko dugu eta jarraian, arlokako panoramika bat aurkeztuko dugu.

Herri eragileak beren funtzio hezitzaileaz jakitun dira

Lehenengo aldia da horrelako ariketa bat egiten dela, alegia, herri eragileekin nahiz herrigintzan dauden lagunekin hezkuntzari buruzko hausnarketa egiten dela. Eta ariketa bera egiterakoan, aurretik genuen ideia berbaieztatu dugu: funtsezkoa da herritarrek eta herri mugimenduak hezkuntza prozesuan parte har dezaten, arloz arlo irizpideak sortuz eta hezkuntza sistemarekin batera belaunaldi berrien heziketan lagunduz. Herri eragile gehientsuenek, nor bere aldetik, egin diegun galderari (*zein izan behar du herri eragileen papera belaunaldi berrien heziketari dagokionean?*) erantzun antzekoa eman diote:

- *Eskolarekin batera funtsezko zeregina dute gizarte eragileek. Heziketa hezkuntza formalaren eta hezkuntza ez-formalaren batasuna da. Lehenengoaz, gehienbat, eskola arduratzen da. Bigarrenaz, aldiz, bai gizarte eragileak, bai komunikabideak, familia... Beraz, ardura izan badute baina horretaz kontziente izan behar dute.*
- *Ardura zuzena dute. Hezkuntza formalaz gain egon badagoelako hezkuntza ez-formala eta biak gaztearen heziketaren txanponaren bi aurpegiak dira. Beraz, izan badute ardura eta horretaz kontzientzia hartu beharko lukete gizarte eragileek.*
- *Funtsezko protagonismoa izan behar dute. Izan ere, hezkuntza formalak eta gizarte eragileek, komunikabideek eta abarrek garatzen duten hezkuntza ez-formalak osagarriak izan behar dute. Edukiez gain, gizarte eragileek, modu apal batean, bereziki baloreetan ekarpenak egin beharko lituzkete. Izan ere, oso garrantzitsua da gizarte eragileen lan egiteko modua, auzolanean, bata bestearekin elkarrekin, lan egitea.*
- *Garrantzia itzela dute herri honen belaunaldi berrien heziketan. Heziketa ez da soilik eskolan ematen, heziketa kontzeptu zabalago bat da eta definizio zabal horretan gizarte eragileek bere funtzioa dute.*
- ...



Hortaz, herri eragileek erakusten duten ikuspegia pozteko modukoa dela iruditzen zaigu. Eta herri honetan, eskolaren eta herriaren artean egon den eta egun ere baden lokarrien erakusgarri izan daitekeela uste dugu.

Orain arte herri eragileek hezkuntza arloan izan duten parte hartzea oso ezberdina da arloz arlo

Badira arlo batzuk hezkuntza tradizio handia daukatenak. Arlo hauetako eragileek heziketari buruzko kezka bizia daukate, hezkuntzari buruzko hausnarketak egin dituzte eta material

didaktikoa ekoizteko ahaleginak ere egin dituzte. Egindako lanaren ondorioz, hezkuntza arloan korrante bat egituratzea lortu dute. Eta horren eraginez, kasu horietan, hezkuntza administrazioek ere gaiari heldu diote eta lan-ildotzat hartu dute. Honako hauek dira kasu esanguratsuenak:

- Emakume Mugimendua eta Hezkidetzak. Aspalditik dator mugimendu feministak hezkuntzarekiko erakutsi duen kezka. Gizon eta emakumeen parekidetasunerantz urratsak ematen lagunduko duten proposamen hezitzaileak egin ditu, “hezkidetzak” kontzeptua sortuz. Instituzioek ere hezkidetzaren inguruko hausnarketa eta lanak plazaratu izan dituzte.
- Ekologia Mugimendua eta Ingurumen hezkuntza. Ingurumenarekiko errespetuan heztea, uneotan ikastetxeetan jorratzen ari den zehar-lerro nagusietakoa da. Herri eragileek ez dute proposamen gehiegirik sortu; eragile instituzionalek, ordea, bai eta ez gutxi. Beste auzi bat da ea koerentea ote den ingurugiro heziketa bultzatzea ikasleekin, noiz eta instituzioek eragin handia duten azpiegitura egitasmoak garatzen ari direnean.
- Garapenerako GKEak eta Garapenerako hezkuntza. Pobretutako herrialdeen garapenean laguntzen saiatzen diren Gobernu Kanpoko Erakundeek hezkuntza ildo sendo finkatua dute eta hainbat bitarteko sortu dute.
- Etorkinen laguntzarako elkarteak eta Kulturarteko hezkuntza. Beste herrialdeetatik datozen herritarren ugaritzearen ondorioz, gai honen inguruko kezka izugarri hazi da azken urteetan. Horren ondorioz, “kulturarteko hezkuntza” izeneko lantzeko egitasmoak sortu dira hainbat ikastetxe eta herri eragileren elkarlanaren bidez. Era berean, etorkinen seme-alabak euskarazko irakaskuntzara bil daitezten bilatzen duten ekimenak ugarituz doaz.
- Euskalgintza eta euskararen irakaskuntza. Euskalgintzan historikoa da hezkuntzarekiko kezka. Euskarazko ikastetxeak sortu eta indartzeko lan asko egin dute euskalgintzako eragileek. Azken aldi honetan, euskara komunikazio bitarteko soila baino gehiago dela azpimarratzen ari da, alegia, hizkuntzak kultur edukia gordetzen duela bere baitan. Era berean, hizkuntza eskubideak eskola eremuan jorratzeko proposamen praktikoren bat argitaratu da.
- Aisialdia. Eremu honetan lan emankorra egin da gure herrian, bereziki Urtxintxaren bidez. Hezkuntza ez-formala eta aisialdia lantzeko hainbat bitarteko erabilgarri ekoiztu dira azken urteetan.

Beste arlo batzuetan, aldiz, hezkuntzari buruzko hausnarketa espezifiko gutxi egin dira orain arte: internazionalismoa, langile mugimendua, eskubide sozialen aldeko eragileak, komunikabideak... Eragile hauetako batzuei kostatzen zaie hezkuntzaren gaineko go-goeta egitea.

Euskal Curriculumuma sortzeko prozesua begi onez dakusate eta parte hartzeko prest azaldu dira.

Eragile gehienek begi onez dakusate Euskal Curriculumuma sortzeko prozesua eta parte hartzeko prest azaldu dira. Kasu batzuetan, esan den bezala, arazoa teknikoa da: ez dira hezkuntzari begirako irizpideak landu eta beraz curriculumaren gaia zerbait arrotza eta zaila egiten da. Baina ia eragile guztiek parte hartzeko borondatea adierazi dute eta horietako batzuk ekarpen interesgarriak egin dituzte.

V. Taula: Diagnostikoa. Herri eragileak eta hezkuntza.

Eremua	Eremuaren deskribapena	Eremua eta hezkuntza	Eremuko eragileak eta hezkuntza
Norberaren Garapena	Norberaren garapen integral eta askerako garrantzitsuak diren erronken inguruan aritzen diren herri eragileak hartu ditugu kontutan eremu honetan: 1. Aisialdiaren eremuan kokatzen direnak. Esaterako, Urtxintxa. 2. Gay eta lesbianen eskubideen alde egiten duten eragileak: EHGAM, Gaytasuna... 3. Sexualitatea lantzen dutenak. 4. Drogomenpekotasunen prebentzioan eta osasun-hezkuntzan aritzen direnak. Nagusiki, Askagintza.	Norberaren Garapenerako Hezkuntza Kontzeptu berria da hau. Norberaren garapen integral eta askerako garrantzitsuak diren gaien inguruko hezkuntza planteamendua izendatzeko proposatzen dugu.	Eremu honetako eragileak burubelarri dabilta hezkuntza munduan. Azpimarratzekoa da, batetik, Urtxintxak 1986tik egiten duen lan izugarria, honako hiru ildo hauetan: 1) Astialdiko begiraleen heziketa, 2) Haur eta gaztetxoentzako aisialdi alternatiben eskaintza; eta 3) Argitalpenak, jardunaldiak eta bestelako ekimenak. Bestalde, Askagintza droga-menpekotasunaren prebentziorako herri erakundeak dozenaka ikastetxetan garatzen duen osasun heziketa eta dorga-menpekotasun prebentzio programa integralak (ikasle, irakasle, familiekin).
Ingurumena	Ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako jendarte eredu bultzatzen duten herri eragileak bi multzotan banatu daitezke: batetik, alternatiba orokor baten inguruan lan egiten dutenak (Eguzki, Eki, Ekologistak Martxan...); eta bestetik, ingurumen afera jakin baten inguruan aritzen direnak (esaterako, AHTaren kontrako asanblada).	Ingurumen hezkuntza Ingurumenarekiko errespetuan hezea, uneotan eskoletan jorratzen ari den zehar lerro nagusietakoa da.	Herri eragileek ez dute proposamen gehiegirik sortu; eragile instituzionalek, ordea, bai eta ez gutxi. Beste auzi bat da ea koerentea ote den ingurugiro heziketa bultzatzea ikasleekin, noiz eta instituzioek eragin handia duten azpiegitura egitasmoak garatzen ari direnean.
Emakume Mugimendua	Eragile feminista ugari daude Euskal Herrian. Ia guztiek herri, eskualde edo herrialde jakin batean lan egiten dute, esaterako Gipuzkoako Plazandreak. Badira, halaber, arlo zehatzen inguruan antolatzen direnak, esaterako Iruñeko Emakume Internazionalistak. Bilgune Feminista da Euskal Herri osoan ezarpena duen eragile bakarra.	Hezkidetzak Aspalditik dator mugimendu feministak hezkuntzarekiko erakutsi duen kezka. Urtetan zehar, gizon eta emakumeen parekidetasunerantz urratsak ematen lagunduko duen proposamen hezitzailea garatu du, "hezkidetzak" kontzeptua sortuz.	Hezkidetzaren inguruko ekoizpena nahiko oparoa da, bai hausnarketa teorikoei dagokionez, baita baliabide pedagogikoen sorrerari dagokionez ere. Halere, erakunde feministen aldetik baino, mugimendu feministan dabilzan pertsonen ekimenez sortu izan dira horrelako bitartekoak.
Euskalgintza	Euskalgintzaren baitan euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten askotariko antolakundeak ditugu: 1. Hizkuntza eskubideen aldekoak (EHE, Hizkuntza Eskubideen Behatokia). 2. Tokian toki euskararen erabilpena bultzatzen dutenak (euskara taldeak eta komunikabideak). 3. Helduen euskalduntze eta alfabetatzerako sareak (AEK, IKA). 4. Euskararen inguruko azterketa eta ikerketak burutzen dituztenak (Soziolinguistika Klusterra). Horien guztien bilgune, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua dugu.	Hezkuntza euskalduna Hezkuntza eremua oso loturik egon da azken lau hamarkadetan euskalgintzari, izan ere, hezkuntza euskararen normalizaziorako tresnatzat ikusi baitu honek.	Euskalgintzatik hezkuntza eremuari begira egiten den lana hiru ardatzetan kokatu daiteke: 1. Hezkuntza eremuan hizkuntza eskubideen salaketa egitea. 2. Euskararen erabilpena bultzatzeko egitasmoak sustatzea. Helduen euskalduntze eta alfabetatzeaz arduratzea.

Eremua	Eremuaren deskribapena	Eremua eta hezkuntza	Eremuko eragileak eta hezkuntza
Historiagintza	Euskal Herrian Historia jorratzen duten talde ugari daude, askotariko izaera eta jarduerakoak: Eusko Ikaskuntza, Aranzadi, UEUko Historia Saila, EHUKo Historia Saila, Geronimo de Uztariz Institutua eta abar. , Halaber, jendartean dagoen zaletasuna nabaria da ere, horren frogagarri azken urteetan unibertsitateetatik at Nafarroaren inguruan sortu den historiografia oparoa, edo azken urteetan burutzen ari diren tokian-tokiko ikerketa ugariak.	Euskal Historiaren irakaskuntza Guztiek aitortzen dute historiaren irakaskuntzaren garrantzia. Alabaina, honen inguruan dagoen hausnarketa maila nahiko apala da eta baliabideak falta dira. Era honetan, historiaren irakaskuntza irakasle bakoitzak duen ikuspegiaren edota testuliburuaren arabera izaten da.	Historiaren alorrean ari diren eragile eta lagunen artean ez da hezkuntzarako hain beharrezkoa litzatekeen batasun minimoa lortzen ari, segurasko talde horien arteko dispersio eta atomizazioagatik. Talde horietan dabilzten lagunek irakaskuntzaren inguruko hausnarketak izan badituzte ere, ez da egin orain arte historiaren irakaskuntzaren inguruko hausnarketa orokorrik. Halaber, historiaren irakaskuntzan laguntzeko material gutxi sortu dute herri eragileek.
Parte hartzea	Parte hartzea bultzatzeko espezifikoki antolatutako herri eragilerik ez badago ere, parte hartzearen gaia lantzen duten eragileak egon badaude. Horien artean aipagarriena Joxemi Zumalabe Fundazioa da, herri mugimenduen autoantolakuntza bultzatzen duena. Ipes elkarteak ere herritarren parte hartzearen inguruko hausnarketak egin izan ditu. Unibertsitatean, “Parte Hartuz” taldea ari da.	Hezkuntza parte hartzailea Parte hartzearen inguruko kezka etengabea izan da hezkuntzan. Halere, azkenaldi honetan indarra galdu duen elementua dela esan daiteke.	Egia esan, parte hartzearen gaia hezkuntzaren eremuan jorratzeko material pedagogiko gutxi sortu da. Badira zenbait hausnarketa hezkuntza parte hartzaile baten inguruan, baina pertsona jakin batzuk idatzi dituzte, ez eragileek. “Parte Hartuz” taldeak bai landu duela gaia ikuspegi akademikotik, baina unibertsitate eremuari begira. Baita Ipesek ere, herritar guztiei eskainitako ikastaro eta publikazioen bidez.
Internazionalismoa eta Garapena	Oso izaera desberdineko hiru multzo daude eremu honetan: 1. Pobretutako herrien garapeneren alde lan egiten duten erakundeak: Garapenerako GKEak. 2. Talde internazionalistak: Komite Internazionalistak, Askapena, Euskadi-Cuba. 3. Nazioarteko eremuaren inguruko ikerketa lana egiten duten elkarteak: Gain, Ipes, Hegoa.	Garapenerako Hezkuntza Garapenerako GKEek kontzeptu hau sortu eta zabaldu dute azken urteetan. Munduko herrialdeen artean ematen diren desberdintasunak ezagutu eta horien gaineko hausnarketa bultzatzea da Garapenerako Hezkuntzaren xede nagusia.	Garapenerako GKEek Garapenerako Hezkuntzaren inguruko hausnarketak eta baliabide pedagogiko anitz sortu dituzte, normalean administrazioen laguntzarekin. Talde internazionalistek, aldiz, ez daukate hezkuntza sistemari begirako jarduerarik, baina nazioarteko gaien inguruan herritargoari begirako lan dibulgatiboa egiten dute. Nazioarteko gaiak aztertzen duten taldeei dagokionez, gai horien inguruko informazioa zabalteko lana egiten dute, bai herritargoari begira, baita kasu batzuetan ikastetxei begira ere.
Sindikalgintza eta eskubide sozialak	Eremu honetan oso izaera desberdineko bi eragile multzo elkartu dugu: 1. Sindikatuak. 2. Eskubide sozialen alde lan egiten duten eragileak. Hauen artean, 2.1 Tokian tokikoak: esaterako, Berri-Otxoak. 2.2 Herritik haratagoko jarduera daukatena: Elkartzen, Red contra la pobreza...	Herri hezkuntza Historikoki, langile mugimenduak errealitatea ulertu eta eraldatzeko tresnatzat jo izan du hezkuntza. Autoformakuntzaren beharra oso presente egon da.	Sindikatuak dagokionez, guztiek formakuntzaren alorra lantzen dute, baina ez modu berean. CCOO eta UGT sindikatuek formakuntza jarraian administrazioak finantzatzeko ikastaroak kudeatzeko egiturak dituzte. ELA eta LABek praktika hori errefuxatu egiten dute, onura ekonomikoak lortzeko helburua duelakoan. Eskubide sozialen aldeko herri eragileei dagokionez, ez dute hausnarketarik egin orain arte hezkuntzaren inguruan.
Etorkinak	Bi motako elkarteak topatzen ditugu eremu honetan: 1. Etorkinen elkarteak, hau da, herrialde jakin batetik etorritako herritarrek osatzen dituzten elkarteak, euren arteko harremanak sendotu, ekimen kulturalak antolatu eta beren eskubideak kolektiboki defendatzeko asmoz. 2. Etorkinei laguntza eman edota beren eskubideen alde lan egiten duten herri eragileak.	Kultura arteko hezkuntza Beste herrialdeetatik datozen herritarren ugaritzearen ondorioz, gai honen inguruko kezka izugarri hazi da azken urteetan.	“Kulturarteko hezkuntza” izeneko lantzeko egitasmoak sortu dira hainbat ikastetxe eta herri eragileren elkarlanaren bidez. Sos Arrazakeriaren lana aipagarri da zentzu honetan. Era berean, etorkinen seme-alabak euskarazko irakaskuntzara bil daitezten bilatzen duten ekimenak ugarituz doaz, euskalgintzaren eremutik. Etorkinen elkarteak dagokionez, hauek ez dute
Komunikabideak	Askotariko komunikabideak ditugu Euskal Herrian: Euskal Herritik kanpo egindakoak nahiz Euskal Herrikoak; nazio, herrialde edota herri mailakoak; egunkari, irrati nahiz telebistak; euskaraz, erdaraz ala bietan egindakoak.	Komunikazioaren gaineko hezkuntza Komunikazioaren gaineko ikuspegi integrala eta askatzailea garatzea beharrezkoa da, baita komunikazio bitartekoen inguruko alfabetizazio osoa ere.	Hainbat ikastetxetan honen inguruko egitasmoak badaude ere, oraindik orain gai honek ez du behar bezalako arretarik. Komunikabideek, bere aldetik, ez dute apenas hausnarketarik egin bere eginkizunei dagokionean.



3.4 Herritarren ekarpenak Euskal Curriculumari

Zaila da labur biltzea herri eragileengandik jasotako ekarpen eta iritziak, nahiz beraiek ekoiztutako materialetik ateratakoak. Liburuxkari atxikitutako CDan horien guztien berri ematen da. Hemen, ekarpen orokorrak azaldu eta arlokako ekarpenak aipatzera mugatuko gara.

Ekarpen Orokorrak

a) Euskal Curriculumak biharko Euskal Herria sortzeko lanabesa izan behar du

Euskal Curriculumak biharko Euskal Herria sortzeko lanabesa izan behar du: herritar eleanitzez osatutako Euskal Herria euskalduna, herritar “identitate-anitzez” osatutako Herria, pertsona ororen eskubideetan eta aukera berdintasunean oinarritutako bidezko jendartea. Bestelako mundu bat sortzeko ekarpena izan behar du Euskal Curriculumak, mundu berri bat non, Telesforo Monzonek idatziriko kantan aipatzen den bezala, herri bakoitzak beretik emango duen. Horrela azaltzen zen ideia hau bildutako ekarpenetako batean:

Modernitatearen aro honetara iritsi garenean, tren laster bat ageri zaigu, globalitarismoa, mundu zabalaren neurriak etxalde bihurtu nahi dituen tren lasterra. Tren geldiezina, baina norabidez aldatu beharrekoa. Herri gisa egituratu ezean, ekonomiaren globalitarismoak, industria kultural multinazionalak eta berregituraketa geopolitikoak irentsiko gaitu eredu kultural homogeenaren tsunamian. Beste mundu bat posible delako lelotik, beste mundu eredu batera igaro behar dugu, eta Euskal Curriculumak ere beste mundu hori sortzeko ekarpena izan behar du⁹.

Ikuspegi honetatik, Euskal Curriculumama ezin da mugatu ikasleei egungo jendartean aritzeko beharrezkoak diren abileziak ematera; egungo jendartea aldatzeko abileziak ere eskaini behar dizkie. Ildo honetan, honela definituko litzateke hezkuntzaren xedea:

Euskal hezkuntzaren xedea herritarrei errealitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, herrikide gisa eta izadikide gisa osoki edo integralki garatu daitezen.

Definizio honek hezkuntzaren eta errealitatearen arteko kontraesana (errealitatean balore jakin batzuk nagusitzen diren bitartean, bidezkoagoak diren balore batzuen arabera nola hezitu) askatzen du. Pertsona osoki garatzeko, jendartea bera aldatu beharra dago eta. Definizioan “errealitatea” aipatzen denean, egungo errealitateaz gain, errealitate historikoaz eta etorkizunekoaz ere ari gara. Alegia, hezkuntza prozesua honako hiru galdera hauen gaineko hausnarketa etengabe oinarritu behar da:

- Nondik gatoz?
- Nor gara?
- Nora goaz? Eta nora joan NAHI dugu?

⁹ Euskal Herriak Bere Eskola: *Euskal Curriculumari EHBEn ekarpena*.

Ez dago hiru galdera horien inguruko erantzun bateratua ematerik; ez dago guztiontzako baliagarria den definizioa emateko modurik. Baina, gainera, ez dago horretarako beharrik ere. Izan ere, hezkuntzaren funtzioa ez da galdera horiekiko erantzunak ikasleei ematea, baizik eta ikasleekin batera galdera horien gaineko hausnarketa egitea. Hau da, hezkuntza sistemak galderak egin behar ditu eta galdera horiei dagokionez zientzia eta kultur ondarea aurkeztu behar die ikasleei, baina galderekiko erantzunak ikasleek berauek bilatu eta aurkitu behar dituzte. Azken batean, belaunaldi bakoitzak errealitatea berrasmatu behar du.

b) Euskal Curriculumuma eta euskal hezkuntza herri eginkizuna da

Hezkuntza ez da prozesu aseptiko bat. Hezkuntza jendarte bateko belaunaldien arteko loturan oinarritzen da. Ikastetxeetan daude biharko Euskal Herria osatuko dutenak. Belaunaldi berriak gure herriko ondare kulturala jaso eta berrasmatu behar du. Bestalde, hezkuntza ez da soilik ikasgelan ematen den prozesua, ez espazioari dagokionez, ezta denborari dagokionez ere. Espazioari dagokionez, ikasgelan ikasten denaren bezainbesteko garrantzia dauka eskolako patioan, auzoko kaleetan, etxean edota komunikabideen bidez ikasten dena. Denborari dagokionez, kontutan hartu beharra dago hezkuntza ez dela bizitzaren garai jakin batetara mugatzen.

Honenbestez, hezkuntzaren eginkizuna ez dagokio soilik eskolari; familiak, komunikabideek, herri mugimenduak, zer esan eta zer egin franko dute hezkuntzari dagokionean, eta baita Euskal Curriculumumari dagokionean ere. Hezkuntza eginkizun soziala da, herri eginkizuna. Ildo honetan, herri eragileek hezkuntzarekiko ardura berri behar dute, Euskal Curriculumumaren definizioan nahiz geroko aplikazioan parte hartuz. Herritarren ekarpena biltzeko prozesuak zerbait argi utzi baldin badu, honako hau izan da: herri eragileen eta norabanakoen lanari esker, kapital pedagogiko herritar aberatsa dugu Euskal Herrian. Herri eragileek ekarpen handia egin dute belaunaldi berrien heziketari dagokionean eta aurrerantzean ere egin beharko lukete.

Baina herri eragileek bere hezkuntza proposamen eta baliabide propioak garatzearekin batera, beharrezkoa da haratago joatea: eskola eta herriaren arteko harremana bera da sendotu beharrezkoa. Hau da, kontua ez da soilik herri eragileek ikastaroak, unitate didaktikoak eta bestelakoak antolatzea. Horrekin batera, Euskal Herriko ikastetxeak, herri mugimenduak etengabe sortzen duen kapital pedagogiko horretaz busti egin behar ditugu. Izan ere, ematen du azken urteotan kapital pedagogiko hori “ahaztu” eta hezkuntza prozesu formala (eskolan ematen dena) pobretu egin dela. Esaterako, duela hogeit urte ikastetxeetan hezkidetzaren inguruko tentsio maila handia zegoen bitartean, gaur egun badirudi tentsio hori galdu egin dela neurri handi batean.

Gure proposamenak, beraz, hiru alderdi ditu:

- Herri eragileek bere baliabide propioak aurreikusi behar dituzte.
- Herri eragileek hezkuntza formalean ere parte hartu behar dute.
- Ikastetxeek herriari ireki behar dizkiote ateak.





Kursaaleko jardunaldiak

2006ko urtarrilaren 28an, Udalbiltzak jardunaldi irekiak antolatu zituen Donostiako Kursoal aretoan, hamar hilabeteetan jasotako ekarpenak aurkeztu eta curriculumaren inguruko hausnarketa egiteko. Emaidza ikusgarria izan zen: azken garaietan hezkuntzaren inguruan antolatutako eztabaida herritar zabalena. Hezkuntza arloko lagunak eta herri eragileetakoak elkarrekin, Euskal Herriak behar duen curriculumari buruz eztabaidatzen.

Asistentzia

Osozara 280 lagun inguru bildu ziren. Beste 83 lagunek izena emana zuten baina ezin izan ziren azaldu elurra dela eta. Beraz, eguraldiarengatik ez balitz, 363 lagun bildu izango liratezke. Kontutan hartuz hasiera batean 200 bat lagun biltzeko asmoa zegoela, deialdiak arrakasta handia izan zuela esan dezakegu.

Parte hartu zuen jendearen profila, honako hau: emakumea (%60), gipuzkoarra (erdia) eta irakaslea (%40). Datu hauek zera adierazten dute: lehenak, emakumezkoek hezkuntza arloan duten garrantzia eta egiten ari diren lanaren tamaina adierazten du; bigarrena nahiko logikoa da, kontutan hartuz jardunaldiak Donostian egiten zirela; eta hirugarren datuari dagokionez, irakasleen artean gai honekiko sortu den interesaren adierazlea da.

28 herri eragiletako kide esanguratsuak egon ziren, beti ere maila pertsonalean: EHBE, IA, LAB, Sortzen-Ikasbatuaz, Hik Hasi, Urtxintxa, Askagintza, Euskal Herriko Gazte Bilgunea, Segi, Eguzki, AHTren aurkako asanblada, EHNE, EHKME, Bilgune Feminista, Colectivo de Colombianos, Azraf (saharaiak), AC! Pays Basque, Fato Daniel Castelo (galegoak), EHE, Hizkuntza Eskubideen Behatokia, Topagunea, Nabarralde, Gaiak argitaletxea, Elkartzen, Duina, IPES, Askapena, GAIN. Nazio Garapen Biltzarreko ordezkariak ere bertan izan ziren.

Datu hauek kontutan hartuta, asistentzia oso ona izan zen, bai koantitatiboki baita koalitiboki ere. Hezkuntzaren inguruan kezka dagoela adierazten dute gure ustez eta baita Euskal Curriculumaren aplikaziorako nahikoa masa soziala dagoela ere.

Edukiak

Aldi berean arlokako 10 tailer antolatu ziren eta bakoitzean 10 eta 50 lagun bitartean egon zen:

- | | |
|--------------------------------------|--|
| 1. Norberaren garapenerako hezkuntza | 6. Parte hartzea eta hezkuntza |
| 2. Ingurumen hezkuntza | 7. Internazionalismoa eta Garapenerako Hezkuntza |
| 3. Hezkidetzak | 8. Eskubide sozialak eta hezkuntza |
| 4. Euskara eta hezkuntza | 9. Komunikabideak eta hezkuntza |
| 5. Historiaren irakaskuntza | 10. Kultura arteko hezkuntza |

Bestalde, curriculumaren inguruko Tailer Orokor bat antolatu zen, 80 bat lagunengatik.

Tailer bakoitzean bi atal bereiztu ziren: batetik, arlo horri dagokionez interesgarriak diren esperientzia eta ikuspegiak aztertzeko atala; bestetik, arlo horretatik Euskal Curriculumak kontutan hartu beharko lituzkeen irizpideak identifikatzeko eztabaida.

Lehenengo atalean 25 hizlari aritu ziren, arlo ezberdinetakoak. Horieta batzuk ezagunak eta beste batzuk ez horrenbeste: Joxe Mari Auzmendi, Abel Ariznabarreta, Gurutze Ezkurdia, Oihana Llorente, Txus Congil, Mariam Bilbatua, Mikel Sorauren, Alizia Stürzte, Joxe Manuel Odriozola, Paul Bilbao, Rosa Andrieu... Orokorrean hartuta, programa nahiko potentzia osatu zuten eta ponentziak kalitatezkoak izan ziren. Tailer batzuetan, hala ere, ponentziak luzeegiak izan ziren eta eztabaidarako tarte gutxi geratu zen.

Bigarren atalari dagokionez, esan beharra dago eremu bakoitzeko egoeraren araberakoa izan zela eztabaida. Eremu batzuetan gutxi sakondu zen, eremu horretan hezkuntza gaia gutxi landu delako edota herritarren ekarpena biltzeko prozesuan berandu ibili garelako. Beste batzuetan, aldiz, argi eta garbi geratu da zehazturik zeintzuk diren Euskal Curriculumean txertatu beharreko irizpideak. Edozein kasutan ere, denboraz motz geratu ziren jardunaldiak.



Arlokako ekarpenak

1. Norberaren garapenerako hezkuntza

Euskal Curriculumak norberaren garapenerako hezkuntza bermatu behar du, bereziki, sexualitatea, osasuna eta aisialdia bezalako eremuei dagokionez.

2. Ingurumen hezkuntza

Euskal Curriculumak ingurumen hezkuntza hartu behar du kontutan; baina era berean, instituzioek beren praktikak aldatu beharko lituzkete. Izan ere, alferrik da gazte nahiz helduei ingurumena errespetatu beharraz hitz egitea, ingurumena hondatzen duten egitasmoak bultzatzen diren bitartean.

3. Hezkidetzak

Euskal Curriculumaren ardatzetako batek hezkidetzak izan behar du. Euskal Curriculumak gizon eta emakumeen arteko parekidetasunean oinarritutako jendartea eraikitzen lagundu behar du.

4. Euskara eta hezkuntza

Euskal Curriculumak euskararen oinarritu behar da. Ez soilik hezkuntza jarduerak euskaraz izan behar duelako, baizik eta hizkuntzak berak kultur eduki jakin bat duelako. Hizkuntza, kultura eta identitatea, elkar loturik doazen osagaiak dira.

5. Historiaren irakaskuntza

Historiaren irakaskuntza auzi gakoetako bat da. Kontutan hartuta ere edozein nazioaren Historia konbentzio bat dela eta askotan mitifikazioerako joera dagoela, Euskal Herriaren eta Euskal Herriaren egindako Historia nazional bat irakasteko eskubidea eta beharra dugu euskaldunok.

6. Parte hartzea eta hezkuntza

Parte hartzea errealitate egin beharko genuke nola jendartean hala ikastetxean ere. Baina honetarako, Euskal Curriculumean kontzeptu jakin batzuk txertatzeaz gain, parte hartzea ikastetxearen eguneroko praktikan oinarritu beharko litzateke.

7. Internazionalismoa eta Garapenerako Hezkuntza

Europar nagusi den etnozentrismoa ihes egin eta jurtzian nahiz berdintasunean oinarritutako munduaren ikuspegia jorratu beharko genuke euskaldunok.

8. Eskubide sozialak eta hezkuntza

Hezkuntza ezin da merkatuaren beharren eta merkatu arauen arabera antolatu. Aitzitik, hezkuntza pertsonen eta Herriaren garapenean lagundu beharko luke, ahal duen neurrian, desberdintasun sozialak gaituz.

9. Komunikabideak eta hezkuntza

Komunikabideek arduraz jokatu beharko luke, izan ere, gaur egun hezkuntzak bezainbeste pisua baitaude pertsonen kultura eta ikuspegia moldatzeko orduan. Komunikabideek beren paperaren gaineko hausnarketa serio eta sakona egin beharko lukete.

10. Kultura arteko hezkuntza

Norberaren hizkuntza eta kulturatik abiatuta, eta horiek aintzat hartuta, euskara eta euskal kulturaren murgiltzeko aukera eman behar zaie kanpotik datozen herritarrei.



Curriculumaren gaineko ikerketatik abiatutako gogoeta

Gurutze Ezkurdia Arteaga *Euskal Herriko Unibertsitatea*

Gaur eguneko gizarteek garrantzi handikotzat hartzen dute hezkuntza arloa, batez ere herri garatu eta teknifikatueta. Hezkuntza Sistema da gaur eguneko Estatueta funtsezko tresna Estatueta kultura eta identitatea erreproduzitzeko eta, baita produzitzeko ere etorkizuneko belaunaldien artean. Kontuan hartu beharko genuke haur txikia eskolatzen dugunean horren identitatea, bai pertsonala zein soziokulturala, eskolan eta honen testuinguruan garatuko direla, eta nagusitzean, lan merkatuan eta gizarte demokratikoan parte hartzeko prestaturik egongo dela. Gaur eguneko gizarte modernoetan oso indartsu garatzen den erreproduzio lana -ohitura, sineskera, pentsaera, ideologia eta baloreena ere- Eskolak betetzen du, batez ere. Bertan ikasten da hiritar demokratikoa izaten, langile edo teknikari puntakoa eta, baita, kultura nazionala. Horregatik gero eta garrantzi handiago ematen zaio hezkuntzaren arloari eta gizarte gehienak saiatzen dira euren sistemak egokitzen eta eguneratzen etengabe.

Euskal Herriaren egungo izatea definitu nahian, hizkuntza, lurraldea eta giza taldea hartu ditugu ardatz modura: euskararen lurraldean bizi eta garatu den herriak identitate kolektibo nabarmendua du: politikoki, Erdi Arora arte antolaketa politiko berezitua izan du; Estatuia izan duen herria dugu (Iztueta, 2000, 112-113); beraz, XIX. mendera arte legedi propioa izan du, egun frantziar eta espainiar Estatueta Konstituzioeta menpe aurkitzen badugu ere. Linguistikoki eta kulturalki Europako herririk zaharretarikoa dugun hau Auñamendi edo Pirinioetako kulturaren partaide da, bai gizarte antolaketan, bai lege iturrietan, bai emakumeak gizarteetan jokatzen duen paperetan zein beste arlo askotan ere. Une honetan oso desorekatua eta desegituratua aurkitzen dugu, bi errealitate sozio-ekonomikoren parte izanik: batetik mendebaldean eta hegoaldean autonomia politiko-administratibodun lurralde bitan banatua aurkitzen dugu, altxor publikoeta esparru batzuk bere esku dituela; bestetik, ipar-ekialdean, errekonozitu gabekoa, Frantziar estatuko Akitaniako Erregioeta eta Basses Pyrénées-eko Departamenduko lurraldean, nortasun berezitu gabeko Pays-a da, inolako eskubiderik gabekoa.

Estatueta gabezia, barne eraketan arazo larriak bizi dira lurralde sakabanatueta ondorioz; historiarik ez dugu eta euskal hizkuntzaren eta kulturaren birsortzerik ez da ematen bere osotasunean: famili eta etxekoeta transmisioeta oinarrituak zeuden esparru gutxiak aspaldidantik eskolak ordezkatu ditu hein handi batean, ikastolen eta euskarazko eredueta gain utzi baita pisurik handiena. Baina hadi! Azken hauek ere Estatueta lege nagusien plangintzen menpe aurkitzen dira, lege estatal hegemonikoen menpe, hain zuzen (Karmele Pérez Urraza, 2002). Bizi dugun egoereta ondorioz, euskal identitateeta birsortzean zein sortzean arazo larriak ditugu, gehienetan ez baita ematen euskaldungoeta bizi-indar soziokulturetan oinarritu (Odriozola, 2001, 95). Zeren Euskal Herrieta aurkitzen ditugun Hezkuntza Sistemak bi Estaturi dagozkie, frantsesari eta espainolari, eta bakoitzean interes gune desberdinei erantzuten die, bietan ere Euskal Herrieta interessei erantzuten ez dielarik. Gauzak horrela, Euskal Herriak gaur eguneko nazio bezala irau nahi baldin badu, behinik behin, Hezkuntza Sistema nazionala antolatu beharrea aurkitzen da, eta horretan Curriculumuma.



1.- Curriculumuma Euskal Herrian: curriculum estatalak eta aldarrikapena.

Curriculumari buruzko teoriantzat bi dira aztergune nagusiak: bata, *Zer* irakatsi, eta bestea, *Nola* irakatsi. Erantzuna teoria eta diskurtso ezberdinen eskutik datozkigu; batzuk, ikaste-irakaste prozesuaren eta ezagutzaren izaeran jartzen dute indarra, beste batzuk, kultura eta gizartearen arteko harremanetan. Ez gara honetan luzatuko. Gure ustez ikasleak jakin behar duena da garrantzitsua, zein ezagutza den on edo garrantzitsu curriculumean ager dadin, zeren ezagutza kulturala baita, eta pertsonak identitatea sistema kulturalan eraikitzen du, bizi den talde soziokulturalan. Azken finean, eskoletan irakasten den edukiak gure identitate soziokulturalaren osaketan eragina duela jakinda, arazoa zera da: gure identitatearen erreproduktzioa, eta baita, produktzioa ere, hau da, egoera berrietara egokitzea, bermatu behar dugula Hezkuntza Sistemaren eta Curriculumaren bidez.

Estatu guztietan Hezkuntza Sistema, eta baita curriculuma ere, legez arautzen da, legea delako subiranotasunaren ezaugarri funtsezkoa. Euskal Herria bi Estaturen legediaren menpe aurkitzen dugu, frantsesa eta espainola: Frantziako oinarritzako Ferry legea da, 1881koa, eta ordutik hona aldaketak edo erreformak proposatu badira ere oinarritzako izpiritua bera da, -nazio frantsesaren ohorea eta batasuna goraiatzeko- 1951etik aurrera Frantziako hizkuntza eta dialektoak irakasteko ardura hartzen den arren. 1995eko moldaketan lekuan lekuko hizkuntzak eta kulturak irakasteko aholkuak eta orientabideak ematen dira. Azken moldaketak 2002ko urtekoak dira. Bestalde, Espainian Moyano Legea dugu Frantziakoaren parekoa, 1857koa. Honek ere, mende oso batez iraun du. Sakoneko aldaketa aipagarria 1970eko Legean aurkitzen dugu lehenengoz, zeinetan, besteak beste, hizkuntza natiboak irakastea aipatzen den. Geroago etorriko dira 1982an Programa Berriak eta 1990ean LOGSE Legea. Honetan Estatuak ardatz curricularra markatzen du eta autonomi desberdinetan egokitzen desberdinak moldatzen dira. Ondoren, LOCE legeak curriculumaren moldaketa proposatu zuen eskumako talde boteretsuen gidaritzapean, baina indarrean jarri baino lehen, gidaritzak politikoak aldatzean, berriz ere, aurreko moldaketaren moldaketa proposatzen da, LOE. Espainia Europa aurreratuaren trena hartu nahian dabilela begi bistakoa da, baina kalitate eta kultur maila orekatua lortu ezinean dabil, 25 urteren buruan egindako 8 Lege Organikoek aditzera ematen dutenez.

Curriculumak, herri garatuetakoak batez ere, gero eta berdintsuagoak dira, XXI. mendeko eskolak irakaskuntza unibertsala sustatzea eskatzen baitu halaberrez, horixe baita nazioarteko ebaluaketetan neurtzen dena. Curriculumaren gutxieneko ikasgaien irakaskuntza finkatzerakoan Estatuak ondo lotzen duten arloa da: legez arautuak dira, inspektoreek gainbegiratuak eta azterketen bidez neurtuak. Euskal Herrian curriculum ofizial bi ditugu, bi estatuak, eta Espainiakoan bi egokitzen autonomiko.

Baina, egoera horrelakoa izanik ere, gure Euskal Herriko talaiatik begiratu gero, ezin ukatu ez dela samurra, Euskal Herriaren zatiketak bere horretan jarraitzen duen bitartean, behintzat, ez dugulako modurik aurkitu gure curriculum nazionala lege finkatzeko, eta horretan, Euskal Herriko indar politikoek hitzartutako edukien gutxiengoa ezartzeko. Eta gainera, une



honetan, Espainiako estatuak berriztatutako curriculumera atzera ere egokitu beharrak eztabaidak eta lanak ekarriko ditu, besteetan bezala, Estatuaren menpe ahal den “euskaldunen” edo egokien jarraitu ahal izateko. Bien bitartean, egoera honek dakarren indarren sakabanatzeak moteldu egiten du gure abiadura curriculum nazionalaren eraikuntzan. Dena den, gauzak horrela dira, eta, aldarrikapen mailan jarraitzen dugu oraindik ere. Aldarrikapen mailakoa dugu, besteak beste, euskal curriculumarena.

2.- Bazterrak garbitzen: zertaz ari gara? Euskal Dimentsioa curriculumean, Euskal Curriculumum ala Euskal Herriko Curriculum Nazionala.

Estatuak bizitzarako baliozkoa den ezagutza hautatzen, banatzen eta antolatzen du, ezagutza ofizial bezala curriculumean legeztatuz. Euskal Herriaren moduko Estaturik gabeko errealitate etnokulturalek ez dute curriculumik: Euskal Herriko Eskola Nazionalaren aldarrikapena, Curriculum Nazionalarena mugimendu erresistenteen aldarrikapen baten historia baino ez da momentuz, ez baita ez Estaturik ezta administrazio independenterik ere, curriculumum lege arautzeko.

XX. mendearen azken hamarkadan, batez ere, harrotu da euskal curriculumaren aldarrikapena. Batzuk *propioa* deitu diote, beste batzuk *euskal curriculumum*, edo *euskal curriculum berezia*. Eta, bada, *Euskal Curriculumumaren dimentsioa* deiturikoa ere. Guk *Euskal Herriko Curriculum Nazionala* aldarrikatzen dugu, Euskal Herriko lurralde osoarentzat lege bakarrak arautuko lukeena, euskalduna eta geure identitate soziokulturaletik edango lukeena.

Hegoaldean dugun egoera curricularrak sistema autonomikoari erantzuten dio, Espainiako Curriculum Diseinuaren egokitzapenaren bidez; baina inolaz ere ez Euskal Herriak dituen beharrian nazionalai. Egoera jatorriz oker dator, lege nagusiak Espainiako legedian edaten baitu, Estatu hizkuntza eta kultura hegemonikoaren isla izanik, ez besterik. Horren adierazle da, teoriarik, Estatuak edukien % 55 hartzen duela beretzat, autonomi elkarteentzat uzten duenak % 45. Praktikan, ordea, ez da hau bere horretan gauzatu orain arte behinik behin.

Azken hamarkada honetan izan da euskal curriculumaren aldarrikapenean mugimendurik handien, baina ezin uka hogeigarren mendean egin diren aldarrikapenak ere. Nondik nora ibili garen eta gabiltzan jakiteko, laburpen xumea egin dugu. Curriculumaren aldarrikapena hegoaldeko nazionalismoarekin loturik aurkitzen dugu, batez ere hasierako lanetan.

Iparraldean

Iparraldeko eskoletan gaur egun lantzen den curriculumum Frantziako 2002ko lege moldaketak arautzen du. Euskal Herriko irakaskuntza eta curriculumari buruzko aldarrikapenak Ikastolen hedapenarekin egiten dira 1969 urteaz geroztik lehen ikastola legeztatzearekin (Etxebarria, u.g. 108). Euskal Herriatik eta Euskal Herriarentzako irakaskuntza aldarrikatzen da, eta, Euskal Herriari buruzko ezagutzak landuz zenbait jakintza arlotan. Ikas-bi-k, eskola nazionalako adar elebidunean curriculum egokitua aldarrikatzen du, irakaskuntzaren gai batzuk euskaraz eginez. Euskal Herriari buruzko irakaskuntzak lantzean, iparraldeko hizkuntz berezitasunei erantzun nahirik testuliburu frantses batzuk euskaratu eta moldatu dituzte. Hala eta guztiz ere, aldarrikapenak jarraitu egiten dute: euskararen ofizialtasuna, euskarazko materialak, eta abar.



Hegoaldean

Curriculumaren aldarrikapena nazionalismoaren garapenak eragindako testuliburu eta eskola materialen ekoizpenarekin loturik dator. Hiru epe desberdinak ditugu: Hasierako nazionalismoa (1896-1945), Frankismotik Juancarlistikora (1945-1976) eta Erreforma demokratikoaren esparru berria (1978-2000).

A) Hasierako nazionalismoa (1896-1945)

XX. mende hasieran, Espainiako Estatuan derrigorrezko eskolaratzea hedatzen den heinean, Auzo eta Nekazal Eskolak antolatzen dira Diputazioen gidaritzapean. Sistema ofizialetik kanpo, bestalde, pareko sare bat sortzen da, Euskal Ikastetxeak, Eskolak eta Ikastola¹. Sasoi honetako aipamen berezia merezi duten autoreak Arana, Eleizalde eta Landeta dira. Aranak garrantzi handia ematen dio Hezkuntzari, eskola espainolak “desvasquizatu” egiten dituelako euskaldunak, Espainiako lurraldea, historia eta hizkuntza eta ikur nazionalak irakasten baititu. Euskal eskola abertzalea aldarrikatzen du, euskalduna eta fededuna. Landetak, geroago, euskal eskolaren beharrezko agiriaren uzten du curriculuma eta euskara bereiziz. Eusko Ikaskuntzako Kongresuan aurkeztu zuen oinarriko irakaskuntzari buruzko proiektu zehatz eta aurrerakoian, sasoioko joera berritzaile eta higienistak kontuan hartzen dira, planteamendu autonomistari jarraituz. (Landeta, 1919, 899).

B) Frankismotik Juancarlistikora (1946-1976), bi aro

1936ko Altxamendu Nazionalaren ondoren, bi aro ezberdintzen dira euskal erresistentziaren mugimenduan: Klandestinitate garaia 1941etik 1959ra arte eta Ikastolen hedakuntza eta legalitatea, 1960tik 1977ra arte (Fernandez, 1994, 302).

a) Klandestinitate garaia (1941-59): garai hau 1945eko legeak markatuko du, eskoletan lantzen den curriculuma, *Movimientoak* bultzatutako *Nacional-catolicismoaren* baloreetan eta ezagutzan oinarritzen da, Historia Sakratuak eta Espainia Inperialaren handitasuna irakasten dira. Euskal Herririk ez da, euskararik ere ez, omisioa da ezaugarri nabarmenena. Erresistentzia isila eta etengabekoa, zenbait emakumeren isilpeko lanean (Fernandez, 1993, 59-88) aurkitzen dugu: Etxe-eskolen eta haurtzaindegien, eta baita elizetan doktrina kristauarekin batera irakasten zituzten euskal kantuen, errezoen, eta ikurren bidez, herri modura bizi-iraupeneko ezagutza eman nahian, erresistentzi eredu garria burutu zuten (Fernandez, 1994, 302), Errepublikara garaiko Euskal Eskolen espirituari jarraipen klandestino emanaz.

b) Ikastolen hedakuntza eta legalitatea (1960-77): Estatu Espainiarrak Europarekiko zuen atzerapenari aurre egin nahian, lege berria arautzen du 1970ean, *Ley General de Educación* deritzona. Herri mugimenduari erantzunez, lege kanpo sortuak ziren euskal eskolak instituzionalizatze eta legezkatze prozesuan halaber ezartzen dira. Euskal irakaskuntzak bultzada handia jasotzen du sasoi honetan, Europar ematen ari ziren aldaketa ekonomiko, ideologiko eta eskolarrei erantzuteko sortzen direlako Ikastolak, euskal irakaskuntza modernizazio bidean jarritz. 1960 urtetik aurrera hizkuntza, hezkuntza, modernitatea

¹ Arrien, G. (1987, 89): *Educacion y escuelas de barriada en Bizkaia*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo; Fernandez, I. (1994, 20): *Oroimenarren hitza*, UEU, Bilbo; Zabaleta, I. (1998): *Euskal nazionalismoa eta Hezkuntza (1895-1923)*, Doktorego Tesia, EHU, Donostia.



eta hiritartzearen osagaiak biltzen dituen ikastola, sortzen da. Ezkutuko etxe-eskoletan lantzen zen curriculuma orain antolatu, bildu, beharrianetara egokitu eta taiutu egingo da. Euskal Herriko irakaskuntza nazionalaren oinarrian legokeen planteamenduaren zutabeak jarri nahian, zenbait ezagutza Euskal Herriko errealitatean oinarritzen dira.

C) Erreforma demokratikoaren esparru juridiko berria (1978-2006)

Juancarlismoan bi aro ezberdinu ditugu: 1978tik 1992ra arte Post-frankismoa edo Transizio garaia eta 1992tik, hau da, LOGSE legea ezartzen denetik, gaur egunera arte.

A) 1978-1992 Post-frankismoa eta Transizioa: Garai honetan ikastolen mugimenduaren eta euskal eskola publikoaren aldarrikapenak sendotuz doaz, Espainiako Estatu Autonomietan antolatzen da, hegoaldeko lurraldeen zatiketa finkatuz. Banaketa honek ondorio luzeak eta sakonak eragiten ditu, batez ere hizkuntzaren irakaskuntza eta erabileraren arauketan eta hezkuntzaren antolaketan. Euskal irakaskuntzaren inguruko arazo, eztabaida eta asmoak bi bidetan banatuko dira: EIKE Euskal Ikastolen Erakundea, batetik eta, EEPA Euskal Eskola Publikoaren Alde, bestetik. Euskal Eskola Nazionalaren aldarrikapena dago, bien asmoetan. Euskarak eta euskal kulturak aro berri bati ekiten diote, euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ikastoletatik irten eta ikastetxe zein eskoletara zabaltzen da. Ondorioz, Euskal Eskola Publikoaren aldarrikapena indartu egiten da. Arazoak ere badira: irakasleen prestakuntzaren aldetik, materialen falta aldetik, kalitatezko irakaskuntzaren aldarrikapena.

B) LOGSE-tik gaur egunera arte: aldi honetakoak dira LOGSE, Oinarrizko Curriculum Diseinua eta Euskal Eskola Publikoaren Legea. LOGSE-k Espainia mailako irakaskuntza eraldatu egingo du, derrigorrezko eskolaratzea 16 urtera arte luzatuz eta irakaskuntza diseinu autonomikora egokituz.

Curriculumaren Oinarrizko Diseinua ezartzen den sasoi honetan Euskal Curriculumaren aldarrikapenak² hiru joera hartzen ditu: *Euskal curriculum berezia*–ren ingurukoak. Horren inguruan *Euskal Curriculumaren dimentsioa* aldarrikatzen da, Euskal Herriko eskola eta ikastoletan egiten den curriculum ofizialari euskal kulturak dituen berezitasunak txertatu behar zaizkiola defendatuz. Ildo honetan bi lan dira aipagarri; Xabier Garagorrik, Lore Erriondok, Xabier Isasik *Hezkuntzaren normalkuntzarenean* liburuan, euskal dimentsioarena proposatzen dute. Dimentsioa J.M. Barandiaranen galdeketa

² Bada bibliografia gai honetaz: Apalategi, J. (1994, 5-7): “Euskal Irakaskuntza eta Curriculumuma”. *Isilik*, 19; Bilbao Bilbao, B. (1994, 11-12): “Erreforma, Curriculumuma eta Kultura”. *Isilik*, 19; Bilbao Bilbao, B. (2002): *Kultura Erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumumean Euskal Herriko eskoletan*, E.H.U., Bilbo; Bilbao, B.; Ezkurdia, G., Perez Urraza, K. (2001, 179-200): “Mendebaldea testuliburuetan” in ASKOREN ARTEAN: *Euskalkia eta Hezkuntza*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo; Ezkurdia, G. (1994, 8.10): “Hezkuntza erreforma eta lurraldetasuna”, *Isilik*, 19; Perez Urraza, K. (2002): *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*, Doktorego Tesia, Ehu, argitaratzeke; Erriondo, L. (1996, 25-43): Euskal Curriculumuma? In *Jakin*, 93-94.; Murua Uria, I. (1996, 45-96): Lehen Hezkuntzako Ikasmaterialari Gainbegiratua. Gai sozial eta kulturalak euskal testuliburuetan” in *Jakin*, 93-94; Erriondo, L.; Garagorri, X.; Isasi, X. (1998): *Hezkuntzaren Normalkuntza*, UEU, Bilbo.



etnografikoan islatzen diren arloetan definitzen dela eta islatu beharra dagoela aldarrikatzen da. Gaur egunean onartu nahi den Euskal Curriculumerako Porposamena lan honetan oinarritzen da, funtsean.

J.M. Odriozola-ren lanean (2000), berriz, lau ardatz lantzen dira curriculumaren oinarri bezala, lurraldetasuna, historia, kultura eta hizkuntza: hauexek dira curriculumari itsatsi behar zaizkion oinarritzko ezagutzak, autorearen proposamenaren arabera. Ikuspegi hauetan Espainiako edo Frantziako curriculum nazional hegemonikoak hartzen dira oinarri bezala eta gehitu egiten zaizkio euskal kulturaren ezaugarri batzuk. Gure ustez okerreko bidea da hau, Euskal Herriko curriculum nazionalak Barandiaranek proposatzen dituen arloak lantzeaz gain, euskal nazioa osatzen duten ardatzetan oinarritzea ezinbestekoa dela pentsatzen baitugu. Gai honetan ere, besteetan bezala, boterea da arazo nagusienetako bat.

Euskal Curriculumaz mintzatzen garenetan, euskaraz egiten denari deitzen zaio, berez. Baina hizkuntzak bakarrik ez du bermatzen talde identitatea, izan ere Espainiako edo Frantziako curriculum da, euskaraz lantzen den arren; horregatik, ez dugu uste horri Euskal Curriculum deitzen diezaionik: batetik, Euskal Herriko eskoletako erdarazko curriculum, Estatu-nazio hegemonikoen hizkuntza ardatzean oinarritzen delako, eta ez Euskal Herrikoan, euskaraz; Euskal Herrian nagusi diren hizkuntza eta kultura hegemonikoen isla delako, azken finean. Bestetik, euskarazko ereduetan eta baita ikastoletan ere euskaraz egin arren, askotan ez direlako lantzen Euskal Herriko lurraldea, historia, legeak, erakundeak, kultura, zientzia, pertsonaiak eta abar (Bilbao, 2002; Perez Urraza, 2003).

Euskal Herriko Curriculum Nazionala aldarrikatzen duten lanak ditugu azkenik: Euskal Herriko lurralde osoarentzat lege bakarrak arautuko lukeena, geure identitate soziokulturalean oinarritua eta euskalduna. Ildo honetan daude Paulo Iztueta, Begoña Bilbao, Karmele Perez Urraza, Gurutze Ezkurdiaren lanak³. Oinarrian, curriculumaren zutabeak Euskal Herriko izate etnokulturalean eta etnoterritorialean uztartu beharra dagoela aldarrikatzen dute, hizkuntza eta kultura euskaldunean, lurralde eta historian, legean eta subjektuen eraikuntzan, zientzia eta botere antolaketan. Zutabe horietatik edan beharko lukete Euskal Herriko curriculumeko edukiek, prozedurek eta balioek. Lan hau ere planteamendu berean oinarritzen da.

Azken hausnarketak Paulo Iztueta eskutik datoz Euskal Curriculum ala Euskal Dimentsioa curriculumean? Liburuan aurkitzen ditugu. Honetan autoreak egoeraren azterketa egin ondoren garbi uzten du curriculum nazionalaren beharrezana⁴.

³ Ikus, orobat, Ezkurdia, G. (1994, 8-10): "Hezkuntza erreforma eta lurraldetasuna", *Isilik*, 19; Bilbao Bilbao, B. (1994-11-12): "Erreforma, Curriculum eta Kultura". *Isilik*, 19; (2002): *Kultura Erreferenteak Oinarritzko Hezkuntzako Curriculumean Euskal Herriko eskoletan*, E.H.U., tesi doktoral, argitaratze bidean; Iztueta, P. (2000): *Hezkuntza, Hizkuntza eta Boterea Euskal Herrian*, Utrisque Vasconiae, Burgos; (2002, 8-17) "Euskal curriculumari eskola kentzen", *Hik hasi*, 71, urria; Perez Urraza, K. (2002): *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*, Doktorego Tesia, EHU. Ezkurdia, G. (2004): *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean*, Doktorego Tesia, EHU.

⁴ Iztueta, P.: Sarrera in Bilbao, B.; Ezkurdia, Gurutze; Perez, Karmele (2004): *Euskal curriculum ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?*, Utrisque Vasconiae, Donostia.



3.- Curriculumuma: ezagutza, hegemonia eta identitateen arazoan artean.

Paulo Iztuetak (2000, 20) Hezkuntzaren Soziologiatik egindako azken ekarpenen ildotik abiatuta, Euskal Herriko errealtatea aztertzerakoan, bi arlo nagusi aurkitzen ditugu, mendebaldeko beste gizarte batzuetan bezala. Batean, Estatu demokratikoak gizarte kapitalistarekin dituen kontraesanak biltzen dira -klase, genero eta adin dimentsioetan islatzen direnak, besteak beste-, eta bestean, gizarte kapitalistetan eskubide pertsonalen eta kolektiboen artean ematen diren arloarena, hizkuntza eta nazio arazoan arteko kontraesanean islatuak. Denak botere harremanez uztarturik.

Curriculumaren teoria kritiko-dialektikoak, norbanakoa taldekide bezala ulertzen duen heinean, bizitza sozialean, ekonomikoan eta kulturean arrazionalki parte hartzeko eta honen eraldatzailea izateko gaitasuna garatzea aldarrikatzen du, hezkuntzaren izaera politikoa onartuz. Joera hauetan, curriculumak botere gune bezala ulertzen denez, irakaskuntzan islatzen diren ezagutzak boterea duten talde sozialen hautu bezala hartzen dira eta, era berean, curriculumak indarrean dauden ideologiaren eta kultura ofizialaren erreproduzioa bideratzen du kontzientzia moldaketaren bidez, gizarte kapitalistaren antolaketa soziala ontzat, bakartzat eta desiragarritzat aurkeztuz, eta Estatu-nazio kapitalistan sinesgarritasuna mantenduz.

Curriculumak, beste edozein asmakizun sozialen - Estatuak, nazioak, erlijioak, futbola...- modukoa da. Eraikuntza soziala da ikerketa kritikoan arabera, *Curriculumak* hautaketa kulturalaren bidez zehaztutako ezagutza baita, gai eta diziplinetan zehaztua, denbora zehatzean banandua, hierarkikoki antolatua. Gertaera soziala eta historikoa da, beraz, zeren modu eta eduki batzuk hautatuz, beste batzuk baztertuz, une historiko zehatzeko tresna ideologiko eragile garrantzitsuan bihurtzen baita. Arazoaren muina, ordea, honetan datza: zeintzuk diren balekotzat edo baliozkotzat onartzen diren ezagutzak eta moduak, eta, ondorioz, zeintzuk baztertzen diren, baita nork erabakita eta zertarako egiten den jakitea.

Gure gizarteko kontraesanak, -klase gatazken ez ezik, generoarena, arrazarena, etniarena, adinarena eta familiararen artekoak, baita nazio arazoak ere-, hezkuntzan eta curriculumean islatzen dira. Horregatik diogu curriculumak identitateen arteko gatazka gune dela, zeinetan klase sozial bakoitza, baita identitate nazionala ere, bere hegemonia ezartzen ahalegintzen den. Zentzu honetan, curriculumak kultura tresna da, “curriculum erakundetua” delako, eta curriculumaren “edukia” eraikuntza soziala izatean, ezin delako botere harremanetatik at aztertu. Kontraesan hauen artean kokatzen da curriculumak: ezagutza mota bat lantzean, besteak baztertzen ditu, jakinda ezagutza ez dela izadiaren edo errealtatearen ispilu bezala ulertzen, sortze eta interpretazio prozesu sozialaren ondorio bezala baizik (Da Silva, 2001, 169).

Pertsonak identitatea talde soziokulturalaren eta sistema kulturalaren arabera eraikitzen dugu gure identitatea. Identitatearen eraikuntzan bi alde desberdintzen ditugu: batetik arbasoengandik jasotzen dugunaren bidez, taldekide egiten gara. Honi erreproduzioa deitzen zaio. Baina, egoera berrietara egokitzeko askotan modu kultural berriak sortzen ditugu aurrekoak moldatuz eta aldatuz. Honi Kultur produkzioa deitzen diogu. Testuinguru horretan eskola ezagutzaren banatzaile eta sortzaile bezala ulertzen dugu. Curriculumaren bidez esanahi eta balore kulturalak eraikitzen dira ezagutza “objektiboa”



delako medio, eta baita ezkutuko zenbait ezagutzei eta hautatzen eta irakasten ez direnei esker ere. Identitatearen eraikuntzan pertsonaren inguruak duen eragina ukatu gabe, curriculumak islatzen duen inguru horren ikuspegia, eskolako edukietan islaturik eta zehazturik aurkitzen duguna bere biziko garrantzia duelakoan gaude. Curriculumuma bada, ez da eraikuntza neutroa, inuzentea, maltzurkeriarik gabekoa, curriculumean islatutako ezagutza, ezagutza berezia delako, hautatua, boterea duten taldeek hautatua, hain zuzen. Oinarri-oinarrian uztarturik edozein estatuk bere identitatea erreproduzitzeko antolatzen eta irakasten dituen oinarrizko zutabeak aurkitzen ditugu (Ezkurdia, 2004). Azter ditzagun labur-labur.

Estatu nazioaskodunean garatzen da nazio hegemonikoa. Horretarako Estatuko lurraldean dagoen guztiaren berdinketa bultzatzen da, klase sozialetan, ezagutza eta jakituri ofizialetan, konstituzio bakarrean, lurralde bakarrean, historia nazional bakarrean, hizkuntza bakarrean eta kultura nazional bakarrean. Denen artean nazio hegemonikoaren oinarrizko ardatzak (Poulantzas, 1979, 80) osatzen dituzte, eta hauek hala edo nola curriculumaren diseinuan islaturik aurkitzen dira.

1.- Indibidualizazioa eta klase sozialak: Indibidualizazioa eta herri kolektibitatearen aldarrikapena.

Gizarte modernoko oinarrizko zutabea dugu gizabanakoa, eskolan sozializatu eta hiritarra eta langilea izaten ikasten du, bere kontzientzia eraikiz. Kontzientzia horren arabera gizabanakoa subjektu bihurtuko da, hiru subjektu mota bereizten ditugularik. Lehenik eta behin, sistema demokratikoko Subjektu politikoa da, ordezkari politikoa hautatzean eta berari dagokion botere esparrua ordezkariengan delegatzen duen heinean (Poulantzas, 1979, 80). Gero, Subjektu ekonomikoa da, langilea sistema kapitalistan. Honetan langile bakartuaren lan-indarra eta denbora erosten dira, banan-banan, jabeagoaren legedian oinarritutako irizpideari jarraiki: jabea norbanakoa da, pertsona fisiko bakarra. Subjektu ekonomikoa bakartuaren heziketa da hezkuntza sistemaren betebeharra, bakartutako agenteak, -norbanakoak,- klaseen arteko banaketan hezi, kualifikatu, eta prestatu dagokion klase-postua bete ahal izan dezan. Hirugarren Subjektu kulturala ere bada, herrikidea; derrigorrezko eskolaratzearen ondorioz herrikidea karrera pedagogikoaren jabea da, kultura ofizialean hezia eta berdindua. Eskolak, eta honen bidez curriculumak, beteko du paper hau, Estatu-nazioko klase hegemonikoek egindako hautapen kulturalari esker: globalizazio ekonomikoen aitzakian kultura ofizialen pentsaera, sentimendu eta bizitza-moduak eredu garrantzitsuak jartzen dira, testuliburuetan zein komunikabideetan islatzen diren eredu bidez. Holakoetan bakoitzak egin dezakeen hautapen pertsonala goraitpatzen da, norbanakoari independentzia osoa eskaintzen zaion bitartean.

Euskal Herriko lurralde historikoan bizi diren euskaldunek Frantziako edo Espainiako hiritartasuna dute, ez, ordea, Euskal Herrikoa. Euskaldunoi gure herrian subjektu politiko, ekonomikoa eta kulturalak izateko eskubidea zor zaigu eskubide osoz, Estatu bateko subjektu subiranoa izatea, azken finean. Era berean, subjektu ekonomikoa, zerga emaile eta langile, baita subjektu kulturala, euskalduna, eskolan euskal kulturaren erroturiko curriculumean hezia ere. Baina Euskal Herriko kasuan kolektibitatea ez da klase ezberdintasunean edo generoen edo adinaren esparruetan ematen bakarrik; gure kasuan talde etno-historikoaren solidaritateak ditugu, hizkuntzak berak ematen dizkigunak. Horienganako errespetua aldarrikatzen da.

2.- Legea eta bortxa: aldarrikapen politiko-jurídikoa.

Zuzenbidezko Estatuan legea da errealitatearen arautzaile: legegileek arautu eta araututakoa aparatuek errepresiboek bete eragin; bete ezik, gaztigatu, justiziaren eta antolaketa errepresiboek bidez (isuna, kartzela, bazterketa mota ezberdinak). “Legea da arrazoia, legea da jakintza, kapitalaren zerbitzura dagoena” (Iztueta, 2000, 50). Legearen euskarri da Eskubide Estatu Konstituzionalean bortxaren eta izuaren monopolioa, gerra egiteko ahalmena. Bortxa erabiltzeko ahalmen legitimoa aldarrikatzen du Estatuak botere erabakitzailearen bidez, nahiz eta bortxa hori modu zuzen eta zabalean ez erabili kasurik gehienetan (Iztueta, 2000, 20). Are gehiago, jakituri ofizialaren ezarpena bideratzeko eskola eta hezkuntza sistema dira bitarteko; kasu honetan, biolentziaren erabilera sinbolikoa da, baina erabilia: eskola porrotak askotan marjinazioa dakar. Sistemaren modu bikoitza errepresiboa eta ideologikoa, gizarte burgesaren arauak barnerratzeko erabiltzen da eta, bide batez, ordenu sinbolikoa mantentzen da. Ordenu sinbolikoan ezagutzak duen zeregina eta garrantzia da ondoren gure hausnarketaren helburu.

Euskal Herriak, Europako beste herri etnokulturalen antzera, epe luze izate nazionala osatzen du, historian zehar (Intxausti, 1985, 529) iraun duena, eta Estatu modernoaren eraketa sasoian erresistentzia aurkeztu zuen arren, gaitortua izan zena. Estatu desberdinetan banaturik eta integraturik iraun du errealitate etnokultural bezala. Bere subiranotasun politiko-juridiko-militarra galtzean (Iztueta, 2000, 112), -Euskal Herriak bere estatalitatea izan du, Nafar Estatuan islatua-, ez du jakin izan mendez-mendeko ibilbide kolektiboa aurrera ateratzen, ez eta Estatu berreraikitzen. Subiranotasunaren galeraren ondorioz, modu ezberdinetako erresistentzi prozesu luzea eta etengabea sortzen den arren, menderakuntza mendeetan zehar indartu eta finkatu egin da. Iraultza burgesaren ondorioz, Estatu-nazioaren izenean menderapena areagotu eta mozorrotu egin da arlo juridikoan, politikoan zein kulturean, eta Hego Euskal Herriaren egoera autonomikoa bada ere, menderapena mozorrotu baino ez da egin (Apalategi, 1988, 39). Frantziako kasuan ia desagertze dago euskal talde etnokulturala. Bai Frantziaren zein Espainiaren egiten diren politiken ondorioz, Euskal Herriaren gero eta desintegrazioa handiagoa bultzatzen da. Egoerari aurre egin nahian, herri-subiranotasuna aldarrikatzen da, status juridiko legal osoa lurralde osoarako. Bi jarrera nagusi aurkitzen ditugu nazio gatazkaren inguruan: Estatu-nazio hegemonikoen aldeko apustua, espainol edo frantses hiritar sentitzen direnena, alegia, eta Euskal Herriaren burujabetasuna aldarrikatzen dutenena, nolabait esateko, proiektu autonomista eta independentistetan islatzen dena.

3.- Lan intelektuala eta eskulana: jakintza eta boterea: Intelligentsia euskaldunaren aldarrikapena: Unibertsitate, Hezkuntza eta Curriculum nazionala.

Estatu kapitalistaren logikan, edozer, - ondasun, klase, hizkuntza, lurralde zatiketa, denbora zatiketa, jakituriaren zatiketa-, berdindu edo homogeneizatu egiten da, ondoren interesen arabera birbanatzeko. Ezagutzaren zatiketarekin lanaren bereizte soziala finkatzen da, eskulana eta lan intelektuala. Azken hau Estatuaren aparatuetan gauzatzen da, lan intelektualaren eta menderapen politikoaren, hots, jakintzaren eta boterearen arteko harremana bideratuz. Desberdintasunak



areagotzeko, Estatu aparatuetan funtzionarioek erabiltzen duten hizkuntza, diskurtsoa eta jakituria bere-berezkoa dute, herri xehearentzat ulergaitza.

Euskal Herrian aspaldi salatua izan da euskal intelligentsiaren gabezia: ez daukagu ez unibertsitaterik, ez hezkuntza sistemarik, ez curriculum nazionalik. Intelligentsia arrotzak, aro historikoetan Elizakoak eta modernoetan Estatuetakoa, ez du sekulan aintzakotzat hartu Ezagutza ofiziala izan ez den besterik, gizabanakoak berezkoa duen kultur eredu soziokulturaletik eratorria, hain zuzen (Iztueta, 1996, 23); arrazoia eta unibertsala kontzeptuak beretzat, propiotzat hartu dituelako. Euskal Herriko goi-mailako kultur eredu erdaraz landu da, ez euskaraz. Gaur egun bizi dugun egoera euskal gizarteak eta, bereziki, goi klaseek historikoki egin dituzten kultur aukeren eta erabakien ondorio zuzena da (Iztueta, 1996, 446). Are gehiago, kultura talde hegemonikoekin lotuta doan kapitala dugun heinean eta Euskal Herrian hauen jarrera historikoa erromantzeen aldekoa izan den neurrian, euskal intelligentsiarik ez izatea izan da gure patua (Iztueta, 1996, 445). Erresistentziaren bidetik, eraso ideologiko intelektualari erantzuteko proposatzen diren irtenbide eta konponbideak aurrera atera daitezten, gero eta justifikazio zientifiko eta arrazoituen beharrian handiagoa dago. Horretarako ezinbestekoa da Intelligentsia propioa antolatzea, harik eta efektibotasun handiena lor dezagun Euskal Herriaren eraikitze prozesuan.

Erresistentziaren bideari ekinez, eta Mendebaldeko Euskal Herrian autonomiaren ondorioz, euskararen historian euskarazko irakaskuntza lehengoz antolatu da, lerro osoan unibertsitate arte. Euskal Herriko unibertsitatea ere antolatu da, bertan euskarazko ikerketak eta goi mailako irakaskuntzak bultzatzen direlarik. Euskal Herriko Unibertsitatea autonomiko eta elebiduna da, ez nazionala eta euskalduna. Ondorioz, ez da intelligentsia euskaldun sendo baten heziketa bermatzen (Iztueta, 1996, 446), dauden ahaleginak maila pertsonalean gelditzen direlarik. Bien bitartean, Euskal Herriko unibertsitate nazionalaren aldarrikapenak ugariak dira eta erresistentzi mugimenduak lanean dirau, hala nola Udako Euskal Unibertsitatearen ekimenetik datozen proposamenak eta baita Eusko Ikaskuntza, Udako Euskal Unibertsitatea, unibertsitate berriak. Ildo beretik doaz hezkuntza sistema nazionalaren aldarrikapenak: Euskal Eskola Nazionala, Ikastolen Mugimendua, baita Curriculum Nazionalarenak ere.

4.- Espazioa eta denbora: lurraldea eta historia: Historiaren eta lurraldearen aldarrikapena.

Lurraldeak eta historiak egungo sisteman duten esanahia ez da iraganeko beste sistemetan zeukatena (Poulantzas, 1979, 115). Espazio mugatu eta finkoa da lurraldea, Estatuaren izate materiala, mugez markatua. Eskolan ikasten ditugu lurralde nazionalaren ezaugarriak, mugak eta mapak bereziki, eta honetan kokatzen da ikasten denaren gehiena. Batasun nazionalari esker, muga barneko espazioan dagoen guztia berdindu egiten da, lurralde nazionalari edukia emanez eta nazioaren parte eginez, berezkoa balitz bezala aurkeztuz.

Espazioarekin batera denbora dugu nazioaren zutabe. Kapitalismoaren antolaketa ekonomikoak denboraren neurketa berria dakar, Estatuak kontrolatu eta bildu egiten du, botere tresna bihurtuz eta historia ofiziala monopolizatuz. Historiak norabidea eta helburua du, amaierarik ez, ordea. “Oraina” trantsizio gune da, “lehenak” eta “geroak” markatua: lehenaren ondorio ezinbesteko den bitartean, etorkizunaren oinarrian dago (Poulantzas, 1979, 134). Azken finean, historia bueltarik ez



duen Estatuaren eraikuntzan gertatu diren uneen bilketa izango da (Poulantzas, 1979, 127). Horretarako Estatuak historia beretzat hartzen du eta nazio berriaren lehena berreraiki egiten du. Historizitate partikularrak biltzean eta beste batzuk baztertzean nazio-etnikoen historia homogeneizatu egiten du, desberdintasunak zapuztuz. Azken finean, nazio berriari historia nazionala dagokio. Esandakoa agiriago gelditzen da, historia eta lurraldearen artean sortzen den lotura nazio hegemonikoan gurutzatzen dela kontuan hartzen badugu (Poulantzas, 1979, 134).

Honetara dator ezagutzaren kontrola eta produkzioa Estatuaren kontrolpean dagoela esaten dugunean. Historiaren Erret Akademiak eta historialari ofizialen papera da honetan aipagarri: historiaren ikuspegi lineala aurkezten da, aurretiaz Historia Erret Akademia Nazionalak ezagutza zientifiko bezala dogmatikoki ezarri duena. Historiaren ikuspegi ofizialean, zientziaren ikuspegi “zientifikoa” aldarrikatuz, nazio hegemonikoa subjektu historiko bihurtzen da, ziklo luzeetako subjektu soziokulturala ordezkaturik. Subjektua aldatzean, Historiaren irakurketa zeharo aldatzen da, nazio soziokulturalen ibilbide historikoa ikuspegi horren menpe jartzen baita. Historialarien esku dago, hain zuzen, kontzientzia nazionala osatzeko dauden bi osagaien kontrola: batetik, historiografia ofiziala eta, bestetik, hezkuntza sisteman arautzen den curriculumaren osaketan proposatzen den historia ikuspegia, hots, funtsezko gertakari nazionalen hautaketa. Ikuspegi ideologiko ezberdinen gainetik ere Estatu-nazioaren eraikuntzan izan diren funtsezko gertakariak beti agertzen dira.

Euskal Herria hainbat izen erabiltzen da Europako erdaretan, baina guk, geure burua izendatzeko, Euskal Herria darabilgu. Euskal Herria euskararen lurraldea da, baita euskararen herria ere: euskaraz mintzatzen den herria. Hizkuntzak ematen dio nortasuna taldeari zein lurraldeari, hots, gizataldea eta lurraldea dira euskararenak. Euskararen lurralde historikoa aldarrikatzen da, bertako ingurunearen ezaugarri etnokultural eta historikoetan oinarritua, euskarak bizi ahal izateko bere lurraldea eta bere gizataldea behar dituelako beretzat. Euskarak biltzen gaitu. Aldarrikatzen den lurraldea euskararena da, ezaugarri etnolingüistiko bateratsuak dituen herriarena: Euskarak, egoera azpiratu eta diglosikoan eta bere lurraldea erdararekin konpartiturik, dagokion lurraldea beretzat aldarrikatzen du, hizkuntza batek bere lurralde propioa behar baitu iraupena ziurtatzeko. Baita, berea den gizataldearen Historia ere. Bizirik irauteko bere memoria jaso eta historia eraikitzeko eskubidea aldarrikatzen du.

5.- Hizkuntza eta kultura: aldarrikapen etnolingüistikoa eta kulturala.

Estatu-nazioaren uztarri da hizkuntza (Poulantzas, 1979, 137). Botereko taldeek hizkuntzarekin batera Estatu-nazioaren kultura zehaztu egiten dute euren ereduaren arabera. Hizkuntza nazionalak hiritar guztiak berdintzen ditu –kodigo nazional bakarra ezarri-, baina era berean, barne desberdintasunak ere sortuko ditu identitate ekonomiko eta kulturetan. Horretarako, autoritatea duten autoreek eta Estatuak sortutako intelektualek kodifikatu eta finkarazi egiten dute Hizkuntza nazionala euren berezitasun profesionaletarik birmoldatuz: sendagileen, abokatuen, funtzionarioen hizkuntza bereziak, adibidez. Hizkuntza nazionala hiritar guztiak jakin beharra dute eta horretan, Eskola izango da hizkuntza nazionala zabaltzeko eta inposatzeko tresnarik eraginkorrena, irakasleen eginbehar funtsezkoen artean hiritarra Estatu-nazioaren hizkuntza, kultura eta ikur nazionalen jabe eginaraztea baita.



Horrek ekarri du beste hizkuntza ez ofizialentzat arrotz eta ez landu edo kulto bezala kontsideratuak izatea, arazo larriak sortuz. Estatuko beste hizkuntzak, askotan ez ofizialak maila txikiko berbetak bezala hartuko dira. Hizkuntza nazionalaren inposaketak hizkuntza zein kultura etniko gehientzat hil ala biziko egoera ekarri du.

Egoera horretan aurkitzen dugu euskara. Euskarak ez du gaur egun lurralderik, zeinetan funtzio guztiak euskaraz betetzen diren: beste bi hizkuntzekin bizi da egoera diglosikoan. Hor kokatzen da aldarrikapen etnolinguistikoa eta kulturala. Aldarrikapenaren fruitu ditugu hiru lorpen garrantzitsu: bata, Euskaltzaindiaren eraketa, euskara estandarizatua bideratu duena; bi, euskararen ofizialtasuna, lehenengoz historian, eta hiru, hezkuntza sarean antolatu diren adar euskaldunak hizkuntzaren normalkuntzarako, batez ere mendebaldeko lurralde administratiboetan.

Baina hizkuntzaren berreskuratzearanean badira arazoak, euskararen lurraldea legedi ezberdinen menpe egotean, egoera juridiko anitzak sortzen direlako. Horrez gain, euskara bizi indartzeko eta bultzatzeko orain arte egin diren ahaleginak eskubide pertsonalen errespetuan oinarritu direnez, arazoak sortu dira praktikan. Euskarak bizitzari hel diezaion eta euskal gizartea berreskaldutzeko ez da nahikoa eskubide pertsonalak errespetatzearekin, “gizarte-egiturak ere aldatu beharra dago, eskubide indibidualak adina kolektiboak, biak dira errotik errespetatu beharrekoak” (Iztueta, 1996, 465). Aldaketa hauek bideratzeko, politikoak ezinbestekoak dira (Iztueta, 1996, 36) besteak beste: “Hizkuntza guztiak boterearen babesean hazi eta hezi dira, hizkuntza nazional guztien historiak frogatzen duen bezala, eta nazio-egoera berreskuratu nahi duen hizkuntzari statusaren alderdiari dagozkion gutxienezko neurri politikoak hartu beste biderik ez zaio geratzen. Hizkuntzen historia, azken batean, hizkuntzen, nazioen eta klaseen arteko gatazken historia da”. Euskararen arazoa, funtsean, egiturazkoa da, ez indibiduala soilki (Iztueta, 1996, 311). Eta sustrai historikoak dituen egiturazko arazo honi irtenbidea bilatu nahirik egin dira Autonomi Erkidegoan Hizkuntzarako Plangintzak. Arazo politikoari irtenbidea emateko, P. Izuetaren esanetan (1996, 367), hartu diren neurriez gain, ezinbestekoa da botere politikoa lortzea euskararen etorkizuna ziurtatzeko: “Nazio-arazoa, orduan bezala gaur, arazo politikoa da funtsean. Zehatzago esanda, botere-arazoa. Hau onartzetik hasi behar da kulturgintzaren eta politikagintzaren arteko harreman hertsia finkatzen eta lantzen. Eta maila horretan bada zer azterturik: hots, klasearteko gatazkak eta hizkuntzartekoak nolakoak diren eta horiek elkarren artean zein eragin duten. Hizkuntzaren bilakaera historikoa osatzen duten gizarte-elementurik oinarritzkoenak oro, sozio-politikoak, ekonomikoak, ideologikoak eta bestelakoak, guztiok bete-betean inplikaturik datoz hizkuntza baten normalkuntzan, horren statusari dagokionean bereziki, eta hizkuntz plangintzan elementu horien osotasuna aintzakotzat ez hartzea akats larria delakoan gaude. Edozein hizkuntz plangintzatan beti dago presente politika, politika hau egiazki eragiten duen mekanismoaren barne-funtzionamendua agerikoa ez bada ere. Horregatik, euskararen berreskurapen-prozesua apolitizatu nahi izatea, sustraian bertan huts egiten duen planteamendua da”. Hizkuntza da, bada, curriculumaren ezinbesteko oinarria.



4.- Amaitzeko ala hasteko?

Gaiak askorako ematen du, eta, horrelako gai potoloa lau orrialdetan tajuz sakontzea ezinbestekoa da. Dena den, orain artekoak ondo eginak daude, eta, poliki-poliki bidea antolatzen hasiak gara. Baina, Euskal Herriko Hezkuntza Sistema Nazionalaren eraketan, zein Curriculum Nazionalaren antolaketan, estarta egiten hasiak garen arren, oraindik-orain gailurra hurrin daukagu. Egoera subiranoa lortu aurretik, tarteko bide zidorrak joratu beharrean aurkituko gara, oraingoan euskal curriculumaren egokitzapena, bihar-etzi, beste zerbait izango da. Dena den, ezin dugu etsi, eta, aurrera ekiteko premia dugu, halaberrez. Baina tontorrerako bide horretan ez dezagula iparririk galdu. Ekin diezaiozun lanari eta aurrera!



BIBLIOGRAFIA

APPLE, M. W. (1986): *Ideología y currículo*, Akal, Madrid.

- (1994): *Educación y poder*, Paidós, M.E.C., 2. arg., Barcelona.

- (1995): “La política del saber oficial: ¿Tiene sentido un currículum nacional?” in ASKOREN ARTEAN: *Volver a pensar la educación. (vol. I). Política, educación y sociedad*, Morata, Madrid, 153-171 orr.

- (1996-a): *El conocimiento oficial: la educación democrática en una era conservadora*, Paidós, M.E.C., Barcelona.

- (1996-b): *Política cultural y educación*, Morata, Madrid.

ARRIEN BERROJAEHEVARRIA, G. (1987): *Educación y Escuelas de Barriada de Bizkaia. (Escuela y Autonomía. 1898-1936)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao.

AZURMENDI, J. (1985): “Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian” in INTXAUSTI, J.: *Euskal Herria. Historia eta Gizartea, I*, Lankide Aurrezkoa, Donostia, 357-386 orr.

BARCELÓ, F. (1995): “Eusko ikaskuntzak curriculumean” in ASKOREN ARTEAN: *XII Congreso de Estudios Vascos, Estudios Vascos en el Sistema Educativo. Euskal Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean*, Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Vitoria-Gasteiz, 13-24 orr.

BASURKO, F.; IZTUETA, P. (koor.) (1992): *Euskal Eskola Berria. Unibertsitateko Hezkuntza Mintegia*, EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, Elgoibar.

- BERNSTEIN, B. (1997): “Conocimiento oficial e identidades pedagógicas” in GOIKOETXEA PIÉROLA, J.; GARCÍA PEÑA, J. (coord.) : *Ensayos de Pedagogía Crítica*, Ed. Popular, Madrid, 11-28 orr.

- (1998): *Pedagogía, control simbólico e identidad. Teoría, investigación y crítica*, Morata, Madrid.

BILBAO BILBAO, B. (2002): *Kultura Erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean Euskal Herriko eskoletan*, EHU, Doktorego Tesia, Bilbo.

BILBAO, B.; EZKURDIA, G.; PEREZ, K. (2004): *Euskal Curriculumala ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?*, Hitzazurrea: Paulo Iztueta, Utrisque Vasconiae, Donostia.

CASTELLS, M. (1999): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura*, Alianza, Madrid.

DA SILVA, T. (2001): *Espacios de identidad. Nuevas visiones sobre el currículum*, Octaedro, Barcelona.

ELKAR LANEAN (1983): “Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera”; “Ikastolatik Eskola Publikora. Historia. Instituzionaltze arazoa. EIKE eta Euskal Eskola Publikoa”, *Jakin*, 28, 61-63 orr.

ERRIONDO, L. (1996): “Euskal Curriculumala?”, *Jakin*, 93-94, 25-43 orr.

ERRIONDO, L.; GARAGORRI, X.; ISASI, X. (1998): *Hezkuntzaren Normalkuntza*, UEU, Bilbo.



- ESNAOLA, J. (2001): "Joxe Manuel Odriozolarekin elkarriketa", *Bat, Soziolinguistika aldizkaria*, 39, 93-100 orr.
- EZKURDIA, Gurutze (1994): "Hezkuntza erreforma eta lurraldetasuna", *Isilik*, 19, 8-10 orr.
- FERNÁNDEZ, I. (1993-b): "Gerraondoaren Historia Luzea: Euskal Eskolagintza", *Uztaro*, 9, 59-88 orr.
- (1994-a): *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, U.E.U., Bilbo.
 - (1994-b): "Emakumea, Hezkuntza eta nazioa Euskal Herrian", *Jakin*, 83, 29-48 orr.
- GARAGORRI, X., et al. (1983): "Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera", *Jakin*, 28, 6-60 orr.
- INTXAUSTI, J. (1985): "Historia, Nación y Nacionalismo. Conversaciones con el historiador Pierre Vilar" in INTXAUSTI, J. (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta Egitasmoa*, Caja Laboral Popular, Donostia, 527-540 orr.
- IZTUETA, P. (1993): "Hizkuntza eta boterea", *Bat, Soziolinguistika aldizkaria*, 9, EKB, Donostia, 45-58 orr.
- (1996): *Intelligentsia kimaturen orbelak*, Kutxa Fundazioa, Irun.
 - (2000-b): *Hezkuntza, Hizkuntza eta Boterea Euskal Herrian*, Utrisque Vasconiae, Donostia.
- LANDETA, E. (1919): "Estado actual de la escuela en el País Vasco", in ASKOREN ARTEAN: *I Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao, 875-901 orr.
- (1922): "Proyecto de Escuela Primaria Elemental" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 17 zka, 15-33 orr..
 - (1932): "El bilingüismo en la enseñanza Internacional y en Euzkadi" in ASKOREN ARTEAN: *El bilingüismo y la educación*, Espasa-Calpe, Madrid, 35-52 orr.
- ODRIOZOLA, J. M. (2000): *Nazio-identitatea eta eskola*, Euskaltzaindia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao.
- PÉREZ URRAZA, Karmele (2003): *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*, Doktorego Tesia, EHU.
- (2004): *Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian*, Utrisque Vasconiae, Donostia.
- POULANTZAS, N. (1979): *Estado, poder y socialismo*, Siglo XXI, 7. ed., México D.F.
- RODRÍGUEZ BORNAETXEA, F. (1994): *Euskal curriculumaren eredu posibleen prospektiba*, U.E.U., Larraona 1994, uztailak 21eko hitzaldiaren laburpena.
- (1999): *Construir o Destruir Naciones. El sistema educativo en el País Vasco*, Besatari, Bilbo.
 - (2002): "Identidad y escuela. Los cambios de la educación en el siglo XXI", www.fev.org/3congres/conferfito.htm.
- VALVERDE, L. (2001): *Informe sobre los textos de Historia empleados en la ESO y el Bachillerato en la Comunidad Autónoma Vasca, para la Fundación Boffil*, (polikopiatua).
- YOGOTSKY, L.S. (1979): *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*, Crítica, Barcelona.
- ZABALETA, I. (1998): *Euskal nazionalismoa eta Hezkuntza (1895-1923)*, EHU, Donostia.
- (2000): "Frantzia eta hezkuntza-sistemaren sorrera nazioaren itzalpean", *Tantak*, 23, 133-148 orr.



EUSKAL CURRICULUMAREN IBILBIDEA ETORKIZUNERA BEGIRA, GAUR EGUNGO LEGE EREMUAN ZEIN HARATAGO

Abel Ariznabarreta Zubero
Gizarte Zientzien Didaktika saila
EHU/UPV

I. TESTUINGURUA: EGINDAKOA ETA EGITEKE DAUKAGUN BIDEA

1.- Aurrekariak eta azken urte hauetako ibilbidea

Euskal Curriculumuma definitze prozesua abian da. Ez da duela bi urte hauetako kontua bakarrik: hor daude 1996an egin eta Hezkuntza administrazioari aurkeztutako txostena, Sortzen Plataforma, Ikastolek jadanik 96tik hartutako bidea, curriculumaren euskal dimentsioaz egindako ahaleginak, hainbat azterketa eta gogoeta, etab.

Edonola ere, zorionez azken hiruzpalau urteotan gaiak beste abiadura bat hartu du eta, nire ustez, hezkuntza sistema arautuko eragileetatik aparte beste gizarte eragile batzuen inplikazio eta konpromiso hartze zuzenari esker. Martxan jarri diren bi prozesuek, desberdinak baina aldi berean elkarren osagarri direnak, emaitzak eman dituzte jada.

Horri esker, zer daukagu une honetan?

1. ***Euskal Curriculumuma. Ibilbide kulturala.*** Garrantzizko dokumentua. Abiapuntu bezala hartzeko, baina ez hezkuntza sistemak bakarrik, gizarte eragile hezitzaile orok, benetako ibilbide kultural bezala hartuz eta horren inguruan ardaztuz hezitzeko aukera bezala herritar orori eskaintzerakoan era ezberdinetako jarduerak. Baita, nola ez, abiapuntu bezala, eskolaldirako curriculum proposamena egiterakoan ere.
2. ***Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumuma. Oinarrizko txostena.*** Bertan, kompetentzietan oinarritutako planteamendu batetik, eskolaldirako curriculumaren marko kontzeptuala eta arloen antolaketarako proposamen egiten da. Ezinbesteko urratsa gero arloetako planteamendu zehatzak egin ahal izateko.



3. **Arlokako Curriculum proposamenak.** Hemen haurrak derrigorrezko eskolaldia amaitzerakoan, hots 16 urterekin, lortuak izan beharreko konpetentziak zehazten dira baita arlo bakoitzerako eduki eta konpetentzia orokor zein espezifikoa lantzeko erabiliko direnak ere, ebaluaziorako irizpideekin batera.
4. **Euskal Curriculum. Herritarren ekarpena.** Izen horrekin Udalbiltzak bideratutako prozesuan zehar herriz herri jasotako ekarpenen emaitza eta ondorengo eztabaida eta osatze prozesuak.

Beraz, bi eztabaida prozesu ari dira martxan: Hezkuntza arloko eztabaida eta bestetik, eztabaida soziala. Bereiztu beharrekoak, baina elkar elikatzen dutenak, alegia.

2.- Hemendik aurrera zer?

Eskolaldirako Euskal Curriculumari dagokionez, aurrerantzean egin beharreko bidean bi fase edo prozesu bereiz ditzakegu:

- a).- Definizio prozesua (jadanik abian dagoena)
- b).- Ezarpen prozesua

a).- Eskolaldirako Euskal Curriculum: Definizio prozesua

- a.1).- Oinarrizko txostena: (2005eko maiatzean aurkeztutakoa)
 - Dokumentu honen helburua Euskal Curriculumaren proiektuaren planteamendu orokorra eta aurrera eramateko ildo nagusiak aurkeztea da. Baina aldi berean, dokumentu honen lanketan zuzendaritza izan duten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola eta Sortzen-Ikasbatuazekin batera, proiektuarekin bat egiten duten hainbat hezkuntza erakunde eta sektoreren atxikimendua jasotzen da bertan.
- a.2).- Derrigorrezko eskolaldirako proposamena: Konpetentziak eta arloak
 - Ikasturte honen hasierarako landuta zegoen proposamena, eta 2006ko urtarrilatik aurrera Hezkuntza sistemako hainbat ikastetxetan proposamen bezala zabaldu eta baloratzeko eta hobetzeko prozesu bati bide emango diona



- Sozializazio, hausnarketa eta balorazio prozesu hori zenbat eta zabalagoa izan, zenbat eta ikastetxe eta gizarte eragile gehiagok parte hartu, hobe; azken batean, curriculum baten balioa edo legitimitatea gizartearen atxikimenduak ematen du.
 - Curriculumaren erabakia ezin baita soilik oinarritu irizpide teknikoetan edo zientifikoetan, alderantziz, funtsean oinarri moral eta politikoetan hartzen den erabaki bat da. Beraz, atxikimendua zenbat eta handiagoa izan, bere legitimitatea orduan eta handiagoa izaten da.
- a.3).- Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumuma
- Lehenengo urrats honetan, curriculuma bere osotasunean baloratuko da. Horrela, proposamen horrek batez beste zer onarpen maila duen jakingo da. Ez da eztabaida ireki moduan planteatzea komeni, bukaerarik gabeko bide batean sartzeko arriskua bailekarke horrek; hezkuntzaren xedeak hasierako proposamenean jarri ez diren beste batzuk izan daitezke, eta proposamen guztiak izan daitezke oso koherenteak; baina hor azkenean erabaki bat hartu beharra dago. Beraz, proposamen horren onarpen maila da neurtuko dena.
- a.4).- Etapa/zikloka (10, 12, 14 urtetarako) zehaztapenak
- Taldeak lanean jarriz: Hezkuntzako laguntza zerbitzuetako espezialistak, irakasleek osatutako lantaldeak zein berariaz horretarako aukeratutako adituak.
- a.5).- Adibide edo ereduzko “*ejenplifikazioak*”
- Lantaldeak bultzatuz: Dagokion hezkuntza administraziotik deialdiak horretarako sortuz edota egokituz.

b).- Eskolaldirako Euskal Curriculumuma: Ezarpen prozesua

Fase honetan bai dela garrantzizkoa Hezkuntza Administrazio ezberdinen inplikazioa eta bultzada, beti ere, eztabaida prozesuen ondorioz Euskal Curriculum bezala erabaki dena, eskola guztien, hezkuntza komunitate osoaren eta gizarte eragileen borondatearen isla den eta atxikimendua duen neurrian, beraiei baitagokie berme instituzional eta normatiboa ezartzea.



Bi azpifase edo momentu bereiz daitezke:

- b.1).- Hezkuntza sistemako eragileek egindako hausnarketa eta balozazioaren ondoren, azken helburura iritsi behar dugu: guztiontzako oinarrizkoa eta komuna den curriculumaren proposamena egitera.
 - “*Oinarrizko*”-tzat hartuko dugu, Euskal herrian bizi den hamasei urteko gazte batentzat behar-beharrezkotzat jotzen ditugun edukiak, bai kontzeptuzkoak baita prozedurazkoak baita garatu beharreko balioak ere.
 - “*Komuna*” definitzerakoan honako galdera honi erantzuteko helburuz arituko gara: Zer daukagu eta zer eduki nahi dugu komunean Euskal Herrian bizi garenok?
- b.2).- Hezkuntza Administrazioek garatuko dituzten curriculum dekretuetan, derrigorrezko bezala hartzea bere barne, oinarrizko eta komuna dela adostu den hori. Honek, tokian tokiko –EAE,Nafarroa, Iparraldea-balorazioa eskatzen du: txertatu beharreko lege markoa, estrategiak, uneak, denboralizazioa,... Jada Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak oinarrizko eta komun izendatuko den hori, bere garaian ofizial bihurtzeko konpromisoa hartua duela dirudi.

Horrela ulertu behar dela uste dut, oinarrizko txostenak dioena adostu daiteken euskal curriculumaren aplikazioa «*orientatzailea eta borondatez ezartzekoa*» izango dela esaten duenean, alegia. Badago zerbait Hezkuntza administrazio bakoitzak (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldean) bere eragin esparruan hezkuntza sistema osoarentzat derrigorrezko bezala planteatu eta dagokion arauan (Dekretu,...) jaso behar duena. Hau da, ezin da eskola partaideen borondateari deia egitera mugatu. Hortik aurrera bai, bakoitzak hartuko du bere konpromisoa eta zehaztuko du noraino nahi eta ahal duen iritsi, baina beti ere, “*oinarrizko eta komun*” hori betez, horretarako bere atxikimendua adierazi baitu eta gainera legean ere horrela jasota egongo delako.

Edozein kasutan, esan beharra dago, Administrazioari dagokion “*arau-emate*” lana ez dela Curriculumaren ezarpena mugatzen. Horrekin batera berrantolatu eta planteamendu berriarekin lortu nahi dena erdiesten laguntzera etorri behar duten funtsezko arloak baitaude, ezinbestean berrantolatu edota egokitu beharrekoak. Besteak beste, horietako batzuk lirarteke honako hauek:

- Lege marko orokorra:
 - Curriculum Garapenerako Dekretoa(k)
 - Euskal Hezkuntza ez-unibertsitarioaren Legea



- Berariazko esparruak:
 - Irakasleen Prestakuntza Plana
 - Ikastetxeen Prestakuntza Plana
 - Ikastetxeen Autonomia garatzeko Plana
 - Laguntza Zerbitzuen (Berritzegune, Irale,...) egokitze Plana
- Beste hainbat arlo:
 - Materialgintza: EIMA deialdiak
 - Hizkuntza ereduaren definizioa
 - Berariazko Irakaskuntzak (Musika, ...)
 - Helduen Irakaskuntza
 - ...

Atal hau amaitzeko, zera azpimarratu nahi genuke: Garrantzizkotzat jo dugu Hezkuntza Administrazioaren parte hartzea bai curriculum definizio prozesuan, eta batez ere, ezarpenean. Mesedegarria litzateke EAeko Hezkuntza Sailak hartutako bideari jarraitzea aurrerantzean, baita Nafarroan eta Iparraldean ere. Baina, ez da ezinbesteko baldintza bide horretan aurrera egiteko: egiten ari garen Euskal Curriculum planteamenduari balioa gizarte eta hezkuntza erakundeetatik datorrion atxikimenduak eta konpromisoak ematen dio. Hori ziurtatzen badugu, aurrera aterako da.

II.- EUSKAL CURRICULUMA GAUR EGUNGO LEGE MARKOAN ETA HARATAGO

1.- Daukagun lege markoa

Garrantzizkoa da lege marko hori ezagutzea, aztertzea eta ematen duen jokoa baloratzea. Gogoeta bere osotasunean egin behar dugu, Euskal Herri osoa hartuz; zehaztasunak eta estrategiak aukeratzekoan etorriko dira bereizketak, egitea beharrezko baldin bada, baina ez diezaigun aurretiazko mugarik jarri geure buruari. Baina lana egiterakoan, bakoitza bere esparruan kokatuz, ezagutzen duen horretan, eta gero/aldi berean, koordinatuz eta gogoeta bateratuak bideratuz.

Aztertzekoak lirarteke, besteak beste:

- a) Marko orokorra
 - MEC (2004): *LOE.Lege Proiektua*
 - CNDP, Conseil National Des Programmes (2004) *Pour la réussite de tous les élèves. Rapport de la Comisión du débat national sur l'avenir de l'Ecole. ("Claude Thélot Txostena")*
 - EUSKO JAURLARITZA-HUIS (1993): *Euskal Eskola Publikoaren Legea*
 - ...



b) Kurrikularra:

- EUSKO JAURLARITZA-HUIS (2000): *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Curriculum Proiektua*
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Curriculumak*
- Espainiako MEC (2003): *Real Decreto 831/2003* (BOE,3-7-2003. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako)
- Frantziako MEN: *Programmes de Sécondaire*
- Frantziako CNDP (2002): *Qu'apprend-on au Collège? Cahier des exigences pour le collégien.*
- ...

2.- Nola jokatu egungo lege marko horretan

Hasteko, jarrera aldaketa bat planteatu beharra ikusten dut. Azken urteotan, LOGSEtik hona, curriculumeko edukiak antolatzeke daukagun ereduari dagokienez, %55aren inguruko gogoeta eta erabakiak estatuko hezkuntza administrazioetik datozkigu emanda, eta gu, kasurik onenean ere, geratzen zaigun %45a gehitzen ahalegindu izan gara. Horretarako gehienetan erabili izan den bidea, --euskal kulturaren transmisioa bermatzeko hain funtsezko diren gizarte zientzien arloan behintzat--, gertakari sozial zein kontzeptu horiek gure inguruotan izan duten berezitasuna edo garrantzia azpimarratzea izan da; hau da, definizio orokorrari “...*eta Euskal Herrian*” formula atxikitzea. Baina honek, praktikan, estatu espainoleko hezkuntza administrazioak gutxienezkotzat ezarritako %55arekin programazioaren %100 betetzea ekarri du, euskal kulturaren berariazko ezaugarriak ezabatuz edo anekdota hutsa bihurtuz. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikasleei aukerazkotzat eskaintzen zaizkien arloek (“*Herri-kultura eta ondarea berreskuratu eta zaintzeko tailerra*” edota “*Ingurune soziokulturala aztertzeko tailerra*” DBHn; “*Euskal Herriaren historia*” Batxilergoan, esaterako) izan dute hutsune hori betetzeko borondatea, baina ondotoxo dakigunez, aukerakotasunaren planteamendu honek ematen duena ematen du, eta gainera, ezin dezake askoz gehiagorik eman, gaur egungo baldintzetan behintzat.

Beraz, planteamendu aldaketa bat eskatzerakoan honako honetaz ari gara, hain zuzen: Curriculumari dagokion gogoeta integral bat egitearen beharra, hots, %100ari buruzko hausnarketa egitearen eta ondoriozko erabakiak hartzearen beharra. Ondoren etorriko da, etortzekotan ere, estatuko hezkuntza administrazioak gutxienezkotzat ezarritako “*zorioneko %55 hori*” jada gure proposamenaren barne dagoen ala ez begiratzeko eta, hala badagokio, osatzeko unea. Azken batean, jokoa arauak errespetatuz baina aukera guztiak erabiliz eta Euskal Herria (bai, Euskal Herria) hartuz gogoeta-esparru bezala eta bertatik gidatuz prozesua bere osotasunean.



Interesgarria deritzot puntu honetan Paulo Iztuetak egiten duen gogoeta eta balorazioari. Hona hemen:

“curriculumum totum organicum gisa ulertzen dudala, ez zati -enborra- estatala balitz bezala, eta beste zati bat -adarrak- autonomikoa, zeinetan, LOGSEn datorrenez, sailkapena ehuneko arabera zehazten baita. Gaurko gure curriculumak horrela funtzionatzen du autonomien estatuan, buru biko gorpuzki bakar gisa, gaien sailkapenean bertako hezkuntza komunitateari dagokion espezifikotasuna behar adina zaindu gabe”.

“Hautsa harrotu zen eta estatu botereak botere autonomikoen esku utzitako ehuneko hori betetzen ote den ikertzeari ekin zion Jaume Bofill fundazioak. Emaitzak 2001eko apirilean agertu ziren. Oinarritzat estatu espainoleko hainbat autonomia erkidegotan, DBHn eta Batxilergoan, historia sailean gehien erabiltzen diren testu-liburuak hartuta, ageri da, harrigarri bada ere, estatu argitaletxeek zein lekukoek %10 eta 20 bitarteko proportzioan soilik betetzen dutela legeriak finkatuta daukana. Bere ahulezian, Katalunia eta EAE ditugu ehuneko 45 horretara gehien hurbiltzen direnak”

“Euskal curriculumak ba al du muinik? Baiezkoan nagoenez, oinarritzkoenak zein elementu iruditzen zaizkidan zehazten ahaleginduko naiz. Curriculumaren kontzeptua orokorra da diskurtso pedagogikoan, estatu bakoitzak bere hezkuntza sistema nazionalaren barruan osotasunaren ikuspegitik antolatu ohi duena. Honela, estatu bateko zein besteko hezkuntza sistemetan indarrean dauden curriculumak konparatzean -adibidez, Frantziakoak eta Espainiakoak-, jakin dezakegu zertan datozen batera eta zertan ez”. (Paulo Iztueta: Euskal Curriculumari eskola kentzen. Hik Hasi, 71.alea; 2002ko urria)

3.- Euskal Curriculum planteamenduaren potentzialtasuna

Gutziz garrantzizkoa da Euskal Curriculumaren proposamenean egiten den planteamenduak duen potentzialtasunaz guztiok jabetzea. Eta hori, bi aldetatik begiratzuz:

- a) Konpetentzien enfokeari dagokionetik
- b) Hezkuntza sistema nazional baten ikuspegitik

➤ a).- Konpetentzien enfokeari dagokionetik


Bada alderik 95/96 ikasturtean egin genuen proposamenarekiko. Orduan %45 hori osatzeko aukeratu beharreko edukiak (batez ere kontzeptuzkoak) ziren gure kezka nagusia. Bazuen bere arrazoia une hartako testuinguruan, baina orain urrats



bat aurrera emateko aukera dugu. Horrela, 2005eko maiatzean aurkeztu zen “*Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma. Oinarrizko Txostena*”-k hitzez hitz dioenez,


“curriculumaren ardatza ez dira kontzeptuzko “jakintzak”, pertsonaren garapenaren dimentsio guztietan jarduteko behar diren gaitasunak baizik. (...)Hezkuntza konpetentzia orokorren ezaugarri nagusiak diziplina arloetan, eguneroko bizitzako egoeretan eta denboran zehar dituzten transferitze ahalmena eta funtzio ugariak dira”.

Bost dira aipaturiko dokumentuaren arabera kontuan hartu beharreko hezkuntza konpetentzia orokorrak, era honetan antolatuak:



Beraz, hezkuntza konpetentzien garapenaren zerbitzura planteatzen dira diziplina arloak. Hezkuntza xedeetatik konpetentzia orokorretara eta hauetatik Diziplina arloetarainoko “*deribazio eta ezpezifikazio*” prozesua Euskal Curriculumum **oinarrizko eta komuna** aukeratzeko erreferentzia esparrua da.





Dena dela, kompetentzietan oinarritutako ikusmolde honen ondorioak ez dira ikasketa egitarau edo curriculumera mugatzen:

- irakaskuntza-ikasketa prozesuak esparru berri honetan zuzendu eta ebaluatzeak irakaskuntzan ekiteko moduak aldatzea eskatzen du derrigorrez.
- Horretarako, irakasleen formazioa (hasierakoa eta etengabekoa) landu beharko da, haien errealitate erreferentziala ardaztat harturik: ikasgela eta ikastetxea.
- Alde horretatik, berebiziko garrantzia dute ikastetxearen autonomiak (ikasgelako praktika eta hezkuntza mezua uztartuko dituzten proiektuak landu eta garatzeko), bizikidetzaren sustatzeko eta balioetan hezteko programek, familien inplikazioak, eskolaz kanpoko jarduerak eta gizarteko hezkuntza eragileen eskaintzak. Horiek guztiek hezkuntza dimentsioa (“hezitzailea”) hartu beharko lukete, bizitzarako hezteko egiten dugun planteamendutik.



- Halaber, kontuan hartzekoak dira ere hezkuntzaren munduan eta gure hezkuntza sistemak eraldatzeko ahalmen eta baldintzetan eragiten ari diren aldaketak, eta aldaketa horiek garatzeko eta mantentzeko behar diren baldintza egokiak, mesedegarri izan daitezen hezkuntzan hobekuntza nabarmenak egiteko.

Horrezaz guztiaz gainera, gizarte aldakor batera egokitzeko gai izango diren herritar kritiko eta autonomoak hezteaz mintzo garenean, baloreetan oinarritutako heziketaz mintzo gara derrigorrez. Zeregin horrek ezagutzen transmisio hutsa gaintzen du, eta gizarteko hezkuntza eragile guztiek beren gain hartu behar duten erantzukizuna da: hots, hezkuntza formalaren espaziotik (ikastetxea) haratago doan zerbaite da. Irtenbidea, beraz, **gizarteak bere heziketa eginkizuna berreskuratzea da**: herritar guztiek eginkizun hori beren gain hartu eta bizitzen erakutsi behar dute, nork bere tokitik.

Horrek guztiak inperatibo sozial eta moral bihurtzen du **hezkuntza sistema demokratiko eta kalitatezko baten alde lan egin beharra**, ez soilik haren definizio teorikoan, baita haren gauzatze praktikoa eraginkorrean ere (guztiori dagokigun oinarritzko mailatan bederen). Ezinbestekoa da guztion konpromisoa horretarako, hezkuntza sozial eta demokratiko bat lortze aldera.


- b).- Hezkuntza sistema nazional baten ikuspegitik

Gaur egun hezkuntza sisteman ezarrita daukagun curriculum hitzari “*euskal*” kontzeptua alboan jartzen diogunean, estatu mailako legean araututa datorkigun curriculumaren zati gehigarri bat (zeinetarako euskaldunon berezko kultur prozesu eta ekoizpenak aukeratzen ahaleginduko garen) bezala ulertuz, horretan geratzeko arriskua daukagu. Horregatik, azken urteotan, EAE-ko Hezkuntza Administrazioetik bertatik ere holako planteamenduak bultzatu direnean, zuhurki, “*curriculumaren euskal dimentsioaz*” hitz egin izan da, eta ez “*euskal curriculumaz*”. Curriculumaz bere osotasunean eta bertatik abiatutako planteamendu bat egiteak, “*jakina, euskal hezkuntza sistema nazionalaren eraikuntzan pentsatzera eramango gintuzke.*” (P.Iztueta).

Are gehiago, planteamendu horren atzean hezkuntza formaleko eragileak ez ezik hezitzaile eginkizuna duten gainontzeko gizarte eragileak ere inplikaturatuta agertzen direnean. Ezinbestean probestu beharreko aukera dugu aurrean.



POTENTZIALTASUNA



4.- Lege markoaren eboluzioa

Hainbat aldaketa jada martxan direla eta, komenigarria da datorkiguna aurreikustea, marko berri horretaz egoki baliatu ahal izateko:

- a) Estatu mailan: LOE eta dekretuak : Badirudi Espainiako Kongresuak datorren udaberri aldera onartuko duela Hezkuntzarako Lege Organikoa (LOE), eta ondoren curriculuma garatzeko Erret Dekretuak, non zehaztuko diren oinarrizko edukiak. Eduki hauek bai Nafarroan bai Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean izango den curriculumaren %55 suposatzen dute, gehienez ere.
- b) Euskal Herrian: Curriculum propioa ezartzen duen Dekretua: aukeraz baliatu baina aurretiaz lan eginaz eta egindako horren emaitza bertan jaso izan dadin eskatuz, eta ez datorkigunaren zain egonik.

Beraz, gakoa ez dago datorkigun arau markoak nahiko esparru uzten digunaren zain egotean. Gakoa atxikimenduan, konpromisoan eta lanean jarraitzean datza. Zein helbururekin?

- a) Estatu mailatik edozein aldaketa datorkigula ere argi izateko zer nahi dugun. Gero bilatuko ditugu zirrikituak eta aukerak, edozein delarik marko legal berria ere. Ez mugatu gure helburuak etor daitekeenaren baitan.
- b) Bertatik (Euskal Herritik eta testuinguru bakoitzean) egingo diren norma berrien aurrean, “edukia” eta norabidea aurretiaz aztertu eta adostutakoarekin bat datorrela bermatzeko. Hots, lege markoa, arauak, helburuen eta beraiek lortzeko bide horretan emandako aurrerapausoen bermatzaile bezala eta ez aurretiaz ezarritako esparru-mugatzaile bezala ulertuz.

Horrezaz gain, kontuan hartzekoa da Legealdi honetarako EAEan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, baduela Hezkuntza ez-unibertsitariorako Lege propio bat lantzeko konpromisoa jada hartua eta dirudenez, lanean ari dela. Benetako aukera da, curriculum propioa lantze aldera Hezkuntza eta gizarte mailan emandako aurrerapausoak bertan islatzeko eta sistema propio baten alde urrats garrantzizkoak emateko.



5.- Bide horretan kontuan hartzekoak: aukerak eta arriskuak

Hauetariko bakoitzak azalpen eta garapen luzeagoa eskatzen duenaren jabe izanik ere, ez deritzot hemen egin beharrekoa; edonola ere, besterik ezean gidoi gisa, ondoko koadro honetan islatzen ahalegindu naiz:

AUKERAK	ARRISKUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Eragileen onarpena eta atxikimendua 	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunari begira ikuspegi global bat ez izatea
<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte eragileen bultzada 	<ul style="list-style-type: none"> • Alde tekniko/normatibo hutsetan geratzea
<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeen inplikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Protagonismoak

Donostian, 2006ko urtarrilaren 28an



Joxe Mari Auzmendi
EUSKAL PEDAGOGIA SUSTATZEN ETA GARATZEN

EUSKAL PEDAGOGIARI buruz aritzea dagokigu. Lehen galdera hauxe da: ba al da euskal pedagogiarik? Eta hurrengo galdera: Euskal Curriculumaren garapenerako zein izango litzateke pedagogiarik egokiena?

Pedagogiak, guretzat, hezkuntzarekin du zerikusia. Eta hezkuntzak, gizartean eta gizartearentzat norbanakoaren ahalmenak garatzearekin.

ZEIN DA GURE HEZTEKO MODUA? GURE PEDAGOGIA?

Batzuk, eskolastikak erakutsitako modu tradizioanalean irakasten jarraitzen dute. Baina askok, mundu zabaleko ekarpen pedagogikoak haintzat hartu ditugu. Eta ezagutu dugu, adibidez,

- ❑ SIKOLOGIAK dioena: ezagutza ez dela transmititzen, eraiki egin behar dela.
- ❑ SOZIOLOGIAK, bestalde, jakintzak, eguneroko bizitzarako baliagarriak direnean hartzen dutela zentzua. Eta baita, sinesmenak, ezagutzak eta balioak bizi garen testuinguru kulturallean eta sozialean eraikitzen direla ere.
- ❑ ANTROPOLOGIAK, bere aldetik, kultura desberdinak daudela eta bakoitza ez dela bestea baino gehiago edo gutxiago. Eta, hezteko orduan, kultura desberdinetan adimena ere modu desberdinean azaltzen dela.
- ❑ KOMUNIKAZIOAK, berriz, iristen zaigun informazio berria garen eta dakigunaren arabera interpretatzen dugula.
- ❑ SOZIOLINGUISTIKAK, amaitzeko, hizkuntza bat ikasteko hiru faktore nagusik eragiten dutela: motibazioa, ezagutza eta erabilera.



Kontuan hartu dugu, bestalde, **hezteko, KOHERENTZIA oso garrantzitsua** dela:

- **Herritarra demokrata** izatea nahi badugu, eskolak antolaketa eta funtzionamendu parte-hartzailea eta demokratikoa izan beharko dituela.
- **Euskaldun eleanitza** izatea nahi badugu, horretarako prestatuta dauden irakasle arduratsuak izan behar ditugula. Hizkuntza irakasteaz gain, herri baten partaide izatearen sentimendua, identitatea, bere sineskerak, kultura eta abar transmititzea dagokielako.
- **Ikertzailea, autonomia, kritikoa eta askea** izatea nahi badugu, eskolak ikertzaile izateko prestatua izan behar du, norbanakoaren eta elkarren arteko hezte prozesua lagundu beharko du, eztabaidatzea eta hautatzea erraztu behar ditu...
- **Balioetan hezi** nahi badugu. Hau da, solidarioa eta hezkidetzalea izatea, eskubide berdintasuna gauzatzea eta abar nahi baldin bada, hori praktikan jarriz landu beharko da.

LABURBILDUZ

Eskolak ikaslearen ahalmen guztiak garatzen lagundu behar du. Elkarlanean arituz, balioak landuz eta bakoitzaren hezte prozesua sustatuz, gizartean bizitzeko prestatu behar du. Hau da, Bizitzarako oinarriko hezkuntza kompetentziak bereganatzea lortu behar du: pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten ikastea.

ZENBAITETAN, GLOBALIZAZIOAREN TESTUINGURUAN ERE HEZTEN DA: “Partikularra eta unibertsala, batasuna eta aniztasuna banaezinak eginez”.

- **ABIADURA HANDIAN** doa merkatua. Ekoizpen eta teknologia aldaketak azkar ematen ari dira. Era guztietako modak agertzen dira (jantziak, musika, jokoak, teknologia berriak...). Gizarte uniformatzaile horretan heztea, zera da: proposatzen diren balioak kritikoki aztertzea eta era librean eta arduratsuan hautatzea.
- **INFORMAZIO UGARI** dago. Irakasten diren eduki gehienak zaharkituak geratzen dira epe laburrean. Esaldi ezaguna: “Erantzunak ikasi orduko galderak aldatzen dizkirate”.



Prozesuen ezagutza, ikerketak, intuizioa eta gerta daitekeena aurreratzea dira gaurko eta etorkizuneko gizarteak beharko duena, eta ez memorizatze hutsa.

- **INGURUGIROA**, hizkuntzak, kulturak, ekonomia, migrazioak, solidaritatea...

Orain arte pedagogiaz aritu gara, pedagogiari erantzun diogu, baina EUSKAL hitzari erantzutea falta zaigu.

EUSKAL pedagogia zer den galdetuz gero, zera erantzungo genuke:

- Euskaraz aritzen den hezkuntza.
- Ekarpene pedagogiko berriak gurera ekarri eta eskolako ezaugarrietara egokitzen duena.

Seguraski, ez genuke jakingo ezer gehiago esaten. Nahiz eta beste zerbait ere badela somatu. Alegia, guk erabiltzen dugun ESTILOA-edo.

Aztertu dezagun SOMATZEN dugun ESTILO hori. Horretarako, ariketa bat proposatzen dugu. Topikoei eta karikaturei kasu eginez, ondorengo galderari erantzutea: **NOLA IKUSTEN DUTE ETA DUGU EUSKALDUNA?**

- Atzerrira lanera joan diren euskal joakinei buruz zera diote: “Burugogorra” da. Buruan zerbait jartzen bazaio, hura lortu arte arituko da. Langilea, pertseberantea...
- “Solidarioa” . EHan hain biztanle gutxi izanda, nazioarte mailan milaka misiolari, bolondres eta kooperante dabil laguntza lanetan.
- “Antolatua” . Hori diote kanpotik etorri, eta zenbat elkarte mota, koordinadora, bilgune, kontseilu eta abar dauden ezagutzen dutenean.



- “Tradizioaren maitalea eta berritzailea”. Herri kirolak, euskal pilota mota desberdinak... bertsolaritza (inon ez dago hain antolatua eta garatua)...
- “Lagun artekoa”. Elkarte gastronomikoak, kuadrilak...
- “Identitatearen defendatzailea”. Horrela diote: “Zuen identitatearen defentsa egitearren gatazkan sartzeko prest zaudete”.
- “Sortzailea eta inizatibaduna”. Egoera zailtan ikastolak, gau-eskolak, herri aldizkariak, irratiak, egunkariak, telebistak eta abar sortzean.
- “Kooperatiboa”. Kooperatiben mundua eta antolaketa ezagutzen dutenean.
- “Parte-hartzailea”, “intuitiboa”, “berezko nortasunekoa”...
- Marga Iñiguez pedagogo eta filosofo madrildarrak (hik hasi,104. alea) horrela ikusten ditu euskaldunak: “Kultura bakoitzak bere sortzeko modua du. Hemen ezaugarri batekin egin dut topo: sinbolikoagoak zarete. Hitz bakoitza sinbolo bat da. Oso interesgarria da jendeak nola sinbolizatzen duen, eta zer puntutan jartzen duen ekintza. Jakin nuenean aditza esaldiaren azkenean doala, “lan egiteko modua bezalaxe da-eta” pentsatu nuen. Beti bukaeran egiten da ekintza, ebazpen bezala, eta oso azkar, baina behin pauso batzuk eman eta gero, eta ez hasieran. Niri hau asko interesatzen zait. Eta baita jendea zer emozionala den ikustea ere, nahiz espresatzerakoan erreparoa izan batzuetan. Jendea oso sentibera da, eta aldi berean ekintzaz azkarra, eta bi puntu horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit lantzeko.”

Euskal Curriculumumaren eraikitze prozesuak ez al du horretatik guztitik pixka bat? Ezagutzen al da inon HERRITIK bertatik sortu den derrigorrezko eskolaldirako curriculumik? Betidanik, botereak ezarriak izan dira, edo, inizatiba eta bideratze osoa behintzat, boteretik egindakoak.



Jarrai dezagun “euskal” hori aztertzen eta “gure” estiloan sakontzen. **ZEREKIN AURKITZEN GARA HEZTEKO ORDUAN?**

Hezitzaileok eta gure neska-mutilak nahaste-borraste batean bizi gara. Batzuetan zazpi herrialde dira, beste batzuetan hiru, bat, lau edo sei. Euskaraz irakasten dugu gure hizkuntza delakoan eta kalean frantzesia eta gaztelania dira nagusi; interneten, ingelesa; telebistan pilo bat...

Gaztetxo batek zioen berak uste zuela ertzaintza zela euskaldunen polizia, eta “Nafarroa Oinez”era joan zen batean harrituta geratu zela hangoa, “polizia forala”, desberdina zela ikustean.

Izan ere, Euskal Herria herri txiki bat da. Bi estatu handien barnean kokaturik dagoena, bere hizkuntza eta kultura gutxiagotuak dituena. Estatu bakoitzak bere hizkuntza eta kultur edukiak hautatu, sakralizatu eta ezarri ditu, gure Herriaren izaera KULTURALA eta SOZIALA kontuan hartu gabe.

Herri bezala gure ekarpen pedagogikoa egitea dagokigu. Euskal Herriko hizkuntza eta kultura gutxiagotuak normalizaziora eramaten lagundu. Euskal IDENTITATEA eta herritarren KOHESIOA lortzea dira, gure ustez, lehenestu behar direnak. Eta pedagogia, horren zerbitzura jarri.

Eguneroko lanean gure heziketa aplikatzean, ez al dugu guzti horretatik zerbait? Horrek, biderik ematen al du euskal pedagogia propioa dagoela esateko?

Lagungarri litzateke gure pedagogoen lana ezagutzea. Baina, EHak ba al du pedagogo nabarmenik? Beno, azter dezagun hasierako andereño haiek eta ondorengoek haurrekin zuten harremana, nola irakasten zuten, zer balio transmititzen zituzten, nola euskalduntzen zuten, etorkinak bertakoekin elkarbizitzen nola jartzen zituzten, zein helbururekin hezten zuten eta zentro bakoitzeko komunitateak zer funtzio betetzen zuen. Eta azter dezagun baita ere gaur egun hezitzaileek egiten dutena.

Azter ditzagun hain ezagun ez diren pedagogo langile horiek. Azter dezagun euskal hezkuntzaren garapenean elkarrekin aritzeak zer garrantzia izan zuen, eta duen. Ohartuko gara, seguruenik, pedagogoez baino **MUGIMENDU PEDAGOGIKOAZ** hitz egitea zuzenagoa izango dela, **GURE ESTILOAN**.

Ikerketaren erronkari heltzen badiogu, lan itzela bezain interesgarria dugu aurrera begira. Argigarri eta aberasgarri gerta dakigukeen lana.



Berrikuntza pedagogikoa Euskal Herrian

Idoia Fernández

Euskal Herrian izandako berrikuntza pedagogikoaren ikaskuntzak ez du, oraindik ere, XX. mendea osotasunean hartuko duen sintesi historikorik. Dena den, horrelako sintesia osatzeko baliagarriak diren zertzeladak aurki ditzakegu gai jakin batzuen gaineko lan monografikoetan, Europan izandako ideia pedagogikoek gure herrian izandako eragina erakusten digutenak. Eskolaren egoera edota testuliburuaren auzia dela-eta sortutako kezkei erantzuteko, zer nolako ekimenak bideratu diren deskribatzen dute ikerketa partzial horiek. Lan honen helburua, hain zuzen ere, gure herrian izandako berrikuntza pedagogikoaren gaineko ekarpenak bildu eta sintesia egitea da, behin-behineko azterketa baino ez dela kontuan izanik betiere.

Berrikuntza pedagogikoaren azterketa historikoari ekin aurretik, zenbait hausnarketa egin beharra dago. Berrikuntza orok aldaketa beharra dakar berarekin, banakoak edo talde, sektore edo herri oso batek senti dezakeena, eta behar horren ondorioz sortutako erantzunak dimentsio berritzailea hartzen du maiz. Hala ere, erantzun horiek emateko moduak askotarikoak dira: erantzun hori modu induzitu edo “arautu” batean eman daiteke, edo modu misto eta sortzaileago batean, hau da, errealitatea birsortu eta berreraikitzeke ardatzat hartzen den esperientzia pedagogikoan oinarrituz. Iraganeko ikertzaileentzat zaila zen halako aldaketak diagnostikatzea, batez ere, kontuan hartzen badugu horietako asko ez direla idatziz bildu; gogoan izan beharra dago aldaketa beharraren ondorioz sortzen den egonezinak ibilbide luzea egiten duela hezkuntza esperientzia egonkor bilakatu arte. Teorialari ospetsuek utzi dizkigute gogoeta horiek modu argian idatziak; beste milaka hezitzailek, ordea, horrelako aldaketaren premia eta aldaketaren gauzatzea bera esperientzia pertsonalaren barnean gorde dituzte.

Egun, berrikuntza pedagogikoaren errealitate konplexua aztertzeke modurik eragingarriena ikertu nahi ditugun hezkuntza esperientzietan “argitaratutako” korronte pedagogikorik dagoen behatzea da. Eskola Berria jaiotzeak eragin ezberdina izan zuen Europa eta Ipar Amerika osoan; ezberdina, eragina askotara uler daitekeelako: oso zorrotzak izanez gero, eraginaz hitz egin ordez, eragina zenbatekoa izan den mintzatu beharko ginateke; izan ere, artikuluetan, hezkuntza ideietan eta testuliburuetan autoreren baten erreferentzia teorikoa agertzeak eragin maila jakin bat erakusten digun arren, ezin esan daiteke garai jakin bateko irakasleek ideia hori praktikan edota hezkuntza jardunean aurrera eramanez dutenik.

Eraginaren inguruko nabardura hori aipatzea egoki dela deritzogu, muga erabakigarria baita Euskal Herriko esperientzia berritzaileen inguruan lortutako informazioa interpretatzeko. Gerra Zibilaren aurretik izandako esperientziak ikertzeko, garai hartako dokumentu idatziak ditugu soilik. Hainbat korronte eta ideia aipatzen den arren bertan, horiek praktikan zein neurritan gauzatu ziren ebazteke hipotesiak egitea baino ezin dugu egin. Aldiz, frankismo garaian sortutako esperientzien inguruan dagoen informazioa zabalagoa izateaz gain, izandako praktika egiaztatgarriagoa ere bada, oraindik ere orduko presentzia dagoelako materialetan, hezkuntza txostenetan eta banakoen testigantzetan.



1. Berrikuntza pedagogikoa Gerra Zibila arte

Aipatu bezala, pedagogia berritzeko saiakera oro egoera aldatu beharraren ondorioz sortzen da. Euskal Herrian XX. mendearen hasieran hezkuntza aldatzeko egin planteamendu gehienak Euskal Herriko hizkuntza eta kultur nortasuna aintzat hartuko zituen beste aukera pedagogiko bat nahi zuten sektoreek ekarri zituzten. Moyano Legea etengabe kritikatu zen XIX. mendearen bigarren erdialdean, bai foruen urratzetat jotzen zuten foru diputatuek, bai gaztelania zabaltzea eta euskara zokoratzea kezka ikusten zuten kultur gile zein intelektual euskaltzaleek. Dávilak zioen: “Gaztelaniazko alfabetizazioari dagokionez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, batetik, eta Nafarroa, bestetik, Estatuko lehen postuetan agertzeak adierazten digu zenbaterainokoa den hezkuntza sistemaren eredu liberal bateratzailearen eragina eskoletan eta zenbaterainokoa den euskararen galera alfabetatutako kulturaren eroale gisa, ahozkotasunera mugatzea. Hartara, bi kultura esparru ezberdinduko dira eta hizkuntza bat gailendu bakoitzean: euskara familiarreko eta erlijio esparrura mugatuko da eta gaztelania izango da nagusi erakunde publikoetan”¹.

Dena den, Espainiako hezkuntza sistema liberalari egindako kritikak ez ziren berehalakoan bilakatuko beste euskal eskola baterako proposamen. Horretarako, hamarkada batzuk igaro behar ziren eta, horietan zehar, legearen puntu jakin batzuen gaineko zein horien ezarpenaren inguruko desadostasunak kritika orokorrago bilakatu, euskal hezkuntza sistemaren proiektua eskatzeraino.

Eusko Ikaskuntzak 1918. urtetik aurrera antolatu zituen jardunaldiak izan ziren aurreko hamarkadetan sortutako ekimenen eta ideien zein hezkuntza berrikuntzarako desiren lehenengo bilgune aipagarria. Lehenengo saioa Oñatin egin zen, eta pedagogiaren gaineko hainbat gai landu ziren bertan. Jardunaldi haien ondorio gisa, hezkuntza sistemaren inguruko aldaketa garrantzitsuak proposatu ziren: “haurren eskubidea delako, euskarak izan behar du oinarrizko hizkuntza; euskal hiztunak diren umeei euskarazko irakaskuntza eman behar zaie, eta gaztelania edo frantsesa bigarren urrats batean irakatsi; gaztelaniadunei gaztelaniaz, eta euskara bigarren urrats batean irakatsi; udalerrri bakoitzak bere irakasleria aukeratzeko eskumena izan behar du (...); ikastolak sortzea; eskolako eraztuna salatzea; lehenengo hezkuntzako irakaskuntzaren autonomia...”². Dena den, hezkuntzarekiko kezka hori ez zen biltzar horretara mugatu; izan ere, 1920. urtean eta 1922. urtean antolatutako biltzarretan ere saioen erdia gai beraren inguruan eztabaidatzeko erabili zen. 1926koak, aldiz, irakasleriaren orientazioan eta irakaskuntzan jarri zuen arreta.

¹ DAVILA, P. "El "Problema Vasco en educación: conflicto y control en la enseñanza en el País Vasco." *Control y Poder* , 1. znbk (1988). DAVILA, P.; ZABALETA, I. "Euskal eskolaren lehen urratsak." *Tantak* , 4. znbk (1990).

² ESTORNES, I. *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca, 1918-1936*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1983. 1992. orr.



Planteamendu horien oinarrian zegoen pentsamenduak Espainiako hezkuntza politikak sortutako arazoak eta, Euskal Herrian, gaztelaniaz eta frantsesez alfabetatzeak euskara galarazi izana konpontzea zuen helburu. María de Maeztuk zioenez, “legearen fetitxismoak dakartzan ondorioak negargarriak dira. Legeak bere baitako birtualtasun eta eragingarritasuna duela uste izatea baita; legea *Gacetan* argitaratzeak arautu nahi duen errealitatea *ipso facto* sortuko duela uste izatea, alegia”. Halako joera bateratzaileei aurre egiteko, “toki borondatea altxatu behar” zela zioen, “botere zentralaren arbitrariotasunaren aurka”³.

Autore berak lehen hezkuntzako eskolaren egoera ere gogor kritikatu zuen, ez zuelako kontuan hartzen inguruko errealitatearekiko inongo harremanik eta, batez ere, burokraziagatik: “Haurrek egunean sei ordu eman behar dituzte usain txarreko gela batean, argirik eta airerik gabe eta guztiz arrotz zaizkien liburuen aurrean, ulergaitz zaizkien irakaslearen hitzak entzuten, emozio izpi txiki bat edo bizitza intelektuari erreferentzia egingo dion atomo bat sartzen utziko duen zirrikiturik gabe. Eskola hauetan, irakasleek eta ikasleek ez diote jaramonik egiten elkarri; urte luzeetan elkarrekin bizi dira, baina ez dira elkarrekiko komunikazioan jarri oraindik”⁴. Eduardo Landetak eta Luis Eleizalde ere bat egiten zuten María de Maezturen baieztapenekin, eta pedagogia garaikideari zegozkion ekarpenak gehitu. Eskola sistemaren ezaugarri behinenak kritikatu zituzten: buruz ikasi beharra, liburuetan oinarritzea eta haurren garapenari zein inguruneari ez erreparatzea. Euskal eremuetan egoera okerragoa zela baieztatu zuten, euskal hiztunen egoera kontuan hartuz.

Eusko Ikaskuntzaren biltzarretan elebitasuna (sustrai politiko argia duena) jorratu zen, baita pedagogia mugimenduan ere. Izan ere, beharrezkotzat ikusten zen haurra ama hizkuntzan hezteko erdi maila batera arte eta, hortik aurrera, bigarren hizkuntza bereganatzea, ikaslearen garapen psikolinguistikoa hobetze aldera. Espero bezala, Estatuko sistemak ez zuen hori guztia onartu; izan ere, hizkuntzaren homogeneizazioa estrategikoa zen estatu-nazio liberala era napoleoniko batean eraikitzeko bidean. Horregatik, gure herriko irakasleak eta kultur agintariak beste eskola eta pedagogia aukera batzuk bilatzen hasi ziren antzeko arazo linguistikoak zituzten Europako herrialdeetan⁵.

1931n, aldaketa politikoaren testuinguruan, Eusko Ikaskuntzak elebitasun biltzarra antolatu zuen Bilbon eta Donostian. Gaiak pizten zuen interesa agerian gelditu zen parte hartzean, 600 lagun bertaratu baitziren. Kataluniako Autonomia Estatutua eta Elebitasun Dekretua (1931ko apirilaren 29an kaleratua) akuilu izan ziren hizkuntza kezka

³ MAEZTU, M. "Enseñanza Primaria. Conferencia general." A paper delivered at the Eusko Ikaskuntzaren II. Biltzarra, Iruña, 1920. 38. eta 39. orr.

⁴ Idem, pág. 40.

⁵ Eusko Ikaskuntzaren III. biltzarretan, 1992. urtean ikus daitezke horren inguruko adibideak. DAVIES, Sir Alfred. "El idioma galés, su lugar en la educación de Gales." In *III Congreso de Estudios Vascos*, 126-132. Gernika: Eusko Ikaskuntza, 1922. GARCIA, Eladio. "Informe sobre la organización de la primera enseñanza en Francia y Bélgica." 107-120. LANDETA, E. "El bilingüismo escolar.", 121-125. SCHAEZTEN, L. "El estudio de la segunda lengua en la enseñanza primaria en Bélgica", 133-137. Ugariak dira hainbat garaitan Europan aurki daitezkeen erreferentziak baina, Galeskoek eta Belgikakoek gain, Finlandiakoak, Luxenburgokoak, Alsazia-Lorrenakoak eta Suitzakoak ere aurki daitezke.



lantzen zuten autonomiazaleentzat. Elebitasuna mahai gainean egon zen Errepublika garai guztian zehar, eta adierazpen hori Euskal Herrian ere ikus zitekeen, *Yakintza* aldizkarian. Gure herriaren unibertsitate gabeziaren harira sortutako plataforma kultural eta intelektual horrek hausnarketa zientifikoak bultzatzea zuen helburu; 1933. eta 1936. urteen artean, gai honen inguruko hausnarketak bildu zituen *Yakintzak*, besteak beste, Eduardo Landetak, Aita Alzok, Aitzolek eta Orixek berak egindakoak. Hartara, fenomeno honen jatorri politiko eta ekonomikoa azaltzeko argudioak plazaratzen hasi ziren⁶. Eusko Ikaskuntzako lehen hezkuntzako komisioak ere gai berari heldu zion udako ikastaroetan, eskolaren berrikuntza iparrorratz betiere⁷.

Aipatu gisa, hausnarketa asko kaleratu ziren adituen bileretan eta aldizkarietan berrikuntza pedagogikoaren harira, baina errealitatean, hau da, eskoletan izan zuten eraginaren inguruan hitz egitea zaila da. Hala ere, aipatzekoa da, berrikuntza horiek irakasleriaren trebakuntzan (aipatu udako ikastaro jendetsuetan), eskola liburuetan eta elite intelektualek beste eskola eredu batzuk ernearazteko esku-hartzean izandako eragina.

Ikastolen mugimenduaren sorrera arte (1960ko hamarkada arte), euskarak eskoletan izan zuen presentzia oso txikia izan zen. Mugimendu euskaltzalea hezkuntza ez-formalean bildu zen, eta hezkuntza mota horretan ere izan ziren planteamendu pedagogiko berritzaileak⁸. Gutxieneko gune horietan izandako ideiek eta praktikek, gainera, berebiziko garrantzia izan zuten hezitzaile belaunaldi oso batean, ikastolen mugimenduaren agerpenean agerian geldituko zena gerora.

Orain arte aipatutako ideiek eta idazkiek osatutako testuinguruan hainbat eskola ekimen sortu eta garatu zen, testuinguru sozio-historiko ezberdinetan, Espainiako Gerra Zibila amaitu bitartean. Esperientzia horiek askotarikoak dira:

⁶ Elebitasunaren inguruko lanak Euskaltzaleen Elkartearen jaso eta argitaratu ziren: “Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa”, Donostia, 1935. Fenomeno honen inguruko analisi esanguratsu bat hemen aurki daiteke: IZTUETA, Paulo, *Orixeta bere garata*. Vol. V. Donostia: Etor, 1991. 506.-512. orr.

⁷ Informazio gehigarri gisa, esan daiteke 1936ko Donostiako udako ikastaroetan Pierre Bovetek eta Alejandro Galík “Teoría y práctica del bilingüismo en la enseñanza primaria” ikastaroa eman zutela. Lehena Genevako Unibertsitateko kide eta Luxenburgoko Nazioarteko Konferentziara bideratutako Eleaniztasunerako Zuzendaritza Batzordeko zuzendaria zen; bigarrena, aldiz, Kataluniako Generalitateko Kultura Kontseiluko idazkaria. ESTORNES, I. *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca, 1918-1936*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1983, 197. orr.

⁸ Errepublika garaian, Emakume Abertzale Batza osatzen zuen emakumeen mugimenduak rol garrantzitsua bete zuen haurrak kulturarekin, hizkuntzarekin eta euskal nortasunarekin erlazionatzeko; izan ere, Irlandako ereduari jarraiki, antolakuntza sare erraldoia osatu zuten. Haurrak jendarteratzeko modu hori dantza, kantu eta gimnastika erritmiko bidez gauzatzen zen, heziketa artistikoa, erlijiosoa, kulturala eta nazionala izanik helburu betiere –eragin handia izan zuten Jacques Dalcrozek 6tik 16 urtera bitarteko neskekin egindako gimnastika erakustaldiek–. Aipatu joera hori Katalunian ere jazo zen, Joan Llonguerasen bidez, eta, Euskal Herrian, Aita Donostiak egindako ekarpena ezinbestekoa izan zen, hainbat herri kanta moldatu baitzuen gimnastikan erabiltzeko. Ikus: ARRIEN, G. *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares*. Bilbo: Onura, 1983. 102. orr.



batzuk aldundiek sortu zituzten (auzo zein herri eskolak), beste batzuk udalerrien ekimenez jaio ziren, eta beste batzuk, ekimen pribatuari esker. Norabide ezberdina hartu zuten arren, kontuan hartzekoa da guztiek kontrako indar bereberri egin zirela aurre (ekonomikoei, ideologikoei, politikoei...). Horien guztien gaineko irakurketa egitea nahiko luzea izan litekeen arren, 1933. urtean abiatutako Euzko Ikastola Batza proiektua aipatuko dugu, garaiko pentsamendu pedagogikoak eskola proiektu errealean izan aplikazioa ikusteko bide ematen baitigu⁹.

EAJren baitako sektore independentistenen bultzatu zuten euskal eskola proiektua izan zen Euzko Ikastola Batza (EIB), sare paralelo gisa, hezkuntza euskaldun eta erlijioso bultzatu zuena osotasunean¹⁰. Interesgarriak dira benetan 1932-1933 ikasturteko kudeaketa txostenean¹¹ ageri diren alde teorikoak, metodologikoak eta antolamenduzkoak, izan ere, frankismoko euskal eskoletako andereñoen praktikan agertu ziren berriz.

Nola sortu ziren ideia pedagogiko eta didaktiko horiek? Orduan, euskal kultur mugimendua sare moduan aritzen zen. Ildo horretan, sortzen zen eskola ekimen orok zuzeneko erlazioa zuen Euzko Ikaskuntzarekin. Elkarrekin, bildu eta ekarpenak zein kritikak egiteko gunea eskaintzeaz gain, ezinbesteko oinarriak jarri zituen teoriari eta antolaketari dagokienez, eta hainbat baliabide argitaratu zituen (adibidez, euskarazko testu liburuak). Beraz, euskal testuinguruan sortzen ziren ideia pedagogikoen teorizazioa eta horien gauzatzea Euzko Ikaskuntzari esker jazo zirela esan daiteke, are gehiago kontuan hartzen bada parte hartzaileak hainbat eskola ekimenen sortzaile ere izan zirela eta EIBk berak aditu horiek betetako galdeketetatik lortutako erantzunak eskola ereduaren oinarria finkatzeko erabili zituela.

⁹ Arreta gai honetan jartzea interesgarri dela deritzogu. Izan ere, aurretik zirriboratu nahi izan dugun kate baten amaiera izan zen, hezkuntza praktika berritzaile baten heldutasun maila ekarri zuen, eta aurreraxeago ikusiko dugunez, frankismo garaian berriro agertu zen. Hala ere, aurretik ere badaude berrikuntzaren arrastoak, eskolaren eraikuntzan ez beste gai batzuetan jarri zutenak arreta; nahiz eta horien inguruko datuak eskasagoak diren, ikerketa honen atal garrantzitsuak dira, oraindik errealitatean txertatu ez arren, hala nola, Paulí Dávilak 1882. urtean “*Anteproyecto que presenta la subcomisión encargada de estudiar y proponer las reformas que pueden introducirse en el ramo de la primera enseñanza en la Ilustre Villa de Bilbao*” dokumentuan adierazi zituenak. Autoreak Institución de Libre Enseñanza erakundearen eragina aipatu zuen, bertan aipatzen ziren hezkuntza metodo intuitiboaren gaineko zehaztapenak, baita eskola irteeren eta hezkuntza ulertzeko modu arrazionalaren ingurukoak ere. Hala eta guztiz ere, itxaropena piztu zuen esparru hori trantsizioko plan bilakatu zenean, ez zituen helburu zehatzak planteatu, eta udal eskoletan erreformatu beharreko alderdi jakin batzuetara mugatu zen: eskolak eraikitzeke proiektuetara, udal aurrekontuen kopuruak zehaztera eta plana behatzeko udal batzordeak sortzera, besteak beste. DAVILA, P. *La política educativa y la enseñanza primaria en el País Vasco. 1860-1930*. Donostia: Ibaeta Pedagogia, 1995. 106. orr.

¹⁰ Gogoan izan behar dugu, II. Errepublikaren garaian, Euskal Herrian sortutako kontraesanik handienetako bat eskolaren laikusuna izan zela. Ikuspuntu horrek bi sektoreekin egin zuen topo: alde batetik, euskal nazionalismoaren joera akonfesionalarekin eta, bestetik, euskal kleroaren sektore handi baten ezaugarri soziologikoekin -lur jabeen klerotik urrun egoteaz gain, herriari estu lotuta zeuden eta Gerra Zibilaren eta frankismoaren garaian izugarri zapaldu zituzten-.

¹¹ EUZKO IKASTOLA BATZA. FEDERACIÓN DE ESCUELAS VASCAS. *Informe de la gestión del primer ejercicio, presentado por la Junta de Gobierno de Euzko-Ikastola-Batza: 1932-33*. Bilbao, 1933. Eskola esperientzia honen gaineko analisi zehatzagoa hemen aurki daiteke: ARRIEN, G. *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares*. Bilbo: Onura, 1983.

Ildo horretan, EIBk metodo orokorraren eta metodologia aktiboaren alde egin zuen apustua, ikaslea eta bere ingurua aintzat hartzea, aurrez izandako esperientziaren eta bilaketa teorikoaren ondorio izan ziren. Julia Fernández Zabaletak, Julene Azpeitiak eta Aita Alzok Montessoriren pedagogiaren gainean zuten jakintza eta Julenek berak Decrolyren gainean zuena erabakigarriak izan ziren¹². Korrante horietan, espazioaren antolaketak berebiziko garrantzia du, eta mugitzeko askatasuna eman behar dio haurrari. Ondorioz, ikasgela bakoitzaren erdian mahai biribil handi bat egon ohi zen –ikasleak haren inguruan esertzen ziren–, eta ingurunearekin sortzen zen lotura ere garrantzitsua zen oso: irteera ugari egiten ziren naturarekin eta geografiarekin zerikusia zuten kontzeptuak ikasteko. Azkenik, ez zen erabiltzen testu libururik, zenbait arrazoi medio: “lehenik eta behin, garai honetan jazotzen den ikasketa memorizazio mekanikora mugatzen da; bigarrenik, irakaslearen lana idatzizko ariketetara mugatu ez dadin; hirugarrenik, ikasketak ikasle bakoitzaren garapenaren eta interesguneen arabera gauza daitezen; eta, laugarrenik, interesgune baten inguruan lantzen den gaia ezin delako testu liburu batera egokitu”¹³.

Garai hartako irakasleen kezkak askotarikoak baziren ere, ez dirudi ausartegia aipatutako aldaketak eguneroko lanean sartu zituztela esateak, maisurik adierazgarrienetako baten aholkuei jarraiki: “*Irakasle anderaño Sassone k esan duan au gogoan izan egizu, eta beste irakasakin batzen zeranean, zuen alkarrizketa ez dedila diruatzaz, irabaziatzaz, ikastola bat utzi ta beste batera juatiazaz, erri txikiari iges-egitiazaz, agintarien zitalkeratiaz eta gurasoen eskergabekeriaz izan. Montessori, Decroly, Davies eta Freinet etzaz ere izan dedin*”¹⁴.

¹² Montessori Nazioarteko Kurtsoaren Memoriak. Julia Fernández Zabaletak aurkeztua. Pamplona, Imp. y lib. de Serafín Argaiz, 1916. GUIBERT; M.E. "La mujer como educadora de párvulos: la influencia de Maria Montessori en las escuelas municipales de Pamplona." 467-473. ARRITOKIETA. "Decroly osagilliarren irakurten ikus-gogai-era." *Euzkadi* (1933). 27-VI; 5-VII; 15-VII; 28-VII; 5-VIII. AAVV. *Julene Azpeitia, ehun urte mugan (1888-1988)*: Zumaiaiko Udala, 1988.

¹³ EUZKO IKASTOLA BATZA. Idem. 23. orr.

¹⁴ ARRITOKIETA. "Euzkotar umien aldez" *Euzkadi* 1933-X-16.



2. Frankismo garaiko berrikuntza pedagogikoa

XX. mendearen lehenengo herenean Euskal Herrian sortutako ekimen berritzaileek Gerra Zibilaren eta erregimen frankistaren ondorio latzak pairatu zituzten, zer esanik ez euskarak, zapaldu, jazarri eta zigortu ere egin baitzen Hego Euskal Herri osoan¹⁵. Ondorioz, euskarazko hezkuntza eredu orok erbesterratu –eskola komunitateak erbestean, euskal etxeak Europan eta Amerikan–, ezkutatu edo, besterik gabe, desagertzea beste aukerarik ez zuen izan¹⁶. Lehenik eta behin, 1940ko eta 1950eko hamarkadetan ezkutuan izandako eredu horiez mintzatuko gara, labur bada ere.

2.1. Donostiako etxe eskolak: gerra aurreko berrikuntza pedagogikoaren aterpea

Donostian aldi berean baina bereiz izandako bi esperientzia txikik egin zuten zubi lana gerra aurreko euskal eskoletan sustatutako teoriaren eta praktikaren eta 1960ko hamarkadan, egoera guztiz ezberdinean sortu ziren ikastolen artean. Etxe eskolak gerra aurretik irakasle ziren Elvira Zipitriak eta María Dolores Goiak sortu zituzten. Irakasle tituludun horiek, haur hezkuntzako eskola pribatuak jarri zituzten martxan euren etxeetan¹⁷, eta eskola horien garrantzia, aritzeko erabili zituzten legezko bidez harago, euskararen erabileran zetzan. Eskaintzen zen hezkuntza guztiz euskalduna izateaz gain, pedagogia aktibo batean oinarritzen zen: interesguneen gaineko lanak egiten ziren, ingurumenarekin harremana sendotzeko irteerak antolatzen ziren astero; helburu didaktikoa izaten zuten eta eskuekin erabiltzen errazak ziren materialak erabiltzen ziren (txotxak, hizkiak ikasteko; “pottokak”, logika, kalkulua eta matematika lantzeko; irteeretan jasotako harriak...) eta ez zegoen ikasleentzako ikasmahairik, gelaren erdian kokatzen zen mahai biribil handi bat baizik, alboratu egiten zena behar ez zenean.

¹⁵ Ez gara gai honetan gehiegi luzatuko, baina aipatu aipatuko dugu estatuko hizkuntzek nazio hizkuntzei eragiten dieten jazarpen eta zapalkuntza linguistikoaren inguruan mintzo den liburua. Bertan aipatzen denez, zapalkuntza horrek ibilbide luzea egin duen arren, nazio hizkuntzei oso gogor egin zitzaizen eraso frankismo garaian: TORREALDAI, J.M. *El libro negro del euskera*. Donostia: Ttartalo. 1998

¹⁶ FERNANDEZ, I. eta beste. "La transmisión de contenidos nacionalistas en el contexto familiar (País Vasco, 1940-1970)." *Hª de la Educación* 16 (1998). FERNANDEZ, I. eta beste. "El exilio vasco y la educación: el caso de Venezuela." In *1939, el exilio pedagógico*, C. Lozano (edit), 159-186. Bartzelona: PPU, 1999.

¹⁷ 1945eko uztailaren 15eko legea (BOE 1945/7/18). 27. artikulua zehazten du oinarritzko hezkuntza eskaintzen duten eskolak pribatuak izan daitezkeela; eskakizun bakarra eskola horren tituluduna irakasle tituluduna izatea da. Etxe eskolen inguruko kontua honako liburu honetan aztertu da sakonago: FERNANDEZ, Idoia. *Oroimenaren bitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1994. E. Zipitria eta M Dolores Goiari buruzko bi lan espezifiko: ARANBURU, X. "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola)." *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*, 3. znbk (1990). ARANBURU, X. "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean." *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*, 4. znbk (1991).



Era berean, frantses kultura pedagogikoarekin izandako harreman estua aipatu behar da, Elvira Zipitriarena batez ere: batetik, Baionan eskuratzen zituen argitalpenak erabiltzen zituen eta, bestetik, irakasleen trebakuntza oso garrantzizkotzat zuen. Azken hausnarketa hori EIBren txoten batean ere ageri da: *“Irakasle eskola espainiarretan ikasi duten irakasleak gai izango al dira hemen eman beharreko heziketa emateko?”*¹⁸. Elvira Zipitriak antzeko irakurketa egitearen ondorio izan zen berarekin irakatsi nahi zuten irakasleei, titulua eskatzeaz gain, eskoletan urtebeteko praktikak egiteko eskatzea, trebatu egin zitezen. Hartara, emakume gazte, ikasle eta tituludunen belaunaldi berria sortu zen. Gerra Zibila zuzenean bizi izan ez zuten arren, gerra aurreko euskal irakasle eskolaren mamia jaso zuten eta, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan euskal gizartearen sortu mugimendu eta eraikuntza nazionalaren harira, ikastolen mugimendua sustatu zuten, hezkuntza praktika horiek bultzatuz.

Beraz, etxe eskolen kopurua garrantzia handikoa izan ez zen arren, beste alor batzuetan berebiziko garrantzia izan zuten, mendearen lehenengo herenean sortzen ari zen hezkuntza fenomenoaren Gerra Zibilaren ondoren ere mantendu eta birsortzeko gai zela erakutsi baitzuten. Funtsezkoak izan ziren pedagogia aktiboa eta praktika berritzaile guztiak transmititzeko; izan ere, frankismo garaiko hezkuntza sistema eta irakasleen trebakuntza guztiz nazional-katolizistak ziren. Beraz, basamortu pedagogiko horren erdian, etxe eskolak euskal hezkuntzaren historia txikian kontuan hartu beharreko fenomenoaren izan ziren, praktika berritzaileei eusteaz gain, haur belaunaldi berriak euskara hutsean hezi eta irakasle berriak trebatu baitzituzten.

2.2. Ikastolen mugimendua: izaera berritzaileko euskal eskolaren eraikuntza

Etxe eskolak erregimen frankistak ustez ezabatutako hezkuntza tradizio baten nolabaiteko jarraipena badira ere, egia esan, gainbehera doan eredu baten adierazpena ere badira. Historia jarraipenaren eta hausturen ibilbidea dela esan ohi da, eta bat gatoz horrekin. Etxe eskolak ez dira salbuespena. Jarraipenaren logika aurretik aipatu dugu, baina 1960ko hamarkadaren hasieratik aurrera euskal lurralde osoan sortu zen eskola ereduak (ikastolak) haustura ekarri zuen. Izan ere, ikastolen sorrerari bide eman zion testuinguru sozial, kultural, politiko eta ideologikoa oso ezberdina zen etxe eskolen ideologia pedagogikoa ahalbidetu zuenaren aldean.

Agirre lehendakaria buru zuela, erbesteko Eusko Jaurlaritzak 1940ko hamarkadan inposizio frankistaren aurka abiatu zuen estrategia politikoak (aliatuekiko elkarlanean oinarritutakoak) porrot egin zuen, erregimenak gerra hotzaren eta nazioarteko egokitzapen politikaren ondorioz hainbat eremutan lortu zuen zilegitasuna dela eta: Espainia UNESCOn sartzea onartzea 1951n, Espainiaren eta AEBen arteko itunak 1952an, Espainia NBEn sartzea... Erbesteko politikaren

¹⁸ E.I.B. op. Cit. Pág. 17.



amaierak euskal kulturaren (literaturaren, artearen, kazetaritzaren...) biziberritze orokorrarekin bat egin zuen¹⁹, eta biziberritze horren datarik esanguratsuena 1956 izan zen, urte hartan jazo baitziren, batetik, munduko euskal biltzarra, Parisen, eta, bestetik, Euskaltzaindiaren batzarrak, Arantzazun, 1968an sortuko zen hizkuntza bateratuaren oinarriak ezarri zituztenak.

Poliki-poliki musika, antzerkia, sukaldaritza eta, nola ez, hezkuntza ere barne hartuko zituen kulturgintzaren pizkundeak adierazpen politikoa izan zuen: Ekin, 1953an, eta ETArek sorrera, 1960an. Sortzaileetako bat Txillardegik izan zen, hizkuntzalaria berau, eta hizkuntzak nazioen eta nortasunaren eraikuntzan duen garrantzia nabarmendu zuen. Horren harira, euskal ideologiaren kodea aldatu egin zen 1960ko hamarkadan. Ordura arte Sabino Aranak emandako definizioa zegoen indarrean, arrazan, erlijioan eta lege zaharrean oinarritzen zena, baina, garai hartan, hizkuntza finkatu zen ideologia horren oinarri nagusizat. Hizkuntza elementu dinamikotzat hartzen zen, eta edozein pertsonak ikas zezakeen. Hartara, gizarteak euskara berreskuratzearen ildoan planteatutako Euskal Herriaren eraikuntza horretan, nola euskaldun zaharrek hala berriek zuten egitekorik, eta jatorriz euskaldunak ez zirenak ere izan zitezkeen nazio proiektuaren kide.

Euskararen berreskurapen soziala herri egitasmu handi baten bilgune bilakatu zen 1960ko hamarkadatik aurrera, eta ikastola izan zen zabalkundearen ardatz nagusia. Euskalduna izateaz gain, estatuko eskola erduekiko harremana etengo zuen eredu pedagogikoko eskola sortu zen. Horrela gorpuztu zen herritik elikatzen zen eta herriarentzat izango zen euskarazko alfabetizazio eta eskolatze formula; herriaren eta eskolaren arteko lotura hain zen estua, bata bestea gabe ezinezkoa litzateke.

Aurretiaz zehazki diseinatutako plana izan beharrean, garaiko eskolen gaineko ikuspuntu negatiboa zuen eta euskararen aldeko apustu bizia egin zuen pertsona multzo baten tokiko bultzadak eragin zituen ikastolak. Testuingurua berezia zen: mobilizazio politikoa bizkortzen ari zen –unerik gorenetakoa Burgosko epaiketa izan zen, 1970ean–, eta aurrez aipatutako kultur mundua, hazten eta berrelikatzen. Hazkundera azkarra izan zen: 1960an 3 ikastola zeuden, 103 1970ean eta 243 1980an; ikasleak, berriz, 596 ziren 1964an, 11.885 1970ean, 33.851 1975ean eta 65.273 1980ean²⁰.

¹⁹ Argitalpenak eta aldizkariak agertzea: *Ekin* eta Itxaropena argitaletxea Buenos Airesen (1946); *Euzko Gogoia* Guatemalan (1950); *Anaitasuna* (1950); *Zeruko Argia* (1954); *Othoizlari* (1954) eta *Jakin* (1956). Euskal arte modernoa sortzea: 1950etik aurrera, Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea, Javier Sainz de Oiza, Lucio Muñoz, Xabier Egaña, Javier Alvarez de Eulate, etab. bildu ziren frantziskotarren Arantzazuko monasterioa berritzeko. Literatur berrikuntza (existentzialismoaren eragina, Txillardegik 1959an idatzitako *Peru Leartzako* adibide). Garai honen gaineko ikerketa osatu eta interesgarriago bat: IZTUETA, Paulo. *Orixe eta bere garaia*. Vol. V. Donostia: Etor, 1991.

²⁰ SIADECO. *Estudio Socio-lingüístico del euskera. VII: Las Ikastolas*. 1980.



Edonola ere, nola sortu zen euskalduna eta berritzailea izan nahi zuen aukera hori? Ikastola bakoitza tokian-tokian sortu bazen ere, elkarlana nagusitu zen orduko egoerari aurre egiteko, bai ikastola bakoitzaren barnean (gurasoen, irakasleen, laguntzaileen... artean), bai sortuak ziren edo sortzen ari ziren ikastolen artean. Hasiera-hasieratik jazo zen koordinazioak lokal, irakasle eta esperientziarik ezagatik sortzen ziren arazoak konpontzen saiatzeko balio izan zuen. Alde horretatik, gurasoen arteko sareak antolakuntza, lege eta kudeaketa arloko arazoak konpontzea zuen helburu, baina irakasleriak ere sare propioa sortu behar izan zuen, eguneroko jardunean eskolan sortzen ziren irakaskuntza arazoak konpontzeko. Nolanahi ere, ikastolak beste eskola eredu bat baziren ere antolakuntzaren aldetik ere, irakaskuntza aipatuko dugu, horixe baita berrikuntza pedagogikoaren interesgune nagusia.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan, ikastolen mugimenduak aurre egin beharreko erronka nagusia irakasleriaren trebakuntza izan zen. Zenbait arrazoi zirela medio, irakasleen lana ez zen oso preziatua Euskal Herrian eta, ondorioz, irakasle tituludun gutxik zekiten euskara. Gainera, ikastolen sorreran parte hartu zuten lagunek argi zeukaten orduko eskola hura, izan publikoa zein pribatua, ez zela lortu nahi zuten eskola eredu; beraz, irakasle tituluak legezko eskakizunei aurre egiteko balio bazuen ere, ez zen nahikoa hezkuntza eta pedagogia erronkei heltzeko. Irakasle eskolaren beharra hamarkadetan planteatu zen euskal eskolaren premiei erantzuteko.

Ekinekin nahiz EAJrekin lotura zuten zenbait irakasle gazte Zipitriaren etxe eskolaren oinarrian zegoen pedagogia berriarekin harremanetan jarri ziren, harekin egin zituzten praktiken bidez. Irakasle horiek ikasle kopuru handiagoa bildu zuten etxe eskola propioak ireki zituzten eta, era berean, irakasle gehiago (tituludunak eta titulu gabeak) hartu zituzten praktikak egiteko. Gerora, Donostiatik kanpo zeuden ikastolen ardura hartu zuten. Poliki-poliki, gero eta irakasle gehiago trebatu ziren, eta horiek guztiek Joanes Etxeberri Hezitzaileen Eskolan (Andereñoen Egoitzan) aurkitu zuten aterpe; hain zuzen, 1964an zabaldu zen Eskola, Paki Arregi zuzendari eta Jaxinto Setien, Carlos Santamaria eta Joxemi Zumalabe laguntzaile zirela. Irakasle ikasketak *Escuela Normal de Donostia* delakoan egin zituzten gazteek euskara eta literatura, ingurunearen ezaguera (geografia, historia, antropologia...) eta pedagogiaren eta metodologiaren gaineko heziketa espezifiko hartu zuten hamar urtetan zehar; Elvira Zipitriaren eredu pedagogikoaren eragina nabarmena izan zen²¹.

Jaxinto Setienek parte hartze handia izan zuen ikastolen sorreran, eta ikastolen mugimenduarekin batera sortutako irakasle mugimendu baten inguruan mintzatzen zen. Mugimendu horrek ikastola bakoitzaren barnean izandako lan esperientziak trukatzeko zuen helburu, baita irakasleak trebatzeko ikastaroak antolatzea ere²². Egoki deritzogu mugimendua izan zela esateari, nork bere lana eginez, indarrean zen eskola eredu aldatzeko ekintzak eraman baitzituen aurrera. Horretarako, sistemaz kanpoko tresnak, estrategiak eta mekanismoak erabiltzeaz gain, *statu quo*-aren beraren kontra

²¹ Honako hauek dira irakasle gazte haien trebakuntza lanetan parte hartu zuten irakasleak zein hizlariak: Jose Miguel Barandiaran, Federica Zabala, Manuel Lekuona, Karmele Esnal, Jesus Altuna, Gurutz Ansola, Joxe Artola eta Anton Artamendi.

²² SETIEN, J.F. "Gordailu eta euskal pedagogia." *Jakin*, n^o 11, 1979. 106. orr.



zeuden planteamenduak gauzatu ziren. Esperientziak trukatur, gune pedagogiko eta didaktiko propioa sortu nahi zen, eskola materialen bidez gauzatzen hasi zena. Era berean, truke horiek andereñoak eurak etengabe trebatzeko baliagarri izan ziren. Poliki-poliki, trukerako gune hauek ugaritu egin ziren, eta udalerriz udalerrri, eskualdez eskualde eta herrialdez herrialde antolatuta ziren.

Halere, irakasleen trebakuntzak garrantzi handia izan zuen eremu autogestionatu horietatik kanpo ere, eta beste toki batzuetan izandako esperientziak ere hartu ziren kontuan. Katalunia eta Frantzia izan ziren erreferentziazko puntu nagusiak arlo honetan. Katalunian, A. Galik eta Marta Matak abian jarritako ekimenek *Escola d'estiu* eta Rosa Sensat Institutua sortzea ekarri zuten, ikastolen proiektuan eragin zutenak. Bartzelonara egindako bidaia batean, Marta Matarekin eta M. Antonia Canalsekin harremanetan jarri zen Jaxinto Setien, eta orduan sortu zen urte luzez jarraitu zuen esperientzien trukea. Horren harira, Rosa Sensat eta euskal irakasleen arteko lehen harremana 1966an, Getarian gauzatu zen²³, eta harreman hori, euskal irakasleek landu zituzten gaietan antzeman zitekeenez, handia izan zen. Aipatu joeren artean, irakasleen sekularizazioa nabarmendu beharra dago, orduan sortu baitzen euskal irakasleen artean erlijio irakasgaiarekiko jarrera kritikoa; euren ustez, lan hori kristautasunari zegokion²⁴.

Esperientzia horietaz gain, Freineten pedagogiaren eragina ere antzeman zitekeen irakasleen trebakuntza lanetan. Hain zuzen, sortzen ari ziren ikastolen gaineko teorizazio soziala egiteko baliagarriak ziren ikuspuntuak eskaini zituen, mugimendua sustatzen zuen kritikotasunarekin eta herritartasunarekin bat eginez. Freineten eskola esperientziekin izandako zuzeneko harremana nahiko goiztiarra izan zen: Andereñoen Egoitzan eskaintzen zen heziketan presente zegoen autoreetako bat zen. Gainera, 1968an, irakasle talde bat Buzet Sur Baisera (Agenera) joan zen, ildo horretan lan egiten zuen eskola publiko bat zuzenean bisitatzera. Ipar Euskal Herriko ikastolen sorrera 1968an izan zen, Frantziako Estatuan 1968ko maiatzeko mugimendua pil-pilean zegoenean. Ondorioz, Freineten ideiak oso modu naturalean barneratu ziren, eta bertako irakasleek pedagogiko horren teknikak aurrera eraman zituzten. Horrez gain, iparraldeko ikasgelek “Iparraldea debalde” zeritzon truke programa jarri zuten martxan, Frantziako eskola publikoetako eta Hego Euskal Herriko irakasleengana ere heldu zena. Irakasleek gehien lantzen zituzten gaien artean honako hauek zeuden: kooperatibismoa, eskola inprenta, eskolen arteko elkarrekikotasuna eta herriaren hezkuntza beharrei aurre egingo zien herri eskola²⁵.

²³ MONES i PUJOL-BUSQUETS, J. *L'escola a Catalunya sota el franquisme*. Bartzelona: Rosa Sensat Edicions, 1981. 370. orr.

²⁴ Egun hain garrantzitsua iruditzen ez zaigun alderdi honek izugarriko garrantzia izan zuen garaiko testuinguruan. Gerra aurretiko euskal eskola euskalduna eta erlijiosoa zen eta, ondorioz, etxe eskolek eta hasierako ikastolek ezaugarri horiek barneratu zituzten. Aurrez aipatu bezala, baina, ikastolak guztiz ezberdina zen testuinguru batean sortu ziren; marxismoa, feminismoa, existentzialismoa eta beste korrante batzuk jendartean sustraitzen ari ziren. Euskal kleroa bera ere ikaragarri sekularizatu zen 1970eko hamarkadaren hasieran, askoz zabalagoa zen adierazpen baten adierazgarri. Irakasle gazte haiek ere zalantzan jarri zuten euskal irakasle sinestunaren rola, eta Kataluniako pedagogiaren bitartez eskola laiko bultzatzen zuen eraginaren berri izan zuten; Europako ohituretan oinarritzen zen, eta hezkuntza erlijiosotik aldentzeko zilegitasuna eman zien.

²⁵ HIK-HASI. "Freinet teknikak Euskal Herrian." *Hik Hasi* 14 (1997/I). FERNANDEZ, I. op.cit, 167-172 orr.



Eragina hain nabaria izan zen, 1972an, gaztelaniazko itzulpenik egiteke zegoenean oraindik, C. Freineten bi liburu eta bere ardurapean idatzitako beste bi testu euskarara itzuli ziren²⁶.

Azkenik, P. Freireren teoria aipatu beharra dago, ikastolen mugimenduan baino gehiago, helduen alfabetatzearen eta euskalduntzearen harira sortutako mugimenduan (gau eskoletan) izan zuena eragina. Freiren teoriak erreferentzia izan ziren, bai eskolaren betebeharrak sozial eta politikoan sakontzeko orduan, baita hezkuntza tresna askatzailetzat hartzeko orduan ere. 1972. urtean, *Pedagogia eta gizarte* liburua argitaratzearekin, aurrez aipatu autorearen pentsamendua irudikatu zen, nahiz eta haren eragina, aurretik ere, ikastolek ezkutuan argitaratzen zituzten aldizkarietako artikuluetan nabari²⁷.

2.3. Gordailu eta euskal pedagogia

Ikastoletako irakasleen mugimenduaz aritu garenean, koordinaziorako eta lan komuna aurrera eramateko joera aipatu ditugu. Dena den, ikastolen mugimenduak 1960ko hamarkadaren bukaeran zuen hedapena kontuan hartzen bada –11.885 ikasle biltzen zituen Euskal Herri osoan–, koordinazio soilaz harago, beste antolakuntza molde baten beharra nabaria da. Horrela sortu zen Gordailu, ikastolen eraginez, baina baita euskararen modernizazioak jendartearen sortu zuen kezka eraginez ere –modernizazio horrek euskaraz alfabetatzea eta argitalpenak behar zituen–. 1969. urtea giltzarria izan zen Gordailuren sorreran, oro har nabari zen giro sozialaren eta Arantzazun adostu berri zen euskara batuaren ondorioz. Izan ere, Euskal Herri moderno, laiko eta urbano baten beharrezko aurre egiteko sortutako hizkuntza bateratu batek baliabideak behar zituen aurrera egiteko. Rikardo Arregik zioenez, euskara batuan idatzi eta argitaratutako liburuen premia zuen alfabetizazio kanpaina abiatu behar zen.

Irakasleriaren trebakuntzari erantzuteaz gain, eskolatze prozesu orotan beharrezkoa den argitalpen lanari ere erantzuteko asmoa zuen Gordailuk. Hona hemen estatutuetan finkatu zen helburu nagusia: Euskal Herrian txertatutako hezkuntza lantzea, ikasleen askatasuna sustatuko zuena, irakasleek euren lana modu aberatsagoan egiteko prestakuntza

²⁶ Itzulpenak Txillardegik egin zituen, *Larresoro* ezizenez. FREINET, C. *Berezko irakurpidea*. Donostia: Irakasle Elkarte, 1972. FREINET, C. *Zenbait aholku gazteentzako*. Donostia: Irakasle Elkarte, 1972. PORQUET, M. *Freinet teknikak lilitegian. ICEM (Institut Cooperatif de l'école Moderne) batzordearen laguntzarekin M. Porquetek prestatua*. Donostia: Irakasle Elkarte, 1972. AAVV *Zientzien erakaskuntza. Eskola-Berriko erakasle talde batek, C. Freineten zuzendaritzapean prestatua*. Donostia: Irakasle elkarte, 1972.

²⁷ OSA, E. *Pedagogia eta gizarte*. Donostia: Lur, 1972. Aipatu aldizkaria 1971. eta 1973. urteen artean argitaratu zen, Gordailuri esker. Izenik gabe argitaratu zen arren, zentsuraren traba guztiéi aurre egin eta 400 ale banatzen zituen. Bestalde, Gordailuk 1970ean antolatutako udako ikastaroetan, Eusebio Osak “Educación Libertadora” zeritzon ikastaroa eman zuen, Freireren pedagogiaz mintzo zena.



bermatuko zuena, irakasle horien langile eskubideen eta eskubide ekonomikoen alde egingo zuena eta baliabideak sortzea (liburuak, fitxak, etab.) bultzatuko zuena²⁸.

Egoitza Donostian zuen irakasle elkarte gisa antolatu zen eta, 1970ean, 300 partaide eta Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako liberatu bana biltzen zituen, izan zuen garrantziaren adierazgarri. Honako atal hauen gainean egituratu zen bere lana:

a) Irakasleriaren trebakuntza, ikastaroen, mintegien eta biltzarren bidez. Aurrez aipatutako iturri pedagogikoak Gordailuren bidez bideratu ziren batik bat, sustatzen zuten trebakuntza zein zen argi eta garbi izanik betiere. Aratza Allur Gordailuko arduradunetako batek zera zioen: *“Gure ikastaldiak urte guztiko lanaren fruitua edo ondorioa behar du izan. Ikastaro osoan zehar egin diren talde-lan eta esperientziak azaldu eta bilduaz programa berdin batera hel gaitzke. Bestalde, gure beharrak agintzen diguten arabera teoriak ere eman behar dira. Honela prestatzen diren ikastaldiak, alegia lanean ari den jendeak eskatzen duen arabera, benetako interesa izanen dute (...). Ikastaldiaren programa gure beharrei erantzuteko eraturikoa izanen da, eta ez gure partizipaziorik gabe goitik behera eraturikoa. Ematen diren gaiak oso jakingarriak izan arren, lanean ari den jendeak parte bizirik hartzen ez badu benetako heziketaren aurka doa. Hitzaldi eder batzuk eman ondoren urte guztiko bakea eginik delakoan gelditzerik ez dugu onartzen, eta goitik eratzeak hori dakar berarekin”²⁹.*

b) Material didaktikoa sortu eta hedatzea Haurrideren eta Kideren laguntzaz, Donostian eta Iruñean hurrenez hurren. Katalunian eskolako materialaz arduratzen ziren kooperatibak ezagutu ostean, bi denda horiek jarri zituzten eskuragarri irakasleek ordura arte Baionan edo Bartzelonan lortzen zituzten liburuak. Testuinguru horretan kokatzen da jokoari eta jolasari ematen zitzaion garrantzia eta Gabonetako kanpainak antolatzea gurasoen laguntzaz.

c) Aurrez aipatutako aldizkaria eta ikastoletako ikasleentzat zein irakasleentzat sortu liburu bildumak argitaratzea. Hasiera-hasieratik, Gordailuk konpromiso sendoa hartu zuen euskara batuarekin eta normalizazio nahari eutsi zion argitalpen guztietan. Xedea ez zen testu liburuak sortzea, ikastolen eskura pedagogia aktiboa bultzatzeko baliabideak jartzea baizik, ikasleak ikertzaile txiki bilaka zitezen: *“Eta honetan garbiro adierazi nahi dugu: gure bidea ez dela material entziklopediko bat sortzea haurrak jakintza kaskoan mekanikoki metatu eta sar dezan, baizik-eta mailaz maila lanerako irakurgai eta kontsulta liburutegi txukun bat etorkizuneko ikastola eta eskolentzat moldatzea nahiz eragitea. Horretan da dena. Eta jakina, euskaraz eta Euskal Herriaren ikuspuntutik emana”³⁰.*

²⁸ GORDAILU-ARDURADUN-TALDEA. "Gordailu." *Urrats, euskal pedagogia aldizkaria*, 0. znbk, 1978.

²⁹ ALLUR, A. "Ikastolak eta irakasleak." In *Gure Ikastola*, ed. Jakin. Oñati: Jakin Sorta, 6, 1972. 50. eta 52. orr.

³⁰ SETIEN, J.F. "Gordailu eta euskal pedagogia." *Jakin*, 1979. 110. orr.



Ez dago askoz gehiago esaterik irakasleentzako liburuei buruz; izan ere, aipatu liburuen eginkizuna aipatu filosofia irakasleriaren trebakuntzaz materialki sostengatzea zen.

Laburbilduz, Gordailuk eskaini zuen aukera pedagogikoak garai hartan izan zitekeen eta izan zen eskola ereduaren lan sortzaile eta berritzailea irudikatu nahi zuen, baina ikastolen mugimenduaren barnean ere kontrako jarrerak ziren. Hezkuntzako Lege Orokorra ikastolen mugimenduarentzat oztopo izan zen eta, zailtasun horiek guztiak gorabehera irauteko, aldaketak egin behar izan zituen. Hortik ondorioztatu ziren jarraian zerrendatuko diren zenbait aldaketa: Gipuzkoako Ikastolen Federazioa sortzea Elizaren babespean; gurasoek sortu zituzten kooperatibak, legediaren eskakizunak beteko zituzten egoitzak erosteko kredituei aurre egiteko; Euskadiko Kutxaren eta beste banketxe batzuen parte hartzea; irakasleriaren artean kontzientzia sindikala agertzea, mugimenduak berak moldatu zuen antolaketa ereduaren ondorioz (Irakasle Elkartearen sorrera, 1972an³¹); poliki-poliki testuliburuaren eremuan sortu eta zabaldutako pentsamolde teknokratikoa eta, haren ondorioz, Piageten eragina ere bazuten eta oro har erabiltzeko gida liburuak argitaratu zituzten profesional adituek hartzea hezkuntzako protagonismoa, irakasleen orde... Aldaketa horiek norabide aldaketa eragin zuten ikastolek hasitako berrikuntza pedagogikoan.

2.4. Adarra: Euskal Eskola Publikoaren aldeko bultzada berritzailea

Ikastolen mugimenduaren 1970eko hamarkada erdialdeko joera normalizatzaile eta instituzionalizatzailea eta ikastoletako irakasleriak berritzeko “presioa” mantentzeko zailtasunak gora-behera, Luis Otanok “oinarrizko mugimendu pedagogiko” izendatutakoa egituratuta zegoen ordurako, ikastolen eremura mugatuta betiere. Frankismoaren bukaerak, ordea, uholde mobilizatzailea eragin zuen eta, horren ondorioz, aldaketa eragile berriak sortu ziren, baita hezkuntza alorrean ere; Euskal Herrian, eskolak gizartean duen eginkizuna auzitan jartzen hasi ziren talde eta ekimen bakanak osatu ziren hainbat eraginaren ondorioz.

Gaur egun ekimen horien inguruko lan sakon eta sistematikorik ez dagoen arren, Luis Otanok (Adarrak Euskal Herrian izan zuen kiderik adierazgarrienak) argitaratutako artikuluek berrikuntza pedagogikoaren fase berri honekiko lehenengo hurbilpena egiteko oinarria ematen digute. Bere biografiak berak beste eskola eredu baterantz doan ibilbidea erakusten digu, Asociación Católica de Maestros de Vizcaya (ACM) delakoarena; bertan, behin-behineko 200 irakaslerentzako ikastaroa eman zuen oposizioak prestatzeko. Bere hitzetan, bilera horiek “ACM irakasleriaren legezko plataforma bakartzat jotzeko akuilu” izan ziren, eta honako hiru helburu hauek zituen: “irakaskuntzako sindikatua sortzea, Euskal Herrian eskola pedagogikoari ekitea eta hezkuntza arazoei kristautasunaren ikuspegitik heltzea”³². Beste irakasle

³¹ Asociación de Profesores de las Ikastolas. Horrez gain, 1982. eta 1994. urteen artean ISILIK aldizkaria argitaratu zuten.

³² P., C. de. "Luis Otano, un organizador nato al servicio de la renovación pedagógica." *Cuadernos de pedagogía*, n° 89, 1982/V.



elkartekiko harremanaren ondorioz, Irakasleen Mugimendua sortu zen, baita irakaskuntza pribatuko irakasleen erakunde sindikala eta elebitasunerako lehenengo herri batzordea ere.

Hamar urte lehenago ikastoletako irakasleek jorratu zuten mugimenduak bezala, ACMk ere izan zuen eraginik pedagogia arloan eta, irakasleriaren trebakuntzaren gainean zeuden kezken inguruan aritzeko, udako eskolak antolatu zituzten Bizkaiko irakasleentzat. Horretarako, Rosa Sensat Institutuko irakasleak etorraziti zituzten, zailtasunak gorabehera; izan ere, Gotzaintzak erakunde marxistatzat jotzen zuen institutu hori.

1976. urtean, hezkuntzaz arduratzen ziren zenbait talde bilduko zituen talde autonomoa sortzea erabaki zen. Hartara, Gordailuk, Irakasle Elkartek, doktoreen eta lizentziadunen elkargoek eta beste zenbait taldek eta banakok bat egin eta Adarra kolektibo pedagogikoa sortu zuten, mugimendu pedagogikoa koordinatu eta laguntzeko. Gai nagusia eskola publikoa izan bazen ere, horretarako beste pedagogia mota bat behar zela nabarmendu eta bi lan nagusi definitu zituzten: pedagogia ikerkuntza eta Eskola Publikoak izan behar zuena jendarteratzea³³.

Gordailu-Bide-Adarrak Euskadiko lehenengo jardunaldi pedagogikoak antolatu zituen Leioako campusean, eta erantzun paregabea izan zuen, 1.200 irakasle bildu baitzituen. Dena den, hurrengo urtean 2.000 hezitzaile bildu ziren Gasteizen (euskal irakasleriaren % 15)³⁴. Lehenengo jardunaldi horietan, eskolaz eskola jazo beharreko funtsezko lau berrikuntza ardatzak planteatu ziren: a) inguruaren beraren ikerketa; b) edozein motatako adierazpeni garrantzia ematea; c) aurrekoaren ildoan, edukiei baino gehiago, garrantzia helburuei emango zien programazio berria egitea; d) bestelako ebaluazio sistema erabiltzea azterketen eta noten ordean, ikaslea garatzen lagundu eta orientatzeko³⁵.

1979an, Almagron inauguratutako *Movimientos de Renovación Pedagógica* (MRP) izeneko biltzarreko partaide ere izan zen Adarra. Aipatu biltzar horiek *Perspectiva Escolar, Infancia y Aprendizaje, Cuix* eta *Cuadernos de Pedagogía* aldizkariak jarri zituzten martxan, besteak beste. Gainera, topaketan IV. eta XI. edizioak (1982an eta 1990an, hurrenez hurren) Donostian egin ziren.

Hartara, Adarrak aurrera jarraitu zuen bere bidean eta, besteak beste, argitalpen politika bizia jorratu zuen, Euskadin beste eskola publiko eredu bat bultzatze aldera.

³³ P., C. de. Op. cit.

³⁴ OTANO, Luis. "La educación en Euskadi." *Cuadernos de pedagogía*, nº 65 (1980/V).

³⁵ ELKARLANEAN. "Organizarse." *Cuadernos de pedagogía*, nº 47 (1978/XI).



2. Berrikuntza pedagogikoa azken hamarkadan

Bi eskola eredu parez-pare izanik (ikastolak eta Estatuko eskola, poliki-poliki egoera sozial berriari egokitzen zitzaion eredu pedagogiko aurrerakoiagoa lantzen hasi zena), Adarraren erronka nagusia euskal eskola publiko berria definitzea zen. 1982. urtean, Otanok zera azaldu zuen: “Adarrako kide garenok argi daukagu euskal eskola publikoak ikastolek dituzten honako ezaugarri hauek bildu behar dituela bere baitan: parte hartzea eta demokrazia, euskararen eta euskal kulturaren integrazioa eta berrikuntza pedagogikoa. Hala ere, eskola estatalek dituzten zenbait ezaugarri ere bildu behar ditu, hala nola, edozeinentzat izan behar ditu ateak zabalik, ikastolek izan ez duten aniztasun ideologikoa izan behar du, sakoneko aldaketa pedagogikoa bultzatu behar du eta, nola ez, doakoa izan behar du. Uste dugu ikastolek estatuko eskolarekin bat egin beharko luketela euskal eskola publikoan”³⁶. Eskola eredu hori nola eraiki, horra hor hamaika eztabaidaren, ika-mikaren, artikuluren eta biltzarren gaia. Zailtasunak nabariak ziren, inplikazio politikoak baitzeuden oinarrian: ikastolen mugimendua Euskal Herriko lurralde osoan zegoen, eta eskola publikoa Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko eskola zen (Iparraldea ez zen eztabaidan sartu ere egiten). Legedia bera eta estatu espainiarraren eta frantsesaren antolaketa ere gainditu ezinezko oztupo ziren batak zein besteak ordezkatzeko zituzten egitasmo sozial eta politikoentzat.

Azkenean, egoera konplexu horren irtenbidea politikoa izan zen: Euskal Eskola Publikoaren Legea, 1992. urtean xedatutakoa; hala ere, eztabaida amaitzea lortu bazuen ere, gatazka ugari sortu zituen ikastoletan. Ikastolarik txikienek sare publikoan sartu beste erremediorik ez zuten izan –hitzartutako zentro izatea presio ekonomiko handiegia zen bideragarritasuna bermatzeko–, eta horrenbesteko presioa ez zuten ikastoletan, aldiz, interesen arteko lehia jazo zen: batetik, bazegoen irakasleriaren baitan sare publikoan sartzea onuragarria zela zioenik, bai lanpostuaren segurtasunagatik, bai ideologia politikoagatik, eta, bestetik, sektore handi batentzat (guraso eta kooperatibista historiko askorentzat) sare publikoan barneratzeak izugarritzko ahalegina ekarri zuen egitasmo baten “heriotza goxoa” eragingo zuen.

Horrenbestez, Legea ezbehar handia izan zen Euskal Herriko berrikuntza pedagogikoaren adierazpide esanguratsuenetako batentzat. Horrez gain, hezkuntzaren ahalmen eraldatzailea sustatzeaz baino gehiago irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren alderdi teknikoek arduratzen den pedagogia bultzatu duten bestelako aldagaiak gehitu behar zaizkio: LOGSE ezartzea, azken bi hamarkadetan pedagogia arloan nagusi izan diren ildoak, ekonomiaren globalizazioak munduan inposatu duen dinamika ideologikoa, neoliberalismoaren eta postmodernismoaren erabateko nagusitasuna... Garai txarrak utopiarentzat, diotenez.

Alta, oinarrizko lan pedagogikoak aurrera darrai. Neurri batean, LOGSEk eskola frankistaren aurka borrokatu ziren mugimendu pedagogiko berritzaileen aldarrikapenak bereganatu zituen, nolabaiteko normalizazio garaia hasi zen eta,

³⁶ P., C. de. Op. cit.



ondorioz, aipatu mugimenduen gainbehera jazo zen. Hala ere, ekimen berriak sortu dira eta, ibilbide laburra egin badute ere oraindik inolako irakurketarik egiteko, etorkizunean mamitu litezkeen berrikuntza fenomeno berriztat jo ditzakegu.

Hik Hasi aldizkariak Irakasleen Elkarteak urteetan argitaratutako *Isilik* aldizkari pedagogikoaren txanda hartu du, eta euskaraz irakasten duten irakasleen erreferente bilakatu da hamar urteko ibilbidean. Gainera, *Hik Hasik* ekintzak dibertsifikatzeko gaitasuna izan du, hainbat argitalpen ekoitzi eta irakasleentzako udako biltzarrak antolatu baititu; ildo horretan, 2.000. urtean egindako lehenengo biltzarrez geroztik, 700 lagun inguru biltzen dira urtero-urtero uztaileko lehenengo astean, garrantziaren erakusgarri.

Estatu Batuetan, Ingalaterran eta Australian horren modan dagoen kalitatearen inguruko diskurtso merkantilista abiatzen ari da baina, *Hik Hasiz* gain, xede kritikoa duten ekimenak ere ditugu. Ikas komunitateen esperientzia (gure kasuan, CREAk bideratutakoa) eskola publikoetan hedatuz doa, eta bigarren hezkuntzako eremu zailean ere ari da bideak irekitzen. Institutu batzuk ikaskuntza dialogikoa eta bazterketa sozialak ezabatzeko irizpideak lantzen hasi dira. Hezkuntza komunitate dialogikoen esperientzia xumeagoa da, erakundeen babes handiegirik ez badu ere, ikastolen baitan sortutakoa. Komunitate horiek pedagogia kritikoa jorratzen dute, gizartea eta hezkuntza eraldatzeko egitasmoaren barnean. Berritzaileak izan diren beste gune batzuek, berriz, beste euskal eskola baten eraikuntzan tematurik jarraitzen dute, dela hamarkadetan zehar freinetiar ikuspegitik lan egin duen Hernaniko Langile Ikastola, dela Seaska bera Iparralden.

Espero dezagun esperientzia horiek guztiek, tokian-tokian sortu eta zailtasunak zailtasun egiten dutenek aurrera, bat egingo dutela, elkar babestu eta berrelikatzeke. Izan ere, elkarlanak baino ez ditu jarriko bide onean.



IKASLEEN EKARPENA EUSKAL CURRICULUMARI

SARRERA

Egoera guztiak aldatzen dira. Atzo genuena ez da gaur dagoena. Gaur dagoena ez da bihar egongo dena. Egoera bat aldatzen da. Aldatzen da gauza guztiak mugiarazten dituzten legeak berdinak direlako unibertso osoan. Prozesu oro, egoera oro aldagarria da; aldatu aldatzen dago. Kanpoko indar batek eragiten ez badu, egoeraren aldaketa lineala izango da. Egoera batetik bestera modu naturalean igaroko dira. Baina kanpoko indar batek prozesuan sartzeko aukera badu hau aldatu eta bere egoera aldatzeko aukera izango du. Baina zerbait aldatzear dagoenean, bi egoera posibleen arteko oreka horretan dagoen momentuan, edozein etorkizun posible da.

Ikasleok egindako indarra dela-eta gaur egun ezarrita dauden curriculumak oreka batean daude. Oreka horretan gaur egun dauden bezala edo beste egoera batera joateko aukerak daude. Ikasleoi dagokigu oreka horri bulkada bat ematea eta guk erabakitzen dugun alderantz eramatea.

Lan honen bitartez euskal curriculumak errespetatu beharko lituzkeen eskubideak zerrendatu nahi ditugu. Eskubide horiek Euskal Ikasleoen Eskubideen Kartan jasota daude. Baina jasotzeaz gain, berauek nola garatu daitezkeen zehazteko asmoa dugu. Euskal Ikasleok curriculumaren aldaketa ezinbestekoa izatea lortu dugu. Orain, curriculum berriak ikasleoen eskubideak errespetatu dituzan eskatuko dugu.

Bide utopikoa aukeratu dugu. Horrelakoak gara. Sastrakaz beteriko baso batean barneratu ginen euskal curriculumak eskatzeko. Sastrakak kenduz bidea egin genuen; bidezidor bat batzuentzat, autobide bat beste batzuentzat. Orain bide honetatik hainbatek bere urratsak egiten dituzte. Baina gure utopiaren helburua ez da basoaren beste aldera iristea. Gure utopiaren helmuga ortzi-muga da. Gure helburua, atzo genuen erronka atzean utzi eta biharko erronkei heltzea da. Utopia egunez egun, pausoz pauso lortzen dugu. Utopia ez dugu inoiz lortuko. Eta hori da testu honen edertasuna.

Bila dezagun ortzi-muga.
Izan gaitezen utopikoak.
Izan gaitezen ameslariak.
Bila ditzagun gamusinoak.



HEZKUNTZA ESKUBIDEA

Euskal Curriculumumak hezkuntzarako eskubidea bermatu behar du. Arrazoi politiko, kultural, sexual, ekonomiko, akademiko, administratibo, jatorrizkoak edo sexu-orientaziozkoak ezin dira honetarako traba izan.

Zer da hezkuntza?

Hezkuntza ez da soilik pertsonaren garapen integralaz, ezagutzaren altxorraren jabetzaz eta kulturaren bereganatzeaz arduratu behar; hezkuntza prozesuan hurrek eta gazteek ikasitakoa praktikan jartzen jakin behar dute, euren bizitzan zehar eguneroko erronketan. Pertsonak ez dira hezten berotegi batean, non kanpokoarekin harremanik ez dagoen; bizitzarekin eta herriarekin lotura estua izan behar du hezkuntzak.

Eskola berriak ikaskuntza metodoak eta ereduak eraberritu behar ditu eta malgutasunez jokatu behar dute eskola eragile guztiak honen aurrean; soilik honela eskuratuko dugu hezkuntza integrala eta kalitatezkoa. Alde batetik, norberaren ezagutzak eta zoriona partekatu eta trukatzan dituen hezkuntza bultzatu behar dugu. Bestetik, sinisten dugu pertsonengandik ikasi daitekeela eta elkarrekintzaz garatzen garela. Horregatik eskolak anitza eta kritikoa izan behar du, sareen eta elkar harremanen indartzailea; prozesuari eta ibilbideari amaierako helburuari baino garrantzia handiagoa emango diona: EUSKAL ESKOLA NAZIONALA, alegia.

Baloreen hezkuntza

Aniztasuna eta baloreak

Aniztasuna

Egun, diskriminazioa eta bazterketa bultzatzen duten baloreak geure jendartearen pairatzen ditugu. Garai honetako baloreak jendarteak ezarri ditu, “normaltasun” patroitik at dagoena bazterketa espazioetara kondenatzeko eta egungo ordena soziala mantentzeko.

Hezkuntza munduan asko eztabaidatu da, azken urteotan, aniztasunaren inguruan. Aniztasuna kontzeptu berri bat edo gizateriaren ezaugarri berri bat izango balitz, geure historiaren parte ez balitz, zientziaren aurkikuntza berri baten antza izango luke.



Aniztasunaren inguruko interes hau hainbat gertakari esanguratsuen ondorio izan da. Besteak beste:

- Ikasle mugimenduak egungo hezkuntza sistema zalantzan jartzeko izan duen gaitasuna eta erakutsi duen indarra.
- Pobrezia eta desoreka sozialaren hazkundera, bazterketa eta diskriminazioa, “uniformizazio” politiko, ekonomiko eta kulturalaren prozesua; globalizazio inperialistak eta neoliberalismo basatiak eraginda.
- Genero ikuspegitik eman den bazterketaren inguruko hausnarketa eta beharrezko kontzientzia hartzea.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen eskubideen parte hartze sozialaren aldeko mugimendua.
- Kultur aniztasunari lotuta suertatu diren arazo guztiei erantzuteko premia.

Aniztasunaren inguruko hausnarketa sakontasun handiagora eraman beharko genuke. Kontziente izan behar dugu, bazterketa eta diskriminazio prozesua klase menderatzaileak eragin duela eta, egun ere, bultzatzen eta bideratzen duela. Klase menderatzaileak erabakitzen du zer den normala eta sozialki onartua; klase menderatzaileak finkatzen ditu parametroak, pertsonak sailkatzeko, ordenatzeko, ebaluatzeko, barneratzeko edo baztertzeke. Boterea duenak definitzen eta ezartzen ditu parametro ekonomiko, politiko, kultural, estetikoak... subjektuak sailkatzeko eskuratu duten “normaltasunaren” arabera. Beraz, boteredunen aurreikuspenak betetzen ez badira pertsona baztertua izango da inongo arrangura gabe.

Aniztasunaren defentsan, pairatzen ditugun hamaika bazterketa egoerak kontuan hartuz, bizitza duin eta aske baten alde borrokatuko dugu. Aniztasuna onartzen dugunean, asoziaziorako pausuak emanez, beste balore eta proiektu justuen aldeko borroka politikoa indartuko dugu.

Garrantzitsua, oraingoan, Marx-en esaldi ospetsua gogora ekartzea:

“NORBANAKOAREN GAITASUNETATIK; NORBANAKOAREN BEHARREN ARABERA”.

Aniztasuna eta pedagogia

Egungo eskola instituzioa ez dago zabalik aniztasunari erantzuteko. Hala ere, kontuan hartu behar da aniztasunaren errealitatea eskola txoko guztietan agerikoa dela, eskolaren eraikuntzarako lehengaia izanik. Modu honetan, eta aniztasuna onartuz, eskolak baztertzailerik eta homogeneizatzeko esparru izateari utzi behar dio. Benetako integrazioagatik, eskolaren aldaketagatik, borrokatzeko beharrean gaude.

Atzera begiratu gero, eta kasu batzuetan oraindik ikus dezakegu, eskola tradizionalaren helburua jendartearen homogeneizatzeko eta ikaslea norabide konkretura zuzentzeko izan da.

Integrazio edo inklusio hitzak eskola agenteen ahotan egotea ez da nahikoa. Beharrezkoa da, eztabaida eskola eragile guztiekin konpartitzea, baina beharrezkoa da ere jendartearen kontzientziazioa.



Baloreetan heztea

Zer dira baloreak?

Baloreak ezin ditugu ikusi, baina igarri eta sentitzen ditugu. Baloreak abstraktuak dira, ez dira begiekin ikusten, baina adimenaren bitartez ikus daitezke. Pertsonok, baloreak geure jarrera eta jokabideetan azalarazten ditugu. Baloreak pertsonaren identitateari hertsiki loturik azaltzen zaizkigun forma konplexuak dira; norberaren izatetik oso gertu daudenak, pertsonaren jarreratan eragina dutenak, norbere pentsamenduak eta ideiak egituratzen dituztenak, sentimenduak baldintzatzen dituzte, jokatzeko, izateko eta egiteko moduak baldintzatzen dituzten modu berean. Baina baloreak ez dira soilik pertsonaren identitatearen baldintzatzaile, baloreek jendarte oso bat ere ezaugarritzen dute. Identitatea baloreek osatzen duten ardatzaren inguruan eraikitzen baita; beraz, baloreek pertsonaren eta jendartearen norabidea zehaztu dezakete.

Laburbilduz, baloreetan heztea pertsonaren identitatearen baldintzatzaile izango da; baina hezkuntza- eta jendarte-arazo askoren erantzuna edo gakoa ere bada.

Zer da baloreetan heztea?

Baloreetan hezteak ez gaitu baloreak lantzeko espazio konkretu batera mugatu behar. Eskola agenteak elkarerraginean dauden momentu oro landu eta borrokatu beharreko erronka da, beraz, eskola eszenatoki osoa izan behar da berauek lantzeko espazioa. Ikasleak ikasi behar du noiz, nola eta zer egin, posizioak hartzen eta gaurko eta etorkizuneko erronkei bide ematen, hau da, bizitzaren egoera desberdinetan konbentzimenduz ondo dagoena egiteko erremintak eskuratu behar ditu.

Gutako bakoitzak duen balore sistema jendarteari eta honetan ematen diren bizitza erduei zuzenki loturik dago. Jendartean aldaketak edo transformazioak ematen direnean, aldaketa hauek eragin zuzena izango dute jendartearen baloreetan emango den berreraketan; izan ere, borroka ideologikoen helburua balore aldaketa bat eragitea da. Izan ere balioen transmisioa izan da kultura eta herri askoren apustua jendartearen biziraupena eta ongizatea berma dadin.

Postmodernitate garai hauetan, geroz eta gehiago hitz egiten dugu baloreen hezkuntzari buruz, baina gero eta eszeptikoagoak gara balore eta honen arrazoiaren inguruan. Iritzi ezberdinak dira gai honen inguruan, baina denok pentsatzen dugu baloreetan heztea beharrezkoa dela. Baloreak eskolaren egunerokotasunean presente egon behar dira, ikasgeletan baita curriculumean ere.



Jendarte bakoitzak balore konkretuen ekarlea da, eta balore hauek indibiduoak ikasi egiten ditu. Baloreek jendartearen interes eta beharrei erantzuten diote, eta jendarteak behar dituen pertsona ereduaren arabera, hezkuntza-politika definitu eta ezarriko du.

Baloreen hezkuntza, prozesu humanizatzailetzat jo dezakegu; prozesu indibiduala eta soziala, pertsonaren bizitza guztian zehar ematen dena, jakintza baino gehiago edo kanpora erakusten dena baino gehiago dena.

Baloreetan hezte hurrengoa litzateke:

- Pertsonaren izaeraren formazio prozesua.
- Antzeman, epaitu eta eragite (kolektiboaren onuran) gaitasunak bereganatzeko prozesua.
- Balore pertsonalen argitzea eta praxian jartzeko gaitasunak eskuratzea bilatzen duen prozesua.

Nola bereganatzen ditugu baloreak?

Pertsonaren izaera hezten da, garatzen da eta formatzen da. Alde batetik hezkuntza prozesuaren bitartez; eta bestetik, testuinguruaren aldagaiek duten eragite-gaitasunaren bitartez.

Baloreak esperientziaren bidez bereganatzen ditugu, ondokoekin ditugun harremanek ere eragin zuzena dute (ikaskide, senitarteko, irakasle edo langileekin; testuinguruarekin eta gure errealitatearekin).

Zergatik da hain garrantzitsua euskal curriculumak baloreetan hezte?

Jakin badakigu, baloreek jendartearen gogo eta beharrei erantzuten dietela; horregatik presente daude jendarteak bultzatzen duen pertsona eredu bati. Eskolak pertsona indibiduo moduan garatu dadin eta jendartean bizitzen ikasi dezan burutu behar du bere eginkizuna, alderdi pertsonala eta soziala orekatuz.

Jendartearen eraldaketa iraultzailea

Eskolak ez ditu soilik ezagutzak transmititu behar; eskolak jendartearen aldaketarako, munduaren hobekuntzarako eta Euskal arapenerako hezi behar ditu ikasleak; etorkizunean indarraz, askatasunaz eta justiziaz jardungo duten pertsonak hezi behar ditu eskolak.



Zeintzuk dira euskal curriculumak landu beharreko baloreak?

- Errespetuan
- Erantzukizunean
- Zintzotasunean
- Autonomian
- Elkartasunean
- Begikotasunean
- Ontasunean
- Auto-estiman
- Ausardian
- Leialtasunean
- Zoriontasunean
- Pazientzian
- Abertzaletasunean
- Internazionalismoan
- Parekidetasunean
- Berdintasunean
- Gozamenean
- Kritikotasunean
- Duintasunean
- Herritartasunean

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Euskaraz ikasteko eskubidea

Euskara oinarri

Euskal Herriak euskararen erabateko ezagutza bermatuko duen hezkuntza eduki behar du. Hala ere, hezkuntzak ez dio soilik klase orduei erreparatu behar, hizkuntza paisaiari, kaleko egoera linguistikoari, ikastetxean ematen diren harremani... besteak beste, erreparatu behar die.

Ikasleak txikitatik euskararekin elkarbizitzan egon behar du eta zonalde erdaldunetan ahalegin berezia egin beharko da hori gauza dadin.

Euskalkien auziari dagokionez, eskolak herri eta zonaldearen arteko gertutasuna sustatu behar du. Hau dela eta, zonalde bakoitzean euskarak dituen berezitasunak ikasi behar ditu ikasleak; euskara batuaren ezagutza osoa izateaz gain ikasleak haien euskalkian idazten, hitz egiten ikasi behar du, euskalkien biziraupena bermatzeko.

Eskolak, euskarari dagokionez bi funtzio betetzen ditu: batetik, kontserbatze funtzioa, euskaldunek euskara gal ez dezaten burutzen den eskola saioa, zeinetan erresistentzi sentimendua nagusitzen den. Eta bestetik, berreskuratze funtzioa, erdaldunen eskolatzearekin hizkuntza berreskuratze xedez.



Eleaniztasuna helburu

Eskolak Euskal Herrian elkar bizitzen diren beste hizkuntzen ezagutza funtzionala sustatu behar du. Hizkuntzaren erabilera funtzionala diogunean, erabilera praktikoa helburu izatea eta ez berauek dakarten doktrinamendu kulturalaz ari gara.

Eskolak munduari begira euskal ikasleak prestatu behar ditu. Hortaz, munduaren aurrean euskal ikasleok behar ditugun beste hizkuntzen ezagutza ere sustatu behar du. Honek herriaren eta norberaren hizkuntza- eta kultura- aberastasuna dakar.

Euskaraz bizitzeko eskubidea

Hezkuntza ereduak ez da soilik klase orduetaz arduratu behar, eskola kokatuta dagoen lurralde horretako egoerarekin hartu-eman zuzena eduki behar du; eskolak kaleko egoera diglosikoa, ikastetxeko zerbitzuak edota ikastetxeko paisaia aintzat hartu behar du.

Hizkuntza paisaiari dagokionez, eskolaz kanpoko jarduerak, eskolan zehar dauden seinaleztapenak edota ikastetxeak igortzen dituen ohar, gutunak... euskaraz egon behar dute nahitaez.

Harremanen alorrean, irakasle/ ikasle/ guraso/ langile harremanak euskaraz izatea bermatu behar du eskolak.

Eskolak herriarekiko euskalduntze, bermatze eta garatze ardura izan behar du. Eskualde erdaldunetan batez ere, eskolak aitzindari papera jokatu behar du euskararekiko sentsibilitate berezia sortuz. Horretarako herriarekiko proiektzioa duten eskolaz kanpoko euskarazko ekintzak antolatu ditzake (antzerki taldeak, herri komunikabideetan helarazteko irratirako programak...)



KULTUR ESKUBIDEAK

Hezkuntza eta kultura gabe ez dago garapen ez askatasun posiblerik. Hezkuntza da lehendabizi pertsona ororen eskubidea. Demokrazia eta hezkuntza eskutik heltzen dira eta biek berebiziko garrantzia dute geure herriaren etorkizunean, usadioei eta kultura lokalari bideak zabalduz.

Kultura, trebetasun eta ezagutzen batuketa baino gehiago da. Alde batetik testuingurura moldatzea ahalbidetzen digu; bestetik, testuinguru horretaz gozatzea (askotan ahazten baitzaigu gozamina kulturaren parte dela) eta beronen eraldaketa bermatzea ahalbidetzen digu. Askotan, kulturaren esentzia kritikoari ez zaio behar besteko garrantzia ematen; kulturaren bitartez, testuingurura moldatzeko abilezia eskuratu ez ezik, hau eraldatzeko aukera ere ematen digu.

Geure hezkuntzak aniztasuna onartu, babestu eta errespetatu behar du; geure hizkuntza, kultura, historia, literatura, oro har nazio identitatea aberastuz eta indartuz. Guztion erantzukizuna izan beharko luke pertsonon desberdintasunak (maila sozio-ekonomikoagatik, generoagatik...) ez bilakatzea aukera desberdintasunetan edo bazterketan. Garrantzitsua da euskal hezkuntzak pertsonen eta herriaren garapen integrala ahalbidetzea.

Egun, beharrezkoa dugu bestelako eskola bat: komunitatearen ardatz kulturala izango dena, herriari zabalik eta honekin elkarerraginean egongo dena. Gaur inoiz baino gehiago baloreetan hezteko euskaldun guztion erronka izan behar da, era berean, geure herriko kulturaren garapena ziurtatuko duen hezkuntza eta pertsona eta herritar askeak izango direnak hezteko.

Beraz, Curriculumaz hitz egiten dugunean, kultur transmisiorako tresna garrantzitsu batetaz hitz egiten ari gara, etorkizuneko ikasleak kultur eta balore konkretu batzuk jasotzeko bitarteko garrantzitsu batetaz.

Curriculumaz kultur prisma batekin begiratzean bi afera nagusi aurkitzen ditugu; lehenik eta behin Euskal Herriari dagokion kultur ikuspegia eta bigarrenik mundua ikusi eta ulertzeko kultur ikuspegia. Beraz, ez dugu euskal kultura transmititzeko bitarteko soil batetaz hitz egiten, mundua ulertzeko kultur ikuspegi batetaz hitz egiten ari gara, herriaren eta herrien kultur transmisio eta garapenaz, alegia.



Euskal Herria eta Mundua ezagutuz

Euskal kultur ikuspegiak hitz egiten dugunean ez dugu gauza abstraktu edo anbiguo batetaz hitz egiten, 6 herrialdez osatutako lurralde ardatzaz baizik: Euskal Herriaz, alegia. Curriculumuma euskal kulturaren transmisiorako tresna izan behar du, euskal ikasleak euskal kulturaren baitan hezi behar dira. Etorkizuneko belaunaldiak Euskal Herriko jokoan, mitologiaren, artearen, kirolen... jakintza eduki behar du. Euskal kulturaren transmisiorako zutabe garrantzitsu bat euskal egutegi baten sorrera izango da.

Euskal Curriculumumak Euskal Herria izan behar du lurralde ardatz. Bai edukiak antolatzeke orduan (adibidez, ekosistemak lantzean: Bardeak, Lapurdiko kostaldea, Auñamendiak... Euskal Herriko landaretza eta fauna ikasteko orduan edota historiako gertakariak antolatzeke garaian) baita mapak aukeratzeko orduan ere. Baina, garrantzitsua da ere, gertuko ezagutza sustatzea. Horretarako, eskolak herriari, edota eskualdeari, bere biziko garrantzia eman behar dio, ikasleak etorkizuneko langileak izango baitira. Ikasleak eskualdeko gertaera historikoak, behar sozio-ekonomikoak ezagutzea ezinbestekoa du herriaren garapen eta beharrak ezagutzeko.

Lehen aipatu bezala bi irizpide ezberdin zaindu behar ditugu: bata euskal kultur ikuspegia eta bestea Euskal Herriatik mundua ikusi, aztertu eta ulertzekoa.

Euskal Herriatik mundua ikasterakoan, eskolak herri bakoitzeko kultura, balore eta ohituren errespetutik munduko beste herri eta errealitateen ezagutza kritikoa bultzatu behar du. Beti ere, kultur aniztasunen errespetutik.

Munduko historia ez da bakarrik okzidenteak idatzitako historia; munduko historia munduko herri eta kulturek idazten dute, maputxeetatik hasita, iraultza frantsesean geldialdi bat eginez eta Txinako usadio zaharretatik pasatuz. Mundua ikasterakoan, justizia historikoa egiteaz gain, munduaren dimentsio errealak mantendu behar dira, munduaren proportzio errealak dituzten mapak erabiliz.

Eskola iraultzaile batek ondare kulturala kritikoki aztertu, berriro eta aberastu behar du. Zergatik? Ondare kultural hori sortzerakoan egondako desberdintasunak kontutan hartu behar direlako. Pertsona guztiek ez dute ondare kulturalen parte hartzen; gizon aberatsek, adibidez, zeresan handiagoa izan dute emakume pobreek baino. Hau dela eta ondare kulturalaren azterketa kritikoa burutu behar da bi ikuspegi kontutan hartuz: alde batetik, genero ikuspegia; eta beste alde batetik, herri ikuspegia.



Eskola laikoa eta zientifikoa

Munduko edozein kulturatan erlijioak berebiziko garrantzia du. Erlijioa izan da gure mitologia, kondairak, portaerak eta baloreak ezarri dituen. Erlijioaren balio kulturala eta morala ezin da ukatu.

Hala ere gure kultur eskubidearen oinarrietariko bat ondare kulturala era kritiko batean aztertzean datza. Horregatik Euskal Herrian egun dagoen erlijioa eta historian zehar egon direnak (animismoa, protestantismoa, islama, judaismoa...) modu orokor batean ikasi behar dira, beraiek utzitako ondare kultural, artistiko eta morala aztertuz, beraiekiko errespetu osoz, baina ikuspegi kritiko-zientifiko batetik.

Honek ez du inolaz ere erlijio katolikoari lotutako ikasgai bat eskatzen, ezta “Erlijioen Historia” bezalako ikasgai bat. Erlijioak ezarritako ondarea zeharkako zerbait da (komunismoa, abertzaletasuna edo punk mugimendua den bezalaxe). Erlijioak utzitakoa eta gaur egun ere uzten duena, artean, historian, etikan, fisikan, dialektikan... aztertu behar da, hauei guztiz lotuta baitago.

Eskola guztiz laikoa izan behar du. Honek ez du esan nahi ondare kulturaletik at egon behar duenik, baizik eta ondare guztia aztertu behar duela. Ezin dugu ahaztu Euskal Herriko historiako zatirik handiena ez dela Katolikoa izan. Ezin dugu ahaztu Euskal Herrian idatzitako lehenengo liburua Hebreeraz idatzita dagoela. Ezin dugu ahaztu gure kondairen gehiengoak ez duela katolizismoarekin zer ikusirik, edo Nafarroako erregea Frantziako koroa onartzeko katolizismora bihurtu zela.

Eskola ere ikuspegi zientifikotik eraiki behar da. Hau da, eskola ezin da superstizioetan (gaur egungo erlijiorik arriskutsuenean), ez eta mito erlijiosoetan oinarritu, baizik eta metodo zientifikoan. Honek kritikotasuna bultzatu eta gauzen ulerkuntza erreala (fedetik kanpo) eraikitzeke modu eraginkorra da.



Kultura-aniztasuna

Azken urteotan izandako migrazio prozesu handia dela-eta, gure hizkuntza (euskara) eta gure kultura “ikasle berri” hauei nola irakatsi behar diegun garrantzitsua da. Inmigrazioa jorratzean, ez da herrialde batera datorren laguna soilik kontuan hartu behar, baita herrialde horretan bizi diren eta kanpotik etorritako lagun horiei harrera egiten dieten pertsonak ere. Eskolak gai izan behar du herritar berrientzako testuingurua sortzeko.

Haur eta gazte etorkinak, beraz, euskal adarretan integratzeko planak era koordinatu batean landu behar dira. Euskalduntzearen alde ere, euskararen eta herri kulturaren zabaltzean, eskolak errefortzuak eta plan egokituak martxan jarri behar ditu errealitate berriei egokitzuz.

Sexu hezkuntza

Nolakoa sexualitatea, halakoa sexu hezkuntza.

Sexualitatearen kontzeptua ugalketara mugatuz gero, sexu hezkuntza horren ikasketara soilik bideratuko da: kontzeptu horri dagozkion ugalketaren anatomia eta fisiologiara zuzenduta, hain zuzen ere. Beste norbaitek sexualitatea ezarritako moralak hausteko gai den sexu sen indartsu eta arriskuak murrizten badu, hark proposatuko duen sexu hezkuntza moral jakin bateko doktrinatan oinarrituko da, gure inguruan katolikoan. Aldiz, sexualitatea modu laiko batean ulertzen bada, portaera sexualari dagozkion arriskuak murrizten bada, sexu hezkuntza hiesaren inguruko informazioan, sexu bidezko gaixotasunetan eta antisorgailuen metodoen inguruko informazioan oinarrituko da.

Ikasleak beste garapen psikologikoekin batera beren sexuazioa bizitzeko era ere garatuko dituen izakiak bezala hartu behar ditugu, eta ez beren bulkada sexualaren menpe dauden biktimak balira bezala.

Jaiotzaren unetik, sexuazio biologikoak erreakzio kultural jakin batekin topo egiten du, eta beraz, estereotipo sexualekin ere bai. Horrela, gazteak edo pertsonak kontzientzia sexuala eratzen joango da. Sexu heziketak landu beharko dituen elementuak, beraz, pertsonak beren gorputz sexuatuak egoki integratzen lagundu beharko die; izateko era, pertsonala kritikoki garatzen lagundu beharko die. Honekin batera, sexuen arteko ohiko desoreka konpentsatuko dituen elementuak eskaini beharko ditu hezkuntzak.

Jakin badakigu, desio sexuala sexuazioaren elementurik garrantzitsuenetarikoa dela. Desio sexuala asetzeko modua gizon edo emakume legez munduan egoteko eta izateko moduaren osagaia da. Bakoitzaren desio sexuala ezagutzen lagundu beharko luke heziketa sexualak; bakoitzaren adierak ezagutzeko, norberaren eta besteen baitan, eta horrek eragin dezakeen portaerei zentsuzko irtenbidea bilatzen. Bestalde, argi dago, gizon zein emakume, homo zein hetero, handia zein txikia,



persona bakoitzean ezberdin esperimentatzen eta bideratzen da desio sexuala. Hezkuntza hau guztia lantzeko tarteari eskaini beharko lituzke.

Horretaz gain, hezkuntzak baztertu beharko lituzke sexu erregulazioaren diskriminazio formak. Norbanako autonomia bultzatu beharko luke zenbait sinesmen edo ideologiek, kultura edo ohiturek bultzatzen dutenaren aurka. Bultzatu beharko luke enpatia, besteen beharrak egoki interpretatu eta konprenitzeko gaitasuna, eraso sentitzeko eta indarkeriak prebenitzeko hein handi batean.

Egungo eskolatan, batzuek ez dute sexu hezkuntza aipatzen, sexu hezkuntza eskolatzetik at dagoen zerbait delako askoren iritziz. Beste batzuentzat sexu hezkuntza espezialisten eskuetan utzi behar da eta hauek dira hezkuntzan esku hartu behar dutenak, baina kanpotik. Baina, sexu hezkuntza curriculumean integratu behar da, alderdi afektiboak eta sexualak garapen integralaren zati delako.

Honela, eta prebentzio arloa alde batera utzi barik, sexu hezkuntzaren oinarria jarreretan zentratu beharko genuke. Jarreretan arreta jartzeak zera suposatzen du: espazioak irekitzea norberak bere sexuazioan protagonismoa har dezan, erotismoa, desio sexualaren eta hortik sortzen diren portaera sexualak ulertuta, positiboki barnera dezan pertsonalitatearen egitura orokorrean, eta euskarri emozionalean eta intimitatearen espazioan besteekin harremana izan dezan.

Horregatik, sexu hezkuntzak ez du programa baten ezarpenean zentratu behar, baizik eta eskolan prozesu bat irekitzen saiatu behar du sexualitatearen trataera normalizatu dadin.

Sexualitateari buruzko diskurtso basatia eta desitxuratua duen ingurune soziokulturalean bizi gara; komunikabideetan, adibidez, giza esperientzia sexualaren itxuragabekeria islatzen da. Zergatik ez dizkiogu haur eta gazteari esperientzia sexuala ulertu ahal izateko espazioak, jarrerak eta ezagutzak eskaintzen?



HEZKUNTZA PROZESUAN SUBJEKTU IZATEKO ESKUBIDEA

Ezagutza soziala da eskolaren funtsa, sormen indar bihurtuz eta, beraz, eraldaketarako indarrak piztuz. Garai postmodernoaren paradigman ezarritako jabetza eta botere egiturak, individualismoa eta lehiakortasun basatia esaterako, hezkuntza integrala eta subjektu aktiboak izanda deuseztatuko ditugu.

Ikasleak izan behar du ikaskuntza prozesuan ardatza, halaber, subjektu aktiboa; balore kolektiboetan, irudimenean, benetakotasunean, plazerean, zorientasunean eta askatasunean haziz eta heziz.

Eredu askatzaileak eredu akademizista tradizionala gailendu behar du. Zentzu honetan, instrukzioa eta heziketaren arteko bereizketa egin behar da; hau da, helburua ez da soilik haur eta gazteen jakintza akademiko maila hobetzea; sentimendu, izaera, balore eta ohiturei ere arreta jarri behar zaie, ikaskuntza prozesuaren parte nagusia baitira. Honela, soilik gaindituko dugu eskola tradizionalistak ezarritako doktrinamendua; haur eta gazteen paper aktiboa aldarrikatuz, hain zuzen ere.

Ikaslea subjektu aktiboa

Ikaskuntzan behar-beharrezkoa da ikasleen parte hartze aktiboa eta hori ez da gertatzen eskolan fisikoki egote hutsarekin. Ikaslea, beraz, hezkuntza-prozesuan subjektu izan behar du; eta zenbat eta gehiago parte hartu eta bere garapenaren kontzientzia aktiboa hartu, orduan eta subjektu aktiboagoa izango da.

Eskolak eta euskal curriculumak, ikasle orok norbere urratsei jarraituz, norbere interes eta behar pertsonalen arabera aukerak eta hautabideak izan dezan jardun behar du. Eskola ez da pertsona estereotipatuak eta eredu bakarrekoak ekoizten dituen fabrika. Haur eta gazte bakoitzak hautu pertsonalen bitartez, definitzen eta garatzen du bere burua; zer den eta nolakoa izan nahi duen, balore eskala pertsonala garatuz.

Beraz, pertsonaren garapen integrala eta esanguratsua askatasunean eta elkarlanean oinarritutako harremanetan izan behar du. Askatasun osoz subjektu aktibo legez, pertsona bakoitzak garatuko ditu bere helburuak eta arrakastaren kontzientzia pertsonala. Ikasleak askea izan behar du: ikasteko eta pertsona moduan aberasteko, jendarte neoliberaletan nagusitzen den arrakastaren zentzua errotik aldatuz.

Eskolak haur eta gazteei jolasteko, sentitzeko, bizitzeko eta amets egiteko bideak zabaldu behar dizkio. Sormena eta irudimena dira garapen aske baten esentzia; sentsazio eta emozio sorta anitzak biziz eta esperimendatuz, aurreiritzietatik libre eta autoritarismorik gabeko eskola testuinguruan.



Ikasleak erabakiak hartzerako orduan duten askatasunak, arriskua suposa dezake, askotan ondorio negatiboak ere izan ditzake; baina, erabaki pertsonal eta autonomoetatik abiatzen da aberastasun eta garapen pertsonala.

Ikasleak, batetik komunitatearen babesa izan behar du, bestetik, komunitate horretan erantzukizun garrantzitsua du. Eskola komunitateak, ikaslea norbera izan dadin, askatasuna bermatu behar du; ikasleak aurrera egiteko eta eraldaketa sozialerako energia eta indarra izan dezan.

Irakasleak, enkargu soziala

Irakaslearen perfilaz baino, ohituago gaude ikasle motak deskribatzen, ikasleak ebaluatzen; baina, irakaslearen ebaluazioa egitea gehiago kostatzen da. Eta irakaslearen irudia aztertu beharrean gaude, krisi momentuetan edo aldaketa momentuetan inoiz baino beharrezkoagoa delako. Hezkuntza eta eskola etengabe aldatzen ari dira eta horregatik irakaslearen profila ere aldatuz eta hobetuz joan behar gara. Baina zein izan behar du IRAKASLEAREN JARRERA? Irakasleak entzulea eta humanoa, malgua aldi berean, izan behar du. Konfiantza ematen duena, beraz, ikaslea (haurra edo gaztea) pertsona moduan tratatu behar du. Egunerokotasunean, esate baterako, irakasleak egiten dituen keinuak zeresan handia dute: zailtasun edo gaitasunen aurrean gertutasun begiradak eta aurpegiak asko laguntzen dute. Irakasleak entzuten dakien pertsona izan behar du, konfiantza eta lasaitasuna bultzatuz ikasleekin..

Irakaslea pertsona da, jendarteko subjektua da, inguratzen duen munduarekin eta beste pertsonekin elkarreraginean dago; irakasleak jendartea eraikitzen eta eraldatzen du, eta alderantziz. Jakin badakigu, hezitzaileak enkargu sozial baten menpe gauzatzen duela bere betebeharra eta ikaslearengan eragina duela. Egun, eskolan ematen diren ikasle-irakasle harremanak direla medio, irakaslea subjektu eta ikaslea objektu bilakatzen da. Baina ikasleak ez du ezagutza transmisio soil batetik ikasten, edukiak irentsiko balitu bezala; honek ez baikaitu pentsamendu aske eta kritiko batera bideratzen.

Orokortasunean, erraza da ikaslearen aktibotasuna murrizten duten irakasleekin topo egitea. Kasu hauetan, hezkuntza prozesu pobre batez gain, ikasle-irakasle arteko harresi emozional garrantzitsua eraikitzen da. Ikaslearen hezkuntza prozesua irakaslearen lan egiteko moduek baldintzatzen dute hein handi batean. Irakasleak pentsatzera bultzatu behar du ikaslea, haurrak edo gazteak buruari eragin diezaion ahalegindu behar da. Irakasleak ezagutza sortu edo eraikitzeko ahalmenak sorrarazi behar ditu ikaslearengan. Ikaslearen jakin-mina bilatzen eta eragiten abila izan behar du irakasle-hezitzaileak.



Laburbilduz, esan genezake, irakasleak interesa eta motibazioa piztu behar duela. Ikasleen jarrera positiboa eta partehartzailea eragin behar du eta hau lortzeko ikasleekiko hurbiltasuna adierazi behar du. Euren interes eta beharren jabe izan behar du.

Irakasleak prozesu-pedagogiakoan gidaritza papera jokatu behar du; ikaskuntza-prozesua antolatzeko gai izan behar du, baina ikasle guztien jarrera aktiboa bultzatuz. Ikasle guztiak kontziente eta aktiboki ikasten baldin badute, pertsona aktiboak izango dira; bai eskolan, bai familian, bai jendartean, baita herrian ere. Horregatik irakasleak ikasleria osoaren parte-hartzea bultzatu behar du. Irakaslearen gidaritza funtzioa ez da kanpo manifestazioetan izan behar. Egoera edozein dela ere, irakasleak ez du modu zabalean interbenitu behar. Kontzienteki jokatu behar du, pentsatzen du, entzuten du, behatzen du, ulertzen du, enpatia du, eta beharrezkoa denean interbenitzen du; antolakuntza, metodo eta prozedura ezberdinez baliatuz.

Irakasleak bere lana ondo beteko du ikasleen independentzia, kontzientzia eta hausnarketa lortzeko erabiltzen dituen metodoen arabera. Eta aurretik azaldutako irakaslearen gidaritza rolak aldaketa sozialerako proiektua da, non indibiduoaren eta kolektiboaren ekimenari leku ematen zaion. Garrantzitsua da irakasleak transmisiorako, sozializatorako, ezagutzaren ekoizpenerako gaitasuna izatea. Irakaslea eskola agente da, baina beti ikasleekin, beste langileekin eta herritarrekin batera.

Harremanak

Pertsonaren garapenean eta izaeran testuinguruak eragin izugarria du. Ikasleak, pertsona orekatu gisa garatzeko ingurunea beharrezkoa du. Irakaslearen jarrerak, gelako giroak eta ikasleen ezaugarriek izaeran eta motibazioan eragina dute.

Ikasgelako giroa, ikasleek elkarrekin eta hauek irakaslearekin dituzten harreman motak, autoestimuaeren garapenean eta baloreen bereganatzean, ikaskuntza prozesuaren oinarri erabakigarriak dira.

Hezitzaileek, langileek, herritarrek eta gainerako ikaskideek, beraz, eskolan eragiten duten heinean ikaslearengan ere eragiten dute. Azpimarratu behar da ikasle-hezitzaile, ikasle-herritar eta hezitzaile-herritar arteko harremanak, elkarri eragiten diote. Erlazio hauek pertsonaren ikaskuntza-prozesuan aldagai oso garrantzitsu bilakatzen dira; erabakigarriak baitira jendartean ematen diren harreman ereduetan duten determinazio pisuagatik.



Ikaslea ikasle kolektiboren partaide da, eta hezitzaileak langile kolektiboaren partaide. Eskola subjektuen arteko harremanak ere era kolektiboan gauzatzen dira. Halaber, eskola eragile-subjektu guztiak dira eskola kolektiboaren partaide, beraz, euren arteko harremanek elkar eragiten diote, elkarreraginean daude.

Metodologia

Zuzeneko ezagutza eta ikaskuntza esanguratsua

Norberaren garapena ez da jakintzak akumulatzearen bidez eskuratzen dena, gaitasunen eta funtzionaltasunen garapenaren bidezkoa baizik.

Orain arte, metodologia esperientzi eremuka antolatzen bazen, orain gaika egituratzen da, eta arloen globaltasunari erantzun beharrean, metodologia egokia aukeratzea beharrezkoa da.

Edozein metodologia erabiltzean kontutan izan behar dugu, funtzionaltasuna bilatzen dugula. Hezkuntzaren bitartez ikasleek errealitatea ikusi eta barneratuko du; errealitateaz jabetzean, ezagutzak eraikitzen joango da, koherentzia eta iritzi kritikoa ere garatuko ditu eta honek guztiak euren identitate pertsonalean eragina izango du; ikaskuntza esanguratsu bat lortuaz. Ikaskuntza esanguratsua bultzatuko da metodologia berrien bidez.

Eskola, ikasleak bizi diren arlo eta egoerari egokitu behar zaio. Ikasketen alderdi funtzional horrek azaltzen du bereganatu dituzten jakintzak eta gaitasunak ikasleen errealitateari aplikatu daitezkeela eta benetakoak direla. Horregatik, ikasleek bereganatutako jakintzak egiaztatu eta aplikatu ditzaten, eta ikaskuntzak erabilgarriak direla gogoan izan dezaten jardun behar du eskolak. Baina, ikasitakoaren funtzionaltasuna ez da aplikazio praktikoa erabilgarritasunera mugatzen, eduki horiek oinarri gisa balio behar dute beste batzuk eskuratzeko. Errealitatea gertutik ezagutzea posible egin behar du curriculumak. Beraz, eskolak ikasleen motibazioa piztu behar du. Ikasleek ikasi behar dituzten gaiak haien interesekin bat datozenean, errazago da haiek ikastera erakartzea, haien errealitateko arrotz den moduan azaltzen direnean baino.

Ikasten ikastea

Errealitatea ez da estatikoa, aldaketan, prozesuan dago. Ikaslea, pertsonak mundua ulertu eta bereganatzeko duen gaitasuna eraikitzen doa. Sormenean oinarritutako ikaskuntzak hausnarketa eragiten du; eta errealitatearen gaineko ekintza estimulatzen du.

Emakume eta gizonak, edozein adin, garai edo munduko bazterretan subjektu amaitu gabeak dira. Pertsonak berezko ibilbidea dugu; mundua, pertsona eta ezagutzarenganako jakin-minaz paseatu beharrezkoa. Bizitza etengabeko bilaketa delako, eta ezagutza ez delako objektuen jabeakuntza soilak. Biologikoki, afektiboki, kritikoki eta intelektualki osatu gabeak gara.



Pertsonek parte hartuko dute historian eta jendartearen, aldatu eta eraiki dezaketela ohartzen badira.

Era honetan, nor bere kasa ikasten ahalbidetzeko jardun behar du eskolak, ikasleak ikasten jarraitzeko ikasi behar du. Ikasteko erak norberaren estrategiak sortu behar ditu, ikasleek gehiago ikastea posible izateko, irakaslea edo beste pertsona helduek haur eta gazteen heziketa goitik behera bideratu eta ezaugarritu gabe. Norberak ikasteko estrategiak gara ditzan, estimulatu behar du eskolak. Oso garrantzitsua da, norberak jardueretan egindakoari buruz hausnartzea, baita ondorioak ateratzea ere.

Asistentzia askea

Hezkuntzaren denbora ez da eskola orduetara mugatzen. Denboraren kontzientzia neoliberalak, “tempus fugit” bizitzarako araua desterratuz, goitik behera aldatu behar dugu. Denboraren erabilera, eta eskola orduak, kontrol modura erabiltzea baztertu behar da.

Denbora baloratu behar da, horregatik preziatu, beraz, gozatu behar dugu gure denbora. Hezkuntza derrigorrezkoa izateak ez du esan nahi ordutegiak malguak eta askeak izango ez direnik. Norberak bere behar eta nahien arabera egokitu ahal duen eskola ordutegi ereduak landu behar da; pertsonaren autonomia, erantzukizuna, ikaslearekiko konfiantza eta erabaki ahalmenaren bidean.

Ebaluazio irizpideak

Ikaslearen balorazioa egiterako orduan, kontutan hartu behar dugu ikaslea dela ikaskuntza prozesuaren protagonista eta horregatik, jarraipen zehatza eta pertsonala egin behar zaio. Lan pedagogikoaren hobekuntza eta ebaluazio irizpideak eskola osatzen duten kolektibo guztiek eztabaidatu behar dute. Ardurak ez dira irakasle batenak, ez eta irakasle taldearenak, ardurak eskolako subjektu parte-hartzaile (ikasle, langile, herritar) guztienak dira.

Ikasle guztien ezaugarri eta garapenaren berri izan behar du ez soilik irakasleak, gainerako hezitzaileak, ikasleak, guraso eta herritarrek. Aurrezagutza hauek, haurren behar eta zailtasunei hobeto erantzuteko aukera emango digu. Aurrekoarekin lotuta, ebaluazioa egiterakoan pertsonaren alderdi positiboak eta onak azpimarratu behar dira; indibiduoaren eta desberdintasunaren garrantzia plazaratuz eta aniztasuna errespetatuz. Ikaslearen garapena ez da neurtzen konparazioen bitartez, ez eta guztientzako berdina izango den patroiak neurtzen. Pertsonala da ikaskuntza ibilbidea eta garapen prozesua, beraz, konpetentzia ekiditeko bakoitzaren balorazioa egin behar da.



Ikasleen ikaskuntza-prozesua zein norabidean garatu den baloratuko da. Aurrera pausuak, oztopoak, zailtasunak, hobetu beharrak, erabakiak hartzeko ahalmena... baloratuko dira. Baina ez dago ebaluatu beharreko aspektu bakarra, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko alderdi guztiak aztertu beharko dira.

Ebaluazioa jarraia izango da, eskolako lehenengo egunetik azken eguneraino, ikaskuntza-prozesuan zehar jarraikortasuna eta dinamismoa emateko ikaskuntzari; honela, prozesuak aldatzea, egokitzea eta hobetzea ahalbidetuko da. Behaketa sistematikoa erabiliko dugu ebaluatzeko teknika bezala, alegia, ekintza guztiak kontutan hartu behar izango dira; ez soilik ariketa konkretu bat, adibidez azterketa bat; jarrerak, balioak eta harremanak berebiziko garrantzia dute.

HEZKIDETZA ESKUBIDEA

Eskolak pertsonen sozializazioan jokatzeko duen papera ikusita, bertan gure bizitzaren laurdena igarotzen baitugu, sexu parekidetasunaren prozesuan funtzio berezia hartu behar du. Bereizketa gaindituko duen eskola da behar duguna, neska eta mutilen izaera ezberdintasunak onartuz, aukera berdintasunean oinarritutako hezkuntza parekidea sustatuko duen eskola eredu hain zuzen ere.

Eskola transformaziorako eta eraldakuntzarako bitarteko bihurtu beharra dago, sexuen arteko erlazio berriak sortzen lagunduko duena. Gakoa, neska eta mutilentzako baliagarria izango den pertsona eredu berria bultzatzea da; gizonetako zein emakumetako estereotipo tradizional eta zaharkituak albo batera utziaz.

Emakumeak bizi duen eta historian zehar bizi izan duen gutxitze eta diskriminazioen ondorioz pairatzen duen aukera desberdintasunari aurre egingo dion eskola izan behar du: laguntza zehatzak martxan jarriko dituen, diskriminazioak ekiditeko bitarteko hezitzaileak jarriko dituen... Eskolak emakumeen presentzia, ekarpena eta garrantzia azpimarratu behar du sexu/genero sistemarekin bukatzeko.

Eskubide zein aukera berdintasuna bermatuta izan daitezkeen hezkidetza politika integralak bermatu behar ditu eskolak. Politika integral honek honako helburuak izan behar ditu hastapenetik:

- *Sexu-genero sistemarekin bukatzea: pertsona eredu berria bultzatuz.*
- *Patriarkatua eta bere ondorio historikoak ezagutzera eman behar ditu eskolak. Emakumeen egoeraren bilakaera eta zapalkuntza historikoen arrazoiak agertuz.*
- *Emakumeen presentzia, erreferentziak, eredu anitzak eta partehartze soziala berreskuratu behar du eskolak.*
- *Emakumeen auto-kontzientzia eta autodefentsa mekanismoak indartu: borroka nortasuna...*
- *Eta hauekin batera errealitate zehatz batzuen aurrean beste helburu zehatzago batzuk eduki beharko ditu, hala nola, sexualitatea/gorputza, genero-indarkeriaren aurka aritzea, auto-estimua lantzea...*



IKAS BALDINTZA DUINETAN IKASTEKO ESKUBIDEA

Hezkuntza, gure herriko ikasle guztien eta Euskal Herriaren biziraupena eta garapena ziurtatzeko bitarteko ezinbestekoa da.

Euskal ikasle orok, edozein ikas adar edota mailatan ikasteko eskubidea du. Arrazoi politiko, kultural, sozial, arraza, sexu orientazio, akademiko, sexual edota ekonomikoengatik baztertuta izan gabe.

Aurreko definizioan esan bezala, hezkuntzak guztientzako izan behar du. Gaur egungo hezkuntzaren helburua, ez da ikasle guztiak berdintasunean ikasteko aukerak bermatzea, hezkuntza publikoak denek hezkuntza pobre bat izateko eskubidea da bermatzen duena.

Gure hezkuntza publikoa izango da doakoa eta herritarra, Euskal Herriaren eta euskal herritarren mesedetan egongo dena.

Hezkuntza eskubidea eta berdintasuna bermatu ahal izateko hezkuntza bere orokortasun osoan doakoa izan behar du: garrarioa, irteerak, testuliburuak, zerbitzuak...

Usu, publikoa eta doakoa elkar loturik doazen definizioak dira baina hori ez horrela, hezkuntza publikoak ez du bermatzen ez doakotasuna ezta ikas baldintza duinetan ikasteko eskubidea ere.

Beste alde batetik, hezkuntza guztiz doako izateaz gainera eta ekarpen honetako atal ezberdinetan aipatu bezala baloreetan heziko ditugu ikasleak, balore horiek eta elkarlanak zerbitzu guztiak dohainik eman ahal izatea erraztuko du. Ikastetxea margotu behar denean denon artean margotuko dugu, urtez urte materiala esku batetik bestera pasako da...

Hau guztiaz gain, herri txikiak ikasleen “deslokalizazioa” gerta ez dadin, eskola txikien filosofiari heltzeko apustua egiten dugu. Herri batentzat ezinbestekoa da ikasleen presentzia. Alde batetik, ezin uka haurrik gabeko herri bat benetan tristea dela eta beste alde batetik, ikasleentzat garrantzitsua dela beraien herriarekin kontaktu zuzena edukitzea (herriko errealitatea, ingurumena...). Ahal den neurrian, haurrak euren herrian mantentzen saiatu behar da eta honetarako adin desberdinetako hurrek batera ikas dezakete bakoitzak garapen ezberdina eduki arren.

ESKUBIDE DEMOKRATIKOAK

Hezkuntzaren antolaketak demokratikoa izan beharko du etorkizuneko eskolan. Lehenik eta behin hezkuntzari lotuta sektore eta estamentu ezberdinak daudela erreparatu behar diogu.

Estamentu bakoitzak bere ordezkari antolatuko du nahi bezala eta guztiz askea izango da besteekiko. Bete beharreko arauak bi baino ez dira: antolaketa, demokrazia partehartzailean oinarrituko da eta beraiei bakarrik dagozkien eskumenak izango dituzte. Hau da, ikaslea ez den sektoreak ezingo du erregulatu ikasleoi bakarrik dagokiguna edo alderantziz.

Hala ere, gai batzuk sektore bati baino gehiagori dagozkio: ikastetxearen kudeaketa, ikasketa plana, eskola-egutegia... Hauek Eskola Kontseiluan eztabaidatuko dira. Bertan, maila eta proportzio berdinean egongo dira ordezkatuak estamentu ezberdinak. Beraren dinamizatzailea ikastetxeko zuzendaria izango da.

Ikastetxeko zuzendariaren arduretari bat, beraz, estamentuen arteko bitartekaritza izango da, hala nola, egon daitezkeen arazo eta goera ezberdinen informazio elkartrukatzea.

Ikastetxean, ikasleak antolatzeko bi marko egongo dira. Lehenengoak ikasleen osotasunak parte hartuko du zuzenean: Ikasle Biltzarra. Biltzarrean ikasleoi dagozkigun arazoak eztabaidatu eta erabakiak hartuko dira. Ikasle Biltzarrak ikasleonek erabaki marko gorena izango da.

Bertatik ikasle ordezkari bat hautatuko da, bi ardura izango dituen. Lehenengoa ikasle biltzarraren eta beste sektoreen arteko mintzakide izango da. Bigarren ardura, ikastetxean egongo den bigarren markoa dinamizatzea izango da: Ikastetxeko Ordezkarien Asanblada. Asanblada honetan ikasgela bakoitzeko ordezkariak egongo dira. Hauek, ikasgela bakoitzeko biltzarrean aukeratuko dira. Asanblada honetan informazio elkartruketa eta arazo zehatzen inguruko erabakiak hartuko dira. Biltzarrak hartzen dituen erabakiak ere kudeatuko ditu.

Ikastetxe bakoitzaren antolaketa gaindi nazio-antolaketa bat ere bilatu beharko da. Estamentu bakoitzak bere Nazio Biltzarrak antolatu beharko ditu, nahiz eta bakoitzak formula hau nola egiten duen erabakitzea ez dagokigu ikasleoi.

Ikasleonek nazio-antolaketa bi maila ezberdinetan antolatuko da. Alde batetik ikasleonek nazio-kongresua izango dena: Euskal Ikasleonek Biltzar Nazionala. Bertara ikastetxe bakoitzeko ordezkariak agertuko dira. Ikastetxearen tamainaren arabera kopurua eta formula ezberdinak bila daitezke (adibidez Unibertsitatean fakultate edo karreraka...).



EIBNk ikasleoi dagozkigun erabaki nazionalak hartuko ditu. Hartu beharreko erabaki hauek euskal ikasleoneko problematikari erantzun beharko dio. Antolaketa nazional honek bere Exekutiboa izango du. Exekutibo hau Ikasle Kontseilu Nazionala izango da. Ikasle Kontseiluak EIBN deitu eta bere erabakiak kudeatzeko ardura izango du. Bertan tratatu beharreko gaiak ere IKNk proposatuko ditu. Gune honek ere Demokrazia Partehartzailearen printzipioetan oinarrituta egongo da, beraz proposaturiko gaiak ahalik eta irekien izan behar dute eta ikasle guztion oniritzia jaso beharko du EIBNn bertan. EIBNan hitz egin beharreko gai hauek ikastetxeetako biltzarrek plazaratutako arazoei erantzuten saiatu beharko da.

Azkenik Nazio mailan estamentuak nola elkartuko diren erabakitzea geratzen da. Honetarako Eskola Kontseilu Nazionala (EKN) izango dugu. Bertan estamentu bakoitzetik kopuru berbera egongo da, bakoitzaren barne errepresentazioa ezberdina izango delarik.

KOLEKTIBO GISA JARDUTEKO ESKUBIDEA

Kolektibotik eta kolektiboan heziak egon behar dute etorkizuneko euskal belaunaldiak. Inork ez du inor askatzen eta norberak ez du bere burua askatzen; elkarrekin, kolektiboan askatzen gara pertsonak eta herriak.

Kolektibotasunak jendartean ematen diren harremanak definitzen ditu eta eskolak jendartetik hurbil dagoen heinean, etorkizuneko belaunaldiak jendartearen kolektiboaren parte gisa hezi behar ditu. Eskola, jendartearen eraketa eta garapen bidezkoago baten aldeko subjektu aktiboa bilakatu behar dugu; bestelako herri eragileekin batera, eskolak kolektiboaren arteko erlazio egoki eta positiboak eragiteko tresna garrantzitsua izan behar du.

Eskolak, ikasleak jendartearen kolektibotasunean hezteaz gain, euskal ikasleoneko kolektiboa egikaritu behar du. Euskal ikasleriak osatzen duen kolektiboari bide eman behar dio eskolak, beharrezkoak dituen bitartekoak eskainiz eta garatuz.

Emakumeak edota langileak bezalaxe, ikasleok kolektibo berezitu bat osatzen dugu, Ikasleoneko Kolektiboa hain zuzen ere. Kolektibo hau mundu mailako ikasle guztiok osatzen dugu eta ikasle garen momentutik gara kolektibo honen parte. Ikasle kolektiboaren kontzientzia garatzen joan behar dugu bai Azaroak 17 bezalako egun esanguratsuetan zein ikasleoneko aurkako erasoei elkartasuna adieraziz.

Bestetik, ikasle kolektiboaren parte izateaz gain, euskal ikasleok, ikasle eta euskaldun izateagatik Euskal Ikasleoneko Kolektiboa osatzen dugu. Euskal ikasleria osoa barnebiltzen duen kolektiboa da eta oinarrian euskal ikasleriaren nahi, behar, erronka eta aldarrikapen komunak daude, ez dute zergatik berberak izan behar, baina bai komunak.



Euskal ikasleон kolektiboak, kolektibo bezala jarduteko eta antolatzeо eskubidea du, langileen kolektiboak, gazte edota beltzen kolektiboak bere aldarrikapen eta erronkak asetzeko, antolatzeо eskubidea duten bezalaxe.

Euskal ikasleria kolektibo bat osatzen dugun kontzientzia zabaltzeak ikasle izaera indartzen du, baita gure eskubideekiko kontzientzia areagotu ere; finean euskal ikasle izatea da eskubide horien jabe egiten gaituena. Erasoei talde gisa erantzuteko garaian, gure eskubideen alde borrokatzeorakoan, edota gure eskubideen aldeko “interlokuzioa” ahalbideratzekoan kolektibo moduan jarduteak indartsu egiten gaitu.

Ikasleон eskubideen aurkako erasoak, eskubideen aldeko borroak... kolektibo gisa jarduteko eskubidea eta beharra sortzen du baina Euskal Ikasleон kolektiboa egikaritu dadin, tresna eta bitarteko propioak beharrezkoak dira eta hor kokatzen dugu guk eskolaren betebeharra. Eskolak euskal ikasleон kolektiboaren izatea eta existentzia sustatzeaz gain, antolatzeо eta kolektibo gisa jarduteko eskubidea bermatu eta hau egikaritu dadin beharrezkoak diren bitartekoak martxan jarri beharko ditu.

Kolektibotasuna eta antolakuntza estuki lotuta doazen kontzeptuak dira hau dela-eta, Euskal Ikasleriaren Kolektiboa errealitate bihurtzeko, ikasleria antolatzeо premia ezinbestekoa da.

Euskal Herriko ikasketa zentro bakoitzak ikasle biltzarra egituratu behar du; bertan ikasleria osoak parte hartzeо eskubidea izango du eta ikasleriaren erabaki gune gorena izango da. Biltzarra ikastetxe edota fakultateko ikasleoi dagozkigun hausnarketak egiteko eta erabakiak hartzeо gunea da, finean, ikastetxe edota fakultateko ikasle problematikari erantzuteko bitartekoa.

Euskal Herri osoko ikastetxe eta fakultateetako Ikasle Biltzarrak, ordezkarien bidez, Euskal Ikasleон Biltzar Nazionalean bilduko dira. Bertan euskal ikasleriaren beharren inguruan hausnartu, alternatibak planteatu eta erabakiak hartuko dira. Azken finean, EIBNk Euskal Herri osoko errealitate ezberdinak kontutan hartuz, ikasleriaren arazo eta behar espezifikoei integraltasunean eta nazio ikuspegitik erantzungo dien nazio bitarteko izango da.

Antolakuntzarik gabe ez dago kolektibo posiblerik, hau dela-eta, eskolak euskal ikasleон kolektiboaren existentzia onartzeaz gain, kolektiboa garatu ahal izateko honen antolakuntzan beharrezkoak diren tresna eta bitartekoak eskaintzeо ardura izan behar du.



HEZKUNTZA, BORROKARAKO AKUILUA:

Eskola jatorriz kontraesana da; alde batetik, eskolak egungo ordena sozialaren mantentzeko eta klase menderatzailearen kulturaren transmisiorako tresna da; bestetik, erresistentzia ere bizi dugu eskoletan, egungo sistema zalantzan jartzen da eta errealitatea iraultzeko, beraz, aldaketarako eszenatokia ere bada.

Erresistentzia eta alternatiba dira hitz klabeak eskolaren eraldaketa bermatzeko. Erresistentzia, egun pairatzen dugun eredu politiko-ekonomiko neoliberalaren errefusatu, maila teorikoan eta praktikokoan. Erresistentzia pentsamendu bakarraren kontra eta inposizio espainol-frantses neoliberalaren kontra. Dena den, aldarrikapenak proposizio barik, alternatiba barik alegia, inoiz ez du herriaren benetako parte-hartzea bermatuko, eta herriak ez du boterea eskuratuko.

Geure Herriak erasoak eta kontradikzioak egunero pairatzen ditu; geure jendartearen eta herritarrongaren eragiten dutenak. Hala ere, erreakzio modu berezi batez aurrera jotzen duen herria da gurea; indarrez, itxaropentsu, kritikotasunez, alternatibak garatuz eta nazio bat, egunez egun, urratsez urrats eraikitzen. Eta eguneroko borrokan, askatasunaren bidean, eskolaren garrantzia berebizikoa da. Eskolak, borrokarako filosofia iraultzaile, askatzaile eta ausarta baten bultzatzaile legez, Euskal Herriaren eta munduaren eraldaketarako hezi behar ditu pertsonak.

Hezkuntzaren eduki eta helburuen erreforma, oinarritzkoa da jendartearen eraldaketarako; jendartearen kritikotasunera eta askatasunera gidatzeko. Gure eskola iraultzaileak, borrokarako eta jendartearen eraldaketarako akuilu izan behar du. Eskolak etorkizuneko pertsonak hezten ditu: Euskal Herriaren garapena ziurtatuko duen hezkuntza; euskaldun aske eta zorientsuak heziko dituen, jendartearen eraldatzeko gai izango diren pertsonak: jendarte justuagoa, gizatiarragoa eta momentuko errealitateari erantzuteko gai izango dena.

Eskola herritarra, herritik sortua eta herriarentzako. Nazionala, Euskal Herri osorako eta euskalduna. Demokratikoa, esku hartzailea eta berdintzailea. Eskola askatzailea. Euskal Eskola Nazionala jendartearen eraldatzeko eta askatzeko, mundua iraultzeko.



EUSKAL CURRICULUMA IRAKASLEEN FORMAZIOAN: HUHEZIREN EKARPENA

SARRERA

Irakasleen formazioaz egin dugun hausnarketak, ondoren aurkezten dugunak alegia, hiru iturburu nagusi ditu:

1. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bere ibilbidean garatutako ikuspuntua.

Iturburu honi dagokionez, Fakultatearen bi ezaugarri nagusiak aipatu nahi ditugu:

Euskalduntasuna. HUHEZI fakultate euskalduna da. Euskal gizartean antzematen zen euskal irakasleen gabeziari berariaz erantzuteko, 1976. urtean sortu zen; horrenbestez, irakasle euskaldunen prestakuntza izan du jarduera nagusia azken 30 urteotan.

Kooperatiba izaera. HUHEZI kooperatiba da. Balioetan (berdintasuna, elkartasuna, partaidetza, pertsonaren nagusitasuna), antolaketa eremuan eta gizartearekiko konpromisoan islatzen da, besteak beste, izaera hori.

2. Mendeberri Proiektuaren baitan Hezkuntza eremuan eta, zehazkiago, Irakasle Diplomaturan egindako berrikuntzak.

Urte hauetan garatutako ereduak irakasleak formatzeko beste ikuspegi bat eskaini digu; egindako ahaleginak, ikasleak prestatzeko eta irakasleen formazioan ez ezik, orokortzeko modukoak diren irizpideak ere garatzeko aukerak eman dizkigu. Hala ere, jakin badakigu prozesu hau, berrikuntza prozesu guztiak bezalaxe, hobe daitekeela. Beraz, euskal curriculumaren inguruan sortutako hausnarketa prozesua aprobetxatu nahi dugu, egindako bidea beste eragileekin konpartitzeko, egindakoa zabalduz eta besteen ekarpenak jasoz.

3. Euskal curriculumaren ekarpenak irakasleen formazioan eduki beharko lukeen isla eta horrek sortzen dizkigun erronka berriak.



1. BEHARREN AZTERKETA: IRAKASLE IZATEA GAUR EGUN EUSKAL HERRIAN

Euskal curriculumumean agertzen den egoeraren azterketaren ildotik, gure Fakultatean ere egoeraren azterketa egin zen Mendeberrri Proiektua martxan jartzerakoan. Gizartean gertatzen diren aldaketek hezkuntzan eduki behar duten isla azpimarratu nahi izan genuen. Hona hemen detektatu genituenak:

“Globalizazioaren eta informazio eta komunikazio teknologien eraginez hainbat aldaketa gertatu dira gizartean: herrien arteko dependentzia areagotu egin da, informazioa ugaritu eta komunikatzeko aukerak aniztu. Horrek guztiak premia berriak sortu dizkio hezkuntzari. Ezinbestekoa da herrien eta pertsonen arteko elkarkidetzaren suspertzea eta, horretarako, pertsonak hezi behar dira. Halaber, ezinbestekoa da informazioa eta komunikazioan alfabetizazioa bermatzea, informazioa ezagutza bihurtzen laguntzeko eta komunikatzeko dauden aukerak aprobetxatzeko. Aldaketa horiek guztiak, gainera, etengabekoak dira eta, gehienetan, aurreikusteko gaitzak. Beraz, gizakiok ziurgabetasunean bizitzen ikasi behar dugu eta, era berean, prest egon behar dugu aldaketei aurre egiteko eta berak eragiteko.” Sagasta, P. Barandiaran A. (2003)

Gure printzipio hauek bat datoz, beraz, Europako gizarte batean kokatuak izateak sortzen dituen hezkuntza premiekin (euskal curriculumumean jasota daudenak): gizakia garatzeko hezkuntza sustatzea, etengabeko hezkuntza garatzea, hezkuntza-jarduerak parte hartze demokratikora bideratzea, zientzia eta teknologien aurrean erantzukizuna garatzea, sustraitutako hezkuntza, elkartasunera zuzendutakoa eta erreflexiboa.

Bestalde, etorkizun hurbilean irakasle izango diren ikasleek, Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak dituen erronka bereziei erantzun beharko diete, hala nola hizkuntzaren berreskuratze prozesuarekin erlazionatutakoei, hainbat kulturatako ikasleen etorrerarekin lotutakoei, eduki propioen gerapenari lotutakoei...

Gizartea aztertu eta bere hezkuntza premiak identifikatuta, gaur egungo hezkuntza ereduak erronka horiei erantzuteko bideak jorratzeari ekin genion eta gure hezkuntza ereduak dituen gabeziak eta irtenbide posibleak aztertu genituen. Lan honek eskolaren eta irakaslearen funtzioez —eskolaren funtzio bikoitza— hausnarketa eginarazi zigun: gizartea berregin ala aldatzea, alegia. Beste modu batean adierazteko, lehen aipatutako erronkei nola erantzun, bere burua gizarteari egokitzea soilik bultzatzen duen hezkuntza eredu batetik? Edo ikuspegi kritiko eta aldatzailea sustatu nahi duen baina hausnarketa eta aldaketa egiteko tresnak eskaintzen ez dituen hezkuntza ereduak?

Hausnarketa horren ondorio gisa, transmisioan nagusiki oinarritutako hezkuntza ereduak gainditu beharra azpimarratu genuen, irakasleengan batik bat zentratutako hezkuntza ereduak dependentzia sortzen duelako. Trebatze lana lehenesten duen ereduak hausnarketa eta egoera konplexuei aurre egiteko tresnarik ez duelako eskaintzen eta, gehienbat, bakarkako lanean oinarritzen den ereduak ez duelako ikaslea elkarlanerako prestatzen.



Gure lan nagusia aipatutako erronkei erantzungo dion irakaslea formatzea izanik, argi genuen irakasleen hasierako formazioa aldatzeko premia; behar honi erantzuteko jarri genuen martxan Mendeberry Proiektua gure Fakultatean.

2. MENDEBERRY HEZKUNTZA PROIEKTUA

2.1. PROFIL BERRIAREN ARDATZAK

Aipatutako gizaratearen erronkek irakaslearen lanaren konplexutasuna azpimarratzen dute: hori dela eta, irakaslearen profilak kontutan eduki beharko lituzkeen konpetentzien inguruan garapen prozesu bat identifika daiteke. Escuderok (1999:217) honela laburtzen du eginiko ibilbidea: “Oinarrizko edukiak menperatzen zituen irakasle eredutik bere gaian aditua izan behar zen irakasle eredura pasatu ginen eta, handik, pedagogian ongi formatutako irakasle eredu hobestera; didaktikan trebatutako eredutik irakasle erreflexibora pasatu ginen eta, handik, besteekin hezkuntza-komunitateko partaide gisa duen erantzukizuna azpimarratzera, irakasleen inguruarekiko txertaketaren eta taldean lan egitearen garrantzia azpimarratzera, alegia.”

Mendeberry Proiektuaren inguruan garatutako profilak ekarpen hauek jasotzen ditu eta, jakina, jarduera profesionalaren kalitatearekin lotutako konpetentziekin batera, pertsona gisa eta gizaki sozial gisa garatu beharko lituzkeen konpetentziak ere izan ditu kontutan.

Aipatutako alderdian irakasleak bete beharko lituzkeen zereginetan azaltzeaz gain, Mendeberry proiektuaren hiru ardatzetan definitzen dira.

Mendeberry proiektuaren ardatz nagusietako bat **balio unibertsal eta kooperatiboak** dira: lankidetzeta eta partaidetza, elkartasuna, pertsonaren nagusitasuna, berrikuntza eta eraldaketa, gizarte eraldaketan daukan erantzukizuna, laneko eraginkortasuna eta dibertsitatearen eta kritikaren onarpena. Horiek lantzeko, hiru bide osagarri finkatu dira: curriculumean eduki sozio-etikoak integratu dira, metodologiak aldatu dira eta bizitza unibertsitarioa curriculumean txertatu da.

Proiektuaren beste ardatz garrantzitsu bat **konpetentziek** osatzen dutenez, espezialitate ezberdinetako irakaslearen profil profesionala konpetentzien arabera definitu da. Lau konpetentzia-mota bereiztu nahi izan dira: *ezagutzeko konpetentzia*, *egiteko konpetentzia*, *partaidetzan aritzeko konpetentzia* eta *izateko konpetentzia*. Lau konpetentzia horiek Delors-en (1996) txostenean agertzen diren ezagutzekin lotuta daude: *ezagutzen jakitea*, *egiten jakitea*, *elkarbizitzen jakitea* eta *izaten jakitea*. Konpetentzia horiek guztiak espezifikokoak dira, hau da, irakasle batek, profesional eraginkorra izateko, garatu behar dituenak. Horiez gain, hainbat konpetentzia orokor definitu dira, gaur egun edozein lanpostutan aritzeko beharrezkoak direnak: talde lana, ikasten ikastea, komunikazio eraginkorra, lidergoa, arazoen ebazpena eta ikuspegi globala.



Bada euskal curriculumean azaltzen den bosgarren konpetentzia ere: *ekiten jakitea*, ez dago esplizituki definitua baina irakasleari eskatzen zaion zeregin batekin lotu daiteke: bere jardueraz hausnartzeko eta etengabeko hobekuntzak inplementatzeko eskatzen zaizkion konpetentziekin, alegia. Izan ere, “investigación en la acción” deritzan ikuspegiak bultzatzen dituen hobekuntza prozesuak; Latorre A. (2003), “ekiten prozesu” izenekoekin pareka daitezke, bertan azaltzen baitira euskal curriculumean azaltzen diren urratsak:

- Errealitateaz hausnartzea (arazoak identifikatzea)
- Irtenbideak aurkitu eta baloratzea
- Hobekuntza prozesuak martxan jartzea
- Hobekuntzen eragina ebaluatzea

Proiektuaren beste ardatz bat **eleaniztasuna** da; honekin esan nahi da ikasketek irauten duten bitartean ikasleek hiru hizkuntzatan jasoko dutela formazioa: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Euskara da curriculumeko hizkuntza nagusia, hezkuntza-bide garrantzitsua delako hizkuntza minorizatua normalizatzeko; era berean, euskara da Fakultateko komunikazio tresna. Gaztelaniari dagokionez, hizkuntza formala lantzen da, bera erabiltzerakoan eroso moldatzeko, erregistro hori eratzea ezinbestekoa delako. Hirugarren hizkuntza ingelesa da, egun hizkuntza hori oso erabilia bihurtu delako, bai informazio eta komunikazio esparruan, baita nazioartean ere.

Aurretik esandako guztiaz gain, **informazio eta komunikazio teknologiak (IKT)** aipatu behar dira. Teknologia horiek hiru modutan eragingo dute hezkuntza proiektuan: batetik, tresna moduan erabiliko dira, Fakultateko kideen arteko komunikazioa areagotzeko; bestetik, euskarri moduan erabiliko dira, ikaste-irakaste prozesuan edukiak lantzeko; hirugarrenik, irakasle eta ikasleei laguntza eta baliabideak eskaintzeko bitarteko bezala aurreikusten dira.

2.2. CURRICULUMAREN ANTOLAKETA

Ikaste-irakaste prozesua antolatzerakoan hainbat aldagai eduki behar dira kontuan, horietako batzuk edukien antolaketarekin lotuak: garatu nahi ditugun ezagutzak, ezagutza horiek antolatzeko ardatzak, edukiak sekuentziatzeko irizpideak; beste batzuk, ostera, ardatz metodologikoaren definizioari dagozkio: gelaren eta taldearen antolaketa, edukiak aurkezteko erak, etab

Curriculumaren antolaketari dagokionez, irakasle batek bere jarduera profesionalean aurkituko dituen erronkei erantzuteko unean diziplinarteko ikuspegitik jardun behar du, ezinbestez; beraz, curriculumak diziplinartekotasuna suspertu behar du formazio aldiaren hasieratik ikasleen artean kultura hori sendotzeko.


Irakasle ikasketetako curriculuma antolatzean, **diziplinartekotasuna** izan da ardatza. Beroni sarrera eman ahal izateko lau eremu finkatu dira: Hezkuntza eta Gizartea, Psikologia, Didaktika eta Komunikazioa eta Informazioa. Horietako bakoitzak galdera bati erantzungo dio. Lehendabizikoak honakoari: zein da eskolaren funtzioa eta zein



harreman mota du testuinguruarekin? Bigarrenak, honakoari: nola ikasten dute ikasleek? Hirugarrenak, honi: nola antola daiteke gelako jarduera? Laugarrenean, azkenik, bizitzan zein lanean beharrezkoak diren tresnak biltzen dira: hizkuntzak eta informazio eta komunikaziorako tresnak, horiek guztiak zeharkakoak direlarik, curriculumaren edozein esparrutan beharrezkoak izan daitezkeelako.

Horrez gain, curriculumak **kompetentzia** orokorrak biltzen ditu, edozein lanbidetarako behar direnak. Arestian aipatu dugun moduan, Mondragon Unibertsitateak honakoak aukeratu ditu: *ikasten ikastea, arazoan ebazpena, talde lana, ikuspegi globala, lidergoa, komunikazio eraginkorra eta arazoan ebazpena.*


Ikasketa plana



2.3. IKASTE-IRAKASTE PROZESUA

Gure eskolak behar dituen irakasleak nekez formatuko ditu klase magistraletan nagusiki oinarritzen den irakaste prozesuaz baliatuz; klase horietan, izan ere, hitza irakasleak du nagusiki, berak kudeatzen ditu ikaste-irakaste prozesuaren alderdi guztiak eta nekez suspertzen du ikasleen autonomia eta ikaste prozesuarekiko konpromisoa.

Hori dela eta, ikaste irakaste prozesuaren ardatz gisa ondoren azaltzen diren hiru metodologiak jarri dira martxan; gainera, agertzen dituzten zailtasunen eta eskatzen duten ikasleen autonomiaren araberako hurrenkeran garatu dira, ondoren azaltzen den bezala.



2.3.1. Eredu berria bultzatu nahi izan diren metodologia hauen elementu komunak

Metodologia bakoitzak berezitasun eta tresna propioak izanik, komunikazio honetan hiru metodologiaren oinarritzko printzipio komunak azpimarratuko ditugu

a) Formazio prozesua ikaslearengan oinarritzen da

Ikasleen aurrezagutzatik abiatzen den formazioa eta haiei ezagutza berria eraikitzen laguntzen dien formazioa. Irakasle eta ikaslearen rol aldaketa dakarren formazio eredu. Irakaslea, funtsean, transmisore eta informatzaile izatetik tutore, prozesuaren gidari bihurtzea eskatzen duena.

Ikaslea, prozesuan inplikatzeko protagonista bihurtu nahi izan dugu: informazio beharrak identifikatu, informazioak aurkitu, irtenbideak identifikatu, egokitasuna baloratu, besteekin elkartrukatzearen bidez.

b) Informazioaren elkartrukatzea (hausnarketa) talde txikietan

Talde lana sustatzen duten egoerak lehenesten dira, hausnarketara zuzendutako egoerak eta elkarlana bultzatzen duten estrategiak.

- Zer dakigu?
- Zer ikasi behar dugu?
- Zer ikasi dugu ?



c) Elaborazio eta ekoizpen proioak sustatzen dituen formazioa

Ikasketa sakona bermatu nahi badugu, irakasle izango diren ikasleek gai izan behar dute arazo konplexuen aurrean eman beharreko erantzunak eratzeko, era hausnartuan teoria eta praktika uztartuta. Horretarako irakaslearen azalpenak prozesuaren ardatza izatetik prozesuan sortzen diren ezagutza-premiei erantzuteko tresna izatera pasatu dira.

d) Arazoen ebazpenean eta hausnarketan oinarritutako formazioa

Gertakari baten kontaketatik, egoera baten deskribapenetik abiatzen da ikaste prozesua
Ikaste jarduerak arazoaren ebazpena zuzenduta doaz.

Irakasleen ikasketei dagokienez, garrantzitsua da praktika profesionala eta hausnarketa uztartzea eta, horretarako, moduluetan aztertutako egoerak eta azterketarako erabilitako irizpideak errealitate berrien azterketara eramatea ezinbestekoa da. Honenbestez, praktiken antolaketa formazio ikuspegi honetan kokatu nahi izan dugunez, horretarako formazio estrategi berriak erabili ditugu: praktikei zuzendutako kasuak eta proiektuen elaborazioa, alegia.

e) Diziplinartekotasuna: hainbat diziplina ezberdinek osaturiko moduluak

Aurreko ataletan azaldutako curriculuma moduluetan zehazten da: kurtsuan zehar ikasgaiaren kontzeptua desagertu egiten da eta moduluak, bere aldetik, ikaste prozesuaren ardatz bihurtzen dira. Modulu bakoitzean gune bereko ikasgaiak elkartzen dira eta, arlo ezberdinak elkar hartuta, arazotan oinarritutako ikaste prozesua diseinatzen da.

3. EUSKAL CURRICULUMAREN EKARPENAK MENDEBERRI PROIEKTUARI BEGIRA

HEZKUNTZA ETA GIZARTEA GUNEA ETA EUSKAL CURRICULUMA

Derrigorrezko Eskolaldirako euskal curriculumean MENDEBERRI Proiektuaren baitan HUHEZIK ezarri duen hezkuntza proiektuarekin **bat datozen bi ezaugarri hauek azpimarratzen ditugu:**

- Gizakia, gizartea eta naturaren arteko harreman sistemikoak abiapuntu harturik, pertsonaren garapen integrala helburu duen hezkuntza bultzatu nahi izatea
- Hezkuntza prozesuaren oinarri gisa errealitatearen ezagutza kritikoa hartzea eta, aldi berean, gizarte erantzukizuna lantzea.

Bi ezaugarri horiek mamitzeko eratu ditugun guneak *Eskola eta Gizartea* eta *Herritartasuna* moduluak dira, bereziki

Lehenengoak, gaur eguneko mundua ulertzeko baliabideak eskuratu eta hausnarketa kritikorako gaitasuna lantzeko aukera ematen du. Esan beharra dago, Gizakia-Gizarte bikotearen inguruko hausnarketan aurrera pausoak eman baditugu ere, erantzukizun sozialaren eta gizartea eraldatzearen ildotik, gizakia-gizartea-izadia hirukoteari buruzko gogoeta dugula datozen urteetako erronka nagusienetarikoa.



Herriartasuna izenburu duen moduluak kulturartekotasunaren gaia eta balore etikoen inguruko formazioa biltzen ditu. Hemen, berriz, bizi dugun gizarte aldaketa sakon eta azkarreko testuinguru honetan, aurrean daukagun erronka kulturartekotasuna eta euskal identitatea uztartzea izango da.

Bestalde, Euskal kulturaren adierazpenek, euskarekin lotutakoak ez direnek (dantza, artea, mitoak...) oso presentzia urria dute gure curriculumean; atal honi dagokionez zeregin handia daukagu, irakasleek euskal kulturaren transmisioan rol aktiboa izatea nahi badugu.

Horrekin batera, irakasleriaren formaziorako erreferente izan daitezkeen esperientzien inguruko argitalpenak euskaraz aurkitzeko dauden zailtasunak azpimarratu nahi ditugu.

4. ONDORIOAK, DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL CURRICULUMARI BEGIRAKO PROPOSAMENA

4.1. CURRICULUMEKO EDUKIEZ GAIN, CURRICULUM BERAREN ANTOLAKETA ALDATZEKO BEHARRA: ALDAKETAREN NORABIDEAK

4.1.1. Egituraketari dagokionez

Arloen nagusitasuna nabaria zen curriculum batetik diziplina ezberdinez osaturiko curriculum bateratura igarotzean.

Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma dokumentuan egiten den curriculum arloen proposamenak, nahiz eta egokia iruditu, **planteamendu ausartagoak egin behar lituzkeela uste dugu**. Izan ere, edukiak arloka banatzeak, errealitatearen zatiketa eta sinplifikazioa ekartzeaz gain, analisi globalak egiteko ohitura eragozten du.

Horretarako beharrezkoa da diziplinarteko guneak aurkitzea. Bide horretan euskal curriculumak erronka handiak ditu, bere proposamenean ez daudelako erabat zehaztuta hori aurrera eramateko orientabideak

4.1.2. Egituraketa eta sekuentziazioari dagokienez

Tradizionalki, diziplinaren logikan oinarritutako curriculumak geroz eta toki handiagoa utzi behar dio egoera konplexuen eta errealean ebazpenari begira egituratutako curriculum bati. Puntu honetan ez daude argi euskal curriculumak egindako hautuak

4.1.3.. Ebaluazioa

Ebaluatzeko irizpideek eta definitutako kompetentziek bat etorri behar dute; euskal curriculumean oso ongi definitzen dira irizpide hauek baina ez, ordea, ebaluatzeko moduak. Horregatik, oso garrantzitsua da ebaluazioaren funtzioak eta erak definitzea:



- . zer lehenetsi nahi da kontrola eta hobekuntzaren artean?
- . zer lehenetsi nahi da prozesua eta produktuaren artean?
- . zer neurri hartzen dira ikasleek ere ebaluazioan parte har dezaten?

4.2. EUSKAL CURRICULUMAK IRIZPIDE METODOLOGIKO ZEHATZAGOAK DEFINITU BEHAR

4.2.1. Metodologia aldaketa

Euskal curriculumean oso gutxi aipatu da alor hori; hona hemen garatu beharreko irizpideak:

- . Elkarlanerako estrategiak
- . Ikasleen autonomia garatzeko estrategiak.
- . Hausnarketa eta ezagutzaren eraikuntza bermatzeko estrategiak

4.3. EUSKAL CURRICULUMAREN EZARPEN EREDUA

Hausnarketa honekin bukatzeko, euskal curriculumak dokumentu edo asmo hutsa izatetik errealitate bilakatu bada, ikaste-irakaste prozesuko agenteak inplikatu behar dituela esango dugu. Horregatik, gure ustez, garrantzitsua da curriculumaren ezarpenean eredu partehartzailea bultzatzea, zeren eta hori errealitate bihurtuko da baldin eta irakasleok berreskuratzen badugu eta gureganatzen badugu, ez bestela. Horretarako, ezinbestekoa da eredu burokratikoak saihestea eta prozesuaren ardatzean irakasleen eta bestelako agenteen hausnarketa bultzatzea.

Sustatu nahi den eragileen arteko eztabaidak aipatutako arriskua ekiditeko bidea eskaintzen digu eta, era berean, esperientziak elkartrukatzeko eta elkarlanean ikasteko aukera paregabea ere.



5. BIBLIOGRAFIA

1. Arregi, X; Bilbatua, M. Sagasta P, (2004) Innovación curricular en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea: diseño e implementación del perfil profesional del Maestro de Educación Infantil. Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado 18 109-129
2. Delors, J (1999) “ *Hezkuntza: Altxor ezkutua*” Eusko Jaurlaritza . Gasteiz
3. Escudero Muñoz,J.M (1999). El curriculum, las reformas y la formación del profesorado. In Escudero (editorea) “ *Diseño, desarrollo e innovación del currículum*” Síntesis Educación Madrid
4. Latorre, A. (2003) “ *La investigación-acción*” Graó . Barcelona
5. Sagasta,P. Barandiaran A. (2003) Metodologia iraultzailea AOI . Argitaratu gabeko komunikazioa. Mondragon Unibertsitatea



EUSKAL CURRICULUMARI

euskal herriak bere eskolaren EKARPENA

Gasteizen, 2.006ko urtarrilaren 14ean
EHBERen Koordinazio Batzarrak onartua

A. SARRERA: EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA ETA EUSKAL CURRICULUMA

B. EUSKAL CURRICULUMA SORTZEKO PROZESUAREN AZTERKETA

C. “DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL CURRICULUMA” PROPOSAMENAREN AZTERKETA



A. SARRERA: EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA ETA EUSKAL CURRICULUMA

Aldarrikapen Taula

Hezkuntza sistema propioaren aldeko dinamika sozial iraunkorra bultzatzeko asmoz, ikasle, irakasle eta guraso talde batek Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimena sortu zuen 2002. urteko martxoan. Hurrengo urtean Zarautzen burututako Nazio Mintegi arrakastatsuetan, 200 bat lagunek hezkuntza sistema propioaren bidean une honetan funtsezkoak diren bost erronkak definitu zuten:

1. Haur eskola euskalduna, hezitzailea eta herritarra
2. Eskolak euskaldundu behar du
3. Euskal Curriculumuma
4. Lanbide eskola euskaraz
5. Euskal Unibertsitatea

EHBEn lana

Euskal Herriak Bere Eskolak aipatu bost aldarrikapenen aldeko dinamika soziala bultzatzeko ardura hartu zuen bere gain, horien artean, Euskal Curriculumumaren aldekoa. Hainbatetan adierazi dugun bezala, EHBEn lana ez datza Euskal Curriculumumaren sorrera eta garapenean, horretan ari dira duela hiru urtetik hona Udalbiltza, Sortzen-Ikasbatuaz eta Ikastolen Konfederazioa eta beste eragile batzuk eginbehar horretara lotu dira (besteak beste, EAEko Hezkuntza Saila).

EHBEn eginkizunak honako bi hauek dira: alde batetik, euskal curriculumuma zertan datzan azaldu eta horren garrantziaz kontzientzia sortzea, nola hezkuntza komunitatearen hala jendartean oro har; beste alde batetik, curriculum horren aplikaziorako testuinguru egokia lortzea, dauden oztopoak salatuz eta Euskal Curriculumumaren aldeko jarrera kolektiboa sustatuz.

Guretzat **Euskal Curriculumumaren diseinua** eta **horren aldeko dinamika soziala** aurrera egiteko **ezinbestekoak diren bi mailak** dira. Hankamotz geratuko litzateke bata bestea gabe. Izan ere, Euskal Curriculumumaren diseinua apalategi batean geratu daiteke, baldin eta hori aplikatzeko eta dauden oztopo politiko (Espainiako eta Frantziako curriculumen inposaketa) nahiz operatiboei (ikastetxeetan somatzen den mugimendu falta) aurre egiteko herri borondatea ez badago. Eta era berean, aldarrikapen soilean aritzeak egoeraren kontzientzia hartzea bai, baina egoera errotik aldatzeko aukerarik ez du ematen.

Guk uste dugu Euskal Curriculumuma ez litzatekeela errealitate bat izango, horren alde azken urteetan burutu diren aldarrikapen eta mobilizaziorik gabe: ikasle mugimendutik “eduki arrotzak” salatzeke egindako kanpainak eta ekintzak, Espainiako Humanitate Dekretuaren aurrean bere garaian egindako ekimenak...



Euskal Curriculumumaren aldeko ekimenak

Hasiera-hasieratik Euskal Herriak Bere Eskolak Euskal Curriculumumaren aldeko dinamika soziala garatzen saiatu da, honako ekintza hauen bidez saiatu ere:

- Euskal Herriko 2.000 mapa historikoa argitaratu. Horietako bi espainiar Gobernuak Gasteizen duen ordezkartzan eta Nafarroako Hezkuntza Sailean entregatu ziren, gure iragana eta oraina irakasteko/ikasteko eskubidea aldarrikatzeko.
- “Baina... zer da euskal curriculumaren kontu hori?” izenburuko liburuxka argitaratu.
- Euskal Curriculumumaren inguruko dozenaka tailer eman, hainbat herri nahiz ikastetxetan.
- “Bizitza ez da testuliburu bat” izenburuko liburuxka argitaratu.
- Espainiako argitaletxeak ez erabiltzeko deia egin: Edebé argitaletxearen Bilboko egoitzaren aurreko kontzentrazioa eta hainbat testulibururen itzulera Correos-en bidez Espainiako Hezkuntza Ministeriora.
- “Euskal Herriko emakumeen historiako 12 pasarte” izenburuko ikasturteko egutegia argitaratu.
- Euskal Curriculumuma aldarrikatzen duten kamixetak atera.

Euskal Curriculumuma Herriz Herri

Aipatutako ekintzen ildoan, baina askoz dimentsioago handiago batekin, aurrekaririk gabeko kanpaina burutu du Euskal Herriak Bere Eskolak ikasturte honetan: “Euskal Curriculumuma Herriz Herri”. Izan ere, desoreka handia zegoela ikusten genuen, alde batetik, Euskal Curriculumuma sortzeko prozesuak zeraman abiaduraren eta, beste alde batetik, ikastetxe nahiz herrietan zegoen kontzientzia eta parte hartze mailaren artean.

Urriaren 22an Tafallan hasi eta abenduaren 3an Durango amaitu bitartean, Euskal Curriculumuma irudikatzen zuen agiritegi handi bat ibili da herriz herri, Euskal Curriculumumaren beharra jendarteratzen eta martxan den egitasmoaren nondik norakoak zabaltzen. Hona hemen “Euskal Curriculumumak” igaro dituen herrien zerrenda: Tafalla, Irunberri, Iruñea, Altsasu, Gasteiz, Ordizia, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, Azpeitia, Leitza, Lesaka, Bera, Oiartzun, Baiona, Orereta, Hernani, Donostia, Zarautz, Orío, Getaria, Zumaia, Ondarroa, Lekeitio, Munitibar, Markina, Derio, Lezama, Algorta, Leioa, Bilbo, Barakaldo, Zalla, Amurrio, Audio eta Durango.

Herriz herri igaro ahala, herri jakintzak (herri bakoitzeko ikasleek ezagutu beharko lituzketen gauzak) islatzen zituzten kartulinak gehitu zaizkio agiritegi erraldoiari, besteak beste: martxoaren 3ko Gasteizeko gertakariak, Iruñeako Euskal Jai Pilotalekuaren historia, Oiartzungo Intxixuak (ihauterietako pertsonaiak), Bilboko Aste Nagusiaren sorrera, Leioako lamien inguruko kondaira, Egiako Ametsenea gaztetxearen ekarpena, euskaraz idatzitako hainbat libururen laburpenak, haur eskola ezberdinetako haurren hamarnaka marrazki, Barakaldo herriaren garapen soziala, Leitzako kirolari ezagunen ekarpenak, hezkuntzan eragin handia izan duten zenbait pertsonaia, Lea-Artibaiko hainbat artistek eginiko lanak, 1936.urteko Nafarroako fusilatuen oroimena berreskuratzeko argitaraturiko lana...



Era berean, “Euskal Curriculumaren” etorreraren aitzakian, ikasle, irakasle, guraso nahiz herri eragileei zuzenduriko saioak antolatu ditugu. Osotara 1200 lagun baino gehiagorekin bildu gara herriz herri eta ikastetxez ikastetxe eginiko 40 aurkezpen edo tailerretan. Ekimenaren amaieran, Durangon, ekitaldi arrakastatsua burutu genuen 200 lagun baino gehiagoren parte hartzearekin.

Honenbestez, esan dezakegu finkaturiko helburuak bete egin ditugula eta Euskal Curriculumaren inguruko kontzientzia handitzea lortu dugula.

Euskal Curriculumaren inguruko eztabaidaren aurrean

Urtarriletik ekainera bitartean Ikastolen Konfederazioak, Sortzen-Ikasbatuazek, Eskola Kristauek, EHIGEk, EAEko Hezkuntza Sailak eta bestelako hezkuntza eragilek babesturiko “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma” proposamena jarriko da eztabaidagai ikastetxeetan. Era berean, Udalbiltzak herri eragileen ekarpena biltzeko prozesua bururaino eramango du, urtarrilaren 28an Donostiako Kursaal aretoan jardunaldi publikoak antolatuz eta ondorioak liburu batean bilduz. Eztabaidaren momentua da, beraz, ahalik eta curriculum osatuena eta onena egiten saiatzeko momentua. Euskal Curriculumuma egongo da, zorionez. Orain gakoa da ea nolakoa izango den Euskal Curriculum hori. Eta, noski, behin Euskal Curriculumuma definituta, nola aplikatuko den ikastetxeetan.

Testuinguru honetan, Euskal Herriak Bere Eskolak uste du fase bat bete duela gai honekiko egin duen lanean eta beste fase berri bat ireki behar duela. Orain arte, Euskal Curriculumaren beharra mahai gaineratu, oinarrizko kontzeptuak argitu eta hezkuntza komunitatea nahiz gizartea motibatzeari eman diogu lehentasuna. Ez dugu Euskal Curriculumuma osatzeko prozesuaren inguruan nahiz egin den curriculum proposamenaren inguruan guk dugun iritzia eman. Hurrengo hilabeteetan, aldiz, eta orain arteko eginkizunekin jarraitzeko asmoa badugu ere, gure ikuspegi propioa plazaratzeari emango diogu lehentasuna. Alegia, Euskal Herriak Bere Eskolaren ustez Euskal Curriculumuma sortzeko prozesua nola garatu beharko litzatekeen eta Euskal Curriculumak nolakoa izan beharko lukeen adierazi nahi dugu eta iritzi hori defendatu hurrengo hilabeteetan egongo diren foro ezberdinetan: ikastetxez ikastetxe ematen ari den eztabaidan, batetik; eta herri eragileen ekarpena biltzeko Udalbiltzak daraman prozesuan, bestetik. Iritzi hori da, hain zuzen ere, txosten honetan azaltzen dena.



B. EUSKAL CURRICULUMA SORTZEKO PROZESUAREN AZTERKETA

1. ORAIN ARTEKO URRATSAK

2.001. urtean, Udalbiltzak, Euskal Herriko Curriculumuma eraikitzeak aukera aztertzeak erabakia hartu zuen, eta, horretarako, proiektua parti zezaketen hainbat hezkuntza eragilerekin jarri zen harremanetan. Harremanon testuinguruan, Ikastolen Konfederazioak “Ikastolen Curriculumaren Euskal Dimentsioa” izeneko egitasmoa aurkeztu zion Udalbiltzari. Bi eragileon arteko elkarlana bideratzeko aukera sortu eta gauzatu zen. Euskal Curriculumuma Proiektuaren diseinu komuna egiteko helburuz, bi aldean arteko harreman dinamika abian jarri zen. Harreman horietan, Udalbiltzak honako irizpide nagusi hauek mahai gainean jarri zituen:

- Curriculumaren euskal dimentsioaz gaindi, Euskal Herriko Curriculum proposamena eraikitzearen beharra; hots, Euskal Herritik sortu eta Euskal Herri osorako baliagarria izango den curriculum proposamena, horrela eskatzen duen edozein ikastetxeren esku jarriko dena.
- Euskal Herriko Curriculumuma osatzeko, prozesu parte hartzailearen beharra.
- Prozesu horren gidaritza lanetan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin batera, eremu publikoan Euskal Curriculumaren proiektuarekin bat egiten duen eskola-elkartearen beharra, Sortzen-Ikasbatuaz Elkartearena, alegia.
- Euskal Curriculumaren definizioa eta aplikazioa bereiztea.
- Euskal Curriculumaren definizioari dagokionez, estatuen derrigorrezko curriculumak alde batera uztea, eztabaida hori aplikazio uneari dagokion aldetik.

Hainbat bileraren ostean, Ikastolen Konfederazioak aipatu irizpideak aintzat hartu zituen. Era berean, Udalbiltzak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak aldeztu aurretik landuak zituen irizpide kultural eta pedagogikoak proiektuaren oinarriko abiapuntu gisa aintzat hartu zituen. Egoera horretan, eta finkatutako irizpideei jarraiki, Udalbiltzak, Ikastolen Konfederazioaren adostasunez, Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteari Euskal Curriculumaren Proiektuan parte hartzeko gonbitea luzatu zion. Planteatutako proiektu eta irizpideak Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteari ontzat hartu zituen, hiru aldean arteko bilkura dinamika berriari hasiera emanez. Dinamika horren bidez, Euskal Curriculumuma eraikitzeak egitasmoa hiru eragileek adostu zuten, 2.003.ko urtarrilean. Akordio horren arabera, Euskal Curriculumuma bost urratsetan gauzatu da.

1. urratsa: Egitasmoaren oinarri pedagogikoak eta lanaren metodologia zehazten duen txostena adostea.

2.003. urtean bertan adostasuna lortu zen, aipatu oinarriak “Euskal Curriculumuma: marko teorikoa eta plangintza estrategikoa” txostenean jasotzen direla.



2. urratsa: Kultur eta zientziaren arloan adituak direnen ekarpenak biltzea.

Lan horren ardura Ikastolen Konfederazioak hartu zuen, eta EAE-ko Hezkuntza Sailarekin hitzartutako diru-laguntza lortu zuen haren finantzaketari aurre egiteko. 2.004ko ekainean lanaren emaitza aipatu bi eragileok aurkeztu zuten, Donostian: “Euskal Curriculumuma: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena” izeneko liburua.

3. urratsa: Euskal irakaskuntzan diharduten irakasle adituek euskal curriculumaz egingo duten proposamen teknikoa biltzea.

Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuaz-ek lan hori gauzatzearen ardura hartu zuten, eta berau osatzeak beharrezkoa duen aniztasun eta adostasunari erantzuteko asmoz, zenbait hezkuntza eragilerekin (Eskola Kristauak, EIB, Euskal Haziak, Biga Bai...) eta EAeko Hezkuntza Sailarekin bi elkarteok akordioa lortu zuten. Lanaren emaitza 2005ko martxoan aurkeztu zen, Bilboko Euskalduna Jauregian, “Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumuma” izenburupean¹. Maiatzean, eremu publikoko hainbat eragilek (guraso elkarteak eta zuzendari elkarteak) prozesua nola garatzen ari zen kritikatu eta EAeko Hezkuntza Sailaren lidergoa eskatu zuten. Hala ere, tentsio horiek gainditu dira eta EHIGE (publikako guraso elkarten konfederazioa) prozesuan parte hartzea erabaki du.

4. urratsa: Hezkuntza erkidegoaren zein oro har herritargoaren parte hartzea ahalbidetu eta ekarpena biltzea.

Prozesuaren urrats honetan gaude. Alde batetik, lehen aipatutako eragileek eginiko “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma” proposamena eztabaidagai jarriko dute eskolaz eskola. Guraso, irakasle eta ikasleek proposamena baloratuko dute inkesta batzuen bidez. Horretaz gain, DBHko irakasleek jakintza arlo bakoitzean finkatzen diren edukiak baloratuko dituzte beste inkesta batzuen bidez. Inkesta guztiak bildu eta ondorioak aterako dira.

Beste alde batetik, Udalbiltzak herri eragileen ekarpena biltzeko ardura hartu du, horretarako 10 lan-eremu zehaztu eta dinamizatzaile talde bat osatuz. 320 eragileri informazioa bidali eta horietako askorekin zuzenean egon da bere iritziak jasotzeko. Urtarrilaren 28an, ondorioak plazaratzeko ihardunaldiak antolatu ditu, Donostiako Kursaal aretoan, eta horren ostean liburu batean bilduko ditu².

¹ “Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumuma” hiru hizkuntzetan banatu da, liburuxka laranja baten bidez. Liburuxka horretan curriculumaren diseinua eta egitura azaltzen dira, baina horrekin batera, badira hainbat txosten osagarri, jakintza arlo bakoitzean landu beharrekoa zehazten dutenak (argitaratzeaz daude). Proposamena www.euskalcurriculumuma.info eta www.euskalcurriculumuma.org helbideetan aurki daiteke.

² Nola prozesu osoaren berri izateko, hala herritarren ekarpena biltzeko prozesuan parte hartzeko, jo www.euskalcurriculumuma.info Udalbiltzaren web orrira.



5. urratsa: Jasotako ekarpenekin aberastutako txostena onestea.

Hala eskoletan nola jendartean jasotako ekarpenekin, azkeneko txostena osatu eta onartuko da, alegia, Euskal Curriculumuma onartuko da. Oraindik ez da zehaztu hau nola egingo den.

Bosgarren urrats honen ostean hasiko da benetako lana: Euskal Curriculumuma praktikan jartzea, egun dauden oztopo politikoei (espainiar eta frantziar curriculumen inposaketa) eta arazo operatiboei (eskoletan dagoen mugimendu apala) aurre eginez.

2. EGUNGO EGOERA

Euskal Curriculumumaren aferak aurrekaririk gabeko dimentsioa hartu du azken urteetan. Duela hiru urte Udalbiltzak, Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuazek prozesua martxan jarri zutenean asmo bat baino ez zen hura, errealitate bilakatzen ari da. Hezkuntza arloko eragile askok prozesuarekin bat egin dute, baita EAEko Hezkuntza Sailak ere.

Bestalde, Espainiako Estatuak LOE aprobatu berri du, EA eta PNVren aldeko botoekin eta UPNren kontrako botoekin. Lege horrek curriculumaren gaineko Estatuaren kontrola berresten du, edukien %55 beretzat gordetzen duelarik. Gainera, orain arte %55 hori Estatuak definitu zezakeen gehieneko kopurua zen bitartean, lege berriarekin gutxieneko kopuruan bilakatu da. Hurrengo hilabeteetan Espainiako Gobernuak bere curriculumaren zatia zehaztuko du eta EAEko nahiz NFKko Gobernuak curriculum dekretu berriak onartu beharko dituzte. Curriculum dekretu horietan, legez, Espainiako Gobernuak finkatutako %55 hori bere egin eta gainontzeko zatia osatu behar dute Gasteizko eta Iruñeko agintariek. Nafarroako Gobernuaren jarrerak ez du zalantzarako tarterik uzten curriculumaren aferan, Espainiako egokitzapena egingo du eta kitto (legearen beste arlo batzuetan, aldiz, irizpide propioak mantentzeko borondatea azaldu du, baina ez da PP-rekin guztiz lerratu). Zein izango da EAEko Gobernuaren jarrera?

Orain arte curriculumaren alorrean garatu duen politika oso eskasa eta kontraesankorra izan da. 2.003. urteko martxoan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleek Euskal Herriari nahiz Europari buruz dauzkaten ezagutzak neurtzeko egin zuen azterketaren emaitzak argigarriak izan ziren, baina argigarriagoa izan zen oraindik emaitza horiek publiko ez egiteko erabakia³. Udalbiltza, Ikastolen Konfederazioa eta Sortzen-Ikasbatuazek Euskal Curriculumuma sortzeko prozesua martxan

³ 2.219 ikaslek osatutako laginari, 100 item zeuzkan galdetegia erantzutea eskatu zitzaion. Ikerketaren emaitzak 2.003.eko maiatzean bildu ziren, baina emaitzok ez ziren publiko egin. Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak emaitzak biltzen dituen txostena eskuratzeko aukera izan du. Euskal Herriko ezagutzei dagokionez ikasleek ateratako batz besteko nota 4,1koa da. Ordea, Europako edukiei buruzko galderetan ateratako batz besteko nota 6,3koa da. Hau da, ikasleek Europaren inguruko ezagutzak hobeto menperatzen dituzte Euskal Herrikoak baino.



jarri zutelarik, Iztuetak erreakzionatu eta diruz lagundu zuen, bide batez argazkietan azaltzeko aukera baliatuz. Tontxu Camposek, aldiz, LOEk EAeko eskumenak zapaltzen zituela salatu zuen, besteak beste curriculumaren gaiari dagokionean, baina aldi berean EAko eta EAJko ordezkariak aipatu legearen aldeko bozka eman zuten. Badirudi, finean, Hezkuntza Sailaren asmoa honako hau dela: Estatuak finkatutako %55a aplikatzea eta beste %45a osatzeko Euskal Curriculumuma oinarritzat hartzea.

Testuinguru honetan, honako hau da **Euskal Herriak Bere Eskolaren JARRERA**:

1. **Euskal Curriculumak Euskal Herri osorako curriculuma behar du izan eta Euskal Herri osoko eragile eta instituzioen parte hartzeaz osatu beharra dago.**
2. **Beraz, ez da inolaz ere nahastu behar Euskal Curriculumuma eta EAeko Curriculumuma.**
3. **Euskal Curriculumak ez du aintzat hartu behar ez Espainiako estatuak ezta Frantziakoak ere finkatzen dituzten curriculumak. Euskaldunok nahi dugun curriculuma behar du izan.**
4. **Behin Euskal Curriculumuma definituta, aplikazioaren afera dator. Ildo honetan, aplikaziorako bi bide daude eta biak jorratu beharrekoak dira:**

4.1 Administrazio autonomikoen curriculum dekretuak (aukera hau, bistan da, ez da bideragarria Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoaren kasuan): EAek eta NFKk hezkuntza eskumenak dituzte. Horietaz baliatuz, Euskal Curriculumuma aplikatu beharko lukete, %100ean. EAek espainiar legediak onartzen dion %45 hori Euskal Curriculumaren arabera zehaztea aurrerapausu bat da egungo egoerarekin alderatuta. Baina guk ez diogu onartzen Espainiako estatuari curriculumaren %55a arautzeko eskubidea eta gure agintariei exigitzen diegu beren adierazpenekin koerenteak izateko eta estatuko irizpideak betetzeari uko egiteko.

4.2 Herri ekimena. Aukera hau da bideragarriena, zalantzarik gabe, Nafarroa Garaian nahiz Ipar Euskal Herrian, hauen kasuan ezin baitaiteke espero lege bidezko aplikaziorik, lehenengoaren kasuan Gobernu Euskal Curriculumaren aurkakoa delako eta bigarrenaren kasuan horrelako arautze bat egin lezakeen instituziorik ez dagoelako. EAeko Gobernuaren kasuan ere, pentsatzekoa da Estatuaren %55 hori aintzat hartuko duela eta beraz Euskal Curriculumuma bere osotasunean aplikatzeari uko egingo diola. Esan bezala, hori aurrerapausua litzateke, baina Euskal Curriculumaren aplikazioan haratago joan nahi duten ikastetxeei horretarako aukera eman behar zaie. Beraz, Euskal Herri osoari begira Euskal Curriculumuma aplikatzeko eta garatzeko planteamendua (berritzea, ebaluazioa, formazioa, baliabide pedagogikoak) egin beharra dago herri ekimenaren bidez: ikastolak, eskola publikoak, argitaletxeak, pedagogiaren alorrean dabilzan eragileak...



3. AURRERA BEGIRA

Hurrengo hilabetei begira, beraz, honako hiru ildo hauek izango genituzke:

1. **“Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma” proposamenaren inguruko eztabaida parte hartzailea bultzatu eta indartzea, beti ere aurretik aipatutako irizpideetan oinarrituta.** Curriculumuma funtsezko ardatza da hezkuntza ereduaren definizioan eta beraz hezkuntza komunitateko kide guztiek eta jendarteak oro har parte hartzeko aukera izan behar du. Gainera, gero eta parte hartze handiagoa izan, gero eta kontzientzia gehiago hartu, orduan eta oinarri hobetua jarriko dugu Euskal Curriculumumaren aplikazioari begira.
2. **Administrazio autonomikoak interpelatu egin behar ditugu estatuak finkatutako %55a aplikatzeari uko egin, Euskal Curriculumuma aintzat hartu eta beraz %100ean aplikatu dezaten. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoaren kasuan, curriculumuma aplikatzeko baliabide instituzionalik ez egotea salatu beharra dago.**
3. **Euskal Curriculumuma herri ekimenaren bidez aplikatu eta garatzeko estrategia antolatu beharra dago.** Esan bezala, ezin gara esperoan geratu ea administrazio autonomikoek zer egingo duten, lehen aipatu bezala Ipar Euskal Herrian instituziorik ez dagoelako, Nafarrokoa Euskal Curriculumumaren kontra dagoelako eta EAEkoak Espainiako curriculum irizpideak betetzeko bokazioa duelako eta beraz mugatuta dagoelako. Euskal Herriak Bere Eskolarentzat handi geratzen da eginkizun hau; gu beharra plazaratu nahi dugu, baina prozesua martxan jarri zutenei (Udalbiltza, Ikastolen Konfederazioa, Sortzen-Ikasbatuaz) nahiz pedagogiaren alorrean dabilzanean dagokie hori antolatzeko eskumena.



C. “DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL CURRICULUMA” PROPOSAMENAREN AZTERKETA

Azterketa hau “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma” oinarritzko txostenaren gainean eginda dago, eta beraz txosten hori irakurri ezean ez du zentzurik.

Euskal Herriak Bere Eskolan gauden kideok hezkuntzaren gaineko ikuspegi orokorra partekatzen dugu, baina afera zehatzetan (ikuspegi pedagogikoa, hezkuntzari loturiko gai zehatzak, Euskal Herriko egoeraren inguruko irakurketak) askotariko iritziak daude gure artean. Partekatzen dugun ikuspegi horren arabera eginda dago azterketa eta, bereziki, honako lau oinarri hauen arabera:

- Hezkuntza sistema eta curriculum propioa izateko eskubidea.
- Euskal Curriculumuma, biharko Euskal Herria eraikitzekeo tresna.
- Hezkuntzaren inguruko ikuspegi askatzailea.
- Hezkidetzari aitortzen diogun garrantzia.

Jarraian atalez atal joango gara, bereziki guk aldatuko genituzkeen elementuak aipatuz (uler dadila, beraz, aipatzen ez direnak begi onez ikusten ditugula oro har; bestelakoan balorazio guztiz negatiboa egiten dugula eman dezake eta). Osotara **13 aldaketa proposamen** aurkezten dugu.

0. SARRERA

0.1 Beharren azterketa

1 Europako Batasunaren diskurtsoa eta praktika

Euskal Curriculumerako “erreferentzia eremu” gisa bi txosten hautatu dira, Delorsen zuzendaritzapean egindakoa bata eta Liburu Zuria bezala bataiatutakoa bestea. Bi txosten horietatik aipatzen diren elementu batzuk interesgarriak eta positiboak dira (giza garapena lehenestea, bizitza osoko hezkuntza e.a.), nahiz eta Europako Batasunaren testu askok duten *handicap* berak harrapaturik diruditen. Hau da, diskurtso erakargarriak eraikitzen dira, praktika ez horren eredugarriak bultzatzen diren bitartean. Edo adibide batzuen bidez esatearren, ingurugiro hezkuntza proposatzen da, ingurugiroa hondatzen duten egitasmo erraldoiak bultzatzen diren bitartean; edo kultur aniztasunaren garrantzia aipatzen da, herriak aitortzen ez dituen Konstituzioa aprobaten den aldi berean. Kontraesan hau esplizituki aipatu ezean, egungo europar eraikuntzako kontraesan horretan bertan jauziko ginatke gu ere.



2 Jacques Delors eta Paulo Freire

Bestalde, eta Hezkuntzaren Xedea ataleko balorazioan luze eta zabal azaltzen dugun bezala, “erreferentzia eremuan” ere eraldaketaren kontzeptua eta hezkuntzaren ikuspegi askatzailea azpimarratzea beharrezkoa iruditzen zaigu. Nolabait esateko, Delorsen iturritik ezezik, Freireren iturritik ere edatea eta esplizituki horrela aldarrikatzea proposatzen dugu.

3 Euskal Herriko beharren azterketa

Amaitzeko, Euskal Herriari buruz egiten den kokapena laburregia dela iruditzen zaigu. Eta ez genuke hau aipatuko, testu osoa irakurri ostean honako zalantza hau geratu izan ez balitzagu: hezkuntzaren xedeaz hitz egiten da, hezkuntza kompetentziak aipatzen dira, baina gaur eta hemen dauzkagun premiekin lotuta al daude? Hau da, zein da Euskal Curriculumaren xedea hurrengo hamar urteetan, zeintzuk dira Euskal Herrian ditugun erronkak hurrengo hamar urteetan? Galdera honi (eta erantzunei, noski) ez zaio behar bezalako pisua ematen testuan eta ondorioz gure errealitate zehatzarekin zerikusirik gutxi duen eraikuntza teoriko baten antza hartzen du. Adibideetan ere aurki dezakegu deskontestualizazio arazo hau. Esaterako, atal honetan bertan mugaz gaindiko harreman instituzionalei buruz hitz egiten denean, ez da Udalbiltzari buruzko aipamenik egiten, mugaz gaindiko berezko instituzionalizazioaren adibide, edo beste arlo batzuetan eman diren esperientziei buruz.

0.2 Esparru kontzeptuala

4 Kulturaren definizioa eta ondare kulturalaren kritika

Egokia iruditzen zaigu, euskal kultura definitzeko orduan, J.M. Barandiaranen ikuspegia oinarritzat hartzea: *Herri baten kultura, giza obra bat bezala agertzen zaigu, bere egitura zeinu desberdinetako hainbat piezaz eratua egongo balitz bezala alegia. Gure kasu honetan, eguneroko bizitzak planteaturiko oinarritzko arazoei Euskal Herriak ematen dizkien soluzioen multzoa litzateke.*

Barandiaranek zazpi oinarritzko arazo aipatzen du:

1. Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna?
2. Nola babestuko naiz?
3. Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere materialak eta indarrak neure zerbitzura jartzea?



4. Nola lortuko dut neure antzekoen laguntza eta nola antolatu gizarte-bizitza?
5. Nola komunikatuko naiz neure antzekoekin?
6. Nola egingo ditut atsegin eta gustukoak zaizkidan gauzak?
7. Nor naiz ni, zer da gizakia, zein da bere xedea?

Barandiaranen definizioa malgua eta inklusiboa delakoan gaude. Modu dinamiko batean ulertzen zuen kultura. Garai eta egoera ezberdinetan herri batek bizitzeko sortutako corpus dinamikoa, egoera eta garai ezberdinetan eguneroko oinarritzko arazoei erantzun ezberdin bat dagokielarik.

Ildo horretan, guk ondare kulturala kritikoki aztertzekeo beharra azpimarratu beharko litzatekeela uste dugu. Izan ere, ondare kultural hori sortzerakoan desberdintasun nabariak eta bidegabeak egon dira. Kultura giza obra da, bai; baina, pertsona guztiek ez dute aukera berdinak izan giza obra horretan parte hartzeko. Gizonak zer esan handiagoa izan du emakumeak baino, aberatsak eragin handiagoa herritar xumeak baino. Eta, beraz, **ondare kulturalaren azterketa kritikoa bi ikuspegi horiek kontutan hartuz egin beharko dugu: alde batetik, genero ikuspegia; eta beste alde batetik, herri ikuspegia.**

5 Kulturaren aspektu instrumentala eta etikoa

Bestalde, Barandiarenen definizioak hainbat zalantza sortzen dizkigu ikuspegiari dagokionez. Ataundarrak **NOLA** galdekizuna du oinarri; ikuspegi instrumentala, hain zuzen ere. Berak planteatzen duen hirugarren galderan ikuspegi hau bere gordintasun guztiarekin azaltzen da (*nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere materialak eta indarrak **neure zerbitzura** jartzea?*). Kutsu menperatzailea eta liberala dario galdera honi. Gizakia eta naturaren apurketa, zatiketa, aldentzea, modu natural batean planteatzen du, ama lurra gure nahietara moldatu daitekeen elementua izango balitz bezala! Azken urte hauetan mundu zabaleran zehar emandako fenomeno natural lazgarri eta basatiak argi adierazten dute gure jarrera menperatzaile eta berekoiak ondorio larriak dituela eta klima aldaketa jarrera honen ondorio zuzena dela.

Bizitzea tokatu zaigun garai honetan, ikuspegi instrumental-teknologikoa hein handi batean gainditutaa dagoelakoan gaude. Izan ere, azken hamarkadetan *aurrerapen* itzelak bizi izan ditugu alor teknologikoari dagokionez. Alta, **egungo arazoa ez da NOLA egin hau edo bestea, baizik eta hartutako erabakiak zein ondorio dituen aurreikustea**. Izan ere, ondorioak ez baditugu hausnartzen geure bukaera diseinatzen ariko gara. **Beraz, NOLA galdegaiarekin batera ZERTARAKO eta ZEIN ONDORIO galdegaiak ere kontutan izan behar direlakoan gaude**. Etorbizunean, bidean eginiko akatsak ez errepikatzeko eta etorkizun osasuntsua eraikitzeko.



6

Euskal Curriculumaren osagaiez

Curriculum proposamenak zera dio pasarte batean: *Euskal Curriculumuma egiteko, elkar ukitzen duten eta osmosian dauden elementu edo unibertso hauek integratzea proposatzen dugu: euskara eta euskal kultur a espezifikoa (euskal curriculum espezifikoa), gainerakoen ardatza; Euskal Herrian ukipenean ditugun hizkuntzak eta kulturak; curriculum ofizialetako derrigorrezkoak; Europakoak; eta unibertsalak.*

Ez gaude inolaz ere ados curriculum ofizialak (hau da, Espainiako eta Frantziako curriculumak) Euskal Curriculumaren baitan kokatzearekin. Hainbatetan aipatu dugun bezala, **Euskal Curriculumuma, definizioz, Euskal Herrian egiten dugun planteamendu pedagogiko-politiko da, guk NAHI duguna.** Kontua da, zoritxarrez, ez dugula hezkuntza sistema propiorik eta ondorioz Espainiako nahiz Frantziako legediak indarrean daudela eta ondorioz beraien curriculumak derrigorrezkoak direla. Eztabaidatu beharko dugu, beraz, nola egiten dugun Euskal Curriculumuma aplikatzeko, zein jarrera hartzen dugun curriculum ofizialen aurrean e.a. Baina inolaz ere ezin daitekeena egin, Euskal Curriculumaren definizioan bertan estatuen curriculumak barneratzea da. Gainera, definizio hori txostenean azaltzen diren beste definizioekin kontraesanean dago gutziz eta beraz ez du inolako zentzurik han azaltzea.

Bide batez, iruditu zaigu proposamenean zehar Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemen inposaketaren gaia sahiestu nahi dela, agian polemikoa izan daitekeelako. Esaterako, diziplina arloei buruz hitz egiten denean (4.2 puntuan): *Euskal Curriculumaren proposamenean, curriculum diziplina arloen arabera antolatzea erabaki da. Hori al da aukerarik onena? Ba al daude aukera hobek, eta hezkuntzaren helburuekin eta funtzioekin koherenteagoak direnak? Gai hori, zalantzarik gabe, oso eztabaidagarria eta eztabaidatua da (...) Esan daiteke hezkuntza sistemak eta zerbitzuek diziplina arloen arabera funtzionatzen dutela. Zaila da curriculumaren antolaketa ardatza aldatzea (...) Proposamenak Espainiako eta Frantziako Estatuetakoko curriculum ofizialen enborrharekin bateragarria izan nahi du.* Hemen zera esan beharko litzateke: Euskal Herrian hezkuntza sistema propioa ez dugunez, ezin dugu erabaki jakintza arloak mantentzea ala ez, horrela finkatuta dagoelako Espainiako eta Frantziako hezkuntza legeetan. Eta horrela amaitu beharko litzateke: *Proposamena Espainiako eta Frantziako curriculum ofizialen enborrharekin bateragarria izatea **beste aukerarik ez dugu momentuz.***

0.3 Proiektuaren faseak eta parte hartzaileak



1. CURRÍCULUM DISEINUA

1.1 Oinarriak eta ezaugarriak

7 Izaera askatzailea

Hezkuntzaren xedearen atalean arrazoituko dugun moduan, **curriculumaren izaera askatzailea azpimarratu beharra dago**. Irudimena, utopia, justizia, aldarrikatu beharreko kontzeptuak dira. Horregatik, izaera hezitzailea dioen atalaren ondoren, atal berria jarriko genuke guk, honen antzeko testu batekin:

Izaera askatzailea

Hezkuntzak herritarrei baliabideak eman behar dizkiela esaten dugunean, ez gara soilik egungo errealitatean ahalik eta hobekien moldatzeko beharrezkoak izango dituen baliabideak emateaz ari. Aitzitik, hezkuntzaren xedeak haratago joan behar du, pertsonari “ez dagoen errealitatea” edo utopia sortzeko beharrezkoak dituen baliabideak emanez. Hezkuntza eta curriculum askatzaile batek, ezinbestean, gizartea aldatzeko proposamena dauka bere baitan, hezkuntzaren bidez gizarte bidezkoago bat eraiki daitekeenaren uste positiboa. Gure herriaren kasuan, biharko Euskal Herria eraikitzeaz ari gara: herritar eleanitzez osatutako lurraldea, identitate anitzak dituzten herritarrez osatutako herria, pertsona ororen eskubideak eta aukera berdintasuna bermatuko duen bidezko jendartea.

8 Izaera hezkidetzala

Proposamen osoan zehar ez da apenas hezkidetzala aipatzen eta ez dira arlo honetan egin diren aurrerapenak jasotzen. Guk uste dugu curriculumaren ezaugarriak aipatzen diren momentu beretik, beste atal guztien erredakziora, gai hau oso presente izan beharra dagoela:

Izaera hezkidetzala

Hezkuntza Sistema, sozializatorako oinarritzko bitartekoa da, eta jendarte eredu birsortzeko baino, eraldakuntzarako bitartekoa izan behar du, hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzailea. Honenbestez, pertsona aske eta integralak hezi eta sexuen arteko parekidetasunaren alde egin behar du: batetik, ezberdintasun sozialak gaindituz; eta bestetik, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatuz. Hezkuntza sistemak, finean, parekidetasunean oinarritutako Euskal Herria sortzen lagundu behar du.



1.2 Curriculum diseinuaren eskema

Eskema (Hezkuntzaren xedeak, konpetentziak eta jakintza arloak) egokia iruditzen zaigu.

2. HEZKUNTZAREN XEDEA

9 Hezkuntzaren xedea, errealitatearen eraldaketa

Jakin badakigu Hezkuntzaren Teoriaren historian hezkuntzaren inguruko hamaika definizio egin direla, zein baino zein borobilagoa. Era berean, horrelako kontzeptuen gaineko eztabaida amaiezina izan daitekeela ohartzen gara. Alabaina, hezkuntzaren xedearen definizioa oso afera garrantzitsua da, handik aurrera hasten baita egituratzen hezkuntza eredua.

Hona hemen Euskal Curriculum proposamenean hezkuntzaren xedez agertzen den definizioa: *gizakia gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatzea da.*

Definizio honetan oso interesgarriak diren bi elementu dakusagu:

1. Gaitasunen garapena da hezkuntzaren xedea, ez ezagutza jakin batzuk buruz ikastea.
2. Hiru dimentsioak kontutan hartu behar dira: norbanakoa, gizartea eta izadia.

Alabaina, **definizio horri hirugarren hanka bat falta zaiola uste dugu eta hanka hori ezinbestekoa dela uste dugu, gainera: ERALDAKETAREN kontzeptua**. Izan ere, eraldaketaren hanka gabe, hezkuntzaren eginkizuna dagoen errealitatean ahalik eta ongien moldatuko diren pertsonak hezitza murriztuko litzateke.

Guretzat okerra den ideia hori bera iradokitzen da 0. SARRERA puntuan, Euskal Curriculumaren proposamenari buruz ari denean: *hezkuntza proiektuaren planteamendua hobetzeko plataforma izan behar du, euskal gizartearen, gizarte europarraren eta gizarte unibertsalaren beharretara egokitzeko eta ikasleek emaitza onak lortzea sustatzeko.*

Baita 0.1 Beharren azterketa puntuan ere, *Euskal Curriculumean European integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreaginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren konpetentziak ere sartu behar direla* esaten denean.

Edota 1.1 Oinarriak eta ezaugarriak puntuan: *helburua, beraz, ez da soilik eremu akademikoko eta profesionalerako konpetentzietan heztea, gizarte batean bizitzeak eragingo dizkion arazoei eta gaiei erantzuten jakingo duen hiritar gisa aritzeko konpetentzia horiek guztiak landuko dituen heziketa ematea* baizik.

Honenbestez, azaltzen den definizioa oso konformista eta kontserbadorea iruditzen zaigu. Interpretazioak interpretazio, hezkuntzari ez zaio izaera askatzaile edo emanzipatzailea aitortzen. Badirudi bere funtzioa ikaslea egungo gizartean, sistema politiko, ekonomiko eta sozialean, ahalik eta hobekien moldatzeko prestatzea dela, egungo sistemaren gabeziak, injustiziak, kalteak... kolokan jarri gabe. Orain arte bezala, objektu papera emanez eta historiaren subjektu izateko eskubidea oztopatuz.

Gu ez gaude horrekin ados. Gure ustez, hezkuntza kultur transmisiorako tresna izateaz gain, pertsona kritikoagoak izaten, geure buruaren jabe izaten lagundu behar gaitu. Hezkuntzak askatzailea izan behar du eta ez menperatzailea. Hezkuntza



sozialki eraikitako errealitatea izaki, curriculumaren bidez errealitate horietaz jabetzea lortu behar da, modu horretan gizartea eraldatzeko gaitasuna izango baitugu. Gizaki aske eta autonomoak hezi behar ditugu, ideia faltsu zein komunikazio modu distortsionatuetatik emantzipatutako pertsonak.

Modernitatearen aro honetara iritsi garenean, tren laster bat ageri zaigu, globalitarismoa, mundu zabalaren neurriak etxalde bihurtu nahi dituen tren lasterra. Tren geldiezina, baina norabidez aldatu beharrekoa. Herri gisa egituratu ezean, ekonomiaren globalitarismoak, industria kultural multinazionalak eta berregituraketa geopolitikoak irentsiko gaitu eredu kultural homogeneoaren *tsunamian*. Beste mundu bat posible delako lelotik beste mundu eredu batera igaro behar dugu, eta Euskal Curriculumak ere beste mundu hori sortzeko ekarpena izan behar du.

Definizio alternatibo bat eman beharko bagenu, honakoa emango genuke: **Hezkuntzaren xedea gizakiari errealitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, gizartekide gisa eta izadikide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatu dezan.**

Definizio honek hezkuntzaren eta errealitatearen arteko kontraesana (errealitatean balore jakin batzuk nagusitzen diren bitartean, bidezkoagoak diren balore batzuen arabera nola hezitu) askatzen duelakoan gaude. Gizakiak ahalik eta gaitasun gehien garatu ahal izateko, gizartea bera aldatu beharra dago eta. Gehitzen ditugun elementuei buruz, zehaztapen hauek egin nahi ditugu:

- Errealitatea aipatzen dugunean, egungo errealitateaz gain, errealitate historikoaz eta etorkizunekoaz ere ari gara. Alegia, hezkuntza prozesua honako hiru galdera hauen gaineko hausnarketa etengabea oinarritu behar da:
 - Nondik gatoz?
 - Nor gara?
 - Nora goaz? Eta nora joan NAHI dugu? (Freireren utopia beharrezkoa)

Ez dago hiru galdera horien inguruko erantzun bateratua ematerik; ez dago guztiontzako baliagarria den definizioa emateko modurik. Baina, gainera, ez dago horretarako beharrik ere. Izan ere, hezkuntzaren funtzioa ez da galdera horiekiko erantzunak ikasleei ematea, baizik eta ikasleekin batera galdera horien gaineko hausnarketa egitea. Hau da, hezkuntza sistemak galderak egin behar ditu eta galdera horiei dagokionez zientzia eta kultur ondarea aurkeztu behar die ikasleei, baina galderekiko erantzunak ikasleek berauek bilatu eta aurkitu behar dituzte. Azken batean, belaunaldi bakoitzak errealitatea berrasmatu behar du.

- Errealitatea *kontzienteki* ulertzearena apropos jarri dugu. Kontzeptu horrekin, kritikotasunaren elementua azpimarratu nahi dugu, alegia, errealitatean ontzat ematen ditugun elementuak eta aldatu beharrezkotzat jotzen ditugunak bereizteko gaitasuna.

Definizioa hobetzen jarrita, guk beste hiru aldaketa egingo genuke:

- *Gizakia* kontzeptua (singularrean), *herritarrak* kontzeptuarekin (pluralean) ordezkatu. Izan ere, pluralaren erabilerak hobeto islatzen du hezkuntza prozesua kolektiboa dela eta herritar kontzeptuaren erabilera herri



ikuspegiari erreferentzia egiten dio. Ildo berean, *gizartekide* kontzeptuaren ordez, *herrikide* kontzeptua ere erabili daiteke.

- *Ahalik eta gaitasun gehien garatzea* esaldiaren ordez, *osoki garatzea* jarriko genuke. Lehenengo esaldian badirudi afera kuantitatiboa dela (ahalik eta gehien) eta egia da hezkuntza prozesu intentsiboago batek gaitasun gehiago garatzen lagundu dezakeela. Alabaina, guk uste dugu elementu kualitatiboari eman behar diogula garrantzia, hau da, pertsona integral bezala garatzea, pertsona aske eta zorionsua (*osoki* hitzaren ordez *integralki* jar liteke).
- Amaitzeko, zentzuzkoa litzateke hezkuntzaren xedea Euskal Herrian kokatzea, azken batean Euskal Curriculumuma zehazten ari baikara, eta ez hezkuntzaren gaineko hausnarketa orokor bat burutzen. Definizioa Euskal Herrian kokatzerakoan, beste konnotazio batzuk hartzen ditu berehala.

Modu honetan geratuko litzateke, beraz, definizioa:

Euskal hezkuntzaren xedea herritarrei errealitatea kontzienteki ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, gizabanako gisa, herrikide gisa eta izadikide gisa osoki edo integralki garatu daitezten.

10 Hezkuntzaren xedea: biharko Euskal Herria sortu

Hezkuntzaren xedea nazio ikuspegitik erabat hankamotz geratzen dela iruditzen zaigu. Gogora dezagun zer aipatzen den atal honetan.

“Oinarrizko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak, espainiarra edo frantziarra sentitzeak bezalaxe, ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrazlea”. Formulazio hau defentsiban egina dagoela uste dugu, hau da, euskal abertzaletasunari egin zaizkion kritika bidegabeen (bidegabeak, besteak beste, espainiarra eta frantziarra izatea inposatzen zaigulako gaur egun eta hori bai dela bazterrazlea) eraginpean egina dagoela.

“Gure ustez, euskararen eta euskal kulturaren inguruan egituratutako erreferentzia komun eta partekatuen barruan, pertsona bakoitzak eraiki behar du identitate propioa, indibidualizazio prozesu baten bidez, eta, prozesu horretan, hainbat identitate aukeren arteko lehentasunak aukeratuko du”. Pertsona bakoitzak bere identitatea hautatzen duela eta hautatu behar duela ontzat emanda ere, formulazio honek errealitate gordina ezkututzen du: espainiar eta frantziar identitatea inposatzen zaigula gaur egun, eta euskal identitatea garatzeko aukerak murrizak direla.

Atal osoa irakurrita, badirudi kezka nagusia horixe dela, identitatearen hautaketa norberaren esku dagoela argi uztea. Eta berriro diogu, hori egia bada ere, kezka nagusiak beste bat izan beharko luke: nola eraikitzen dugun, gaurko egoeratik abiatuta, biharko Euskal Herria. Herritar eleanitzez osatutako Euskal Herria euskalduna; herritar “identitate-anitzez” osatutako Herria; pertsona ororen eskubideetan eta aukera berdintasunean oinarritutako bidezko jendarte. Kontzeptu horiek (Euskal Herria euskalduna, Herria, bidezko jendarte) ez dira ageri eta guretzat gutziz funtsezkoak dira Euskal Curriculumuma definitzeko orduan.



3. HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK

3.1 Oinarrizko kompetentzia giltzak derrigorrezko eskolaldian Europako eremuan

11 **Konpetenteak, zertarako?**

Proposamenen esaten den bezala, ezagutza jakin batzuk barneratzea baino, konpetentzia batzuk eskuratzea izan behar du hezkuntza prozesuaren funtsa. Baina, zertarako behar ditugu konpetentzia horiek? Berrero ere, lehenengo lelo bera errepikatu behar dugu: egungo errealitatea ulertu eta errealitate berriak sortzeko behar ditugu. Bestela, zirkuito arriskutsu batean sartuko ginateke: dagoen errealitatean ahalik eta hobekien moldatzeko konpetentziak eskuratzea baldin bada kontua, argi dago egungo gizartean gaitasun jakin batzuk dituzten eta balio-eskala jakin baten arabera jokatzeko duten gizabanakoek “arrakasta” gehiago daukatela (eta ez al da horixe Bologna prozesuan unibertsitateen eta pertsonen artean aldarrikatzen den lehiakortasunaren eredu?). Baina, guretzat gizartearen baitako lehiakortasun hori eta balio-eskala hori bidezkoa ez baldin bada, argi dago, kasu horretan, gizon edo emakume arrakastatsuek hezitza baino, gizartearen funtzionamonde bidegabeekin eta nagusi den balio-eskalarekin hautsi eta bidezkoagoak diren beste balore batzuen arabera jokatzeko duten (gaitasun edo konpetentzia hori daukaten) pertsonak hezitu beharko ditugula. Beraz, eraldaketaren ikuspegia, aldaketa sozialaren beharra, errealitate berrien sorrera, aldarrikatu beharreko kontzeptuak dira guretzako, konpetentzien planteamenduari estuki loturik.

3.2 Konpetentzia orokorrak Euskal Herriko eta Europako unibertsitateetan

12 **Bolognako Deklarazioaz eta Tuning proiektuaz**

Bi erreferentzia hauek aldarrikatzen dira hezkuntza konpetentzien planteamenduaren berritasuna eta egokitasuna justifikatzeko. Baina bi erreferentzia horiek txosten honetan aipatu ditugun bi gabezi berberak dauzkate: batetik, diskurtso eta praktikaren arteko kontraesana (balore aurrerakoiak aldarrikatzen dira, interes ekonomikoetan oinarritutako prozesuak janzteko); bestetik, hezkuntzaren eta hezkuntza konpetentzien gaineko ikuspegi ez askatzailea (egungo gizarte globalizatuan eta bide batez lan merkatuan ahalik eta eraginkorrenak izango diren pertsonak hezitzea). Aipamen hauen desegokitasuna areagotu egiten da, European nahiz Euskal Herrian bertan Bologna prozesuaren inguruan entzuten hasi diren iritzi kritikoak kontutan hartzen baditugu.



3.3 Hezkuntza konpetentzia orokorrak Euskal Curriculumean

Konpetentziak bost atal horien arabera antolatzea egokia iruditzen zaigu. Edukiari dagokionez, konpetentzien txostena argitaratzen denean horren inguruko gehigarria gehituko diogu balorazio honi, guretzat konpetentzien definizioak funtsezko garrantzia dauka eta.

4. CURRICULUM ARLOAK

4.1 Curriculumaren antolaketa gure inguruko herrialdeetan

4.2 Diziplina arloen proposamena Euskal Curriculumean

Oro har egokia iruditzen zaigu jakintza arloei buruz egiten den hausnarketa nahiz proposamen zehatza, kasu batean izan ezik.

13 Mundu ikuskerak eta Elijioak

Jakintza arlo hau horrela izendatzeak ez da egokia. Izan ere, bigarren kontzeptua (erlijioak) lehenengoaren barruan sartzen da (mundu ikuskerak), eta beraz ez da zertan nabarmendu behar: mundu ikuskera batzuk erlijiosoak dira eta beste batzuk ez, baina erlijiosoak ez diren horiek ere ez dira zertan nabarmendu behar izenburuan (esaterako, Mundu ikuskerak, ateismoa eta erlijioak; edo Mundu ikuskerak, zientzia eta erlijioa).

Bestalde, “mundu ikuskerak” adierazteko bada aspalditik kontzeptu ezin egokiagoa: Filosofia. Filosofia, ontologiaz (zer den errealitatea), epistemologiaz (nola ezagutzen dugun) eta etikaz (nola jokatu beharko genukeen) aritzen den diziplina da. Hiru auzi horien inguruan ikuspegi ezberdinak daude, esan bezala batzuk erlijiosoak dira eta historian izugarritzko eragina izan dute (erlijio monoteistak, politeistak, animistak), eta beste batzuk ez (zientzia positibista, materialismo historikoa, esistentzialismo jakin bat, nihilismoa...).

Beraz, zergatik aipatu nahi da, izenburuan bertan, “erlijioak”? Ikuspegi erlijiosoarekiko kritikoak direnen errezeloa piztu dezake eta erlijioa bai/erlijioa ez (bere aldaera ezberdinetan, esaterako: erlijioaren historia bai/ba orduan, zientziaren historia bai edo marxismoaren historia bai e.a.) eztabaida askotan demagogikoa elikatu. Aldiz, ez dio ekarpenik egiten benetako mamiari, alegia, jakintza arloaren definizioari. Horregatik, guk “Filosofia” izendapenaren aldekoak gara.

